

1936ko gerraren ubera Orion

Gerra bat barruan degula

Iñaki Iturain Azpiroz



1936ko gerraren ubera Orion

Gerra bat barruan degula



Iñaki Iturain Azpiroz

©Orioko Udala. Kultura Batzordea
Laguntzailea?
Ale Kopurua:
Edizioaren arduraduna:
Diseinua eta Maketazioa: Eva García
Lege Gordailua:
ISBN:
Inprimatzailea:
2014ko urria

Isiltasuna hausteko

Gazteok ez genuen gerra eta gerra-ostea ezagutu. Xehetasun gutxi kontatu dizkigute: herritarrak itsasontzietan ihesi joan zirela, baserrian taloaz aparteko jateko gutxi zegoela, plazako etxeetan dauden pitzadurak zubia bota zutenekoak ote diren, lagunaren aitona frankista zela... Kontxako estropadak urtez urte eta tostaz tosta kontatu dizkigute, baina gerrak isiltasuna izan du atzetik. Joseba Tapiaren kantuek eta telebistako dokumentalek hautsi dute isiltasuna.

Aitortu behar dizuet gaia lantzeari beldur handi samarra niola. Zalantza handia sortzen zidan gerraren ondorioak bizi izan dituztenei galdezka hasteak. Baina gehienetan eragin baltsamikoa izan duela iruditu zait. Aidanez, urtetan sufrimendua etxe-ko sukaldetik atera gabe gorde duten familiek kontatu beharra zuten. Denborak lasaitzen du nahigabea, baina berekin du betiko ahanzturan gelditzeko arriskua. Herri txikian dena jakiten baita, baina herri txikian ez da ezer galdetzen.

Herriz herri gaia lantzen ari dira. Eskertzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza, proiektua landu eta kontakizunak argia ikus dezan. Orioko Udalean alderdi politiko guztiak bat etorri gara egitasmoa onartu eta laguntzeko. Lana gauzatzeko, herrian bilatu du langile fina. Bilketa lan handia egin du Iñaki Iturainek. Dokumentuak eta argazkiak udal artxiboan geldituko dira, hori zen ikerketa lanaren helburuetako bat. Kontakizunak transmisio lana egingo du. Baloraziorik eta epairik gabea, adjetibo gutxikoa da errelatoa. Baleko izango al da isiltasuna hausteko!

Jon Agirresarobe Torrotxo (kultura zinegotzia)

Hitzaurrea

Gazte eta sasoiko, etorkizunari adarretatik heltzeko gogoz. Halaxe harrapatu zuen 36ko gerrak gure Zarauzko aitona. Iparraldera egin ihes zuen eta bertan denboraldi-txoa eginda, gauzak ustez lasaitu zirenean, herrirako bidea hartu zuen (harakoan, Orioko kalabozoan gaua egin behar izan omen zuen). Etxera itzuli eta pixkatera, bere burua boluntario aurkeztu behar izan zuen eta nazionalen alde gerrara joan. Kasik hiru urte egin zituen bertan, etxetik kanpo. Tirorik bota behar ez izanak bizitza osorako lasaitu zion gogoia. Bere anaia, berriz, gorputzean bala zuela itzuli zen etxera.

Gure aitonaren istorioa garaiko beste gazte askorena da. Gure etxean sarritan entzun izan ditugu gerrako eta hura bukatu ondorengo gertakizunak, ez baitugu gai tabua izan. Seguruenera, gogorak izanagatik ere, ez zirelako beste zenbaitenak bezain latzak izan. Gosea bizi izan zuten, erbestea, behar gorria... baina ez zuten senitartekorik galdu edo kontzentrazio esparrurik ezagutu.

Gauza nabarmena da 36ko gerra hura bukatu zenetik urte asko joan direla. Ez hainbeste ordea, gerra hura irabazi zutenek ezarritako diktadura bukatu zenetik. Erregimen zaharrak iraun zuen denboran irabazleen historia laudatu zuen soilik, eta isiltasun erabatekoa inposatu galtzaileei, memoriarako eskubidea ukatuz; isiltasun garratzean bizi behar izan zuten hainbat eta hainbat urtez. Diktadura itzali ondoren ere, beharbada beldurrak jota, beharbada gogoia ahiturik zutelako, garai hura zuzenean bizi izandako askok ez zuten hartaz hitz egiteko gogorik erakutsi.

Esaerak dio etxeko sua etxeko hautsez estali behar dela. Baina ondo itzaltzen ez den errautsa berpiztu egiten da, ondo sendatutako zauria zornatzen den moduan. Eta gerrako kontu zahar haiek ere bai, ez baitira etxeko kontu huts, herri osoarenak baik. Horregatik da hain beharrezko memoria berreskuratzea.

Libururako kontakizunak biltzean, malko dezente ikusi du idazleak jendearen aurpegietan. Batzuek ez dute hitz egin nahi izan, beharbada esperientzia latzegiak bizi, gustuko ez zirenak egin, edo egindakoez lotsatu egiten zirelako. Dena dela, gogoan izan behar dugu beti, bakoitzaren aurrekoek egindakoen erantzukizunik ez duela inork, ez guk ez besteek.

Gerra zuzenean bizi izan zutenen belaunaldia itzaltzen ari zaigun honetan, gerraz lasai hitz egin dezagun guk, hura bizi izan ez genuenok. Ez galtzaileak laudatzeko, haiei justizia egiteko bazik. Era berean, memoria egin dezagun historiaren ikuspegi mugatua (gaizkileak vs. ongileak) geure gogoetatik ezabatzeko.

Ausartuko nintzateke esatera horixe dela liburu honen baliorik handiena: batzuen eta besteen artean bereizkeriarik ez egitea.

Imanol Manterola Agirrezabalaga

Eskaintza

Gerra etorri zitzaienei eskainia da liburu hau, gerra hura sufritu zuten guztiei; baina, bereziki, gerrak herritik betiko eraman zizkigunoi: Jose Manuel, Alejandro, Jacinto, Prudencio, Juan, Bonifacio, Juan Antonio, Jose Mari, Jose, Jose Maria, Jose Lorenzo, Jose, Ascensio, Jose Francisco, Domingo, Ramon, Ambrosio, Ignacio, Jose Maria, Candido, Antonio, Felipe, Francisco, Jose Maria, Juan, Jose Mari, Francisco, Roger, Simon, Teodoro, Elicio, Valeriano, Cosme, Julian, Gabino eta Antonio.

*Gure inguruko hildako horiek guztiak, non lurperatu, ez bada hizkuntzan?
(Adonis)*

Tiroak entzun ziren herrian.

—Betikoak! —esan zuten alde batekoek.

—Betikoak! —esan zuten beste aldekoek.

Begi bistakoa zen gerra bat hasi zela, gerra deitzen zioten atzerriko hedabide eta buruzagiek.

—Iraultza! —deitzen zioten, ordea, alde batekoek.

—Gurutzada! —deitzen zioten, ordea, beste aldekoek.

Halako batean, bukatu zen gerra.

—Gora! —oihu egin zuten batzuek.

Besteak isilik zeuden beren hilobietan,
kartzeletan, bizitza publikoan,
bentzutuen eguneroko bizitza abailduan.

Anjel Lertxundiren 'Paper festa' liburutik hartutako aipuak (9. eta 10. orrialdeetan).

Aurkibidea

ATARIKOAK

Sarrera	8
Hitzaurrea	8
Eskaintza	

1.- TROPA FAXISTAK SARTU ARTEKOAK

Orio, Espainiako bigarren errepublika garaian	8
Euskal kulturaren berpizkundea	8
Mola jeneralaren tropak Gipuzkoa kostaldetik okupatzen	8
“Orio y Zarauz para España”	8
Gezuraren erabilera gerran: “Mila hildako Orion!”	8
Zubiak dinamitaz eraitsi zituzten	8

2.-TROPAK SARTU ONDORENGOAK

Orioko egoera politiko berria	8
Udal berria	8
Alkatearen dimisioa eta aldaketak	8
Udal langileen garbiketa ideologikoa	8
Joakin Aldabe eta Eugenio Lasa, kale gorrian	8
UGTko Ignacio Barjacoba ere errudun	8
Zenbait herritarren ondasunak konfiskatuta	8
Herriko kaleen izen-aldaketa	8
Udala eta euskal kultura	8
Herritarrei buruzko informeak	
Arin y Embil´ fabrikako nagusien gaineko informe politikoa	8
Ideologia politikoari buruzko agiriak	8

3.-GERRAKO ISTORIOAK

Gizonezko gazteak gerrara derrigortuta	8
Orioko Erreketea	8
Errepublikaren eta Euskal Gobernuaren alde ibilitako oriotarrak	8
Gerra-kontseiluan epaitutakoak	8
Herritik kanpo bizi ziren oriotarren kontrako epaiketak	8
Errepresioaren bideak herrian	8
Teodoro Mitxelena, fusilatu eta Getarian lurperatua	8
Francisco Cazon, bide bazterrean tiroz hila	8
Orioko gaina, jendea fusilatzeko tokia	8
Josepa Tolosak Gregorio Zaldua bere gizonari bizia salbatu zion	8

Narciso Aierdi atxilotuta	8
Alejandro Zaldua, Oriotik Eibarrera eta Saikolara	8
Jose Maria Carmona, fusilatua Ondarretako kartzelan	8
Gerra-frontean hildako mutil gazteak	8
Jose Manuel Dorronsoro eusko gudaria, Asturiasen hila	8
Lizaso Eizmendi anaiak, Errenteriako gudari oriotarrak	8
Felipe Aierbe mikeletoa Bilbon fusilatu zuten	8
Jacinto Agote eusko gudaria	8
Aizperro, Xuai eta Aldapeko mutilak Ebroko batailan erori ziren	8
Arruti eta Arostegi, `Valle de los Caidos´-en hilobiratuak	8
Jose Arruabarrenaren eskutitza gerra-frontetik	8
Migel Olasagasti `Marrota´ren gerra-ibilerak	8
Jose Luis Fernandez, gerrako sukaldaria	8
Anbrosio Uranga, itsasoan betiko	8
Lau baserriko mutilak, `Virgen de Iciar´ gerra-ontzian	8
Serapio Gametxo, Eusko Itsas Gudarostean	8
San Juan baporea, Pasaian konfiskatuta	8
Antonio Ibargoien Iribar, etxean hila, granada batek lehertuta	8

4.- KANPORA BEHARTUTAKOAK

Oriotar asko itsasoz Donibane Lohitzunera	8
Oribarzarreko Makazaga anaiak	8
Juan Erzilla herriko alkatea ere atzerrira	8
Aiako alkatea Hernanin fusilatua: Gabino Alustiza	8
Vitorio Azkue bizirik, Bilboko kartzela-barkuko tiroketatik	8
Modesto Fernandez Korta Ingalaterrara	8
Señorita Rita maistra	8
Sabina Galar, `Señorita Sabina´	8
Tolosako `Junta Carlista de guerra´ren zirkularra	8
Maria Maestraren Goiko Kaleko eskola	8
Daniel Esnal, enpresari eta bake-epaile	8
Karmele Esnal andereñoa	8
Orioko apaizak	8
Joakin Arostegi apaiza Iparraldera	8
Fabian Loidi apaiz abertzalea	8
Gabriel Loidi, bi kartzelaldi	8
Inazio Sarasua, Berlineko Joko Olinpikoetarako bidean	8
Manuel Salsamendi, Ferru, Frantziara	8
Genovatarrak Kataluniara	8
Luis Trekuren odisea Frantzian	8
Lertxundi Genova familia, Argentinara	8

5.- GERRA BUKAERA

Soldadu errepublikarrak eta Orioko neskak	8
Udalak antolatutako ospakizunak gerra-garaian	8
Gerra bukatu, 1939ko apirilaren 1ean	8
Festa, gerra bukaeragatik	8
Estropadetako banderen gorabeherak	8
Jose Mari Solaberrieta gudari preso Madriletik Euskal Herrira	8
Conde Ciano eta Franco Oriotik barrena	8
Erretzabal baserriko kontuak	8

6.-GERRA ONDORENEKOAK

Frantziako Gurs-eko kontzentrazio-eremuan 8 oriotar preso	8
Gerra ondoko gosea	8
Herritarren kontrako epaiketak Iruñean	8
Causa General, gorrien ustezko gehiegikeriak zigortzeko	8
´División Azul´-ean Errusiara	8
Estraperloa, Fiscalia eta herriko istorioak	8
1941eko omenaldia herriko karlista zaharrei	8
Falangisten kanpamentua Oribarzarren	8
Xuai gaineko kanpamentu militarra	8
Remigio Lertxundiren zigorra	8
Udaletxeko ikurrina, ezkutura	8
Franco, Orioko Ohorezko Alkate 2008 arte	8

7.- INFORMAZIO ITURRIAK

1936ko gerraren kronologia	8
Gerraren biktimak	8
Dokumentuak	8
Lekukoak	8
Bibliografia	8
Argazkiak	8



**Tropa faxistak
sartu artekoak**

Orio, Espainiako bigarren errepublika garaian

1 930eko erroldaren arabera, 1.926 herritar zeuden Orion (2.065, 1940koan). `Auñamendi´ entziklopediatik ateratako datuen arabera: 1931ko ekainaren 14an, Errepublika eratu eta aste gutxitara, Orioko Udalak baietz esan zion Euskal Estatutuari. Esteban Azkue zinegotziak ordezkatu zuen Orioko herria Lizarrako Batzarrean. Gipuzkoa osotik bi udalerrik bakarrik bozkatu zuten estatutu haren kontra: Ibarra eta Zarautz. Zarautzarren ordezkari Marcelino Manterola karlista izan zen. Manterolak emandako botoa berak ordezkatzeko Udalak agindutakoaren kontrakoa izan zen eta, herrira itzulita, istiluak izan zituen. Berak zioen urduri jarri zela eta horregatik izan zela. Orduko EAJko gazteek ia-ia lintxatu egin omen zuten. Gabino Alustiza alkatea izan zen Aiako herriaren ordezkaria.

Errepublika garaiko herriaren egoera politikoa ezagutzeko argigarria izan daiteke garaiko hauteskundearen emaitzak aztertzea.

1931ko apirilaren 15eko Euzkadi egunkariak aurreko igandean, apirilak 12, izandako udal hauteskundeetan Orion zinegotzi ateratako 9 gizonen izenak zekartzan: Juan Erzilla, Ramon Loidi, Domingo Karrera, Esteban Azkue, Jose Maria Arrillaga, Ignacio Manterola, Ramon Salsamendi, Juan Jose Iturain eta Ramon Uranga. Lehenengo zortziak independente moduan ageri dira; Ramon Uranga, berriz, nazionalista: Erzilla aukeratu zuten alkate.

ESPAINIAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (1931/06/28)	
HAUTAGAIA	BOTOAK
Leizaola (PNV)	355
Pildain (katoliko-fuerista)	334
Urquijo (Comunion tradizionalista)	355
Picavea (katoliko-fuerista)	354
Gárate (ANV)	49
De Francisco (PSOE)	48
Usabiaga (Partido Republicano Radical)	48
Amilibia (Partido Republicano Radical)	46
Urgoiti (errepublikazale disidentea)	2
Boto zuriak	2

ESPAINIAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (1933/11/19)	
HAUTAGAIA	BOTOAK
Leizaola (PNV)	758
Monzón (PNV)	569
Irujo (PNV)	575
Irazusta (PNV)	571
Picavea (PNV)	555
Maeztu (Renovación española)	74
Urraca (Comunión tradicionalista)	74
Paguaga (Comunión tradicionalista)	74
Telleria (Comunión tradicionalista)	74
Bestelakoak	206

1932ko ekainaren 19an Iruñeko Gaiarre antzokian, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herrietako alkateak elkartu ziren, lau probintzientzako Euskal Estatutua erabakitzeko. Eta 1933ko azaroaren 3an, estatutu haren erreferendumean, Orioko herriak honako erantzun hau eman zuten: 1.057 hautesleetatik 972k aldeko botoa eman zuten. Hala ere, estatutu hura ez zen aurrera atera, Nafarroako emaitzak ez zuten horretarako bide eman.

1936ko hauteskundeetan EAJ-PNV izan zen partidu bozkatuena, 536 botorekin; koalizio kontra-iraultzaileak 234 izan zituen, eta 'Frente Popular' koalizioak, 97 ('Gerra zibila Gipuzkoan, 1936' liburuaren arabera). EAJ-PNV zen orduko Orion antolaketa politiko handiena zuena. Batzokia Txokolateneko etxeko sotoan zuen, Aritzaga kaleko 13an.

Gerra hasi aurreko hilabeteetan giro politikoa, Orion ere, ez zen oso lasaia. Horren froga da 1936an Orioko Udalean egon zen alkate-dantza. Urtarrilaren 4an egin zuen Orioko Udalak urteko lehen udalbatzarra. Orduan Juan Jose Iturain zegoen alkate. Urtariletik maiatzera bitartean, zenbait gorabehera eta liskar izan ziren zinegotzien artean. Martxoaren 9ko udalbatzarren aktaren arabera, Juan Jose Iturainek bi egun lehenago sinatutako idatzi baten berri eman zuten, zeinaren bidez alkate kargua uzten zuten, ez zitzaizolako egoki iruditzen alkate segitzea gutxiengoan egonda. Bozketan eginda, Juan Erzilla aukeratu zuten. Maiatzaren 5eko udalbatzarren aktan, Erzilla agertzen da alkate.

Baina Erzillak ere ez zuen asko iraun bere alkate-arduran: maiatzaren 26ko udalbatzan Esteban Azkue ageri da alkate-orde moduan, udalbatzaren presidente (Teniente-Presidente, aktan); ekainaren 2an, berriz, Ramon Loidi da Orioko alkatea (Alcalde-Presidente). Uztailaren 18an, militarrek matxinatu zirenean, Ramon Loidi zen alkatea, eta honako hauek zinegotziak: Esteban Azkue, Jose Maria Arrillaga, Inazio Manterola eta Ramon Salsamendi, eta udal idazkari, Santiago Azurza.

ESPAINIAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK (1936/02/16) ???

HAUTAGAIA	BOTOAK
Irujo (PNV)	544
Monzón (PNV)	417
Irazusta (PNV)	408
Lasarte (PNV)	398
Picavea (eskuindar independentea)	378
Oreja (Comunión Tradicionalista)	258
Paguaga (Comunión Tradicionalista)	225
Lojendio (CEDA)	228
Múgica (Renovación española)	223
Bestelakoak	---

Orioko udalbatza, 1914-1915.



"...

en las graves circunstancias en que por la rebelión militar que ha estallado, se encuentra el país, es un problema la disponibilidad de la gasolina, tan necesaria en la vida moderna, y habiendo un único depósito surtidor en la villa, al mismo acuden innumerables vehículos de tránsito con el consiguiente peligro de agotar las existencias; y para evitar este hecho propuso que el ayuntamiento haga la incautación de dicho surtidor, recogiendo su llave, que se conservará en el ayuntamiento a disposición del Frente Popular, el que controlará y facilitará las autorizaciones para aprovisionamiento a los coches de la expresada gasolina, a fin de evitar que los servicios a este vecindario puedan quedar desatendidos.

Esta proposición de la Alcaldía fue aprobada unánimemente por todos los Sres Concejales."

Uztailaren 24an, ordurako gerra hasita zegoela, ez-ohiko batzarra egin zuen Orioko Udalak. Gai bakarria izan zuen batzarrak: herriko gasolina-hornigailua konfiskatzea Frente Popularrarentzat, alegia orduko gobernu legitimoarentzat. Honelaxe zioen Ramon Loidi buru zuen batzarraren aktak:

Huraxe izan zen Orioko Udalak hartutako azken erabakia, herrian matxinatuak sartu eta Udal berria osatu aurretik. Gerra hasita, militar matxinoak nagusitu ez ziren zonan, Errepublikaren aldeko defentsa-batzordeak eratu ziren, herriz herri. Errepublikaren defentsarako Orioko komisarian hiru gizonok bete zuten buruzagitza: Ulpiano Peña, Agustin Rekondo eta Jose Benito Lertxundik.

Antxon Agirre Sorondo historialariaren *'Orio, oro hori'* liburuan ondoko pasartea dator garai hartaz: *"Gerra piztu zenean, uztailan, krisi ekonomikoa oso larria zen eta gizartean ezinegon handia zegoen. Egoera hori Orion ere antzematen zen: 1936ko apirilean, egur-industriako 50 langileek astean lau egunetan baino ez zuten lanik egiten; jutea txirikordatzen eta ehuntzen aritzen ziren 25 langileek, zazpi egunetik hirutan bakarrik; eta 200 arrantzaleak urtean 180 egunetan baino ez ziren itsasora atera.*

Egoera horri aurre egiteko, Udalak herri-lan politika ezarri zuen: eskolak konpondu (100.000 pezetako aurrekontua), nekazaritza-eskola konpondu (50.000 pezeta), edateko ur-hodiak aldatu (15.000 pta.), hiltegi berria (25.000 pta.), moilak konpondu (50.000 pta.), plazarako bidea konpondu (8.000 pta.). Baina ez zen lan bakar bat ere gauzatu, dirurik ez zegoelako." Gauzatu zen ia lan bakarria izan zen herriko frontoiaren frontisa berritzea, Tolosatik ekarritako harriekin.

Etenda geratu zen beste obra bat erriorearen barrakoa izan zen. 1936ko urte hartan Orioko Udala harremanetan ibili zen Madrileko Korteetan diputatu zegoen EAJko Manuel Irujo nafarrarekin. Diputatuak interes eta ardura handia erakutsi zuen Orioko barrako arazo historiko eta endemikoari konponbidea emateko. Honela zioen Orioko Udalaren 1936ko ekainaren 16ko aktak:

"El ayuntamiento acordó ver con mucho gusto el interés que el diputado señor Irujo demuestra en el asunto del arreglo del puerto y de la barra en la desembocadura, que tanto interesa a esta villa, y que conste en acta su voto de gracias para el mismo. El señor alcalde le envió un telegrama de agradecimiento en nombre de todo el pueblo."

Egoera politikoa nahasia izanagatik, seguru asko herritarren eguneroko bizimoduan ez zitzaion asko antzemango. Gerra hasi zen egunaren biharamunean, uztailaren 19an (igan-dea), Oriotik karrera ziklista bat pasatzekoa zen, uztailaren 14an batzorde antolatzaileak Aiako udaletxera bidalitako telegrama batek azaltzen duenez:

Tenemos el gusto de participarle, que el Excmo. Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa ha autorizado a esta comisión la organización de una carrera ciclista que se celebrará el próximo domingo día 19.

El recorrido y horario probable de la prueba será el siguiente: Salida en Añorga (9:30)- Usurbil (9:40)- Orio (9:55)- Aya (10:20)- Asteasu (10:50)- Villabona (11:00)- Andoain (11:10)- Urnieta (11:20)- Hernani (11:30) y Añorga (11:35).

Lo que ponemos en su conocimiento por si juzga conveniente establecer algún servicio de orden al paso de los corredores por esa Villa.

El Presidente José M^a Rezola

Baina uztailaren 18an gerra hasi zuten militarrek, eta ez dakigu oriotarrek karrera ziklistara hura herritik pasatzen ikusi ote zuten. Pentsatzekoa da ezetz, beste gauza asko bezala, lasterketa hura ere etenda geratu zela.



Niceto Alcalá-Zamora Espainiako Errepublikako presidentek Zarautza egindako bisitaren egunean, 1932ko irailak 13, Oriotik pasatu zenean, lekuko batek dioenez, autotik jaitsi eta hitz batzuk egin zizkien oriotarrei. Ezkerreko balkoitik, zintzilik, ikurrina ikus daiteke; pankartan: ongi etorri.

Euskal kulturaren berpizkundea

Gerra aurreko urte haietan Euskal Herrian mugimendu indartsu bat eratu zen euskal kulturaren eta euskararen alde, 'euskal berpizkundea' izendatu zutena. Mugimendu hura euskal abertzaletasunari lotua etorri zen. Orion ere indar handia hartzen ari zen euskal abertzaletasuna. EAJk batzokia jarria zuen herrian eta han zenbait kultur ekintza bultzatzen hasia zen: dantzari txikiak, igandeetan orduko zine mutuaren emanaldiak izaten ziren (Joaquin Aldabek antolatuta), hitzaldiak... Eusko Alderdi Jeltzalea gero eta afiliatu gehiago ari zen bereganatzen. Haren inguruan, abertzaletasuna eta, pixkanaka, euskara idatzia ere tokia egiten hasiak ziren herrian.



Orioko luistarrak, Joaquin Loidi apaizarekin Gernikako Juntetxean, 1930 inguruan.

1940ko abuztuaren 22an hil zen Orion Iñaki Segurola Etxaide, bost urteko haurra. Haur hura 1935ean jaioa zen, gerra hasi aurretik. Bera izango zen, noski, Orioko azken Iñaki, Franco hil zen arte. Berrogei eta gehiago urtez galera-zita egon zen haurrei euskal izena jartzea. Hoa kaleko 2an bizi ziren Migel eta Maria gurasoek Iñaki izendatu eta bataiatu zuten, horrelaxe agertzen da 1940ko elizako heriotza-agirian.

Bigarren Errepublika eratu zenetik, erakunde ofizialak pixkana hasiak ziren euskal kulturaren aldeko politikak egiten, diru pixka bat jartzen.

Horren froga dugu Eusko Pizkundek 1936ko ekainaren 5ean Aiako alkateari bidalitako telegrama:

Acusamos a Ud. recibido su acta. Comunicación fecha 30 de Mayo agradeciéndoles el acuerdo de subvencionar las emisiones euskericas con la cantidad anual de 15 pesetas.

Por la Comisión de Radiodifusión euskerica de Eusko-Pizkundea.

Jose Y de Lizaso

Euskal kulturaren berpizkundearen agerpen nabarmena da 1930eko abuztuaren 10ean Orioko plazan Bittor Enbil pilotari oriotarrari Iparraldeko pilotari adiskideek, Enbilek errebotte pilota-jokoaren alde egindako lan handia eskertzeko, eskaini zioten omenaldia. Jende asko etorri zen ekitaldira Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoatik. Lehen-lehenik meza entzun zuten, elizkizunean apaizak euskaldunon kirol nazionalaren ontasun guztiak gorai patu zituen. Ondoren, harlauza bat bistaratu zuten Bittorren jaiotetxearen aurreko paretan, elizarako aldapakoan. Harria hantxe da oraindik ere eta bertan honako bertsoa irakur daiteke:

*Orioko txoriak, Orion laketzen
ez da maiz ohantzetik kanporat elkitzen
Embilek bazakien hargatik airatzen
pilotarat bazuten nunbeitik galdetzen
Euskal Herrian orai pilota da phizten
phizleari diogu harri hau altchatzen.*

Bittor Enbil, herritarrez inguratuta, 1930eko abuztuaren 10ean, Iparraldeko pilotariak Orion egin zioten omenaldian.



Balkoitik hitz hunkigarriak egin zituzten hainbat hizlarik: Iparraldeko pilotarien presidente Jean Ibarnegaraik, Espainiako pilota-federazio buru Andres Peñak eta beste hainbatek. Garaiko pilotari on guztiak bildu ziren Orion. Hitzaldien ondoren, traineru-estropada jokatu zen erriean, plaza aurrean. Ondoren, banketea plazan bertan, hirurehun bat bazkaltiar. Postretan berriro hitz goxoak, topa...


Otorduko bazkal-gaiak euskara hutsean azaltzen ziren txarteletan, euskara purista ulergaitzean idatzita:

Zizka-mizka, ugolua Balentzi-erara, legatz oriotarra, oilasko errea mami goxoak, igaliak, Naparroako ardo beltza, bertako sagardoa, akeita eta edari biziak (9 laurleko).



Liburu honek ondo azaltzen du nazionalak Oriu hartu zutenekoa.

Herriko sarrera, 1940 urtean. Argazkia soldadu alemanek egina da.



Orioko kasuan, irailaren 20an (igandea) falangistek eta erreketek hartu zuten herria. Matxinatuen talde bat sartu zen, Latorre teniente koronelaren agindupean. Baina tropa errepublikarrek lau egun lehenago hustu egin zuten Oriu, irailaren 16an. Herrian oso kalte gutxi izan zen, nahiz eta bi zubiak leherrarazi zituzten ihesaldia babesteko: errio gainekoa eta trenbidekoa. Aizperro baserriko Kontxi Eizagirrek esan zigunez, San Martin ermitaren ondoko etxea bomba batek eraitsi zuen eta halaxe gelditu zen gaur egun zutik dagoen pareta bakarra.

Luis Irastorza Itxaspek oraindik gogoan du nola nazionalak herrian sartu ziren egunean milizianoak tiroka aritu zitzaizkien barraren beste aldetik, Amesti Menditik, Itxaspe aldetik hondartzara jaisten ari ziren matxinoei.

Mendibeltz mendian kanoi bat izan zuten miliziano errepublikarrek Mendizorrotz aldera begira, handik zetozen matxinatuei tiro egiteko prest. Patxi Oliden Danbolinek gogoan du beste kanoi batzuk Garmendigain izeneko muinoan egon zirela, San Martin ermitaren aurrean, Igeldo aldetik zetozen urdinei aurre egiten.

Aldape baserriko Juanito Arrutik, orduan 14 urteko mutikoa, gogoan du milizianoek San Martin ermitan kokatu zutela haien kuartel nagusia, eta 1936ko irail hasierako egun batean Dolores Ibarurri 'La Pasionaria' izan zutela baserrian. Gosaltzen izan ziren, baratxuri zopa eta taloa eman zitzaaien. Gorriek bandera ere jarri omen zuten zintzilik baserrian. Haien agintariak pistola ere eskaini zion Aldapeko nagusiari, defenditzeko-edo, honek ez zuen onartu. San Martin inguruan jarri zuten defentsa-lerroa eraikitzen ere ibili ziren inguruko baserrietako gizonak, hondartzatik gurdietan hondarra ekarri eta zakutan sartuta hesiak jasotzen ibili ziren.

Pedro Barrusoren 'La guerra civil en Gipuzkoa' liburuan honela azaltzen da egun haie-tako borrokaldia:

“El segundo eje de progresión diseñado por Solchaga discurre paralelo a la costa guipuzcoana y su objetivo es desbordar la línea nacionalista por el norte. Las operaciones correrán a cargo de la Columna Iruretagoyena, formada por las antiguas de Cayuela y Latorre. A la primera de ellas le corresponde el ataque a la línea defensiva establecida por los nacionalistas y pasar del valle del Oria al del Urola. A Latorre se le encomienda el avance por la carretera de la costa, ocupando las diversas localidades.

El día 15 comienza la ofensiva. Latorre ocupa Mendizorrotz, que se había convertido en el extremo norte de la línea de frente y Cayuela ataca el monte Andatza, acción que le cuesta tres muertos y 32 heridos. El Andatza es finalmente ocupado al día siguiente.

El día 18, tras una serie de reconocimientos sobre la Venta de Zárate, Cayuela concentra sus tropas en Zizurkil y Asteasu. El objetivo es atacar las posiciones de Santa Marina, y el monte Irumuño por la carretera, de manera que pudieran avanzar los carros de la columna, y flanquear la venta de Zárate, principal posición de la línea defensiva. Ese día la partida Barandalla ocupa Pagoeta partiendo desde Asteasu, y tal como señala el diario de operaciones, queda adscrita al grupo de Cayuela con la misión de atacar el monte Irumuño. El día 19, coinci-

diendo con el ataque de la Columna Los Arcos al sector occidental del frente, se ocupa Santa Marina en un asalto que cuesta 19 bajas, y se establecen posiciones en las laderas del Irumuño. El 20 es desbordada la línea al ser abandonadas las posiciones defensivas. La razón puede estar en el hundimiento del sector central del frente, y ante la posibilidad de quedar cercados los milicianos optan por retirarse. En la explotación de la operación, Latorre ocupa Aya y Barandalla el monte Pagoeta, estableciendo el contacto entre ambos grupos. Mientras esto ocurría, Latorre, descendiendo desde Mendizorrotz se apoderaba de Usúrbil el día 19 y el día 20 de Orio, que había sido evacuado y del que se habían apoderado un grupo de falangistas guipuzcoanos al mando de Epifanio Echeverría. De esta manera la ruta costera queda despejada hasta Zumaya.”

‘Un gudari navarro en los frentes de Euzkadi, Asturias y Cataluña’ Jose Estornes Lasaren liburuan honela agertzen da matxinatuak Orion sartu zirenekoa:

“Usurbil está lleno de milicianos. Se impone el orden y se piensa en la defensa. Se elige la nueva línea de resistencia: Mendizorrotz, Ventas de Zárate, Ernio.

Se recogen los cañones abandonados en Usúrbil y se busca a sus artilleros. En el alto de Orio se desarma a todo miliciano que pasa huyendo a la retaguardia. Se recogen fusiles y toda clase de armas y objetos procedentes de saqueos.


Mendizorrotz cae después de un ataque por tierra ayudado por el mar. Se rectifica la línea hasta la ría de Orio. Empezamos a rectificar líneas cada domingo.

Cae Orio. Nos quedamos en los montes que dominan la ría de Orio. Entre nosotros está Blas Zarauz que es del pueblo del mismo nombre que está a dos pasos. Conoce todos los rincones de estas montañas. Nos lleva a uno de los caseríos. El etxekojaun está en la puerta mirando a tres aviones negros que se internan en el mar. Al llegar nosotros desaparecen en la penumbra del portal. Unas palabras en euskera le hacen volver y fijarse en nosotros “pues no nos había visto”. Al conocer a Blas nos invita: huevos, jamón y leche nos proporcionan una comida que nos quita el hambre y nos devuelve el humor perdido en aquel día de perros. Además, nos sirven la comida dos jovencitas rubias, de buenos colores, contentas de vivir. No saben lo que pasa. Su padre les ha contado lo de la guerra carlista y creen que ahora será lo mismo.

Vamos cuesta arriba hacia las nuevas posiciones. Respiramos el aire marino, incomparable, de nuestro Cantábrico. En la noche entramos en un pajar de un caserío y nos tumbamos al lado de la carreta de bueyes. Estos rumían su ración abundante. Nosotros nos acomodamos como podemos. Por la mañana nos dedicamos a sacarnos las pajas de entre la ropa y el cuerpo con una sensación de calor y frío a la vez.

Los hermanos Capetillo, que son de Gallarta, preparan la dinamita bajo el puente guiados por Jose Mendizabal que conoce el sitio como su casa.

Se vuela el puente. Sube en una pieza en el aire y cae hecho pedazos.



*Orioko zubia, gerra aurretik.
Pankartan: Hotel Toki Alai.*

Segundos después, nos llega el estampido de la explosión. Es un espectáculo incomparable. ¡Qué destrucción! Los moros entran, de uno en uno, en Orio con sus pardas chilabas del desierto ¡Qué rabia!

El sargento gordo (del cuartel de San Sebastián) da orden de emplazar dos cañones del 15 y medio en el alto de Orio, en la misma carretera.

Y dispara un cañonazo a la Punta de Mendizorrotz. Es la primera vez que veo disparar un cañón y es algo increíble que sean tan exactos los disparos. Dicen días después que ha habido cinco muertos de un solo tiro.”

Zubia bota ondoren, gorriek errioreen beste aldean kokatu zuten hurrengo defentsa-lerroa. Handik aritu ziren kanoikadaka eta tiroka Orio aldera. Aldape baserrian gaez egiten zituzten baserri kanpoko lanak, egunez tiro asko jasozten zutelako Mendibeltzetik. Lau kanoikada ere erori omen ziren Aldape inguruan. Hala dio Aldapeko Juanito Arrutik.

Unidad egunkariak nola eman zuten faxistak 1936ko irailaren 20an Orion eta Zarautzen sartu zirenekoa.

“Orio y Zarauz para España”

1 936ko irailaren 21eko ‘Unidad’ egunkarian (Diario de combate nacional-sindicalista) Manuel Talaverak sinatutako kronikak honela zioen:

Orio y Zarauz para España

Los hombres de Falange fueron los primeros en clavar la bandera Nacional en los puntos más altos de estos dos pueblos. ¡ADELANTE!

A las cuatro de la tarde nos han ordenado: ¡Hay que ir a Zarauz! Y allí vamos, obedeciendo el mandato:

Bordeamos el río Oria, pasando por Chaparreneia y Usúrbil donde la gente, boquiabierta aún, levanta el brazo en señal de alegre sumisión. Árboles caídos, recuerdan los obstáculos puestos, inutilmente, a los avances de las fuerzas leales. Dejamos atrás Aguinaga. Aquí también hay vestigios del salvamento rojo: el puente voló también. ¡Como ellos!

Entramos en Orio. Impresión de alegría desbordante y caras de estupor todavía, porque el vecindario sano que queda no sale de su estupor. Vive en España y quiere inundarse de ella.

Un hombre de Falange, Epifanio Echevarría, nombrado comandante de la plaza, es el primero en recibirnos.

Desde ayer a las doce esto es nuestro. Completamente nuestro, de España y de la Falange. Mira allí arriba en la torre de la iglesia la bandera nacional. La pusimos nosotros, los de las camisas azules.

En efecto. La enseña Patria ondea al viento de la victoria.





- *¿Mucha lucha?*

- *Huyeron como cobardes. Y eso que habían recibido refuerzos de Bilbao, gentes que venían descansadas gritando el consabido “No pasarán”. Y ya ves, pasamos y aquí nos tienes.*

En el curso de la rápida conversación que sostenemos con este bravo de Falange, curtido por el ardor de muchas peleas, nos enteramos que fueron solamente tres: Pio Beriain, Ramón Eizaguirre y él los primeros en apoderarse del pueblo. Bien pronto les secundó el vecindario. Formaron las guardias ciudadanas, vigilaron la ría y a esperar órdenes, que no tardaron en llegar. Después...

Orio está dividido en dos partes por la ría de su nombre. Hasta hace poco de un lado a otro podía cruzarse por el puente. Ahora esto es imposible. Los traidores de España, en su loca desbandada, en su criminalidad, llenaron de dinamita sus almas para lanzarlas contra el armazón de hierro.

Hay necesidad de hacer uso del lento bogar de una barcaza para llegar al otro lado. Allí nos espera un automóvil que nos conduce por la carretera arriba hasta Zarauz, la alegre playa guipuzcoana que, como tantos otros pueblos de esta provincia incomparable, ha sufrido el oprobio de un artificial poderío rojo.

Rapidamente avanza el coche. En las cunetas vemos muchos automóviles destrozados, otros incendiados, que traen a nuestra imaginación los recuerdos de la barbarie del invasor marxista. Sacos terreros. Barricadas hechas por los hombres amigos de España, a quienes obligaron a trabajar día y día.

Ya estamos en Zarauz. ¡Que hermosura!

Kronikak zioenez, Zarautzen milizianoak erretiratu aurretik, Orion zubiak bezala, su eman zioten udaletxeari. Barruan bonbak jarri eta lehertarazi egin zuten eta suak hartu zuen.

Zarauzko Munoan, bertako haurren miliziak, gezurrezko fusilak sorbaldan, desfile militarra egiten, falangista jantzian.

Gezuraren erabilera gerran: "Mila hildako Orion!"

Mola jeneralaren soldaduak Orion sartu ziren egun berean, irailaren 20an, *La Voz de España* egunkariak albiste bat eman zuen, honako izenburu honekin: "Sin comentarios. La verdad sospechosa."

Hauxe zen albiste:

"Hay una radio que pomposamente se otorga el nombre de `Radio Guipúzcoa` al servicio de la República y del Frente Popular y que quizá desde uno de los escasos pueblos que aun quedan dentro de nuestra provincia en poder de los rojos, o desde Bilbao, o quizá desde cualquier parte de Francia, transmite `Partes oficiales` o noticias tan ciertas como el siguiente Comunicado oficial:

"En San Sebastián los ataques enemigos son rechazados con facilidad. En el frente de Orio se ha producido al enemigo un formidable descalabro. Una columna de fascistas fue deshecha, produciéndole MIL BAJAS, dejando en nuestro poder grandes cantidades de material de guerra."

Aunque no se puede hacer un solo comentario a noticias tan `ciertas`, no podemos tampoco sustraernos a la tentación de seguir riéndonos releyéndonlas.

Lo de San Sebastián es tan cierto que por lo visto nosotros no estamos en la orilla de la Concha, sino en la luna, ya que hasta ahora creíamos pasear tranquilamente por las calles donostiarras y resulta que de ninguna forma hemos entrado y el grito de `No pasarán` junto con `la Internacional`, la siguen cantando por la carretera de Irun. ¡Los pobres no solo viven de ilusiones sino de engaños de lo mas burdamente tramados.

Y de lo de las mil bajas de Orio, es tan absurdo que si los marxistas ven una columna no de mil, sino de quinientos fascistas, están corriendo hasta Bilbao y no paran.

Horixe zioen irailaren 20an *La Voz de España* egunkariak, irailaren 15 arte *La Voz de Guipuzcoa* izandakoak, izan ere faxistak Donostian sartu zirenean izena aldatu egin baitzioten.

Gerra guztietan armarik erabilienetakoa da gezurra, eta indartsua oso. Gezuraren erabilera trakets eta nabarmenaren adibide polita da egunkari faxistarena: "faxistek mila hildako, Orio hartzeko ahaleginean, alajaina!"

Baina gezurra norena ote zen benetan? irratiak esandakoa? edo irratiak hori esan zuela zioen egunkariarena? Auskalo! Baliteke biena izatea.

Bi egun lehenago, irailaren 18an, Unidad egunkariak, ordura arte *El Día* nazionalista izandakoak, honako albiste zekarren: "Dos camaradas de Falange parapetados en Orio impiden con su heroismo que los rojos incendien el

pueblo. Nosotros nos proponemos entrar en Orio, –no sigáis, antes de llegar al puente los rojos os harán disparos desde el monte Mendi-Beltx, tienen un mortero y ametralladoras; en el pueblo dos camaradas nuestros con dos fusiles y una pistola ametralladora se han parapetado en la fábrica y no permiten que nadie entre porque los rojos han dicho que han de quemar el pueblo. Dos jóvenes se baten horas contra los foragidos que pretenden incendiar su pueblo, su cuna, una partícula de nuestra España, pero estos bravos soldados de Falange no lo permitan. Ellos con sus armas y sus flechas sobre el pecho dejarán caer para siempre al osado que por el vino comprado con el dinero ruso se atreva a pisar una calle del pueblo."

Enrike Enbilek Iparraldera jo zuen faxistak Orion sartu aurretik, familia etxean utzita. Falangistek Orio hartu zutenean, zurrumurru gaizto bat iritsi zitzaion gazteari: andrea eta seme-alabak preso zeuzkatela eta, bera Oriora etorri ezean, garbitu egingo zituztela. Enrike, nahigabetuta eta nahastuta, herri aldera abiatu zen; bidean, haren biloba Jose Luis Arin Enbilek oraindik gogoan duenez, beste herritar batekin egin zuen topo Enrikek. Hark esan

zion hura dena gezurra zela, familiarrak libre zebiltzala kalean, ez zeudela preso eta bera ez itzultzeko Oriora. Hari esker geratu zen Iparraldean.

Gerra osoan zehar oso arma erabilia izan zen gezurra: Francoren aldeko prentsak idatzi eta zabaldu zuten Gernika gorriek erre zutela, eta Federico Garcia Lorca poeta andaluziarra eta katalanen presidente Lluís Companys gorriek hil zituztela.

Baina frankismoaren gezurrik handiena gerra bukatu ondoren egindako epaiketetan erabili zutena da: *“Resultando, y así se declara probado, que a partir del 17 de julio de 1936, contra los poderes del Estado, asumidos por el Ejército y su función constitutiva, se desarrolló una alzamiento en armas y una tenaz resistencia, cometiéndose a su amparo toda suerte de violencias y desmanes, hechos en los que participaron los procesados en esta causa de la siguiente forma: ...”*

Zubiak dinamitaz eraitsi zituzten

Tropa faxistak Orion sartu baino lau egun lehenago egin zuten Orioko ebakuazioa: irailaren 16an. Ondoren, herriko bi zubiak bota zituzten dinamitaz. Ez dakigu seguru zer egunetan izan ziren leherketak, baina ia segurutzat jo daiteke 1936ko irailaren 16tik 20ra bitartean zartatu zituztela miliziano asturiar batzuek herriko bi zubiak: erriorearen gainekoa eta Altxerri ondoko trenbidekoa. Orio utzi eta Bizkaia aldera erretiratzen hasi aurretik, ia gainean zituzten tropa frankistei bidea eragozteko bota zituzten. Egun gutxi lehenago, irailaren 12tik 13rako gauean, jendez betetako trena iritsi zen Zarautza Donostiatik, faxistengandik ihesi. Ez zen aurreneko aldia errioko zubia botatzen zutena, ia mendebete lehenago, bigarren karlistaldian ere ere eraitsi egin zuten.

Herriko zubia arratsalde partean leher-tu zuten. Ia inor ez zen geratu bere etxean. Abisua pasatu zuten ahoz aho eta denek ere ezkutalekuren bat bilatu zuten. Batzuk Arocena fabrikako labe itzalian sartu ziren. Beste batzuk, elizan edo frontoi ondoko labaderoan. Askok hondartza baino lehen trainerua gordetzeko erabiltzen zen txabolara joan ziren. Orio inguruko base-rietara ere jo zuten beste batzuek, eta Aginaga aldera ere bai, Galdagorriren kamioian sartuta. Aginagan astebetetik gora pasatutakoak ere izan ziren. Akañatarrak Hernanira joan ziren oinez.

Altxerriko trenbidearen zubia berreraikitze-lanetan.



1936ko irailean, Orioko errio gaineko zubia dinamitaz eraitsi zuteneko irudiak, eta hura berriro altxatu zutenekoak.



Orduan 15 urteko mutil koskorra zen Anjel Garmendiak adierazi zuenez, *“lehenbizi herri aldeko matxoia bota zuten, 30 kaja dinamita jarri zuten gutxienez, eta haien gainean Arin y Embilenetik ekarritako koltxoiak jarri zituzten”*.

“Venga, niños, alejaros de aquí, que vamos a poner unos petardos para echar el puente; ahora nos vamos de aquí, pero volvemos dentro de unos días”. Hitz horiek gogoratzen ditu, orduan 10 urte inguru zituen Luis Segurola mutil koskorrak, zubi inguruan jolasean zebiltzan mutikoei miliziano asturiarrek esanda.

Miliziano haiek kamioi bat ekarri zuten Toki Alai hotelaren ondoraino. Barruan zekarten dinamita deskargatzeko norbait behar eta Juan Azpiroz topatu zuten, hilabete gutxi batzuk lehenago arte herriko alkate izandako gizona. Juan bere tolare-sototik (gero, arraunlariak beren arraun-ontziak gordetzeko erabili zutena) etxera zihoan bazkaltzera. Miliziano haietako batek, pistola bat eskuan, behartu zuen gizona dinamita kamioitik jaistera. Gero, etxera joanda, etxeko guztiak atera eta eraman zituen Arozenako fabrikara. Juan Azpiroz zenaren familia-koek ere badute beren kontakizun partikularra egun hartakoa. Honela azaltzen du Juanen seme Juanitok: *“leherketa gertatu eta ordu batzuetara, etxera itzuli eta topatu genuen etxeko kristal guztiak hautsita zeudela, ateak-eta beren lekutik aterata; baina sukaldera sartu eta han ez zegoen ezer hautsita, platerak, mahai gainean zeudenak, bueltatuta, behekoz gora, baina hautsita ezer ez. Egun hartan Sagrada Familiaren irudia gure etxean zegoen, han, sukaldean”*.

Errio gaineko zubia ia guztiz eraitsita geratu zen, harrizko matxoiek ere kalteak izan zituzten, baina matxoen arteko burdinezko armazoiak erabat suntsitu zituen dinamitak. Lehenengo matxoirainoko zubi zatia birakaria zen, irekitzen zena, itsasontziak Arozena fabrikaraino iristeko. Erriorearen bi aldeak eten eta berria altxatu zuten arte, Juan Jose Manterola ibili zen, ala batean, jendea atzera eta aurrera eramaten.

Goiko Kaleko etxe batzuetako kristalak ere apurtu zituen eztrandak, baina kalterik handiena zubi ondoko etxeek izan zuten. Haietako bat izan zen Intxauspe familiaren etxea, Ixkiña taberna zegoen hura. Etxe hark, batetik, leherketa izugarri haren kalteak izan zituen eta, bestetik, erretiradan abiatu aurretik milizianoek etxetik eramandako guztiaren galera. *“Etxeko koltxoi guztiak eraman zituzten, eta mairidireak eta zapatak eta bestelako jantzi batzuk ere bai”*. Horrelaxe gogoratzen du ordukoa Donato Intxauspe orduan haurra zenak. *“Eta hori joan aurreko egunetan gure ama haientzat kozinatu eta kozinatu eduki zutela, makina bat tortilla egin zizkien miliziano haiei!”*. Plazan dagoen Kolon Txiki etxea ere pitzaturatu geratu zen, oraindik ere agerian daude orduko arrakalak.

Oa kalean bizi zen Josefa Zubiria arropa zabaltzen ari zen, zubiaren eztanda izan zenean, zubiaren puxka bat bere etxeraino iritsi zen, buruan jo eta zauri larria eragin zion.

Honela zioen hitzez hitz 1936ko urriaren 1ean udal berriak egindako bilkuren aktak zubiaren leherketaren ondorioez:

“El Sr. Presidente expuso que las bárbaras explosiones producidas en el vandálico hecho de la voladura del puente metálico sobre el río Oria, habían producido derrumbamientos de la Casa Consistorial y sobre todo en los locales de las Escuelas Nacionales, y el Ayuntamiento acordó proceder al arreglo de los desperfectos sin pérdida de tiempo para dar comienzo a las clases y acordó designar una comisión compuesta por los Sres. alcalde, Carmona y Solaberrieta para llevar a efecto dichos arreglos, así como para disponer la colocación de crucifijos en las Escuelas, su adquisición y Entronización del Sagrado Corazón de Jesús, cuya efigie se encuentra en la Parroquia, y colocación de la misma en el Salón Consistorial.”


Marrota baserriko Inazio Atorrasagasti, orduan 16 urteko gaztea, baserriaren aurrean zegoen, hango muntoan, zubia lehertu zutenean. Bazekien botatzekotan zirela, abisua emana zitzaien, eta Marrota zubitik nahikoa urruti zegoe-lakoan, errio ondo-ondoan zegoen, zubiari begira. Inaziok kontaktzen zuenez, bi leherketa izan ziren, lehenengoak ez zuen lortu zubia botatzea, haren indarra erriorearen gainean zabaldu zen, urrutiraino nonbait, Marrotako gaztea atzerakakia lurrera bota zuen leherketak sortutako uhinak.

Jose Ramon Salsamendi zenak orduan 11 urte zituen; berak zioenez, zubiaren leherketa bideratu zuten artean zen, eusko gudarien buru, Jose Estornes Lasa Iزابako semea. Gerra ondoren, askotan ibili ziren biak elkarrekin batera eta bestera, inguruko bazterrak koadroetan margotzen, eta ibilaldi horietan kontatu zion Orioko zubiaren istorioa nafarrak oriotarrari. Zubia lehertu ondoren, kanoiak jarri omen zituzten Mendibeltzen, Mendizorrotzera begira, handik zetozen erreketeei aurre egiteko. Handik aritu zitzaizkien kainonazoka.

Patxi *Danbolinek* gogoan du nola lehertu zuten Altxerriko zubia: metxa luze-luze bat jarri zuten dinamita-kargari lotua, hari su eman eta kamioneta batean Xuai gain-era igo ziren milizianoak. Zubi hari ez zioten erriorearen gainekoari adina kalte eragin; baina han ere trenaren trafikoa etenda geratu zen, puxka baterako. Matxinoak Orion irailaren 20an sartu zirenean ezin izan zuten tren erabili Bilbo aldera segitzeko; era berean, Orioko jendeak ere ez, ihes egiteko. Horrek ekarri zuen Oriotik ihes egin zuten ia denek itsasoz egin izana. Zarauzko kasuan ez zen hala izan: matxinoak herrian sartu ziren eguneko arratsaldean bertan ere, ordu gutxi batzuk lehenago, gutxienez bi tren abiatu ziren iheslariz beteta Bilbo aldera.

2012an, Luis Gorospek argazkiak bidali zituen Oriora Madriletik, 1936an zubia bota zutenekoak eta hura berreraiki zutenekoak ere bai. Gizon horren aita zena, Jose Luis Gorospe Leturia, ingeniari militarra zen eta parte hartze zuzena izan zuen zubia berreraikitze lanetan. Ingeniaria ez ezik argazkizalea ere ba omen zenez, berak egin zituen argazkiak, haren semeak orain bidalitakoak.

Jose Luis Gorospe Leturia ingeniari militarra zubiak berreraikitze lanetan aritu zen. Harenak dira argazki hauek.





**Tropak sartu
ondorengoak**

Orioko egoera politiko berria

1 936ko irailaren 20an Francoren tropak Orion sartu zirenetik aurrera, herritarren bizi-modua ez zen ordura artekoa bezalakoa izan. Ez zen sekula gehiago izango. Oriotar guztiak izan zuten nolabaiteko aldaketa beren bizitzan. Ordurako, haietako asko joanak ziren herritik ihesi. Gehienak, Lapurdira, Donibane Lohitzunera. Beste batzuk, Bizkaia aldera, eta are urrutiago: Katalunia, Ingalaterra, Argentina... Militarrek sartzearekin batera, herriko kargu guztiak eta ardura eta lanpostu batzuk esku batzuetatik besteetara pasatu ziren. Pertsona batzuk zigortuak izan ziren, modu publikoan gainera, herriaren aurrean. Oriotar bat fusilatu egin zuten. Eta gerrara joateko adinean zirenak, 18 urtetik 48 bitarteko gizon gehienak militarizatu egin zituzten eta gerrako frontera eraman. Haietako batzuk ez ziren sekula itzuli etxera, hantxe gelditu ziren betiko, 1936ko gerra hartan.

Udal berria

M atxinatuak sartu ondorenko lehen Udala 1936ko irailaren 24an osatu zen, Orioko Plazako komandante militar Epifanio Etxeberriak egindako deialdiari erantzunez. Falangista hark hartu zuen Orioko herrian agintea. Gizon hura ezaguna zen Orion gerra aurretik ere. Nafarra zen, Abarzuzakoa, handik etortzen zen frutarekin, fruta-saltzailea baitzen, eta ezaguna zen batez ere herriko dendarien artean.

Epifanio Etxeberria, ezkerrean, gerra denboran Orioko komandante militar izan zen falangista.



Berak ere ondo ezagutzen zituen ordurako oriotarrak. Seguru asko, horregatik emango zioten agintea Orion, aginte militarra. Gerra hasierako urteotan bera izan zen jaun eta jabe Orion, herritarren bizia ere, neurri batean, haren eskuetan egon zen. Aurreraxeago irakur daitekeen bezala, zenbait oriotarrek bere bitartekaritzari esker salbatu zuen bizia. Martin Peronak kontatu digunez, falangistak herrian sartu berrikan, zerrenda beltza eman zioten Etxeberriari, han agertzen zirenak zigortu zituzten. Hogeita bostetik gora gizon zeuden zerrendan; haien artean Inazio Lertxundi. Etxeberriak zerrendako denak deitu zituzten udaletxera. Bildutakoak ikusi zituenean, konturatu omen zen berarentzat herriko jende ezaguna zirela guztiak eta esan omen zien lasai egoteko, haien aurrean zerrenda puskatuz.

Honela zioen hitzez hitz 1936ko irailaren 24an, udal berria eratzeko, Epifanio Etxeberriak deituta udaletxean egin zuten bilkuraren aktak:

Constitución del nuevo Ayuntamiento

En la Sala Consistorial de esta villa de Orio a veinticuatro de septiembre de mil novecientos treinta y seis, previa convocatoria cursada al efecto por D. Epifanio Echeverría, Comandante Militar de esta Plaza, se reunieron bajo su presidencia y al objeto de proceder a la constitución del nuevo Ayuntamiento los señores siguientes: D. Nemesio Ondozabal, D. Jesús Carmona, D. Jose María Aramendi, D. Lino Solaberrieta, D. Fermín Larrañaga, D. Constancio Quintana, D. Vicente Iparraguirre, D. José Arruti y D. José Inchauspe, todos ellos mayores de edad, vecinos de esta villa y sin tacha alguna para el desempeño del cargo; y siendo las veintidós horas, el Sr. Presidente declaró abierta la sesión.

Tomando la palabra el Sr. Comandante Militar de la Plaza, expuso: Que en cumplimiento de Ordenes de la Superioridad y de acuerdo con la representación de la Junta de Guerra de Guipúzcoa había hecho la designación de las personas que deben constituir el nuevo Ayuntamiento; y encontrándose todas ellas presentes, les exhortó al exacto cumplimiento de todas las disposiciones emanadas del Gobierno Nacional de Burgos, a prestar ayuda y asistencia al glorioso Ejército salvador de España y a la recta administración de los bienes e intereses municipales que les están encomendados. Todos los Sres. presentes prometieron hacerlo así para la salvación de España.

Seguidamente el Sr. Comandante Militar de la Plaza hizo la designación de Alcalde Presidente en la persona de D. Nemesio Ondozabal Caletegui, a quien entregó la vara y bastón anejos al cargo, pasando el designado a ocupar la presidencia; proclamó también como primer Teniente a D. Jesús Carmona Lima, y ordenó que el Ayuntamiento hiciera el nombramiento de 2º Teniente Alcalde, recayendo este cargo en la persona de D. José María Aramendi Arruti por unanimidad.

En este momento declaró el Sr. Comandante Militar constituido legalmente el Ayuntamiento de esta villa, terminando con un ¡Arriba España! que fue coreado por todos los asistentes y levantándose la sesión a las veintidos horas y treinta minutos, de todo lo cual yo, el Secretario de la Corporación, certifico.

<i>El Comandante de la Plaza</i>	<i>Epifanio Echeverria</i>
<i>El Alcalde</i>	<i>Nemesio Ondozabal</i>
<i>El primer teniente</i>	<i>Jesús Carmona Lima</i>
<i>El segundo teniente</i>	<i>José M^a Aramendi</i>
	<i>Antonio Quintana</i>
	<i>Vicente Iparraguirre</i>
	<i>Fermín Larrañaga</i>
	<i>José Inchauspe</i>
	<i>Lino Solaberrieta</i>
<i>El Secretario</i>	<i>Santiago de Azurza</i>

Orio, 1940an, soldadu alemanek egindako argazkian.



“El propio Sr. Presidente puso en conocimiento de la Corporación que con la huida de los rojos de esta villa, había desaparecido la máquina de escribir del Ayuntamiento..., se acordó hacer gestiones para su adquisición.”

Honako hau ere 1936ko urriaren 1ean udaletxean egindako bilkuraren aktatik hartua da:

Erregimen berriak beste figura bat ere asmatu zuen, herriz herri: ‘jefe local del movimiento’. Ardura hori erregimen berriaren ideologiari estu lotutako pertsona bati eman zitzaion handik aurrera.

Epifanio Etxeberria buru zuten agintari berriak berehala hasi ziren aldaketa politikoa gauzatzen, Errepublikaren edo euskal abertzaletasunaren aldeko nolabaiteko atxikimendua zutenen kontrako neurriak hartzen, eskarmentu moduan; edo besterik gabe, familiarren batek herritik ihes egin zuelako.

Lino eta Erramon Solaberrieta lehengusuak eta, eskuinean, Antonio Etxaniz azpeitiarra. Lino eta Antonio biak alkate izan ziren gerra garaian.



Alkatearen dimisioa eta aldaketak

Handik denbora gutxira, Nemesio Ondozabal alkate izendatu berriak dimisioa aurkeztu zion herriko agintari militar Epifanio Etxeberriari. 1936ko azaroaren 10eko udal bilkuran aurkeztu zen alkate berria: Jesus Carmona Lima. Harekin batera, bi zinegotzi berri sartu ziren Udalean: Tomas Agirre eta Agustin Iturri. Batzar hartan bertan, Santiago Azurza udal sekretarioa kargugabetu egin zuten eta, haren ordeaz, Constancio Quintana zinegotzia izendatu.

Erabaki hori 1937ko martxoaren 4an egindako bilkuran berretsi zuten. Honela zioen orduko aktak:

“El Ayuntamiento acuerda nombrar secretario al hasta ahora concejal Don Constancio Quintana, para sustituir al destituido Sr. Azurza.

Seguidamente acuerda sacar a concurso la plaza de secretario que actualmente se halla vacante por destitución, dentro de las condiciones siguientes: Edad de 22 a 35 años. No ser comerciante. No haber sido rojo o nacionalista. Sueldo 156 pesetas al mes debiendo presentar de fianza un mes de sueldo o persona que le avale por esa cantidad.”

Santiago Azurza jaunak ez zuen etsi. Inolako arrazoirik gabe kendu zuten postetik, eta behin eta berriro saiatu zen lanpostua berreskuratzen, Udalaren erabakia-ri jarritako hainbat helegiteren bidez. Ez zuen lortu, betiko baztertuta geratu zen.

Udaletxetik kanpo geratu arren, elizan, mezatan, organoa jotzen segitu zuen eta herriko gaztetxoek musika erakusten. Azurza 1953ko martxoaren 31n hil zen. Hil baino bi urte lehenago, herriak ondo merezitako omenaldia eskaini zion Santiago Azurzari. 1951ko uztailaren 25ean izan zen, Santiago egunean: Orioko elizan meza kantatu zioten sei ahotsetan.

Beste aldaketa bat ere gertatu zen: Daniel Esnal bake-epailea kendu egin zuten bere ardura horretatik, Donostiako Audientziatik bidali zioten eskutitz baten bidez.

Udal langileen garbiketa ideologikoa

1 936ko azaroaren 26an ekin zioten udal berrian udal langile guztien jarrera eta ibilbide politikoa aztertzeari eta, kontrako karguren bat ateraz gero, administrazioetik kanpo uzteari. Honela dio egun hartako saioaren aktak:

“El objeto de esta sesión extraordinaria es la depuración obligada e ineludible de todos los empleados municipales cualquiera fuera su clase y categoría y que en vista del asunto a tratar quedaba constituida esta sesión en secreto quedando cerrada la puerta de acceso al salón de sesiones una vez salido el empleado Jose Peña Algucil de esta Villa.

Pensando en la Patria y mirando tan solamente en la Justicia no había mas remedio que ejecutarla en alta mira de nobleza dada la confianza en nosotros depositada por la superioridad para esta labor que vienen realizando en todas la partes de España del territorio ocupado por el ejército nacional y separar de una vez de la administración pública todas aquellas personas que por no ser afectas al nuevo régimen constituido o haber colaborado con el llamado Frente Popular podrían en caso dado poner en peligro nuevamente nuestra patria proponiendo fueran destituidas todas ellas y autorizarles para que nuevamente podrán solicitar su empleo y en vista de lo cual podría el Ayuntamiento volverlos a admitir una vez serle favorable el expediente.”



Santiago Azurza, Orioko elizako organoa jotzen.

1936ko azaroaren 30ean aparatu faxistak agindutako dekretu baten arabera, udal langile guztiak lanik gabe utzi zituzten eta 24 orduko epea eman zitzaien lana berriro eska zezaten: eskatzen zutenei haien ideologiari eta jokaera politikoari buruzko txosten bana egin eta haren arabera erabaki zuten, banan-banan, lanean jarraitzeko aukera eman edo kale gorrian uztea.

Orioko Udalaren orduko langileak honakoak ziren:


Administratzailea	Joaquin Aldabe
Diruzaina	Marcelino Peña Larrañaga
Zerga-biltzailea	Ignacio Salsamendi
Osasun langileak	Ramon Pagola, medikua
Botikaria	Eugenio Lasa
Praktikantea	Vidal Quintana
Albaitaria	Jose Maria Odriozola,
Udaltzaina	Jose Manuel Peña
Gauzaina	Lorenzo Alcorta
Txistulariak	Mariano González de Chávarri
	Dionisio Larrañaga
	Ignacio Leunda

Hori dena, jakina, erdaraz dago orduko dokumentuan. Txistularien kasuan, izen bitxia ageri zen gaztelaniaz: `Músicos Juglares`.

1936ko abenduaren 2an egin zen udal bilkuran udal langileek lanean berriro hasteko aurkeztutako eskaerak irakurri zituzten, eta langile bakoitzaren ideologia eta jokaera politikoari buruz egindako txostenak. Horretarako propio sortutako batzordeak egin zuen lan hori.

Joakin Aldabek udaletxeko lana galdu zuen, baina elizakoa ez, sakristau-lanetan segitu zuen.

Joakin Aldabe eta Eugenio Lasa, kale gorrian



Langile haietako bi, Joakin Aldabe eta Eugenio Lasa, kale gorrian utzi zituzten, lanik eta soldatarik gabe; gainerako guztiak berriro lanera itzuli ziren. Kaleratutakoei euskal abertzale izatea egotzen zitzaien, EAJren afiliatuak edo gertukoak, gerra hasi aurretik Eusko Alderdi Jeltzalearen Batzokian ibiltzen zirelako. Zinegotzi bakarra agertu zen erabakia-
ren kontra: Tomas Agirre, gainerako guztiak bat etorri ziren bi langileak kargugabetzeko erabakiarekin.

Hona, 1936ko abenduaren 2ko aktako esaldi batzuk:

"El secretario comenzó con la lectura de la instancia presentada por Don Joaquin Aldabe empleado administrador municipal que solicita ser nuevamente admitido en el cargo ocupado hasta su destitución.

Una vez leída el Sr. Presidente formula los siguientes cargos contra dicho Sr. y el expediente formado:

A Que había sido interventor del Partido Nacionalista Vasco en las últimas elecciones.

B Socio del Batzoki y ayudar al mismo por medio del cine que instaló en el mismo Batzoki. Y escritor del periódico `El Día`, separatista Vasco.

Y en vista de lo cual y ateniéndose a lo indicado en el decreto antes referido procedía que fuera destituido de empleo y sueldo estando conformes con esto todos los demás señores concejales excepto Don Tomas Aguirre que no está conforme con estos cargos y que por lo tanto no debe ser destituido pues era a su juicio que desde que comenzó ya el movimiento salvador de España ya no estuvo con los nacionalistas vascos, quedando por tanto destituido de empleo y sueldo de administrador municipal.

Don Ramón Pagola, médico titular. Aparecen los siguientes cargos. Que fue socio del Batzoki de esta localidad hasta el comienzo del Glorioso Movimiento Militar pero que teniendo en cuenta que había sido expulsado del mismo Batzoki de malas maneras y al mismo tiempo insultado llamandole fascista, que a los cuatro días de comenzado el citado movimiento fue detenido por las hordas marxistas y siendo conducido entre pistolas y amenazado quedaba admitido en el empleo de médico titular.

Don Eugenio Lasa. Aparecen los siguientes cargos: Que era nacionalista vasco por convicción y de acción quedando en vista de dicho expediente destituido del empleo y sueldo de farmacéutico municipal por acuerdo de la mayoría que componen este Ayuntamiento con la salvedad de Don Tomas Aguirre que no estaba conforme con la destitución pues creía que dicho señor no estaba conforme con la manera de actuar de los partidos del Frente Popular al dar comienzo a este movimiento.

Hurrengo udal bilkuran, 1936ko abenduaren 5ekoan, erabaki zuten falta ziren udal langileak kontrako kargurik gabe utzi eta lanean segitzeko aukera ematea, eta Joakin Aldabe administrariaren ordezkoa izendatu zuten: Ignacio Barjacoba.

Joakin Aldabe 1973ko uztailaren 6an hil zen, 80 urte zituela.

UGTko Ignacio Barjacoba ere errudun

L 937ko urtarrilaren 18an egin zen udal bilkuran, hilabete lehenago izendatutako administraria ere, Ignacio Barjacoba, kargutik kendu zuten. Handik 23 hilabetera, 1938ko abenduaren 16an, Barjacoba Huescako fronteant hil zen, Francoren armadan borrokan zebilela, epilepsiak jota.

Orioko Udalak 1937ko urtarrilaren 7an egindako bilkuraren akta. Egun hartan erabaki zuten Barjacoba udal administrari kargutik kentzea.

Udal bilkuraren aktan udaleko langile eta herritar batzuen aurkako salaketak ere jaso ziren. Honela zioen orduko aktak:

“El Sr. Aramendi formuló el segundo cargo contra Ignacio Barjacoba administrador municipal provisional que fue perteneciente a la U.G.T. El Sr. Carmona indicó también que dicho Barjacoba había hecho gestiones cerca del Párroco para asuntos de dicha sociedad.



Seguidamente el Sr. Carmona presentó el siguiente cargo contra Joaquin Aldabe, administrador destituido: que fue interventor elecciones del Partido Nacionalista Vasco, separatista, escritor del diario ‘El Día’ periódico también separatista y fundador del cine en el Batzoki de esta localidad dando con esto impulso al mismo.

A Eugenio Lasa farmacéutico titular también destituido los siguientes cargos de Jesus Carmona y de Don José Inchauspe el de haber sido Presidente del Batzoki y el haberle oído gritar ‘Gora Euzkadi’ Jose Ramon Larrañaga y Lino Solaberrieta.

Don Ramón Perez Agote médico titular que fue socio del Bazoki cargo que formulan todos los concejales excepto el Presidente que no puede precisarlo.

Don Dionisio Larrañaga que ‘retó’ a un derecha y a 3 nacionalistas vascos cargo formulado por Lino Solaberrieta.

Don Mariano Gonzalez de Chávarri que tocó el chistu en el Bazoki y ser solidario vasco.”



Zenbait herritarren ondasunak konfiskatuta

Administrazio berriak hainbat eta hainbat ondasun konfiskatu zizkien herritarrei. Udaleko sekretarioak egindako dokumentu baten arabera, honako hauek dira zigor hori jaso zutenak eta haiei kendutako ondasunak:

- **Josefa Arbillaga Leturiondo:** Sariako Olako jute fabrika, eta Iturriaga etxebizitza (23. zenbakia).
- **Florencio Iburguren Gómez:** Ondartza inguruan kokatutako 'Bengoechea y Aróstegui' lantegiaren eta galdatze tailer mekanikoen sozietate komanditarioaren gaineko 65.000 pezetako hipoteka-kreditua.
- **Florentino Loidi Iturzaeta:** Arizmendi Berri Azpiko belardia, Orzariaburuko ereiteko lurra eta alfer-lurra, Bertzacenrritako ereiteko lurra eta etxebizitza bat bere teilapearekin, 22. zenbakiaren alboan.
- **Jose Agustin Rekondo Irazu:** San Juan ermitapean kokatutako lursail hondartsu baten 139 pezeta eta 727 milareneko partaidetza zatitu gabearen jabetza soila, eta gainerako lur sailaren jabetza osoa; landa-etxea Iturrialdean; Urtesabel kaleko 7 zenbakidun etxea, beste bi zenbaki gabeak; eta San Nicolas kalean kokatutako Dendariarena etxea.



Etxebizitza eta lurrez gain, bestelako ondasunak ere kendu zizkien udal berriak herritarrei. 1939ko azaroaren 16an egindako udalbatzaren aktaren arabera, zenbait oriotarren ondasunak konfiskatu egin zituzten, eta haietako batzuk enkantean jarri, herritarren artean:

- **Jose Benito Lertxundi Oñederrak** Arizaga kaleko 16an zeukan dendatik hartutako generoak enkantean jarrita, 1.202 pezeta bildu ziren.
- **Luis Burgaña eta Ulpiano Peñak** arrantzaleen kofradian zituzten ondasun eta tresnak Itsas Infanteriari eman zizkioten. Luis Burgaña polizia maritimoko agente izan zen errepublikaren garaian.
- **Javier Agote Urtezabelen** etxeko altzariak eta tresneria, Ulpiano Peñaren etxean topatu zituztenak (San Nicolas, 21).
- **Juan Molinero Villarreak** utzitako altzariak ere konfiskatu egin zituen udalak.

Comandancia Militar de Guipúzcoa

INSTRUCCIONES SOBRE EL SERVICIO DE REQUISICION MILITAR Y CIVIL

Artículo 1.º — La autoridad militar es la única que puede ordenar la requisición de vehículos, personas, materiales y servicios.

Artículo 2.º — Todas aquellas entidades, asociaciones, establecimientos fabriles o militares que precisen, vehículos, personas, materiales o servicios, lo pondrán en conocimiento de mi autoridad, indicando en la petición los motivos por los cuales son precisos estos elementos.

Artículo 3.º — Ningún particular pondrá a disposición de entidad u organización alguna, elemento de ninguna clase sin orden escrita de esta Comandancia.

Artículo 4.º — Si a pesar de lo previsto en los artículos anteriores fuera obligado a prestar el servicio de requisición cualquier entidad o particular, hará presente a quien lo solicite lo ordenado en estas instrucciones y si aún así le fuera exigido aquel recabará la orden por escrito, que trasladará a esta Comandancia para las responsabilidades a que hubiera lugar.

San Sebastián a 17 de septiembre de 1936.


El Coronel Comandante Militar.

Aginte militarrek prentsan argitaratutako aginduak.



Jose Benito Lertxundi Oñederra.

"El Sr. Presidente propone y así se acuerda la retirada de los nombres vascos a las calles de esta localidad".



Udalak izen berriak jarri zizkien herriko kaleei: goikoari Primo de Rivera eta behekoari General Franco.

Herriko kaleen izen-aldaketa

1937ko martxoaren 23an Udalak erabaki zuen herriko kaleei euskal izenak aldatzea. Honela zioen, hitzez hitz, erabakiak, aktaren arabera: "A continuación el Sr. Presidente propone y así se acuerda la retirada de los nombres vascos a las calles de esta localidad".

Erabaki hark berehala ekarri zituen ondorioak Orion: kale batzuk izen berriarekin bataiatu zituzten, gerra irabazi zutenen buruzagien eta ikurren izenak jarritz: General Franco, General Mola, Calvo Sotelo A eta Calvo Sotelo B, Primo de Rivera, Hermanos Aguirresarobe, Jose Maria Carmona eta Plaza de España.

1979an, gerra ondorengo lehenengo udal hauteskundeetatik osatu zen udal berriak erabaki zuen izen horiek denak kendu eta kale haiei beste izen hauek ematea, hurrenez hurren: Kaia kalea, Antxiola, Eusko Gudari eta Estropalari, Kale Nagusia, Abeslari, Txistulari eta Herriko Plaza.

Herriko kooperatibari ere izena aldatu egin behar izan zitzaion. Ordura arte `Cooperativa San Juan, Guztiok bat´ izandakoa, `Cooperativa San Juan, Todos uno-Guztiok bat´ izatera pasatu zen.

Udala eta euskal kultura



Gerak eten handia ekarri zion abertzaletasunarekin lotuta Euskal Herriak bizi zuen kultur berpizkundeari, zehazki euskararen garapenerari. Euskararen erabilera baztertu eta galarratzen egin zuten erakunde guztietan. Nazionalak Donostian sartu orduko, "auto de fe" batean harrapatutako euskal hiztegi guztiak erre zituzten. Orion euskal kultura egiten ari zen aurrerabidearen adibidea da, justu gerra hasi aurretik, 1936ko ekainaren 16ko udalbatzarrean, Udalak hartu zuen erabakia: "Dada cuenta de una instancia de la sociedad Euskaltzaleak, enumerando los actos organizados para difusión del euzkera, así como de sus proyectos de publicación de varias obras euzkericas, y solicitando una subvención del ayuntamiento, acordó concederle la subvención de 25 pesetas."

Herritarrei buruzko informeak

Egoera politiko berrian, ardurak banatzeko garaian, agintari berriek informazioa behar eta nahi zuten eta, horretarako, hainbat eta hainbat dokumentu osatu ziren herritarrei buruz: haien izaera, egoera ekonomikoa eta ideologiaren gainean, non haiei buruzko datuak eta iritziak ematen ziren.

Dokumentu horietako batzuk Estatu Batuetako Renoko Basque Archive Collection Record izeneko artxibotik berreskuratu ditugu. Artxibo hartako dokumentuak Zarautzen bildu ziren gerra garaian, Zarauzko Narros jauregian. Han egon zen kokatuta eskualde honetako komandantzia militarra, buru Jose Maria de Huarte y de Jauregui zela (horrelaxe agertzen da gizon haren izena dokumentuotan). Huarte nafarra zen. Haren agintepean osatutako artxiboa da Renon dagoena eta bertan ehunka agiri ageri dira.

Agiri haietako askoren egilea Candido Arozena Aierdi izan zen. Arozena eskualdeko argindar-konpainiako gerentea zen, eta Orioko Diken dagoen 'Arocena' ladrillo-fabrikaren jabea. Eskuindarra zen, gerrak ekarri zuen erregimen berriaren zeharo aldekoa. 1936ko uztailaren 29an, Zarautzen zegoen Argentinako enbaxadan hartu zuen ostatu, 24 urteko semearekin, anarkisten jazarpenetik ihesi, eta handik Iparraldera ihes egitea lortu zuen, Getarian baporea hartuta. Faxistak Zarautza sartu zirenean, herrira itzuli eta gogor aritu zen errepublikaren aldekoen eta euskal abertzaleen kontra. Gizon hark karta eta ohar asko igorri zizkion Huarteri, Orioko garai hartako gorabehera askoren berri emanez.

Alemaniatik bidalitako hegazkinek Gernika bonbardatu zuten egunaren bezperan, 1937ko apirilaren 25ean, adibidez, honako karta bidali zion Candido Arozenak Huarteri:

Señor don José Maria Huarte. Comandante Militar:

Muy distinguido Sr. mío: he copiado la relación que tuvo usted la bondad de facilitarme ayer y como quiero devolverla en persona, tenga la bondad de decirme cuando quiere que vaya.

Aprovecharia la ocasión para indicarle, la forma en la que creo se podría ir actuando y si le parece bien y la acepta, inmediatamente me pondría al trabajo, formando la lista de los que faltan y de los que no han llegado, que son bastantes.

Los momentos actuales, creo que son propicios para la faena, ya que el avance de nuestras gloriosas tropas, deprimirá el animo de los contrarios y ante el temor de lo que les pueda suceder, se daran por contentos cuando vean que solo se trata de una sangria. Por otra parte, los nuestros deben sentirse entusiasmados con el avance y mientras ésto dúre, hay que decirles que han dado poco, muy poco, (algunos) y que es preciso extenderse un poco más.

Ha llegado usted tarde y no le quedan mas que las sobras. Pero, aún queda algo y verá usted cómo se luce, si andamos pronto.

Afectuosamente le saluda y queda suyo atto.s.s.q.e.s.m.

Candido Arocena. Zarauz. Villa Florita.

"También hay muchos conferenciantes por teléfono que al principiar a hablar lo hacen en Vasco pero al llamarles la atención siguen en Español pero casi siempre al principio y al final lo hacen en Vasco, lo que se puede creer que es lo suficiente para comunicarse noticias, se debería poner sanciones a este tipo de gente".

Zarauzko komandantzia militarreko artxiboko dokumentua, 1938ko abenduaren 22koa.

Arin y Embil´ fabrikako nagusien gainekeo informe politikoa

Andoain, Urnieta, Hernani, Aia, Usurbil eta Orio bere baitan hartzen zituen Komandantzia Militarreko buru egiten zuen militarrek, Teniente Coronel Comandante Militar Manuel Castejónnek, sinatutako txosten batean Arin y Embil fabrikaren nagusiei buruzko txosten `tekniko-politiko´ egin zen, Arin eta Embil familietako kideak banan-banan aztertuz. Hauxe da 1937ko maiatzaren 19an Lasartetik bidalitako agiria:

Información técnico política relativa a la fábrica de muebles propiedad de la razón social “Arin y Embil” de Orio

Esta fábrica propiedad de la razón social citada, trabaja en la especialidad de muebles de lujo, con un volumen aproximado de venta anual de unas 400.000 ptas. poseyendo además un Depósito de materiales destinados a la fabricación cuyo valor oscilará entre las 300 y las 350.000 ptas.

En época normal viene a emplear alrededor de 40 a 50 obreros, reclutados en mayoría entre elementos afectos al partido Nacionalista vasco.

La razón Social la componen D. Victor Embil Olaizola, D. Jaime y D. Enrique Embil Gorriti, hijos del anterior, y los hermanos D. German y D. Cristino Arin Embil, sobrinos del primero, y cuyos antecedentes políticos se detallan a continuación:

Victor Embil Olaizola: *Nacionalista separatista. A partir de la fecha de entrada de nuestras Tropas no ha actuado ni en un sentido ni en otro. Se dice que ha hecho cesión de su participación en el negocio en favor de su hijo Enrique, pero este extremo no ha podido ser comprobado de manera absoluta, siendo mas probable que no haya habido tal cesión y en caso de existir, ser puramente nominal y con objeto de ponerse a cubierto y evitar en su día las lógicas consecuencias de su afinidad con el partido nacionalista.*

Tiene una hija llamada Maria, de filiación nacionalista separatista, que se ha distinguido siempre como propagandista de la idea y que durante el dominio rojo en la villa de Orio, confeccionó camisas para los gudarís y aun se dice que les sirvió como cocinera.

Se halla en buena situación económica. En las pasadas elecciones parece ser que votó la candidatura de derechas, forzado por un cliente suyo de San Sebastián, cuyo nombre se ignora, y consta en esta Comandancia la existencia de un certificado extendido por D. Lesmes Miralles (empleado en la Fábrica) como vocal de Derecha Vasca de Orio. el cual acredita haber entregado al

Bittor Embil, pilotaria eta Arin y Embil altzari-fabrikaren jabeetako bat.



citado Sr. Embil antes de la votación, candidaturas de Derechas y que las votó. Es fácil comprender que la autenticidad de este certificado puede ser puesta en duda sin gran temor a equivocarse, ya que ha sido expedido por un empleado de la Fábrica, que lleva muchos años al servicio de esta razón Social, abundando en la misma opinión diversas personas de Orio que han sido interrogadas sobre este particular; constando asimismo que la Delegación de la Junta Carlista de Orio se negó a expedir un certificado que se le solicitó, por entender que no podía darlo en sentido favorable teniendo en cuenta los antecedentes de dicho Sr. Embil.

Enrique Embil Gorriti: *Fundador del Partido Nacionalista Vasco en la villa de Orio. Miembro de la Junta Municipalista de Agosto de 1934, que culminó en el acto de Zumarraga, al que asistió según todas las probabilidades, por ser asíduo concurrente a todo acto de esta índole, dada su marcada tendencia Nacionalista-separatista.*

Jaime Embil Gorriti: *Como su hermano de filiación nacionalista separatista. Miembro también de la Junta Municipalista y socio del Batzoqui desde su fundación.*

German Arin Embil: *Persona de buenos antecedentes que en las elecciones de febrero votó la candidatura de Derechas. Parece ser que contribuye con cien pesetas a los gastos de propaganda electoral de Renovación Española, entrega que quiere hacerse aparecer como donativo de la razón social Arin y Embil, siendo así que existen motivos fundados para creer que fue donativo particular de German Arin. Durante el actual Movimiento ha contribuido con la suma de 1.000 pesetas a la Suscripción Nacional.*

Cristino Arin Embil: *Nacionalista separatista. Prototipo del cabecilla nacionalista que utiliza para sus fines a segundas personas. Propagandista de la idea. Durante el periodo de dominio rojo en Orio, prestó servicios con su automóvil y se sabe que los gudarís daban guardia al chalet de su propiedad para evitar se le hiciera daño alguno.*

Cuando los separatistas catalanes en unión con los diputados vascos realizaron una jira por la provincia en el año 1934, obligó a los obreros de la fábrica a salir a recibir y homenajear a los excursionistas.

Tiene dos hijas de 23 y 20 años, separatistas también, que durante la propaganda electoral que precedió a las elecciones de febrero, se dedicaban a recorrer las calles de Orio arrancando los pasquines de derechas, y durante el dominio de los rojos han confeccionado camisas para los gudarís.

Arin y Embil fabrika Gipuzkoako garrantzizkoena zen gerra aurreko urteetan, altzarien alorrean, Zarauzko Muebles Arrutirekin batera. Disenatzaile propioak izan zituzten eta oso aurreratuak ziren diseinu berrietan; publicitatea euskaraz egiten ere aurrenetakoak izan ziren.



Dada la ideología política de los miembros de esta razón social no es de extrañar que el personal de la Fábrica haya sido reclutado siempre entre elementos nacionalistas o francamente simpatizantes de la idea, dándose en la actualidad la circunstancia, de trabajar en la Fábrica solamente dos obreros de derechas, uno de ellos admitido hace poco tiempo y por imposición de los elementos de derechas de la localidad, por tratarse de un obrero que ya había trabajado anteriormente en la fábrica.

Arin y Embilenekoen ondasunen inkautazioa

Familia honek ere pairatu behar izan zuen, beste hainbat herritarren antzera, beren ondasunean inkautazioa. Velarde koronelak, orduko gobernadore militarrek, 1937ko ekainaren 18an sinatutako agirian hauxe agertzen da:

“Pasen los adjuntos antecedentes de los que integran la razón social `Arin y Embil´ de Orio a la Comisión Provincial de Incautaciones, a los efectos en Justicia procedentes.”

Jesus Apellaniz pintorea Arinenean

Jesus Apellaniz pintore gasteiztar ezagunak Arin y Embil enpresan lan egiten zuen 1930etik, altzari-diseinatzaile moduan. `Inguru Eder´ etxean bizi zen, fabrikaren ondoko etxean. Gerra hasi zenean, militar bat ere bizi zen etxe hartan, Juan Angel Negron komandantea, alokatutako pisu batean. Negronek uztailaren 18ko militarren matxinadan parte hartu zuen. Apellanizek militarrekin nolabaiteko adiskidantza egina zenez, matxinatuen kolpeak Donostian porrot egin zuenean, atxilotu egin zuten. Baina dirudienez, askatu egin zuten berehala eta, orduan, familia Gasteiza bidali eta bera ezkutatu egin zen. Horrela egon zen herrian matxinatuak sartu ziren arte. Ondoren, Toki Alain jarri zen apopilo. Handik gutxira, Zarautza joan zen bizitzera eta, fabrikako lana utzita, erabat pinturara dedikatu zen. Apellanizen koadroek balio handia dute gerra aurreko Orio hura nolakoa zen irudikatzeke; 1930etik 1936 bitartera, Orioko

herriaren eta inguruko mendi eta baserrien koadro eder asko egin baitzituen pintore gasteiztarrek.

Gerra aurreko Orioko moila, Jesus Apellanizen koadro batean.



Ideologia politikoari buruzko agiriak

Sinatu gabe ageri den agiri horietako batean, Orioko zenbait gizoni buruzko azalpen ideologiko-politikoa ematen zen:

***Alcalde. Don German Arin y Embil.** De sangre muy liberal, amigo de los nacionalistas. Casi todos sus parientes lo son. Es enfermizo y tímido. Tiene el proyecto de reponer inmediatamente al Secretario destituido, (nacionalista de toda su vida, así como la familia) y perdón y olvido para los separatistas. Hay que tener en cuenta que entre los empleados se encuentran varios contrarios a nuestra causa, el médico, veterinario, secretario, sereno, etc.). Se le propone sin duda por su apellido y porque se aviene a prestarse al juego de los partidarios del secretario. Además... porque no hay otro.*

***Don Tomás Aguirre Azurza.** Tradicionalista de siempre y escribiente del propuesto para alcalde. Siendo contador de la Cooperativa, tuvo un tropiezo con otros que hoy quieren reponer al secretario, pero se le echó tierra al asunto para que no oliera.*

***Don Lesmes Miralles Arregui.** De derechas pero muy amigo del alcalde dimisionario y condenado por los tribunales Ercilla y enemigo mío. Es además trabajador de Arín e incondicional suyo. Son muchos el alcalde y dos concejales de una casa.*

***Don Julian Aramburu Zubiria.** Uno de los tres tradicionalistas que había en Orio antes del glorioso movimiento y persona muy seria.*

***Don Jose Antonio Esnal.** Siempre ha estado con las derechas. Habita el caserío...*

Txostena Donibane Lohitzunetik Beste agiri batean, Juanito Iturain Larreategik, Iparraldetik itzulita, hango egoeraren berri eman zuen, eta baita batzuek kolaboratzeko zuten borondatearen berri ere.

“Juanito Iturain Larreategui, retornado de Francia el 4 de noviembre de 1937 manifiesta.

Que en Bayona existen mas de 30 embarcaciones de dos o tres tipos (motoras, barcos y arrasteros- de estos una pareja de la compañía Ciriza de San Sebastian, otro llamado Donostia, de chapa de hierro).

Todos ellos están amarrados y no salen al mar. Están bastante vigilados. Pero es posible su salida y llegada a España llegando a una inteligencia con los patrones. El partido vasco cuenta 8 pesetas diarias.

Hay una persona que se llama Leandro Azcue que está dispuesto a fugarse y presentarse en el puerto que se le designe con la parte afecta de la tripulación, siempre que se le garantice.

Hay unos hombres que viven a bordo.”

De los frentes de combate

Ruta a Bilbao: Orio

Huelgan los remos mustios, sobre babor en las traineras quietas

Una lluvia ligera, enturbia la tarde, camino de Orio.

LA VOZ DE ESPAÑA, nace bajo el fuego y el agua, cara a la guerra, quiere ir a los frentes cada hora para llevar a ellos el aliento de nuestra impaciencia y traerse frescos, con olor a pólvora y alegría de himnos, noticias para quienes esperan en la ciudad también impacientes.

Cada día tiene su afán. Ayer fuimos a Mendizorrotz, hoy ponemos proa a Bilbao.


En la primera revuelta de Irubide, calvario de amigos nuestros, asesinados bajo noche cerrada sobre el mismo césped que pisamos, cubierto de rocío y de verdores, rotamos. Nadie pensará a la vista de aquel paisaje de égloga, con manzanas coloradas, y olor a heno recién segado, el dolor del recuerdo. Sin embargo allí, ante nosotros cayeron nuestros hermanos, víctimas de la barbarie marxista, días antes, horas solo quizás, del paso firme y decidido de los valientes soldaditos españoles.

Quedan ya atrás, Oriamendi y Santa Bárbara, Buruntza y Andatza, con su recuerdo de viejas estampas del romanticismo realista, ese romanticismo, lo repito una vez más, que ahora ha salvado a España.

Después Usúrbil, con su viejo palacio, su yedra trepadora en los muros, y su plaza gosa. Y tras Usúrbil, Aguinaya, donde encontramos los primeros evadidos de Orio, que nos rodean y asedian.

Todos muestran, con las huellas del cansancio por la jornada penosa de la huida, el dolor ante el dramatismo de la sacudida marxista en la villa marinera. Allí queda el pueblito costero, con las señales sangrantes del bárbaro saqueo. Nada respetaron los rojos. Todo sufrió el azote del pilloje. Incluso los enseres del hogar y los animales de labor, merecieron la rapia cruel. Los edificios casi en ruinas, por la explosión brutal de las ventisiete cajas de dinamita con que volaron el puente, presentan un aspecto desolador.

No cuentan escenas que tienen de carmín



CLAROSCURO DEL RIO Y LA RI ERA. TRIPTICO DE HOMBRES EN LA BARCA.
LOS REQUETES, CRUZADA SU MIRADA EN LAS ORILLAS, VIGILAN EL PASO DE LA RIA DE ORIA

las aguas verdes de la mansa ría. Si se negaban a ir con ellos, los subían en camiones y así, como bestias, los transportaban.

Ciento cuarenta niños de la colonia escolar de Zaragoza, pobres niños de pobres familias, fueron sacados de la cama a las dos de la madrugada del martes, y obligados entre blasfemias y amenazas, casi desnudos, a bajar a la carretera, desde donde les trasladaron, con frío de cuerpo y alma, entre terror de noche triste y pupilas tendidas de sueño, a Vergara.

Cuentan y no acaban.

La graciosa villa marinera, yace en silencio sepulcral en esta tarde apacible de Septiembre, con su puente partido en dos co-

mo estéril protesta contra la barbarie humana.

Ahora nos habla Eustaquio Echeaga, viejo remero, cuyas manos encallecidas, de haber domado el timón sobre las crestas blancas de las olas de galerna cantábrica, nos muestran los remos mustios sobre el babor de las quietas traineras. Hay algo de nostalgia en su rostro, que contagia los nuestros. Piensa sin duda en los que se fueron a la fuerza, y quizás por fuerza no vuelvan. Era en estos días precisamente, cuando tiempo atrás, con velas de ilusión en las naos, cruzaban raudos el azul de nuestra Concha, en regata, empeñada por la codiciada bandera.

Hoy son banderas rojas las que portan y las que anhelan. Signo de sangre, en lucha fratricida.

El cura de Orio, disimulando en traje de mar, su condición, pasó escondido las últimas jornadas de terror. No es para contado lo ocurrido, nos dice con amargura...

Irún y Orio, la frontera y el mar han sentido juntos la protección "nazi". Igual que la hubiese sentido San Sebastián si los cuarenta Requetés de Artajona, solo fueron cuarenta, no se adelantaron a evitar con su pecho valiente el bárbaro atentado contra la bella Easo. Irún, escombros hoy, por un fuego que aún no se ha apagado porque aún no se ha castigado a los culpables, en su agonía ha visto otra manera de destruc-

ción. Orio allí a lo lejos, camino de Bilbao ha sido desolado más cruelmente que Behobia y Fuenterrabía. El viejo patrón Acheaga fué requerido por los rojos tras la voladura del puente, para transportar a la otra orilla, en su barca amiga, unas armas que olvidaron en la precipitada fuga. Se negó en firme, arrojando la muerte. La barca tuvo que atravesar la ría, pero fueron otras manos, no las suyas que la acariciaron tantas veces, quienes la hicieron bogar. Aún tuvo que contemplar, como un refinamiento cruel, su barca, la "María del Carmen", a merced de las olas, en busca quizá del mar donde ocultar, sola, tras el duro encuentro con el acantilado, el sonrojo de una complicidad vergonzosa.

El gesto valiente del marinero, de saber resistir frente a la muerte, nos da alientos para seguir luchando, y confianza para seguir venciendo.

De regreso, nuestros ojos se abren de par en par, para fijarse bien y no olvidar la ceremonia sencilla de colocar como dosel de un blanco caserío, la bandera roja de sangre hermana que cruza el río jalde de la sidra de los manzanos.

En tanto, bajo la noche oscura, las hogueras esparcidas por las montañas, brillan, cobetes de esperanza en la noche, señalando el jalón postrero del avance.

JULIO MUÑOZ R. DE AGUILAR



Gizonezko gazteak gerrara derrigortuta

Matxinoen tropak Orion sartu orduko, soldaduskarako adinean zeuden gazte guztiak gerrara behartu zituzten. Matxinatutako agintari militarrek hartutako herrietan agintzen zuten lehenengo neurrietakoa izaten zen 18 eta 48 urte bitarteko gizonezko guztien derrigorrezko mobilizazioa dekretatzea. Horren aurrean, era desberdineko jarrerak izan zituzten belaunaldi hartako gazteek: batzuk ordurako alde eginda zeuden herritik, beste batzuk orduan joan ziren, asko gerrara eraman zituzten, frontera, gehienak beren borondatearen kontra. `Gerra zibila Gipuzkoan, 1936` liburua dioenez, 1938ko abenduko zerrendaren arabera, 3.118 ziren frontera eramandako gipuzkoarrak. Haietatik 27 Oriokoak ziren; 10, Aiakoak, eta 86, Zarauzkoak.

Honako oriotar hauek izan ziren 1936ko deialdikoak, kintakoak, 1915ean jaio eta gerra hasi zen urtean soldaduskarako adina zutenak, gerrak bete-bete harrapatu zituenak:

Azkue Aierbe Antonio
Abarrategi Sagarna Felix
Azkue Aierbe Eulogio
Blanco Muñoz Manuel
Karrera Oliden Juan Jose
Dorronsoro Irastorza Jose
Eizagirre Eguskiza Jose Maria
Esna Etxeberria Jose
Gaztañazpi Maioz Candido
Ikazeta Lertxundi Vicente
Iñarra Orbegozo Jose Ignacio
Iparragirre Salaberria Jesus Jose
Larrañaga Sancho Antonio
Lertxundi Ubegun Jose

Loidi Zabalegi Antonio
Lopez Martinez Gregorio
Mendizabal Odriozola Pedro
Murua Ibarguren Juan Manuel
Murua Ubegun Juan
Oliden Gonzalez Mariano
Oteiza Enbil Francisco
Peña Gozategi Juan
Perez Lopez Jose
Rodriguez Iruretagoiena Ramon Casildo
Royo Ubera Crescencio
Salsamendi Illarramendi Miguel
Solaberrieta Bengoetxea Jose

Argazkiko arrantzaleen belaunaldia bete-bete kolpatu zuen 1936ko gerrak. Argazkikoak bizirik atera ziren denak eta luze bizi izan ziren; baina haien adineko beste batzuk bidean geratu ziren, gaztetan, gerrak betiko eraman zituen.



Zerrendako bi gizon, gutxienez: Jose Manuel Dorronsoro eta Jose Mari Solaberrieta, frontera joanak ziren, faxistei aurre egitera, haiek Orion sartu aurretik. Dorronsoro ez zen inoiz itzuli; han geratu zen betiko, “desagertuta”.

Aurreko urte batzuetan prorroga eskatu eta artean soldadu joan gabe zeudela, deitu zituzten hauek ere 1936ko deialdian:

Agote Santamaria Francisco (marinara)
Azkue Arruti Eugenio
Etxaide Lertxundi Ismael
Makazaga Jose
Manterola Elola Simon
Uranga Garate Juan (marinara)

Marinara deitutako biak, Francisco Agote eta Juan Uranga, aurretik eusko gudariekin gerrara joanak ziren. Agote zauritu egin zuten metrailaz gerra-frontean 1936ko abenduan, baina bizirik itzuli zen gerratik; Uranga, berriz, hil egin zuten 1936ko abenduaren 4an Legutioko frontean. Eugenio Azkue, dirudienez, saiatu zen frontera joatetik libratzen, baina harrapatu eta preso eduki zuten Iruñeko San Cristobal presondegian.


Beste bat ere bazen, Jose Santamaria Arruti, 1914an jaioa, baina aurreko urteotan prorroga eskatua..

Honako beste hauek izan ziren 1937ko deialdikoak:

Arrillaga Alkorta Santiago
Esnal Errasti Eleuterio
Garaialde Ugarte Jose Manuel
Gozategi Aizpurua Agustin
Lertxundi Beldarrain Jose Manuel
Lertxundi Lertxundi Jose Manuel
Leunda Azkue, Aierbe (sic)
Loidi Aierbe Jose Vicente
Ostolaza Aristondo Jose Manuel
Olasagasti Beraza Felix Miguel

Beste bost gizon ere baziren 1937ko deialdikoak, 1916an jaioak, baina dirudienez ihes eginda zeuden, zerrendan profugo hitzarekin agertzen baitira:

Azurmendi Iturrioz Jose
Diaz Mendibil Paulino
Diaz Mesonero Patricio
Rekondo Torregarai Asensio
Valeros Laiz Tomas



Gerrarako deialdi-gutuna. Gerran hildako soldadu gehienek, bi bandoetan, behartuta joan behar izan zuten borrokatzera.

Gazte batzuek modua egin zuten erregimenari aurre egin gabe herrian geratzeko. Horren froga da Huarte komandanteari Orion bizi zen beste militar batek, Juan Angel Negron de las Cuevas komandanteak, 1937ko abuztuaren 1ean, bidalitako dokumentua. Bertan, Oriotik gerrara joan gabe zeuden zazpi gizonaek izenak zerrendatzen zituen, `Emboscado´ terminoa erabiliz haientzat. Militar hark kontu matematikoa ere egiten zuen, zazpi horietatik abiatuta, ondorioztatuz era horretan `askatutako Espainian´ 49.000 `emboscado´ izango zirela, alegia beren burua gerrara joan gabe libre geratutakoak.

Orioko Erreketea

M atxinatuek, menperatutako lurraldeetan, gerrara deitu zituzten gazteez gain, miliziak ere sortu zituzten herriz herri, tokian tokiko jendearekin. Karlistek osatutako miliziek errequete izena hartu zuten.

Orion ere sortu zen bertako errequetea. 1937ko urtarrilaren 1eko data duen dokumentu batean, 134 gizonaek osatutako zerrenda luzea agertzen da. Agiria Antonio Etxanizek sinatu zuen, Orioko gerrako junta karlistaren buruak. Gehienak Oriokoak dira, baina Aiakoak ere badira, 22 zehazki, *“pertenece a Aya pero hace servicios en esta Villa por estar mas próximo”*. Dokumentuaren arabera, jende horrek berak eman zuen izena Orioko Erreketean. Izen eman zuteneko data ere agertzen da, lehenengoa 1936ko urriaren 20koa da, errequeteak Orion sartu eta hilabetera justu; azkena, abenduaren 16koa. Bi data horien artean izen emandakoak daude zerrendatuta. Adinari dagokionez, denetik dago taldean, oso gazteak eta urte asko zutenak ere bai. Zerrendako gazteena Crescencio Gozategi da, 15 urte besterik ez zituen orduan; zaharrena, berriz, Eustaquio Atxaga, 70 urteko gizona, 1901ean balea harrapatu zuten patroietako bat. Batzuen kasuan, adierazten du non ari ziren zerbitzu militarra egiten. Haietako 12 Lasarteko aerodromoan zeuden. Gizon horien lanbidea ere

agertzen da; gehienak nekazari edo arrantzale ziren, ebanistak ere asko, lau pilotari ere baziren haien artean.

Erreketearen buruzagitza lau kidek osatzen zuten: Antonio Etxaniz (pilotaria), buru, handik hilabete batzuetara herriko alkate izango zena; Jose Maria Aramendi (industrial), idazkari; eta Victoriano Solaberrieta eta Fermin Larrañaga (pilotaria), `adjuntos´. Honako hauek dira Erreketearen zerrendako gainerako oriotarrak:

Erreketeak herrian sartu eta egun gutxitara herriko gizonaek hartu eta bertako Erreketea osatzen hasten ziren. Horixe egin zuten Orion ere. Argazkiko gizon horietako batzuek ere ez zuten beste erremediorik izan.



Eustakio Atxaga
Ignacio Aduriz Ibarrola
Tomas Agirre Azurza
Ignacio Alberdi
Antonio Alberdi Zuloaga
Joakin Alberdi Zuloaga
Joakin Aldabe Juanitorenena
Julian Aranburu Zubiri
Santiago Aramendi
Jose Aranguren Alberdi
Jose Arregi
Juan Jose Arruabarrena
Ignacio Arruti Lertxundi
Teodoro Aspiazu Escudero
Gabriel Atorrasagasti
Bizente Atorrasagasti
Ignacio Aiestaran
Juan Azkonobieta
Juan Azpiroz Anabitarte
Santos Balerdi
Ernesto Banegas
Ignacio Barjacoba
Manuel Brit Lertxundi
Jose Campos Elozegi
Juan Jose Kaperotxipi
Antonio Karrera
Juan Karrera Oliden
Nikolas Karrera
Joakin Cortes
Julio Dorronsoro Irastorza
Jose Manuel Egurza Eguzkiza
Antonio Elizalde
Modesto Elizalde
Juan Elizondo Salaberria
Eleuterio Esnal Errasti

Azedio Etxabe Lertxundi
Anjel Etxeberria
Jose Maria Etxeberria
Manuel Etxeberria
Jose Etxeberria Landa
Antonio Maria Genova
Pedro Genova Lopetegi
Rufino Gonzalez Arruti
Kresentzio Gozategi
Bernardo Gurrutxaga
Sabino Ibargoien
Basilio Iruretagoiena
Antonio Iturain Arozena
Agustin Iturri
Antonio Iturzaeta
Bizente Iturzaeta
Isidro Landa Artetxe
Anjel Lertxundi
Ignacio Lertxundi
Jose Juan Lertxundi
Jose Maria Lertxundi
Jose Lertxundi Arsuaga
Jose Mari Lertxundi Beldarrain
Sebastian Lizarraga
Juan Lizaso Lertxundi
Juan Loidi Azkue
Franzisko Makazaga
Tiburtzio Makazaga
Jose Makazaga Etxabe
Jose Makazaga Sarasua
Franzisko Manzisidor
Marzelino Manzisidor
Balentin Manzisidor
Ignacio Manterola Isasi
Jose Mendizabal

Laureano Mendizabal
Jose Maria Murgiondo
Antonio Mutiozabal
Jose Maria Odriozola
Juan Anastasio Oliden
Ignacio Ostolaza
Jose Migel Ostolaza
Bernardo Otegi
Ignacio Oteiza Enbil
Marzelino Peña
Antonio Peña Aisasinsarra
Ignacio Peña Goikoetxea
Jose Peña Gozategi
Ignacio Peña Loidi
Abelino Quintana Uriarte
Benjamin Sagarna
Jose Maria Sagarna Mambrona
Domingo Sagarna Segurola
Domingo San Sebastian
Ramon Santamaria
Jose Santamaria Arruti
Pedro Sarasua Ugarte
Jose Migel Segurola
Rafael Segurola Agirre
Eusebio Solaberrieta
Juan Jose Solaberrieta
Lino Solaberrieta
Silberio Uranga
Antonio Urdangarin
M. Jose Uria Aldalur
Jose Urretabizkaia
Francisco Zumeta
Jose Zumeta Etxabe

Erreketeen 'Tercio Oriamendi'ko
4. konpainia, Beasainen sortu eta
Oriotik ere pasatu zen.



Zerrendan beste lauren izenak ere agertzen dira, dirudienez boluntario moduan 'Denis' gerra-ontzian zeudenak: Jose Francisco San Sebastian, Jose Gozategi Aizpurua, Juan Arruti Lertxundi eta Jose Lertxundi Zendoia. Horiez gain, Juan Karrera Oriden, Donostiako Itsas Komandantzia zegoen, eta Jose Kintana Uriarte, Oriamendi Tertzioan.

Ondoko hauek dira Aiakoak omen zirenak:

Jose Maria Agirresarobe
Jose Aldabaldetrekua
Franzisko Arregi
Franzisko Arruti
Antonio Arruti Arruti
Jose Maria Arruti Arruti
Jose Antonio Azkue
Meltxor Azkue Elizalde
Jose Elizalde
Jose Manuel Izeta
Jabier Izeta Etxeberria
Jose Antonio Iribar
Jose Maria Iribar
Ignacio Iribar Etxaniz
Jose Iribar Elizalde
Martin Iribar Elizalde
Jose Iruretagoiena
Jose Manuel Linazasoro
Jose Franzisko Makazaga
Jose Portularrume
Jose Maria Portularrume
Lorentzo Portularrume

Zalantzarik ez dago erreketen taldean izen eman zuten gehienek ez zutela zer ikusirik haien ideologiarekin, eta ia denek beldurraren poderioz egin zutela, seguru asko derrigortuta; agian, mehatxuen bitartez. Zerrendan agertzen da Juan Azpiroz 44 urteko gizona, 1936an bertan, gerra hasi aurretik hilabete batzuetan, errepublikaren garaian alkate izandakoa. Zerrendan dago udal berriak egin zuen garbiketa ideologikoaren barruan

zigortuta lanik eta soldatarik gabe geratutako Joaquin Aldabe. Baita, gerora bizitza osoan ideologia abertzalea agertu zuen Rafael Segurola eta horrelako beste asko. Kasu nabarmena eta mingarriena Julio Dorronsoro Irastorza da. Haren anaia bat, Jose Manuel, eusko gudarien artean ari zen borrokan, Eusko Jaurlaritzaren defentsan, eta Asturiaseko frontean hil zuten erreketek eta italiarrek. Gehienek, bistan denez, ez zuten zerikusirik ez praktika politikoarekin ez gerran alde batean lerrokatzearekin ere. Gauzak hala egokitu zitzaizkien.

Erreketeen kasuan bezala, beste erakunde batek ere eratu zuen taldea Orion. JAC izena zuen, 'Juventudes de Acción Católica', eta Espainiako eskuineko CEDA alderdiari lotua zen. Nazionalak sartu ondoren, batzuk nahi zutelako eta besteak behartuta, herri erdia egin zen edo erreketeko edo falangista edo JACeko. JACekoek elkarte bat zeukaten eta han irrati handi bat. Haren ondoan egoten ziren fronteko albisteak entzuten, eta nazionalek hiri bat edo fronte bat irabazten zutenean elizako kanpaiak jotzen zituzten.

Mutil gazteekin instrukzio militarra egiten zuten errepedean, beren lokaletik Txankaraino, orduan ez baitzen batere automobilik ibiltzen errepedean. Kaborjoaten zenak agintzen ziren. "Alto, derecha", eta mutilen erdiak ezkerreara joaten ziren, artean ez omen zekitelako zer zen *izquierda* eta *derecha*. Behin Frantziatik barku bat etorri eta Epifanio Etxeberria eta orduko agintariak etorriberriengana joan ziren. Kanpotarrek oinak moilan jarri orduko, 'Cara al sol' kantatzera behartu zituzten. Moilan zen baita ere Jose Gartzia esaten zioten bat, Xixario Urangaren osaba. Jose ere hasi zen kantari, baina ezker besoa altxatuta eta ukabila itxita. Aldamenean zeukan Antonio Maria Uranga. Honek ikaratuta ahopeka esan zion: *-hi, jaitsezak esku hori eta igozak bestea, baina zabal-zabalik.*



Juventudes de Acción Católica erakundearen Orioko kideak.

Nazionalak Orion sartu eta gutxira, Gipuzkoa osoa bereganatu zuten. Bizkaiko mugan ezarri zen fronte berria, han osatu zuten errepublikaren aldekoek defentsa. Elgeta aldetik gainera, kontra-ofentsibak ere egin zituzten. Frontea atzera-aurrera ibili zen hilabete batzuetan. Hori zela eta, Francoren soldaduek ere defentsak jarri behar izan zituzten gudariei aurre egiteko. Defentsa haietarako puntalak behar zituzten, pinu-egurrezko hesolak edo posteak. Egur hura Gipuzkoa aldetik eraman zuten, Oriotik ere bai.

Errioaren beste aldean dagoen Irisasi mendia dena pinua zen. Pinuak bota eta errioaren alde honetara ekartzeko ontziak behar zituzten, alak. Irisasin basozain lanean zebiltzan bi gizonak Saikolara joan ziren. Han bizi zen orduan Eusebio Aldaz *Xuai*, bere senideekin. Haiengana joan eta esan zieten: *-esas dos alas quedan requisadas. -¿Como que requisadas? eta -sí, las necesitamos para traer pinos.* Handik egun gutxitara, Eusebio bera ere, orduan 11 urteko mutil koskorra, zeregin horretan zen buru-belarri, errioa ala hutsean pasa, eta gainezka ekarri, pinu-egurrez egindako puntalez beteta. Hilabetea bukatuta, Eusebio duro batekin etxeratu zen; bost pezetako jorrala eskuratu zuen, bizitzako lehenengoa. Eusebiok dienez, orduan Lasarten zegoen aerodromoan lanean zebiltzanek hilean hiru pezeta irabazten zuten. Etxera joan eta jorrala amari eman zionean, honela erantzun omen zion amak: *-badaukagu beste gizon bat etxean.*

Errepublikaren eta Euskal Gobernuaren alde ibilitako oriotarrak

Aranzadi zientzia-elkartea 1936ko gerran desagertutakoen hobiak bilatzeko ikerketa-lana ari da egiten. Gainera, Eusko Jaurlaritzako `Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza´ren lankidetzaz, zerrenda bat osatua du gerrako gal-tzaileen bandoan ibilitakoak, desagertutakoak eta errepresioa jasan zutenak biltzen dituen, herriz herri osatua.

Ondoko hauek dira zerrenda horretan Orioko herriari dagozkion 72 herritarrak:

	DEITURAK ETA IZENA	JAIO/BIZI	GERRAKO EGOERA	BATAILOIA
1	Abaurrea Zaldua, Jose Maria	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
2	Agirre Morga, Isidro	Orio	Preso	
3	Aizpurua Errazkin, Andres	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia Azpeitian	UGT
4	Alberdi Zuloaga, Zeledonio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	UGT
5	Aldaz Otamendi, Dabid	Orio	Miliziano Gipuzkoan (MAOC ORIA)	USU/UGT
6	Arkauz Lopez de Bikuña, Felix	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
7	Arruti Lizarralde, Jose	Orio/Azpeitia	Preso	
8	Azkue Arruti, Eujenio	Aia/Orio	Preso	
9	Azkue, Antonio	Orio	Miliziano Gipuzkoan. Loiolan	UGT
10	Barjacoba Martínez, Franzisko	Orio	Miliziano Gipuzkoan. Orion	
11	Barjacoba Díaz, Felipe	Orio	Mobilizatua. Milizia	
12	Berasategi Altuna, Bernardo	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
13	Bueno Castro, Bitor	Toledo/Orio	Preso	
14	Carrasco de la Rosa, Rafael	Badajoz/Orio	Preso	
15	Cazon Pelaez, Franzisko	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
16	Cirilo Lopetegi, Manuel	Orio	Miliziano Gipuzkoan (UHP)	UGT
17	Del Puerto Tolosa, Bonifazio	Orio	Euskal Milizia.1936/09/04an ospitalean hila	
18	Díaz de Mendibil Egia, Patrizio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. (UHP)	

	DEITURAK ETA IZENA	JAIO/BIZI	GERRAKO EGOERA	BATAILOIA
19	Díez y Díez, Dazio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
20	Dorronsor Irastorza, Jose Manuel	Orio	Miliziano Gipuzkoan	UGT
21	Etxeberria Izeta, Jose	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
22	Egaña Urbietta, Marian	Deba/Orio	Preso	
23	Eizagirre Loidi, Benjamin	Orio	Preso	
24	Elizondo Galarraga, Bizente	Orio	Preso	
25	Erbout, Roger	Orio	1936/12/07an Orion fusilatua (25 urte)	
26	Gametxo Azpeitia, Serapio	Orio	Euskal Gudontzidian	STV
27	Garaiburu Lertxundi, Ignacio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
28	Garaiburu Lertxundi, Julian	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
29	Garcia Salazar, Juanito	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	UGT
30	Ibarguren Gomez, Florencio	Orio	Ondasunak konfiskatuta	
31	Iñarra Orbegozo, Ignacio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia. Gursen preso	
32	Larrañaga Sancho, Antonio	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia. Gursen preso	
33	Lertxundi Gurrutxaga, Benito	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
34	Lertxundi Oñederra, Jose Benito	Ori	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
35	Lizaso Eizmendi, Felipe	Orio/Errenteria	Preso	
36	Lizaso Eizmendi, Alejandro	Orio/Errenteria	1937/04/05ean Otxandioko frontean hila	
37	Loidi Iturzaeta, Florentino	Orio	Ondasunak konfiskatuta	
38	Maritxalar San Sebastian, Jose	Orio	Preso	
39	Martinez de la Hidalga, Martin	Orio	Astigarragako milizian (MAOK). Epaitua	UGT
40	Martínez, Simon	Orio	1936/12/07an Orion fusilatua (31 urte)	
41	Matilla Benito, Santiago	Orio/Errenteria	Preso	
42	Mitxelena Zumeta, Teodoro	Orio	1936/10/25ean Getarian fusilatua (46 urte)	
43	Miralles Oliver, Jaime	Orio	Miliziano. Epaitua	UGT
44	Miralles Oliver, Jose	Orio	Miliziano	UGT
45	Murgiondo Arana, Agustin	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	

	DEITURAK ETA IZENA	JAIO/BIZI	GERRAKO EGOERA	BATAILOIA
46	Mugiondo Arana, Jose Maria	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
47	Murua Manterola, Anjel	Orio	Miliziano Gipuzkoan	IR
48	Oliden Lertxundi, Jose Martin	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
49	Panpliega Lonbide, Begoña	Orio	Donibane Garazira erbesteratua	
50	Peña Azkue, Ramon	Orio/Pasai San Pedro	Preso	
51	Peña Loidi, Emilio	Orio	Miliziano Gipuzkoan	
52	Peña Sedano, Ulpiano	Burgos/Orio	Defentsako batzordekide. Preso	
53	Pérez López, Antonio	Madrid/Orio	Preso	UGT
54	Pérez López, Jose	Madrid/Orio	Preso	UGT
55	Pérez Martínez, Jesus	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
56	Pérez Martínez, Jose	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
57	Pérez Martínez, Jose Alejo	Orio/Pasai Antx	Preso	
58	Rekondo Irazu, Esteban	Orio	Epaitua	
59	Rekondo Irazu, Jose Agustin	Orio	Ondasunak konfistatuta	
60	Rekondo Torregarai, Karmelo	Orio	La Rochellen ospitalean. Caracasera erbesteratua	PNV
61	Rekondo, Agustin	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Defentsako batzordean	
62	Santa Maria Arruti, Francisco	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
63	Sanz Perosillo, Julio	Orio	Milizia. Epaitua	
64	Sarasua Aia, Jose	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
65	Segurola Albizu, Pedro	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
66	Suarez Intxauspe, Dabid	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
67	Uranga Garate, Antonio	Orio	Preso	
68	Uranga Garate, Juan	Orio	1936/12/04an Legutioko frontean hila	UHP
69	Uranga Garmendia, Antonio	Orio/Donostia	Preso	LARRAÑAGA
70	Urdangarin Goikoetxea, Manuel	Orio	Mobilizatua Gipuzkoan. Milizia	
71	Zubillaga Etxenagusia, Eusebio	Orio	Milizia. Epaitua	
72	Zunzunegi Beristain, Bernabe	Orio/Tolosa	Epaitua	SACCO Y VANZETTI

Felix Arkauz Lopez de Bikuña gudari ibili zela gerran Errepublikaren aldeko armadan, bere anaia Agustin eta honen koinatu Patriciorekin. Agustini batailan tiro bat eman zioten eta, hilda zegoelakoan, gorputegi batera eraman zuten Santanderren. Gorputegian beste hildako bat sartzera joan zirenean, Agustin mugitzen ari zela ikusi eta ospitalera eraman zuten. Han hilabete ugari egin zituen. Ondoren, kartzelan eduki zuten Donostian. Felixen biloba Noemi Ostolaza Arkauzek esan digunez.

Carmelo Rekondo Torregarai Frantziatik Venezuelara atzerriratu zen. Le Havre portutik Caracasera joan zen itsasontziz, bere emaztearekin batera. Karakaseko Eusko Etxearen “Jazoera” izeneko web orriak dioenez, Flandre izeneko `paquebote´an joan ziren, 1939ko uztailaren 28an, 139 errefuxiaturen talde baten barruan. Rekondo oriotarra peritu forestala omen zen.

Ulpiano Peña Sedano `Fundación Pablo Iglesias´ erakundearen web orriak dioenez, Ulpiano Peña Burgoseko Manzanedo herrian jaio zen 1897an. Orion bizi zen eta galdaragile-lanak egiten zituen. UGTko afiliatua zen 1912tik. 1932an, saiatu zen Orion elkarte radikal sozialista bat sortzen; baina ahaleginak porrot egin zuen, ez zuen bazkiderik lortu. 1936ko hauteskundeetan Frente Popularraren interbentore ibili zen. Gerra hasita, Orioko defentsarako batzordeko kide izendatu zuten, gerra-komisario karguarekin. Faxistak iritsi aurretik, Bilbora aldatu zen eta, gero, Santanderrera eta Asturiasera. 1937ko urriaren 20an, Gijonetik Frantziara ihes egiteko itsasoratuta, harrapatu egin zuten. Bilbon egindako gerrakontseiluan epaitu eta hamabi urte eta egun bateko kartzela-zigorra ezarri zioten, 1938ko uztailaren 27an. Pontevedrako San Simon presondegian sartu zuten. Gero, lau urtera laburtu zioten zigorra. Kartzelatik aterata, borroka klandestinoan murgildu zen, Pasaia eta Errenteria aldean. 1947ko maiatzaren 25ean atzerriratu egin behar izan zuen, euskal erakundeek deitutako maiatzaren 1eko greba orokorrean parte hartzeagatik. Baionan jarri zen bizitzen.

Ulpianoren seme batek ere aitaren borroka-bidea jarraitu zuen. Ramon Peña Azkue Orion jaio zen 1925ean; Euskadiko Partidu Komunistako kidea zen eta Bilboko poliziak atxilotu egin zuen 1948ko maiatzaren 10ean, eta ekainaren 8an kartzelatu.



Beheko irudiak ondo adierazten du nola laga zituen Orio eta oriota-rrak 1936ko gerrak: hotz, triste eta isilik, elurretan bezala.

Gerra-kontseiluan epaitutakoak

Gure eskaerari erantzunez, Aranzadi Zientzia Elkartearen bidez Eusko Jaurlaritzako `Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak´ bidalitako txostenak dioenez, ondoko oriotar hauek gerra-kontseiluan epaitu zituzten: Eugenio Azkue Arruti, Pio Salsamendi Errasti, Serapio Gametxo Azpeitia, Felipe Lizaso Eizmendi, Jose Maritxalar San Sebastian eta Antonio Uranga Garate.

Serapio Gametxo eta Felipe Lizasoren epaiek diotena bi gizon horiei buruzko ataletan jarrita daude. Hona, banan-banan, gainerako oriotar horien kontrako epaiek ziotena:

Eugenio Azkue Arruti

1937ko urriaren 18an epaitu zituzten Donostian Eugenio eta Pio. Angel Bagaz Zobelzu, epaile, eta Jose Elgezabal Ozollo, idazkari, izan zituen epaitegiak hauxe zioen Eugenio Azkueren kontrako epaian: *“simpatizante del nacionalismo vasco y a través de él del Frente Popular; tuvo a disposición de éste durante su actuación revolucionaria en Orio un camión de su propiedad y en un coche de turismo condujo milicianos armados y llevó a San Sebastián a cuatro significados extremistas los cuales tomaron parte en el asalto por las hordas rojas del Hotel Maria Cristina, jactándose después de haber visto salir la gente de dicho Hotel y demostrando no ser opuesto a los servicios que le encomendaban y que dicho procesado se afilió a Falange Española a la entrada en Orio de las Fuerzas Nacionales haciendo un donativo y poniéndose a su disposición con el camión de su propiedad y en el mes de Abril último causó alta en el Parque de Automóviles del VI Cuerpo de Ejército.*

Arrazoi horrengatik fiskalak 30 urteko kartzela-zigorra eskatu zuen Azkuerentzat, *“por un delito de adhesión a la rebelión militar”*, abokatuak, berriz, libre uzteko, errugabe. *“El consejo de guerra condena al procesado a la pena de doce años y un día de reclusión menor”*. Horixe izan zen Eugenio Azkueren kontrako epaia.

Eugenio Azkue Arrutiren alabak emandako bertsioaren arabera, herriko neska gazte batek salatuta atxilotu zuten bere aita. Salaketaren arabera, Eugeniok barre egin zuen, dinamitaz eraitsitako zubiarri begira zegoela.

Epaia betetzeko, Azkue Donostiako Ondarretako presondegira eramán zuten. Han zela, goilara bat hartu eta bertan kartzelan sartu zuteneko data grabatu zuen: *“Ondarreta 18-10-37”*. Goilara hark Eugenio Azkueren kartzelaz kartzelako ibilbide osoa jaso zuen

Eugenio Azkue (txapelarekin) bere hiru adiskiderekin: Jose Migel Leunda, Juanito Iturain eta Juanito Loidi, hondartza txikiaren gainean.



grabatuta: Ondarretatik Iruñeko Ezkaba mendian dagoen San Kristobal presondegira eram zuten (38-3-4); handik Pontevedrako San Simon irlara (38-9-17). Gero han bertan zegoen itsasontzi euskal izeneko batean eduki zuten preso, Upo Mendin (39-3-6); eta, azkenik, Astorgako kartzelan egon zen (39-4-2). 1939ko abuztuaren 9an ailegatu zen etxera libre. Goilara hura Eugenioren alaba Ana Rosak dauka etxean gordeta. Geroztik, haien etxean urtero ospatu omen zuten abuztuaren 9ko eguna, askatasuna eskuratu zueneko.

Eugenio Azkue Iruñeko San Kristobal kartzelan zegoela gertatu zen, 1938ko maiatzaren 22an, presoen ihesaldi famatua. Egun hartan presondegitik 795 presok ihes egin zuten. Haietatik 3k bakarrik lortu zuten Bidasoako muga zeharkatu eta askatasuna irabaztea; 585 berriro harrapatu egin zituzten; eta 207, mendian tiroka eta makilkadaka hil, ihes zihoazela. Ihesaldia antolatu zutenetako 14 gizon epaitu eta hiltzera zigortu zituzten gerra-kontseilu batean. Urte hartako irailaren 8an, fusilatu egin zituzten Iruñean, jende aurrean.

Historian eta mundu osoan, presoek kartzelatik egindako ihesaldietatik, saio jendetsuena izan zen Iruñeko 1938ko hura, eta odoltsuena, hilgarriena. Egun hartan kartzelan zeuden euskal abertzaleetako gehienak, ia denak, bertan gelditu ziren, ez ziren murgildu abentura hartan eta bizirik atera ziren. Eugeniok ere ez zuen ihes egin.

Honela azaltzen zuen egun hartako EAJko kide batek, San Kristobaletik atera eta handik 36 urtera idatzitako kartzelako egonaldia kronikan, zergatik ez ziren abiatu gudariak ihesaldian: *“guardia zaintzaileetako batek ihes egin zuen Iruñea aldera abisua ematera eta bi ordu baino ez ziren pasatuko faxistak iheslarien bila abiatzeko, hilabetetan ia ezer jan ez eta batere ariketa fisikorik egin gabe preso geundenon egoera fisikoa larria zen oso, mugarainoko bidea luzea (60 bat km.), eta mendian ibiltzeko ez geneukan oinetako egokirik, eta ezetz esan genien ihes egiteko gonbita egin zigutenei.”*

Kronika horretan egiten du preso oriotarraren aipamena ere (jatorrizkoan bezala, hitzez hitz): *“Un guipuzcoano avisado, conductor experto, metido en negocio de Conservas y Frontones, pensó en el coche del Alférez de la Guardia que solía dejarlo en una plazuela de la entrada, era un descapotable, se unió a dos presos que estaban armados con sendos fusiles y pensaron dirigirse a un sitio en que el Bidasoa hacía de Frontera, pero unos fugados gallegos se lo impidieron volcando el coche y diciéndoles que todos tendrían que ir andando, desistió volviéndose a su Pabellón.”*

Pio Salsamendi Errasti

Pio Salsamendi Eugenio Azkuerekin batera epaitu zuten. Hauxe da epaiak Salsamendiren gainean zioena: *“simpatizante nacionalista valiéndose de su situación política en el pueblo requisó los automóviles de dos personas de derechas para evitar lo hiciese el Frente Popular y, si bien fue visto en ellos o en otros conduciendo milicianos, también los utilizó para poner a salvo a sacerdotes y otras personas de derechas; ocultándose en casa de una de estas, cuando las Fuerzas Nacionales se hallaban próximas a entrar en Orio para evitar ser arrastrado por los marxistas, haciendo entrega a aquella de su arma y presentándose a éstas e ingresando en Falange donde prestó servicios a la causa Nacional hasta la fecha de la detención. HECHOS PROBADOS.”* Azkueren kasuan bezala,



Eugenio Azkue goilara horretan grabatu zuen bere kartzelaz kartzelako ibilbide osoa:

Ondarreta 18-10-37

San Cristobal 4-3-38

San Simon 17-9-38


Upo Mendi 6-3-39

Astorga 2-4-39

30 urteko kartzela eskatzen zuten Salsamendirentzat. Hauxe izan zen epaia: “Considerando que la conducta observada por el procesado durante el dominio marxista en Orio evitando desmanes y protegiendo a personas que pudieran ser víctimas de ellos, demuestra su disconformidad con la obra revolucionaria, disconformidad que ha demostrado después con su cooperación a la causa nacional por lo que no debe estimársele responsable del delito de adhesión a la rebelión militar; por lo que procede la libre absolución.”

Jose Maritxalar San Sebastian

Fernando Zuñiga Bidaurre, epaile, eta Fidel Aizpurua Apeztegia, idazkari, izan zituen epaitegiak hauxe zioen Jose Maritxalarren kontrako epaian:



Jose Maritxalar San Sebastian 'Txolarra', soldaduskaren kontrako Orioko lehenengoetako intsumisotzat joenezake.

“natural y vecino de Orio, de profesión pescador, soltero, mayor de edad, sin antecedentes penales y en situación de libertad provisional. Resultando probado que el soldado Jose Marichalar del Batallón Cazadores Montaña Montejurra el día 13 de junio de 1947 se ausentó sin autorización del campamento de Cilveti (Navarra), llevándose consigo prendas militares valoradas en 153 pesetas y pasando clandestinamente a Francia permaneció allí hasta el 8 de octubre de 1949, que regresó voluntariamente y se presentó a las autoridades españolas en Irun. No ha reintegrado las prendas que se llevó al ausentarse. Calificando la actuación constitutiva de un delito de desertión al extranjero en tiempo de paz pide se le imponga la pena de tres años de prisión militar. Apreciando la circunstancia atenuante de haberse presentado arrepentido de su falta se le impone la pena de seis meses y un día de prisión militar. A la vez, considerando que los hechos probados son constitutivos de delito de desertión al extranjero, le condenamos a la pena de dos años y un día de prisión militar. Deberá asimismo reintegrar la cantidad de 153 pesetas con 10 céntimos.

1950eko apirilaren 26an Iruñeko kartzelan preso sartu zuten, zigorra betetzera.

Antonio Uranga Garate

Antonio Urangaren epaiketari buruzko dokumentuko datuak oso lauso ageri dira, ezin dira ondo ulertu. 1942ko apirilaren 25ean sinatutako fitxan agertzen da Antonio Garatek Juan Jose eta Fermina zituela guraso, eta 29 urteko nekazaria San Nikolas kalean bizi zela. Gero, Uranga egondako kartzelen zerrenda dator, eta oso luzea da: Nanclares, Vitoria, Madrid, Bilbao, Burgos, San Sebastian, Pamplona...

Herritik kanpo bizi ziren oriotarren kontrako epaiketak

O rion jaio eta Tolosan bizi ziren zenbait herritar errepresaliatu agertzen dira *‘Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945’* liburuan.

Elias del Villar Cordon. Orion jaioa, Tolosan bizi zena, jernalaria, 19 urte. Epaiketa militarra egin zioten Donostian, 1938ko uztailaren 5ean, eta kontzentrazio-esparru batera zigortu zuten. Sententziak honela zioen: *“de antecedentes izquierdistas, afiliado a la UGT, probablemente los informes suministrados por las entidades locales le atribuyen la significación que merecieron por su actuación sus hermanos mayores”*. 1937ko abenduaren 17tik Santoñako El Duesoko kartzelan eduki zuten; gero, 1938ko uztailaren 29ra arte Donostiako Ondarretan; ondoren, Valladolideko Santa Espinan, Miranda de Ebron eta Algecirasen.

Bernabe Zunzunegi Begiristain. Orion jaioa, Tolosan bizi zena, metalurgialaria, 18 urte. Epaiketa militarra egin zioten Donostian, 1939ko urriaren 4an, matxinada militarri laguntzeagatik. Hamabi urte eta egun bateko kartzelazigorra ezarri zioten. Sententziak honela zioen: *“el procesado, de ideología izquierdista y afiliado a la UGT, desde el principio del Movimiento Nacional se puso armado al servicio de la rebelión; durante el dominio rojo se personó en casa de Jose Maria Sugaz, obligándole a entregarle las armas que tenía. Con posterioridad ingresó voluntariamente en el ejército rebelde con el que actuó hasta que quedó en poder de nuestras tropas en Santoña.”* Preso egon zen 1949 arte, Donostiako Ondarretan, Valladolideko Medina del Rio Seco eta Cadizeko Sanlucar de Barramedan.

Luis Azkue Zabala-Antxieta. Orion jaioa, Tolosan bizi zena, medikua, 63 urte. Gerra-kontseilua egin zioten eta, haren ondorioz, kargugabetu egin zuten eta preso eduki, Tolosan bertan 1936ko irailaren 26tik urriaren 8ra bitartean, eta egun hartatik aurrera Donostiako Ondarretako kartzelan. Sententziaren arabera, 1936ko ekaineko egun batean Indalecio Prieto lider sozialistarekin bazkaldu zuen Villabonako jate-txe batean.

Ramon Bandres Azkue. Orion jaioa, Tolosan bizi zena, idazkaria, 64 urte. Kaleratu egin zuten bere lanetik. Atzerrira joanda, Baionan hil zen.

Tolosan 2013an argitaratu emandako liburua.



Errepresioaren bideak herrian

Herriz herri eskarmentua emateko, oso ekimen krudela erabili zuten: herriko emakume batzuk kalez kale herritarren aurrean paseoan barregarri ibilaraztea. Horixe egin zuten Orion ere, herriko hiru neska gazterekin: Felipa Urdangarin (*Felipa Ataun*), Dolores Arruabarrena eta Mercedes Salsamendi. Beherakoa eragiteko errizino-olioa edanarazi eta buruko hilea erabat moztuta, kalean gora eta behera ibilarazi zituzten, aurretik txistulariak jotzen zihoazela eta itxaferoak botatzen, jendeari abisu emateko. Bizkarrean letrero bana jarri zieten, separatisten kontrako mezu bat zeramatela.

Juan Antonio Erzillak dioenez, paseo lotsagarri hura zenbait egunetan luzatu zen. Berari Mercedesen anaia Jose Mari Salsamendik esana zion. Goizeko zazpitan egiten omen zuten paseo hura eta ordu horretan bertan, haren familia osoa mezarara joaten omen zen.

Horrela mendekatu nahi izan zuten faxistek, zenbait herritarren jarrera aurreko erregimen politikoaren alde. Neska gazte haien kasuan, badirudi Batzokian ibiltzen zirela, EAJren lokalean. Horixe zen haien delitua. Baina Felipa Urdagarinen kasuan, behintzat, ez zuten lortu ez lotsatzerik ez erru-sentimendurik sortzerik ez ezeren damurik izaterik ere. Gerra bukatu eta urte askotara ere, San Migel egunean (irailak 29), 1936koa ospatzen segitzen zuen Felipak, lan egiten zuen eskabetxerako emakume lankideekin. Berak ondo zekien zergatik zigortu zuten eta hari eutsi egin zion bizitza osoan. Badirudi 1936ko paseo hartan ere ez zuela batere lotsarik izan, dei egiten ziola begira zegoen jendeari: *“begira zer egin diguten!”*, eta ondoko asteetan ere ez zuela ezer erabili buruko soiltasuna estaltzeko. Halaxe gogoratzen du ordukoa eskabetxeran urtetan Feliparen lankide izandako Divina Lanberrik. Zigorraren egun berean, irailak 29, fusilatu zuten Irunea aldean Fortunato Agirre, Lizarrako alkate eta EAJko kide. Garai hartan ospakizun eguna zen San Migel nazionalistentzat. Beharbada, horregatik aukeratuko zuten egun hura euskal nazionalistak zigortzeko.

Remigio Lertxundik, orduan sei urteko mutikoa, etxeko leihotik ikusi zuen ikuskizun negargarri hura. Txistularien doinua aditu eta balkoira ateratzen hasi zen mutil koskorrari amak sukaldetik esan zion ez ateratzeko, nahi bazuen leihotik begiratzeko, gortinen atzetik.

Horrelaxe ikusi zuen mutikoak eta, geroztik, sekula ez du gogotik kendu zigor hura. Handik urte batzuetara aitortu zion amak, Gregori Ibargoien Akañak, bera ozta-ozta libratu zela zigortua izatetik. Haren errua: euskal nazionalista izatea. Gregori hiru gazte haiekin eduki zuten udaletxean, ibilera hartara atera aurretik. Ateratzeko gutxi falta zela, karabineroak etxera joateko eta gehiago ezertan ez sartzeko agindu zion. Gregoriren seme Remigiok dioenez, ama indizioak jartzen ibiltzen zen garai hartan etxez etxe, eta kuartelera joatea ere egokitu zitzaion behin baino gehiagotan, eta horretatik ezaguna zen karabineroarentzat eta horregatik libratuko zuen hark zigoretik.

Gregori Akañak frankismoko urte beltzenetan ere, abertzaletasunarekin zerikusia zuen edozein ikur azaltzeak arriskurik handiena zeukan urteetan ere, Aberri Egunean, Pazko igandean, beso batean eskumuturretik ukondora bitartean bilduta baina soinekoaren mauka-

Era horretan zigortu zituzten neska gazteak herriz herri, baita Orion ere. Argazkia Oñatin egina da, gerraren antzezpen batean.



ren azpian ezkutatuta, ikurrina bat zeramala ibiltzen zen, haren alaba Doloresekin batera, haien gertuko ziren herritarrengana joan eta ikurrina erakutsiz. Horixe zuten Aberri Eguna ospatzeko modua, gerrako zigorrak mendekatzeko era bitxia. Horrelaxe gogoratzen ditu Aberri Eguneko paseo haiek Gregoriren biloba eta Doloresen seme Martin Peronak.

Herriko beste emakume bat ere zigortu zuten, 1937ko apirilaren 10eko aktaren arabera:

“Acordando seguidamente que dando por nacionalista vasca Josefa Antonia Esnal quede sin efecto y se deje de abonar a dicha señora la cantidad de 12,50 ptas. trimestral que tenía asignada para arreglo y limpieza de los alrededores de la iglesia.”

Beste neska gazte bat ere justu-justu salbatu zen zigorretik: Maria Pilar Lizaso gaztea. Haren errua: jostuna izatea eta gudarientzako alkandorak josi izana.

Toki Alai jatetxeko etxeakoandre Rosario Manterola ere ez zen libratu errepresiotik. Gerra bukatu eta urte batzuetara gertatu zen: baserriar batek, estraperloan, arkumeak ekartzen zizkion Rosariori sukaldera. Halako batean, baserriarra agertu zen esanez harrapatu egin zutela eta 5.000 pezetako isuna jarri ziotela. Rosariori bat-batean atera zitzaion: “ez al dute nahikoa bildu? Noiz arte segitu behar dute zeri horiek?”. Hitzok tabernan zegoen herritar batek entzun eta agintariengana iritsi ziren. Urtebeteko kartzela-zigorra ezarri zioten emakumeari, ‘por injurias contra el régimen’. Hilabete pasatu zuen Ondarretako kartzelan. Horrelaxe gogoratzen zuen Rosarioren alaba Juana Mari Atorrasagastik.

Gizonezkoen artean ere izan ziren errepresaliatutakoak. Mutil gazte talde bat, Manolo Lopetegi Txintxarri eta Xalbardin haien artean, Igeldora eraman zituzten; handik pasara handi samarra hartuta bueltatu ziren herrira. Haien delitua: gerrara boluntario joan nahi ez izatea. Gazte haiek, handik urte batzuetara, egun batean Nafarroa aldera joan ziren, Lizarra aldeko herrixka batera. Han aurkitu zuten Epifanio Etxeberria, Orioko buru militar izandako falangista. Asto batekin omen zihoan. Kristorenak esan zizkieten Epifaniori, huraxe izan zuten beren mendeku txikia.

Anekdotak horretaz ondo gogoratzen da oraindik ere Juanita Aldaz, Xuai baserriko emakumea, gerra hasi zenean 16 urte zituen neskatila. Ondo gogoan du Epifanio. Zubia bota zutenetik, jendea alan ibiltzen zen erriaren alde batetik bestera: Arratolako arranpatik moilara etortzen ziren. Juanita marmitarekin etortzen zen, Xuaiko esnea herrian saltzera, bere osaba Juan Jose Manterolak gidatzen zuen alan. Egun batean, Epifanio falangista zain omen zegoen moilan. Gaztea ikusi orduko hala esan zion “*que sea la última vez que te veo sin el botón de la bandera nacional en la camisa.*” Dirudenez, jende guztia bandera espainola zeukan pegatina moduko bat paparrean jartzera behartzen zuten. Juanitak oraindik ere harro esaten du 2012an, 91 urterekin: “*ez nuen sekula botoi hura jarri.*”



Felipa eta Ramon Urdangarin 'Ataun', arrantzaleen kofradiako baskularen ondoan.



Goian, Teodoro Mitxelena Zumeta, Getarian tiroz hil zuten gizona.

Behean, Faustina Azkue alarguna eta bost hilabeterekin umezurtz geratu zen neskatxa: Mari Carmen.



Teodoro Mitxelena, fusilatu eta Getarian lurperatua

1 936ko urrian, Orioko gainean, Zarautzera doan errepidetik gertu, hainbat gizon fusilatu zuten. Orion batzuek uste dute Teodoro Mitxelena Zumeta, Orioko gizasemea, haien artean zela, baina Mitxelena Getarian hil zuten, etxetik eramanda, 1936ko urriaren 24ko gauean, 44 urte zituela. 1892ko ekainaren 20an sortua zen.

Mitxelena, beste oriotar asko bezala, Iparraldera joan zen ihesi, matxinatuak Orion sartu aurretik. Teodoro Donibane Lohitzunera joan zen, San Antonio baporean. Han aste batzuk pasatuta, Oriotik abisua iritsi zitzaion: dena lasai zegoela eta etxera bueltatzeko. Halaxe egin zuen, baina itzuli eta hurrengo egunean, bila etorri zitzaizkion, Goiko Kaleko bere etxera. Urriaren 24an, gaueko 11:30ean, Lorentzo Alkorta Orioko serenoak atea jo zuen, Teodorok berak zabaldu zion. Berarekin joateko agindu zion Lorentzok. Andrea semearekin eta bost hilabeteko alaba txikiarekin utzita joan zen etxetik. Ez zen sekula itzuli. Kamioi bat zain zeukaten erriorearen beste aldean, tren geltokiaren ondoan eta, han, Zarautzik etorritako falangistak. Haiek ikusita, Teodorok apaiza eskatu omen zuen, baina alferrik, esku burdinekin lotu eta Getaria aldera eraman zuten.

Teodororen alaba Mari Carmenek dioenez, aita etxetik eraman eta biharamunean, Teodororen anaia eta koinatua, Jose Mitxelena eta Luis Azkue Aierbe, haren bila joan ziren. udugarai gaineko inguruan ibili ziren bila, baina ez zuten haren arrastorik topatu. Gero, Zarautza jaitsita, bi gizoni entzun zieten, haien artean ari zirela: *-gaur ere baten bat hil ditek Getaria aldean* eta halaxe jo zuten Getariara. Han, udaletxera joanda, hartu zituenak oso erantzun kaskarra eman zien, han ez zekitela ezer esanda, modu txarrean, bota egin zituen bertatik.

Zarauzko herritar batek dioenez, Teodoro Mitxelena Getarian hil zuten. Kamioneta batean Oriotik Getaria aldera zeramatela, eta ia iristear zirela, Teodorok alde egin zien, kamionetatik salto eginda, eta arraldera jo korrika. Bere bila joan eta harrapatu egin zuten. Han bertan sekulako jipoia eman zioten; gero, Getariako kanposantura eraman eta haren atarian tirokatu egin zuten. Hilerriko paretetan, oraindik ere tiroen arrastoak ikus daitezke.

Martzelino Manterola eta Paco Torrent, *Pako Beltza*, izeneko bi zarauztar omen zeuden Mitxelena eraman zutenen artean. Martzelino eskuin-eskuineko karlista zen, erreketea, eta zinegotzia Zarauzko udaletxean. *Pako Beltza*, berriz, Narros jauregiko etxezainaren semea zen.

Jose Ramon Salsamendi zenak zioenez, Zarautzik etorritako taldearen burua Bonifacio Illarramendi zarauztarra zen. Dirudienez, Mitxelenak eta Illarramendik elkarrekin egiten zuten lan, Zarauzko Arruti fabrian, eta bazuten elkarren berri. Mitxelena ezkerrekoa zen, sindikalista, eta Illarramendi, berriz, eskuinekoa.

Hiru urte geroago, Mitxelenaren sendiak eskatuta, Getariako alkateak eta lur-emaileak ondoko agiria sinatu zuten:

D. Gregorio Zubizarreta Areizaga, vecino de Guetaria y enterrador de la misma Villa
DECLARA: Bajo juramento que la madrugada del día veinticinco de Octubre de mil novecientos treinta y seis, fue requerido por los falangistas destacados en esta D. Timoteo Orte y un tal García, para que abriera el cementerio y diera sepultura á un cadáver, antes de que amaneciera. Obedeciendo dicho requerimiento acudió al cementerio, junto al cual, al borde de la carretera se encontraba un hombre muerto, el cual recogieron en una camilla y llevaron al cementerio. El declarante conoció de vista al muerto que según su creencia era uno de orio, cuyo nombre y apellidos desconocía. Posterior se entero por conducto particular que de Eric fue sacado de su domicilio la noche de vispera el vecino TEODORO MICHELANA ZUMETA, por lo que puede afirmar que el individuo citado fue enterrado el citado día 25 de Octubre de 1936 en el Cementerio de esta localidad, y sin requisitos corrientes y legales de inscripción en el Registro Civil ni autorización judicial.
Y para que conste y obre los efectos procedentes, firmo la presente declaración, á petición de parte interesada, en Guetaria á once de Diciembre de mil novecientos treinta y nueve

Visto Bueno
El Alcalde

Gregorio Zubizarreta

Agiria oraindik ere etxean ondo gordeta daukate. Herritar batek salatu ote zuen, susmo horixe dute familian.

Diktadura urteetan, falangistek lokala izan zuten Orion, Aritzaga kaleko plazatxoko soto batean, Oa Almirantearen kaleko 1 zenbakidun etxean. Gerra ondoreneko urteetan, bazkal-tzera hara joateko gonbidatu zituzten Teodoro zenaren seme-alabak behin baino gehiagotan. Etxean galarazi egin zieten, ez zuten nahi hiltzaileen limosnarik.

Teodororen seme Antonio arrantzale ibili zen Orioko Mendibeltz baporean. Udan Franco Azor ontzian Donostiara etortzen zenean, hemengo baporeetako arrantzaleek beita egin behar izaten zuten, Franco arrantzan ibiltzeko. Horrelakoetan, Antonio Mitxelena ez zen itsasontzira agertu ere egiten. Gainera, itsasoan Azorrekin gurutzatzean arrantzaleek eskuin besoa altxatu behar izaten zuten, keinu faxista eginez, diktadorea agurtzeko; Mitxelenak bizkarra ematen zion beti. Oraindik gogoan du, 2014ko martxoan, gerra ondoreneko urteetan jende asko gaizki portatu zela herrian beraiekin, “jende gaizto asko zegoen orduan”, plazan aldamenean esertzen ziren, ziria sartzeko... Orduko agintariak ere ez ditu

Antonio Mitxelena Azkue, Teodoro eta Faustinaren semea.





Zarauzko Muebles Arruti altzari-fabrikako langileak. Erdi-erdian, Txomin Arruti, hango nagusia; eskuin aldean, zutik, Teodoro Mitxelena, bertako langilea.

estimu handian Mitxelenak: “*kriminalak ziren*”, dantzari txikiak ziegan sartu omen zituzten euskal dantza haiengatik; Orioko gazte koadrila batekoek, berriz, epelak entzun behar izan omen zituzten Zarautzen, igande arratsaldean Modelo zinemara joanda, kalean haietako batek ‘*agur*’ hitza euskaraz esan zuelako, “*estamos hartos de esa palabra*”.

Baina lagundu zietenak ere izan ziren: gerra amaitutakoan, Teodoro Mitxelenaren alargun Faustina Azkuek, inolako diru-laguntzarik gabe gelditu zela-eta, senarra gerran hila zela justifikatzeko testiguak behar zituen. Orduan, Sarikolako Agustin Arkauz, gerran gudari ibilia, lekuko moduan joan zen, alargunari laguntzeko.

Mitxelenaren etxean jakin zuten nor ziren hiltzaileak. Urtetan, frankismoko urte beltzetan, haien ondoan ibili behar izan zuten Zarauzko kaleetan, baita Oriokoetan ere, baita haien mespretxuzko keinuak jaso ere. Teodoro zenaren seme-alaba Antonio eta Mari Carmenek badakite Getariako hilerrian lurperatu zutela aita, baina ez dakite zehazki non, aitaren izena ez baitago inon jarrita. Aitaren hilketatik 77 urte pasatuta (2013an), oraindik erakunde bakar batek ere ez die ezer adierazi: ez albisterik, ez kalte ordainik, ez doluminik ez ezer. Orioko Udalaren gerra garaiko akta eta dokumentuetan ez da ageri Teodoro Mitxelena Orioko herritarraren izena ezertarako, ez dago haren aipamenik, ezta ezertxo ere.

Alaba Mari Carmen urtero joan ohi da Getariako kanposantura, azaroaren leian, senarrarekin batera, aitaren oroimena zaintzera, kandela bat eskuan. Oraindik zain daude, beste

norbait ere gogoratuko ote den, noizbait justizia egingo ote den. Liburu hau argitara atera aurretik, 2014ko martxoan, Orioko Udalak erabakia du, aho batez, 2014ko urriaren 24an udalbatzarra egitea, bertan Mitxelena zenaren oroimena gogora ekarri eta haren hilketa salatzeke.

Teodororen heriotza-agiria

Kasu honetan badago bitxikeria harrigarri bat, izugarri bat. Orioko Udaleko Erregistro Zibileko erroldan badago Teodoro Mitxelena Zumetaren heriotza-agiria. Agiriak 1948ko ekainaren 14ko data du eta berau Joaquin Alberdi Zuloaga eta Daniel Vargas Blancoren aurrean inskribatu zen. Agiriaren arabera, Teodoro 1936ko irailaren 8an hil zen, baina ez du azaltzen Teodoro nola hil zen. Ez du esaten Teodoro hil egin zutela, nahiz eta agiriak baduen toki bat, propio, adierazteko heriotza nola gertatu zen. Tarte hori hutsik dago, hitzik gabe.

Agiriak, aurrerago, azaltzen du inskripzioa hildakoaren alargun Faustina Azkue Ayerbek eskatuta egin zela. Beste bi lekukok ere sinatzen dute agiria, bi herritarrek. Harrigarriena agirian ageri den heriotzaren data da: 1936ko irailaren 8a. Orduan, artean, tropa nazionalak Orion sartu gabeak ziren, 20an sartu baitziren. Irailaren 8a izan daiteke Teodoro Oriotik itsasontziz Iparraldera joan zeneko eguna, eta baliteke egun horren aitzakia erabili izana adierazteko Teodoro desagertu egin zela herritik eta geroztik ez zutela haren berri izan.

Getariako kanposantuko lurperatzaileak, 1939ko abenduaren 11n sinatutako agirian, zehatz-mehatz adierazten du Teodororen gorpua irailaren 1936ko urriaren 25ean lurperatu zuela eta gizon hura Orioko etxetik bezperan atera zutela, urriaren 24an. Beraz, Getariako agiriak gezurtatu egiten du 1948an Orioko Erregistroko heriotza-agirian, hilketa ezkututzeke, idatzi zutena. Eta Orion denek zekiten Mitxelena etxetik atera eta eraman zutela 1936ko urriaren 24ko gauean.

Hilketaren berri Euzkadi egunkarian

1937ko otsailaren 20ko Euzkadi egunkariak Teodororen hilketaren berri eman zuen, kronika baten bidez, nahiz haren izenik ez zuen eman. Kronikak honela zioen:

El martirio de Getaria

Mañana ten tantos preparados

No se tiene noticia de que en Getaria haya sido fusilado ningún vecino de la localidad; pero en cambio, lo han sido de otras villas. Entre los fusilados había dos de Zarautz, uno de Orio y otro cuya procedencia se desconoce.

Por lo general, las ejecuciones han tenido lugar en el cementerio, y al sepulturero se le advertía: `Para mañana ten tantos preparados.´ Los abría y los restos de

Euzkadi egunkariak eman zuen Mitxelenaren hilketaren berri, 1937ko otsailaren 20an, 'El martirio de Getaria' izeneko kronikan.



los fusilados eran echados allí, para que al día siguiente el enterrador los cubriera de tierra. Algunas personas a las que faltaba algún familiar, querían enterarse si había sido fusilado, para llevar el ataúd; pero era muy raro que se facilitasen detalles y mas raro aún que se pudiese llevar a cabo su piadosa idea, ya que no siempre se mataba a los detenidos fusilándoles. A veces se les martirizaba. Tal es el caso del vecino de Zarautz, al que dejaron malherido y durante dos días estuvo quejándose con voces lastimosas que se oían perfectamente desde los hogares cercanos; al amanecer se lo encontraron con la cara destrozada a golpes. Lo propio puede decirse de un orio-tarra que en el momento de su detención le dijeron que le llevaban a Zumaya para descansar. Al ver que era a Getaria donde lo llevaban, pensó en la suerte que iba a correr y se escapó; pero le dieron alcance y le destrozaron la cabeza a culatazos. Después se la atravesaron con siete balazos."

*Teodoro Mitxelena, Orion,
bere adiskideekin, gerra
hasi aurretik.*



Francisco Cazón, bide bazterrean tiroz hila

Francisco Cazón Peláez Malagan sortu zen. Euskal Herrira etorrita, Justa Ilintxeta Larrea donostiarrarekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten. 1936an Orioko `Arin y Embil´en egiten zuen lan, ebanista. Zarautzen bizi ziren, baina ama-alabak Orioko moja-etxean zeuden, aita atxilotu eta eraman zutenean. Orioko zubia eraisteko dinamita jartzen ibili izana leporatu zioten hil zutenean. Zarauzko Narros jauregira eraman zuten preso, militar frankisten komandantziara. Han preso zegoela, gutun bat bidali zion familiari esanez ezeren errurik gabe hilko zela. Egun gutxitara hilda agertu zen Aizarnazabalera-ko bide bazterrean.

Francisco Cazón hil zutenean, Natividad Cazón Ilintxeta bere alabak bi urte zituen. Honek, urtetan, bere aitaren hilketaren arrastoa jarraitu zuen, eta 1990ean lortu zuen Aizarnazabalgo bi lekukok adieraztea, Jesus Gurrutxagak eta Jose Maria Ostolazak, 1936ko urriaren 1ean herritar batzuek hildako gizon baten gorpua herriko kanposantura eraman eta han lurperatu zutela. Hilketak gertatutakoan 13 eta 14 urte zituzten lekukoez Azpeitiko epailearen aurrean aitortu zuten Natividad Cazónek esandako guztia egia zela. Era horretan lortu zuen hildakoaren alabak epaileak agiri ofizial bat sinatzea, lekukoez adierazitakoa ofizial bihurtzea. Horrela bakarrik lortu zuen nonbaiten agertzea bere aitaren heriotza, ordura arte inon ageri ez zena.




Francisco Cazón eta haren alaba txikia, Nati, Orioko Goiko Kalean.

Orioko gaina, jendea fusilatzeko tokia

Orioko gainean, Xuai deitzen den horretan, hainbat jende fusilatu zuten. Haien artean daude honako hauek, `Lau Haizetara´ elkartearen arabera:

- 1936/10/10: Juan Bautista Aginaga Otegi, Francisco Aizpurua Alkorta eta Cosme Yaguez Beristain, Usurbilgo herritarrak eta EAJko kideak.
- 1936/12/07: Roger Erbout eta Simon Martínez, Orioko herritarrak.
- 1937/09/24: Elicio Ponga Martínez, Tolosako herritarra 54 urtekoa, Leonen jaioa.

Pentsatzekoa da Erbout eta Martínez, Orioko herritar moduan ageri direnak, gerra hasiera hartan Orion egokitu zirela eta ikertzaileek, daturik ezean, bertakotzat hartu zituztela. Orioko Erregistro Zibilak 1936ko



Lehen planoan, Orio, eta atzean, Xuai. Han gauzatu ziren Orion izan ziren fusilamendu gehienak.

abenduaren 15ean sinatutako heriotza-agiriaren arabera, berriz, Roger Erbout 25 urteko gazte frantziarra zen (Armenax le Val-ekoa), notarioa, eta “traumatismoa”ren ondorioz hil zen 1936ko abenduaren 7an eta haren gorpua Donostiako erreketeeek hartu eta Donostiako kanposantura eraman zuten.

‘Gipuzkoa, de ayuntamientos republicanos a franquistas 1936-1937’ izeneko liburuan, Usurbilgo atalean, jartzen du Cosme Yague, 32 urteko gizona fusilatu zutenean, Zubietako maisua zela.

Juan Bautista Aginaga, EAJko gazteria alorreko arduraduna zen, eta Mendigoizaleko kidea, 32 urte zituela fusilatu zuten Meagasen, aiar batekin batera. Badirudi Aiako mutila Olaskoaga Azpi baserriko Julian Agirre Gallastegi hogeitahi eta gutxi urteko gaztea zela, Mañanzelaiko bentan zegoela hartu eta eraman zutena. 1981eko uztailaren 13an bien gorpuzkinak atera eta bakoitzarenak bere herriko hilerrian lurperatu zituzten.



Herri gehienetan fusilatu zuten norbait, gutxienez bat, gainerakoek jakin zezaten zer gerta zekiekeen, beldurra sartzeko.

Juan Bautistari bila joan zitzaizkionean, aita gorpu zuten etxean, hilberri, eta bertan utzi zuten. Handik bi egunera eraman zuten. Hilko zutela jakin zuenean, apaiza eskatu zuen. Fraide bat joan zitzaion. Fraideak, gero, esan zuen Bautistak eman zizkion azken enkarguetan zegoela aitaren hiletaren gastuak ordaintzea eta, horretarako, bezperan parrokian egona zela baina erretorea ez zegoela bertan. Atxilotu zutenean, hiletaren ordainketa egiteko patrikan zituen 600 pezetak kendu zizkioten.

Baina, dirudienez, bertan lurperatutako beste batzuen gorpuzkinak ez dituzte lurpetik inoiz atera, leku hartan obrak egin baitziren eta, errepidea egiteko, zorua aldatu.

Amasa-Villabonako alkate izandako Valeriano Saizar Arteaga ere Orioko gainean hil zuten tirokatuta, 1936ko urriaren 9an. Ihesean zihoan Bilbo aldera, Lasarten egun batzuk ezkutuan pasatu eta gero. Valeriano, 72 urteko gizona, bere alaba eta honen senarrarekin zihoan. Gerra aurretik EAJko zinegotzi eta, gero, alkate izandako gizona tiroz hil eta Zarautzen lurperatu zuten.

Xabier Etxabe zarautzarrak ere aipatzen ditu Xuai gaineko fusilamenduak ‘*Lurtarra da begiratu*’ liburuan (Elkar, 2004). Liburua nobela izan arren, Zarautzen aski ezagunak diren kontuak idazten ditu bertan. Pasarte batean azaltzen du ‘Beobate Behekoa’ baserriko Juan Joxe Zulaikak (Xabier Etxaberen birraitona) eta haren seme batek lau gizon lurperatu zituztela, beren baserritik ‘Txindurrita’ baserrira bideko leku batean. Aurrena, lurrean zuloa egin eta, ondoren, gorpuak han sartu. Lur ematea Zarauzko eskuindar batzuek aginduta egin zuten. Beobatekoak zioenez, lau gizon haietako bat lurperatu zutenean artean bizirik zegoen, ez zuen zirkinik ere egiten baina haren begirada baserritarraren begietan egon zen zuloa egiten aritu zen bitartean. Hildako gizonak Usurbilgoak ziren, hango ferrokarrileko langileak, eta abertzaleak, EAJkoak. Goizeko txanda bukatu bezain pronto, automobilean sartu eta Xuai gain-era eraman zituzten, akabatzeko. 1936ko urriaren 10a zen; beraz, badirudi hildako hauek goian aipatutako berak direla.

Josepa Tolosak Gregorio Zaldua bere gizonari bizia salbatu zion

Casilda Garate Tolosak ondo gogoan du bere izeba-osabei gertatua, askotan entzun izan zion bere ama Ventura Tolosa zenari. Casildak, 2013ko urtarrilaren 10ean egindako adierazpenean, bere izeba Josepa Tolosa zenaren kemena aipatzen du, behin eta berriz: *“1936ko udazkena zen, gizon armatu batzuk Gregorio Zalduaren etxera joan ziren, haren bila. Hartu eta eraman egin zuten. Haren andreak, Josepak, ez zuen denbora alferrik galdu. Etxean zituen sei seme-alaba txikiak bertan utzi eta korrika abiatu zen.”*


Arizaga kaleko plazatxoan bizi ziren Josepa Tolosa eta Gregorio Zaldua, 11. etxeko bigarrenean (han behean errementeria zeukan Gregorioren anaia Rafaelek). Josepak Epifanio Etxeberriaren etxera jo zuen di-da batean, Orioko komandante militarra zen falangistarengana. Haren etxera iritsita, ez zuen onik izan gizon hura konbentzitu zuen arte: bere senarra, Gregorio Zaldua, etxetik hartu eta Orioko gainera eramana zutela fusilatzeke, ez zuela ezeren errurik, ez ziola inori kalte egin ezertan, politikan ez zela sartzen, lana besterik ez zuela egin bere denbora guztian eta, mesedez eta arren, jainkoaren izenean, hara joateko eta bizia salbatzeko, krimen hura eragozteko. Horixe eskatu zion sei haurren ama hark Orioko komandante militarri: bere senarraren bizia salbatzeko.

Konbentzitu egin zuen gizon hura. Epifanio etxetik atera eta laster batean Xuai gainera joan zen. Casildak dioenez, Josepa ez zen bertara joan. Beste lekuko batek esan zuenez, Josepak berak ere bertaraino joana behar zuen. Kontua da justu-justu iritsi zirela Gregoriori bizia salbatzeko. Fusilatzeaz zuten gizona. Hartu eta etxera ekarri zuten.

Gertaera hura oraindik gogoan duten herritar batzuek diotenez, Gregoriorengana laguntza ematera iritsi zirenean, gizona bere hilobia izango zen zuloa egiten ari zen aitzurra eta palarekin. Martin Peronari haren ama Dolores zenak kontatu zionez, goizeko hirurak aldera eraman zuten Gregorio Zaldua etxetik, eta Josepa Tolosa emaztea Gregori Ibargoien *Akañaren* etxera joan zen laguntza eske eta, gero, harekin batera, Epifanio Etxeberriarenera; eta Epifaniok berak geldiarazi zuen, Xuai gainera joanda, bestela hilketara segurua izango zena.

Egun hartan Gregoriori gorputzean sartu zitzaion izua ez zitzaion joan bizi izan zen artean. Geroztik, noiznahi, amesgaiztoak izaten zituen. Logelan bakarrik zegoela ere, beldurra sartzen zitzaion. Lanera joateko ere, San Luis baporeko makinista zen, beldurra izaten zuen. Bere andre kementsuak, Josepak, heriotzaren atzaparretatik erreskatatu zuen andreak, laguntzen zion etxetik atera eta bideraino joaten, gizona baporera joan eta itsasotik seme-alabentzako eguneroko ogia ekar zezan.

Behean, Gregorio Zaldua eta Josepa Tolosa senar-emazteak. Apellanizen koadroan agertzen den eskuineko etxean bizi ziren, perrategiaren gainean.



Beste lekuko baten arabera, Josepa Tolosak Dolores Ibarruri miresten zuen, Gallartako 'la Pasionaria' lider komunista; eta haren irudi bat paparrean ezkutatuta ibiltzen omen zen kalean, lagunei-eta erakusten.

Gizon haren familiako batzuek susmoa dute herriko baten batek jarri zuela salaketa, Gregorio Zaldua hil zezaten. 1941ean, gerra bukatuta, milaka herritarren kontrako epaiketak izan ziren Iruñean. Gregorio Zaldua izan zen epaituetako bat, eta 200 pezetako isuna ordaintzera zigortua. Epaiaren arabera, hauxe zen Gregorioren delitua:

“durante el dominio rojo-separatista se constituyó en propagandista de las noticias propaladas por las emisoras rojas y que el inculcado recogía con su aparato de radio comunicándolas a los elementos rojos que reunía en su casa.

Joseparen iloba Casilda Garatek dioenez, etxe hartan irratia behetik entzuteko moduan jartzen zuten, eta kalean jendea egoten zen entzuten.

Gerora, gerra bukatu eta gero, eskasia-urteak etorri ziren. Casildak gogoan du haien ama zenak noiznahi udaletxera joan behar izaten zuela haien baserriko ortuariak eramatera. Denetik: babarruna, sagarra, artoa, barazkiak... “Por la causa” omen zen, xentimorik ere jaso gabe, hura dena eramane behar izaten zuen. Orduko alkate Lino Solaberrietarekin eztabaida sutua izan omen zuen behin, hari aurre eginda, ea zergatik behar zuten haiek beste inork baino gehiago eramane!

Narciso Aierdi Behobide.



Narciso Aierdi atxilotuta

Larri ibili zen beste oriotar bat Narciso Aierdi Behobide izan zen, 1936an 48 urte zituen. Ataunen jaiotako gizona Arocena fabrikako enkargatu moduan etorri zen Oriora, fabrikako nagusi Candido Arozenaren lehengusua baitzen. Hiru seme-alaba izan zituen; gazteena, Mikela, Orion jaio zen 1921ean. Narciso abertzalea zen, EAJko kidea, eta Errepublikaren garaian boto eske ibili zen Orion, baserriz baserri, Manuel Salsamendi Ferrurekin batera. Gerra hasi zenean, biek ere ospa egin zuten herritik Iparraldera, falangistak sartu aurretik. Ferru han gelditu zen betiko. Narciso, berriz, handik 13 egu-nera etxera itzuli zen, ezeren errurik ez eta arriskurik ez zuelakoan. Baina agintari berriek ez zuten berdin pentsatu, Aierdiren ibilbide politikoa delitutzat hartu zuten. Atxilotu eta udal-txepeko ziegan eduki zuten preso 8 egunez, beste sei bat lagunekin batera. Haietako bat Aginagako gazte bat zen. Aierdiri etxekoek eramaten zioten bertara jatekoa. Aginagako gazteak aitaren bisita jaso zuen; han ikusi zituen Narcisok aita-semeak elkarri betiko agur esaten. Mutilak bazekien hil egingo zutela. Aierdik ere beldur horixe zuen; ziega zaintzen kanpoan zegoen erreketek honela esaten zien jakiekin bisitan joaten zitzaizkion ama eta izebari: “;total, para lo que le va a servir, lo van a matar mañana!”

Halabeharrak salbatu zuen Narciso heriotzatik: Epifanio Etxeberria komandantea Inazio Zaldua Irizarren etxean bizi zen, eta Zaldua ere goierritarra zen, Lazkaon jaioa. Narcisoren etxeok Inaziorengana joan ziren, Epifanioren aurrean haren biziaren alde egin zezan. Era horretan lortu zuten Aierdi bizirik ateratzea. Zigorretik, hala ere, ez zen libratu: 1.000 pezetako isuna jarri zioten, “*y donó a la suscripción nacional 1.000 pesetas*”, hala zioen orduko dokumentu batek; gainera, haren etxea, Bikamiota ondoan zegoen Itur Ondo txaleta, errekiatuta eduki zuten urte batzuetan. Gerora ere, urtetan, beldurrez bizi izan zen, eta boladetan etxetik kanpo lo egiten ibili zen.

Aierdirekin udaletxepeko ziegan egondako Usurbilgo San Estebaneko mutila fusilatu egin zuten.

Narcisoren semea, Jose Aierdi Barandiaran, gudari ibili zen gerra-frontean, San Andres batailoian. Atxilotu egin zuten eta preso eduki, Valladolideko Medina de Riosecon. Gerra bukatutakoan, kartzelatik soldaduska egitera behartu zuten Vigo aldean.

Zera horiek denak Narcisoren biloba Anjel Alustiza Aierdik kontatuak dira, eta hari, garai hartakoak ondo gogoan dituen Narcisoren alaba Mikelak.

Alejandro Zaldua, Oriotik Eibarrera eta Saikolara

Inazio Zaldua Irizar Ataunetik etorri zen Oriora bizitzera 1925ean. Mekanikaria zen eta Arozena fabrikan hasi zen lanean, mantenimendu-lanaren enkargatu, Arozenak deituta. Gaur egun bezala, garai hartan ere Goierriko enpresarik handiena zen CAF tren-fabrika; baina gerra aurreko garai hartan langile asko bota zituzten kalera, krisi ekonomikoak jota. Haietako bat zen Inazioren anaia Alejandro. Lanik gabe geratuta, Alejandrok ere Oriorako bidea hartu zuen. Ordurako, anaia Inaziok, Ondozabal familiako nagusiarekin batera, enpresa mekanikoa zeukan eta bertan hasi zen lanean.

Enpresak automobil bat zeukan Orion; garai hartan herrian zegoen bakarenetakoa. Automobil hark taxi-lanak egiten zituen, behar zenean. Gerra hasi eta nazionalak Orion sartu arte, herrian agindu zutenetako bat Otxoa abizeneko bat omen zen, nafarra, herrian denda bat zeukana, eta Partidu Komunistako kide eta buruzagia. Irailean, Nafarroa aldetik zetozen tropak eta erreketek taldeak herrian sartzear zirela, Otxoak agindu zion Alejandro Zalduari haien automobilean bera eta bere familia Eibarrera eraman zitzala. Eibarren errepublikanoak beste fronte bat altxatzen zebiltzan. Zalduak horrelaxe egin zuen: Otxoa hartu eta Eibarrera eraman. Gero, han, salbokonduktoa eskatu eta eskuratu zuen, Oriora itzultzeko; etxean aita edadetua eta bi haur zituen zain, eta andrea, sabelean beste bat zuela. Hain zuzen, orduan amaren sabelean zegoen Eugenio Zaldua Albisuk ekarri dizkigu gogora garai hartakoak.



Gerra aurreko automobil bat herriko sarreran. Argazkia orain Errusta taberna dagoen parean egina da.

Eibartik Oriora etorri eta egun gutxitara jakin zuen falangistak eta erreketek bazetoze-la Donostia aldetik. Alejandro Zaldúa, beste hainbat oriotarrekin batera, Saikolara joan zen, bazetozei ongi-etorria egitera, soinean alkandora urdina jantzita. Bere lagun Jose Juan Lertxundi Andutxikik esan omen zion: “*goazemak haiengana, bestela garbitu egingo gaitiztek-eta.*”

Jose Maria Carmona, fusilatua Ondarretako kartzelan

Teodoro Mitxelena ez zen izan gerran fusilatu zuten oriotar bakarra. 1936ko uda hartan, gerra hasi berritan, Ondarretako kartzelan hainbat gizon fusilatu zituzten, artean Donostia Errepublikaren eskuetan zegoela. Haietako bat oriotarra zen: Jose Maria Carmona Pérez-Agote, 26 urteko gaztea. Jose Maria herriko mediku izandako Ramon Pérez-Agoteren iloba zen. Pérez-Agotetarrak hondartzarako bidean zegoen *Palazioan* bizi ziren. 1936ko irailaren 6an hil zuten Jose Mari Carmona fusilatuta (data hori ageri da Orioko kanposantuan, haren hilobian). Handik sei egunera sartu ziren Mola jeneralaren tropak Donostian, irailaren 13an. Donostian fusilatutako azkenak izan ziren irailaren 5 eta 6koak.

Pedro Barrusoren *‘La guerra civil en Gipuzkoa’* liburuan hau gehitzen da kasu haietaz:

“Sobre la suerte de estos existen una serie de dudas. Según el diario ‘Frente Popular’, al menos el vocal del Tribunal de Garantías Constitucionales, - Víctor Pradera- es juzgado por el Tribunal Popular de San Sebastián, que lo condena a muerte. Esto, en el sentido estricto de lo que se entenderá posteriormente por Tribunal Popular, es factible, ya que éstos se crean por dos decretos -de 23 y 25 de agosto de 1936- y cuya competencia `era conocer las causas relacionadas con la rebelión y sedición.’

A pesar de ello no se conserva ninguna documentación que documente el funcionamiento del Tribunal Popular en San Sebastián. La información de que disponemos nos señala que la primera actuación documentada del Tribunal Popular se producirá en Bilbao el día 8 de octubre de 1936.”

Bi egun haietan 22 preso hil zituzten Donostian, altxamenduaren aldeko eskuindarrak guztiak (karlistak, monarkikoak...), Jose Maria Carmona haien artean. Gerora, Jose Mariren aita, Valladoliden sortutako Jesus Carmona, zinegotzi izan zen gerra hasi ondoreneko Orioko lehen Udalean; eta 1936ko azaroaren 10etik aurrera, herriko alkate, aurrekoak dimititu eta gero. Jesus 1939ko urriaren 8an hil zen, gaitzak jota, 53 urte zituela.

1925ean, Alfonso XIII eta Victoria Eugenia Espainiako errege-erreginak bisitan etorri ziren Oriora beren yatean. Plaza inauguratzera izan ote zen. Jende asko izan zen bisitarietara egin zitzaizkien ongi-etorriak; haien artean ziren carmonatarak. Argazkiko haurra Kontxita Carmona da.



Udalak 1936ko urriaren 24an egindako bilkuraren aktak honakoa dio:

“El Sr. Inchauspe propuso conste en acta el sentimiento de la Corporación por el vil asesinato de que ha sido objeto por las hordas marxistas el caballeroso vecino D. Jose María Carmona Pérez, y que se transmita el más sentido pésame a su padre, el concejal D. Jesús Carmona y familia, acordando el Ayuntamiento de conformidad con lo propuesto. El mismo Sr. Concejal anunció que para otra sesión presentaría una proposición encaminada a perpetuar la memoria al finado dando su nombre a alguna de las calles de la villa.”

Handik gutxira herriko kale batek haren izena hartu zuen, orain ‘Txistulari kalea’ dena, haien etxetik oso gertu geratzen dena, herriko sarreran bizi baitziren, zubiaren ondoan.

Orioko elizan Jose Maria Carmonaren hileta-elizkizuna egin zen urriaren 24an. Jose Ramon Salsamendik gogoan zuen hiletaren segizioa herriko udaletxetik abiatu zela elizara, eta ospakizun hartara Zarauztik formazio militarrean etorri zirela hango falangistak.



Argazkiko palazioa Ramon Pérez-Agote Orioko mediku izandakoaren familiarena zen. Orain autopista pasatzen den lekuan zegoen, hondartzarako bidean.

Gerra-frontean hildako mutil gazteak

Gerrara joateko adinean zeuden gazte ia denak eraman egin zituzten frontera. Zorionez, haietako gehienak bizirik itzuli ziren etxera. Dena dela, ez ziren gutxi izan halako zortetik izan ez zutenak.

Udal akten bidez dakigu gazte guztiek ez zutela onartu gerrara joatea: Angel Arribas Velasco, Jose Ramon Iturrioz, Luis Ruiz Larrinaga y del Puerto, Jacinto Lars Valero, Antonio Loidi Zabalegi eta Tomas Valero Laiz iheslari izendatu zituen Udalak eta haien bilaketa agindu.

‘Lau Haizetara’ elkarteak osatutako hildakoen zerrendako izenak hartu eta herriko familia batzuek emandako informazioarekin osatuta, hauxe da bizia gerrako frontean galdu zuten oriotarren zerrenda, Errepublikaren eta Eusko Jaurlaritzaren armadan:

- Jose Manuel Dorransoro Irastorza, 1937ko otsailaren 23an, Asturiasen, 22 urterekin.
- Alejandro Lizaso Eizmendi: 1937ko apirilaren 5ean, Otxandion, 28 urterekin.
- Jacinto Agote Santamaria, 1937ko apirilaren 4an, Otxandion, 18 urterekin.
- Felipe Aierbe Aierbe, 1938ko martxoaren 19an, Bilboko Eskolapioen kartzelan, fusilatuta, 50 urterekin.
- Prudencio Martínez Amelburu: 1936/09/06an, Errenteriako frontean, 23 urterekin.

“Entre el 25 de julio y el 16 de noviembre de 1938 tuvo lugar en las comarcas de la Ribera d’Ebre y Terra Alta la Batalla del Ebro, el enfrentamiento mas duro y terrible de toda la Guerra Civil. Decenas de miles de hombres, muchos de ellos poco más que niños, dejaron la vida en ella.

Homenajeamos a los soldados que nunca regresaron a casa. Que su sacrificio no quede en el olvido, y que la democracia honore siempre su legado y su memoria.”

MEMORIAL DE LES CAMPOSINES

Ebroko batailan hildako soldadu errepublikarren izenak daude Les Camposineseko plaka horietan. Ia denak katalanak dira.



- Juan Uranga Garate: 1936ko abenduaren 4an, Legutioko frontean, 20 urterekin.
- Bonifacio del Puerto Tolosa: 1936ko irailaren 4an, Donostiako ospitalean, frontean izandako zaurien ondorioz, 23 urterekin.

Nazionalen armadan ari zirela hildakoen berri, aldiz, garaiko udalaren aktetatik eta erregistrotik dakigu; honako hauek izan ziren frontean erori zirenak:

- Juan Antonio Arostegi Camino, Ebroko batailan, 1938ko irailaren 13an, Tarragonako Batea herrian, 18 urterekin. Bertan hilobiratu zuten.
- Jose Mari Arruti Lertxundi, Ebroko batailan, Lleidako Ogern herrian, 1939ko urtarrilaren 24an, 21 urte zituela. Orion lurperatu zuten.
- Jose Aldaz Etxezarreta, Ebroko batailan, Tarragonan, 1938ko abuztuaren 10ean, 18 urte zituela. Bertan lurperatu zuten.
- Jose Maria Eizagirre Peña, Ebroko batailan, Tarragonako Bot herrian, 1938ko irailaren 2an, 19 urte zituela. Orion hilobiratu zuten.
- Jose Lorenzo Arruabarrena Arruti, Ebroko batailan, Teruelen (Silverio), 1938ko maiatzaren 17an, 21 urterekin. Apaizgaia zen. Bertan hilobiratu.
- Jose Arruabarrena Zubiria, Ebroko batailan, Tarragonako Valls herrian, 1939ko urtarrilaren 22an, 18 urterekin.. Bertan hilobiratu zuten.
- Ascensio Rekondo Torregarai, Ebroko batailan, Teruelen, 1938ko apirilaren 24an, 21 urterekin. Apaizgaia zen.
- Jose Francisco Santamaria Arruti, Ebroko batailan, Alcañizen (Teruel), 1938ko martxoaren 28an, 23 urterekin. Bertan hilobiratu zuten.
- Domingo Sagarna Orbegozo, 1938ko urtarrilaren 14an, Melillako ospitalean, 23 urterekin. Han hilobiratu zuten. Marinako soldadua zen. Orioko Udalaren 1938/07/05eko aktak ematen du Arruabarrena, Rekondo, Santamaria eta Sagarnaren heriotzen berri.
- Ramon Vicente Oviden Zaldua, Ebroko batailan, Puebla de Mazulcan (Zaragoza), 1938ko uztailaren 29an, 21 urterekin. Hango Nonaspe herrian hilobiratu zuten.
- Anbroso Uranga Irigoien, 1938ko martxoaren 6an, Baleares guda-ontzian, Cabo de Palosen. 31 urterekin. Itsaso hondoan geratu zen betiko.
- Ignacio Barjacoba Martinez, 1938ko abenduaren 16an hil zen, Huescan, epilepsiak jota, 29 urte zituela. Zierbanan jaioa zen. Huescan lurperatu zuten.
- Jose Maria Arozena Merikaetxeberria. Zarautarra zen, baina Orioko Udalaren 1939/02/14ko aktak ematen du heriotza honen berri, Candido Arozenaren semea zelako.

Hamabi dira, nazionalen tropetan, frontean hildako oriotarrak. Zarautzen 33 izan ziren eta Aian, berriz, 32. Gipuzkoan, 1.905. Horixe dio Interneten `Héroes y mártires´ izeneko blogak, haien hitzetan `en acción de guerra o asesinados.

Ebroko batailan, gutxienez, bederatzi oriotar hil ziren. Bataila hura izan zen gerrako odoltsuena, hildako gehien ekarri zituena, soldaduak eta zibilak. Denetara, 60.000tik gora izan ziren hildakoak. Ebro ibaitik gertu dagoen Gandesa herriko muino batean, Les Camposines izenekoan, inguru hartan hildako soldadu askoren hezurak dauzkate lurperatuta, eta plaka batzuetan haien izenak eta ezkerreko orrialdean datozen hitzak.

Ebroko batailaren eremuan dagoen Horta de San Joan (Tarragona) herriko elizaren ondoan harrizko gurutze bat dago eta, hari itsatsita, oroitarri bat 1936ko gerran hildako guztien oroimenez eta omenez, 2004an jarria, hitz hauekin (katalanetik guk euskaratuta):

**Biktima guztien oroimenez
1936 – 1939**

Inguruko uso guztiek,
oroimenaren hegaldia
altxatzen dutenean,
eraman dezatela mokotik zintzilik
olibondo-kimu bana,
bakearen eta adiskidetasunaren
seinale

Nazionalen bandoan hil ziren oriotar guztiek izan zuten Orioko elizan, haietako bakoitzak izan zuen, hileta-elizkizuna. Gorpua bertan zela edo gorpurik gabe, Ebro aldean lurperatu zutelako; hil eta egun gutxitara edo hilabete batzuk pasa eta gero, baina irabazleen aldekoek denek izan zuten haien oroimenaren aldeko ekitaldia beren jaioterrian. Beste aldean borrokatu eta hil ziren soldaduek, gorriak eta gudariak, ez zuten hileta-elizkizunik izan; haietako inork ez.

Orioko elizako zimitorioan gurutze handi beltz bat egon zen, `Muertos por Dios y por España' zioena. Urte askoan egon zen han, gutxi gorabehera 1965 arte. Ospakizun egun batean, meza nagusian orduko bikario Bitorio Unzetabarrenetxeak, agintari politiko eta militarrek bertan zeudela aprobetxatuz, esan zuen bazela garaia zimitorioko gurutzea handik kentzeko, gerraren alde bakarra erakusten zuelako. Horixe eskatu zien apaizak agintari-iei; bestela, berak kenduko zuela. Asteak pasatu ziren, baina gurutzeak han segitzen zuen, orduan bikarioak Jabier Eizagirre harginari agindu zion gurutzea kentzeko. Gurutzea falta zela ikusita, Guardia Zibilaren sarjentua agertu zen, eta sekulako ika-mika izan zuten. Apaizak erakutsi zuen elizan berak agintzen zuela, eta horrela kendu zen gurutze hura.



Irudi honek Jose Artetxe azpeitiarraren 'El abrazo de los muertos' liburuaren azala janzten du. Antonio Valverde egina da. Irudiak 1936ko gerrako bi bando-etako soldadu bana erakusten ditu: gudaria eta soldadua, Bizkaiko frontean eroriak, Sabigain mendiko borrokaldi odoltsuaren ostean, hilda eta besarkatuta. Irudiaren bidez, Artetxek hildakoen alde agertu nahi du eta hiltzaileen kontra, alde batekoak edo besteak izan.



Jose Manuel Dorronsoro

“Los vascos muertos en combate entre el 21-23 de febrero de 1937 fueron entre 20 y 30 y quedaron enterrados (o mal enterrados) en su mayoría en los caminos que suben de Promuño a Areces. Yo ayudé a enterrar y a despojar de sus enseres a algunos de los muertos. Los heridos de esos días quedaron en el llamado Palacio de Areces (unos 80) y fueron copados por un tercio franquista y un batallón de legionarios marroquíes que los mataron en la mayoría de los casos a la bayoneta. Fueron enterrados en terreno del mismo Palacio junto a una casa para palomas, en una trinchera cavada en zig-zag. Los enterraron los vecinos del pueblo y no los militares, por lo que el impacto en la memoria del concejo fue enorme. A la zona donde están enterrados le llamamos ‘El pradón de los vascos’”.

Ramón Valdés.

Jose Manuel Dorronsoro eusko gudaria, Asturiasen hila

Jose Manuel Gregorio Dorronsoro Irastorza Orion jaio zen 1915eko martxoaren 11n. Errepublikaren aldeko Gerrako Komisariotzak mobilizatu egin zuen 1936ko abuztuaren 23an. Miliziano ibili zen gerran Asturiaseko frontean. Beste hainbat eusko gudari bezala desagertutzat jo zuten.

Pedro Barruso historiagileari esker, badakigu Gipuzkoan UGT sindikatuak hainbat batailoi sortu zituela, eta Asturiasen ibili zirela borrokan, Amayur batailoien ondoan. Barrusok diotenaren arabera, UGTren batailoi horietako batean Orioko milizianoen presentzia nabarmena zen. Haietako bat zen Jose Manuel Dorronsoro.

1937ko otsailaren 22 eta 23an borroka gogorrak izan ziren Oviedo inguruan, eta Euskadiko armadak baja ugari izan zituen. Egun haietan desagertutzat jotakoen artean dago Dorronsoro.

Orioko dorronsorotarren familiak badu txosten bat, Aranzadi elkarteak egina. Txostenean Asturiaseko fronteko Areces herrian tropa frankistei aurre eginez hildako gudarien zerrenda dator. Zerrendan Jose Mari Dorronsoro Irastorzaren izena dago. Bidezkoa izango da, noski, pentsatzea Jose Mari izendatzea oker baten ondorio izan zela, eta Jose Manuel Dorronsoro dela Aranzadiren txosteneko pertsona. Hango datuen arabera, 1937ko otsailaren 23an hil zen oriotarra. Bestelako datuak ere badatoz txostenean, esate baterako: 1937ko urtarrileko eta otsaileko nominak, 150 pezetakoa bakoitza.

Jose Manuel Dorronsoro etxeko senide gazteena zen. Haren familiak, gaztearen heriotza gauza segurutzat eman zuenean, hileta-elizkizuna egin nahi izan zuen Orion, baina orduko agintariek ez zieten baimenik eman horretarako, eta Orioko herriak ez zuten aukerarik izan modu publikoan gazte hari agur esateko. Horrelaxe gogoratzen du familiaren ahalegina Patxi Oviden *Danbolinek*. Badirudi, hala ere, hileta-elizkizunik ez, baina Migel Mujika apaizak meza bat ospatu zuela familiekin, bai Dorronsororen familiarrekin bai Teodoro Mitxelenarenekin ere.

Gipuzkoako Aldundiak etxera ekarri nahi ditu 36ko gerran Asturiasko Areces herrian hildako 100 euskaldunen gorpuzkinak. Hango herritarrek ‘el pradón de los vascos’ izendatzen duten lur eremuan daude. Hildako gazte haiek gehienak gipuzkoarrak ziren, ANVkoak, Eusko Indarra batailoiko kideak. Batailoien buru Kandido Saseta Etxeberria komandante hondarribiarra zen.

Lizaso Eizmendi anaiak, Errenteriako gudari oriotarrak

Frontean hildako oriotarren artean Alejandro Lizaso Eizmendi dago. 1909an jaio zen Orion, baina gazterik joan zen bizitzera Errenteriara bere familiarekin. Alejandrok eta bere anaia Felipek aipamen berezia merezi dute, gerra aurreko euskal kulturaren berpizkunde-mugimenduan egindako lanagatik: Alejandrok musikaren alorrean, nagusiki, eta Felipek literaturan. Politikan ere murgildu ziren, EAJ alderdikoak ziren biak, eta 1936ko gerra hasi zenean, gerrara abiatu ziren, ondorio guztiekin. Esan bezala, Alejandro gerrak hil zuen; Felipe, berriz, Santoñan atxilotu eta hiltzera kondenatu zuten; gerora, ordea, indultua eman zioten.

Hona Auñamendi entziklopediak bi anaiei buruz dakartzan artikuluak:

Alejandro Lizaso Eizmendi: *“Txistulari gipuzkoano nacido en Orío (Gipuzkoa) el 9 de noviembre de 1909, muerto en el frente de batalla en defensa de la posición lanzando granadas de mano, por un tiro en la cabeza. No admitió ser enviado por Europa en plan de propaganda con su txistu por el Gobierno Vasco, a pesar de tener la premonición de su muerte con un tiro en la cabeza. «Nere lekua mendian dago» arguyó a quienes acudieron a él. Virtuoso del txistu.*

Fue primer premio como solista a los 17 años. Txistulari del grupo de ezpatadantzaris de Euzko Gaztedi de Donostia. Ocupó en concurso la plaza de Txistulari 1.º del ayuntamiento de Rentería. Formó banda completa con discípulos suyos; y totalizando 67 años entre los 4 componentes se alzó con el primer premio en el Arenal de Bilbao, en competición con las Bandas de Gasteiz, Tolosa y Bermeo entre otras. Sus éxitos fueron ininterrumpidos y realizó una gira por México, llamado por el Euzko Etxea de aquella capital. Considerado como el «urretxindor de Euskadi». Sandalio de Tejada, el que fue secretario de la Asociación de Txistularis, le dedicó el opúsculo «Iconografía del txistu. El Angel Txistulari de Caracas» publicado en Caracas el 12 de mayo de 1954.

Es el autor de la música de «Euzko Gudariak» tal como hoy se canta. Partiendo de la tonada popular «Asto baten gainean», armonizada por D. Luis de Urteaga, modificó ésta dándole un aire más vigoroso con la segunda parte del «irrintzi bat entzun da». Fue capitán de ametralladoras del Batallón Itxarkundia. Fue enterrado con otros gudaris en el campo de batalla de Villarreal de Alava.”

“En la cumbre de Urquiolá, 7 abril de 1937, se me ha acercado un soldado a hablarme. Está muy triste. Hablaba a ratos, como quien habla consigo mismo: `¿Sabes quien era uno de los muertos que hemos encontrado esta mañana? Pues Lizaso, el chistulari de Rentería. Perteneían al batallón Amayur.

He sabido que mi hermano está de capellán en el batallón Amayur. Dios quiera que pueda escaparse, porque sino no se salva.

José Artetxe

El abrazo de los muertos.



Goian, Alejandro Lizaso.

Behean, Euzko Gudarosteko Amaiur Batailoiko gudari talde bat, Bizkaiko frontean, 1937an.

Felipe Lizaso Eizmendi, ikurrinari eusten, Itxarkundia batailoiko Jose Maria Burgaña kapitainaren ezkontzan, gerrako frontean.

ARGAZKIA: AUÑAMENDI ENTZIKLOPEDIA



Felipe Lizaso Eizmendi: *“Escritor en euskara. Nacido en Orio, Gipuzkoa, el 30 de abril de 1908. Fallecido en 1999. Secretario del C. D. Euskalduna que como cronista deportivo usaba el seudónimo "Muskilarri".*

En 1936 era secretario de la junta municipal del EAJ/PNV de Rentería y comisario político. En Gernika, Cándido Saseta le impuso la estrella de comandante. Asistió a la jura del lendakari José Antonio Aguirre como comandante de gudaris. Fue herido siendo comandante del Batallón Itxarkundia. Cayó prisionero bajo las tropas italianas y recluido en el penal de Santoña. Había sido miembro del Tribunal Militar del Ejército de Euzkadi. En Santoña fue condenado a muerte tras un juicio sumarísimo y trasladado a Larrínaga y después a la Prisión Central de Burgos. Indultado y excarcelado, fue desterrado a 250 km. de Rentería. En prisión había iniciado, junto con José María Azkarraga, "Lurgorri", la edición manual de Espetxean, que siguió Pepe Verdes en la prisión de Burgos.

Ocupó varios cargos, entre ellos los de presidente del Tribunal Regional y después del Tribunal Nacional del PNV (Partido Nacionalista Vasco).

Como escritor en euskara, había colaborado en El Día, Euzkadi y Argia, y ha sido colaborador del diario Deia con sus "Hitz-gurutzatuak". Autor de Arrain-Hiztia, Itsaso ta ibaietako arrain, Oskoldun, Soiber ta Arrerdidunen errolda, Izabere ezagunak y la obra teatral Itzalpean sendotasuna que se estrenó en el Batzoki de Rentería.”

Aranzadi elkartetik eskuratutako txosten baten arabera dakigu 1937ko urriaren 9an heriotz-zigorra konmutatu eta 30 urteko kartzela-zigorra ezarri ziotela. Hauxe zioen epaiak Felipe Lizasoren delituaz: “fue nombrado comandante del Batallón Icharkundia habiendo tomado parte primeramente en el ataque a Villarreal, estando despues de posición en aquella zona en Palochiqui y Mendigain. Que en funciones de relevo estuvo el batallón en Bermeo, pasando de nuevo a Villarreal, luego en Orduña; que el día 2 de abril acudió con su batallón a la posición de Santa Cruz del sector de Urquiola donde fue herido el día 4, en el pie izquierdo interesándole la tibia. Que con anterioridad al Movimiento Nacional y desde la caída de la Dictadura ha sido afiliado al Partido Nacionalista Vasco, habiendo desempeñado el cargo de Secretario de la Junta Municipal de Rentería; que en la última campaña electoral fue propagandista en favor de dicho partido y circunstancialmente fue Delegado del mismo por Rentería. Que al estallar el Movimiento Nacional fue nombrado a los quince días aproximadamente miembro de la Junta de Defensa de Rentería, siendo sus funciones mas bien de orden público. Que la dicha junta intervino en la detención de varias personas, pero que el declarante tuvo un voto de censura por haber ordenado la libertad de Miguel Urcola, presidente que era del Círculo Carlista. Que la evacuación obligatoria

de Rentería lo fué para las milicias y no para la población civil, pemaneciendo el declarante junto con una patrulla de veinte digo treinta hombres a sus órdenes en Rentería para evitar que a última hora fueran voladas las tahonas como pretendían algunos milicianos. Que evacuada Rentería con motivo de su liberación se presentó espontaneamente al Cuartel de Loyola en Azpeitia, desempeñando allí funciones de organización, pasando de allí a Motrico, sin que en dicha población se cometiera asesinatos ni saqueos durante su presencia, sirviendo al Orden Público, sin que pueda precisar las causas, pero posiblemente su actuación que deja expuesta, fue nombrado Comandante de Cuartel de Guernica, donde permaneció hasta la indicada fecha de noviembre en que se formó el Batallón Icharkundia. Preguntado si tiene mas que manifestar dijo que no pretendió huir porque conocía la existencia de un pacto.”

Arrazoi horiengatik zigortu zuten Lizaso hiltzera, nahiz gero zigor hori kommutatu egin zioten.

Felipe Aierbe mikeletea Bilbon fusilatu zuten

1 936ko gerran mikelete gehienek Errepublikaren alde egin zuten. Gipuzkoako kanpaina bukatu zenean, Bizkaian aritu ziren eta, hura ere faxisten eskuetan erori zenean, Santoñan Eusko Alderdi Jeltzaleko agintari batzuek, Juan Ajuriagerra buru zutela, paktu bat sinatu zuten Italiako armadarekin, Vatikanoren bitartekaritzarekin.

Paktu haren bidez, Eusko Jaurlaritzaren tropek armak entregatuko zituzten, beren aldeetik gerrari amaiera emanez, heriotza gehiago saihesteko. Paktu hartan agintari italiarrek konpromisoa hartu zuten inor ez hiltzeko, eta agintarietara eta funtzionarioei Frantziara alde egiten uzteko. Eusko Jaurlaritzak 12 itsasontzi ingeles kontratatu zituen, gudariak Santoñatik Frantziara eramateko. Bi besterik ez ziren iritsi. Baionatik itsasoratuta, abuztuaren 26an Bobie eta Seven Seas Spray izeneko merkanteak ailegatu ziren, Keith destruktoreak babestuta. Berehala ekin zioten euskal pasaportearen jabe ziren herritarrak ontziratzeari. Baina goizeko 10etan Dávila jeneralak, horren berri jakin bezain laster, bertan behera utzi zuen operazioa, eta herritarrak berriro lehorreratzeko agindua eman zuen. Franco buru zuten militar espainiarrek ez zuten ituna onartu eta, italiarrak baztertuta, haiek bereganatu zuten agintea. Bobie ontzia bakarrik itsasoratu zen, barruan 533 zauritu zeramatzala. Gainerakoek Santoñan geratu behar izan zuten, eta preso sartu zituzten El Dueso presondegian.

Felipe Aierbe eta Antonia Arza senar-emazteak.





Cárceles y campos de concentración en Bizkaia liburuaren azala.

Jacinto Agote Santamaria, Otxandioko frontean hildako gudari gaztea.



Azarorako, gudari haietako 11.000 libre utziak zituzten; 5.400, langile batailoietan ziren; eta beste 510, heriotza-zigorrarekin zigortuak izan ziren. Horrekin batera, abuztuaren 25ean, Iparraldeko Armadaren jeneral-buruzagi Gil Yustek Gipuzkoako mikeleteak eta Bizkaiko miñoiak deuseztatu zituen.

Gerra hasi zenean, Orion ere baziren mikeleteak, hiru hain zuzen ere: Julian Arruabarrena kaboa, Martin Murua (Lizartzan jaioa) eta Felipe Aierbe Aierbe.

Aierbe Ataunen jaioa zen, eta Antonia Arzarekin ezkondua, ataundarra hura ere. Felipe Oriora destinatu zutenean, senar-emazteak bertara etorrita zazpi seme-alaba izan zituzten. Hondartza txikiaren parean zegoen kasetatik itsasadarreko trafikoaren zaintza-lanak egiten zituen, besteak beste. Gerra etorri zenean zein ibilbide izan zuen ez dakigu, baina oroigarri moduan baliatzen diren estampa horietako bati esker jakin badakigu 1938ko martxoaren 19an hil zela Bilbon, 50 urte zituela. Dena dela, bere heriotzaren inguruan zalantzak agertzen dira: Orion jende askok dio fusilatuta hil zutela Bilboko kartzela batean. Haren alaba Jesusak 2014ko martxoan zioenez, aita Bilboko ospitale batean hil zen gaitzak jota, hil zenerako izugarri gizenduta. Garbi esan daitekeena da Felipe Aierbe hil bazuten, nazionalak hil zutela, 1938ko martxoan haiek agintzen zuten-eta Bizkaia osoan. Zergatik hil, ez dakigu seguru. Haren familiak dioenez, Felipek dei bat jaso zuen Bilbora joan zedin aginduz. Senideetako batek dioenez, Jaurilaritzak aginduta Orioko Kutxako diruak eraman zituen mikeleteak Bilbora, eta herritarren batek hori salatuta hil zuten.

Orion Feliperen hilketaren berri izan zutenean, Joxe Aierbe seme zaharrenak, senide batek oraindik gogoan duenez, aitak etxean zeuzkan arma guztiak hartu eta erriora bota zituen.

‘Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937-1940)’ liburuan, Ascension Badiola egileak Bilbo inguruan preso egondakoen zerrenda luze bat dakar. Haien artean agertzen da Felipe Aierbe. Liburuak dioenez, Eskolapioen kartzelan eduki zuten preso.

Jacinto Agote eusko gudaria

Alejandro Lizaso bezala, Jacinto Agote Santamaria ere Bizkaiko frontean hil zen, Alejandro hil bezperan, 1937ko apirilaren 4an, 18 urte zituela, Otxandioko frontean izandako zaurien ondorioz, San Andres batailoian borrokan zebilela, buruan bala batek jota. Jacinto Gernikako kanposantuko hilobi komun batean lurperatu zuten.

Bi anai joan ziren gerrara eusko gudariekin: Jacinto eta Francisco. Francisco zauritu egin zuten metrailaz 1936ko abenduan, baina bizirik atera zen gerratik. Denbora batez, preso izan zuten Miranda de Ebroko kontzentrazio-eremu batean. Haren seme Iñakik gogoan duenez, badirudi Francisco Agoterekin batera egon zela eremu hartan beste oriotar bat: Pako Barjacoba.

Preso zeukatela, ez dakigu nolako zigorra ote zuen ezarria, prezio garestia ordaindu behar izan zuen handik ateratzeko: erreketeen arteko aitortu behar izan zuen bere burua. San Ignacio tertziara destinatu zuten; hala ere, libratu egin zen frontera joatetik, aldakako tumore bat diagnostikatu eta Zestoako ospitale militarrean sartu zutelako.

Francisco Agoteren egoera berean egokitu ziren gerra hartan beste hainbat ere. Azpeitiko Ignacio Zubimendi, frontean Loiola batailoiko gudari ibili zena, harrapatu eta hiltzera zigortu zuten. Horretan zela, matxinatuen aldean zebilen haren ezagun batek bere alde egin eta bizirik atera zen, baina azpeitiarrak ere erreketeen artean sartu eta gerran jarraitu beste erremediorik ez zuen izan. Beste azpeitiar bat, Jose Artetxe, gerora idazle ezaguna izango zena eta gerra aurretik EAJren GBBeko buruzagi izandako gizona, harrapatu egin zuten eta, bizirik aterako bazen, hark ere matxinatuekin batera gerrara joan beste modurik ez zuen izan. Aian, fusilatuta hil zen Gabino Alustizaren anai bat ere frontera eraman zuten, Gabinoren hiltzaileekin batera borrokatzera. Askoren kasua izan zen hori.

Oriotik beste batzuk ere agertzen dira erreketekin batera gerra-frontean ibilitakoen artean: Inazio Etxezarreta Zabala, Agerre baserrikoa (Katxiña), Oriamendi tertzioan ibili zena; Manuel Orbegozo Lizaso, Aia-Orioko Agirre baserrikoa, Zumalakarregi tertzioan; eta Manuel Rodríguez Salaberria, San Ignacio tertzioan ibili zena.

Agotetarrek aita oriotarra zuten: Jabier Agote Asteasuinzarra; ama, bermeotarra: Sofia Santamaria. Jacinto amaren herrian jaio zen, Bermeon. Ama gazterik hil zen, haurrak txikiak zirela eta aitak beste familiar batzuen etxera eraman zituen semeak; eta gerrak Oriotik kanpo harrapatu zituen bi anaiak: Jacinto, Andoainen bizi zela, eta Francisco, Donostian.

Aita Jabier, berriz, arrantzalea zen. Pasaiako portutik zebilen, arrastrero batean. Gerra hasi zenean, ihes egin zuen arrantzontzi haletako batean Irlandara, eta han egon zen gerrak iraun zuen hiru urteetan. Gerra bukatu eta Euskal Herrira etorrita ere, urtebete eman zuen Donostian, badaezpada ere, etxeratu aurretik.

Jacinto Agote bezala, San Andres batailoian ibili zen gerran Orioko beste bat ere: Jose Aierdi Barandiaran. Preso harrapatuta, Medina de Rio Secoko kartzelan eduki zuten gerra bukatu zen arte; eta, gero, kartzelatik soldaduska egitera derrigortu zuten, Vigon.



San Andres batailoiko konpainia bateko gudariak gerrako frontean.

Agotetarren familia. Beheko ezkerrekoa da Jacinto Agote, gerran hil zena, Otxandion.






Aizperro, Xuai eta Aldapeko mutilak Ebroko batailan erori ziren

Aizperroko Jose Maria Eizagirre Peña ere, 19 urteko gaztea, gerrako frontean hil zen, Tarragonako Bot herrian, 1938ko irailaren 2an, Ebroko bataila odoltsuan. Honela dio Orioko Erregistro zibilak egindako aktak: *“a consecuencia de heridas sufridas en el frente de combate.”* Artean jaio gabe zegoen haren arreba Kontxik adierazita dakigu: *“abioi batek botatako bonba batek hil zuen, abioia zetorrela-eta arbol baten azpian babestu ziren, alferrik. Gu 11 senide ginen Aizperron, Jose Mari zen zaharrena, aita eraman nahi izan zuten, baina horrenbeste haur izanda, azkenean, semea joan zen. Hura gerran zela, nire ahizpa bat jaio zen, eta amak esan zion aitari –deitu beharko diogu, ba, Jose Mariri, datorrela bataiora, –eta aitak –ez, orain toki onean dago eta etxera etortzen bada, gero bueltan leku txarragoa igual egokituko zaio eta dagoela han, –eta han hil zuen bonbak, amak geroztik ez zuen abioirik ikusi nahi izaten, abioia zenean ez zuen gora begiratzen.”*



Xuai baserriko seme bat ere frontean hil zen, Jose Mari Aldaz Etxezarreta. Kasu honetan aipagarriena da etxe hartan seme bakarra zegoela, gainerako denak, lau, neskak baitziren: Maria, Juanita, Dolores eta Felisa. Gerra hasita zegoela, Jose Marik 18 urte bete zituen, eraman egin zuten frontera. Etxean ez zuten sekula gehiago ikusi, ezta haren gorpua ere. Han gelditu zen betiko. Haren iloba Luis Azkuek esanda dakigu bonbardaketa batean hil zela Jose Mari Ebroko batailan, Tarragonako herri batean, 1938ko abuztuaren 10ean; baina paradoxikoki, bere aldekoek hilda, alemaniarren hegazkin batetik botatako bonba batek. Inazio Genovak gogoan du Xuai baserrian heriotzaren berri iritsi zenean izan zuten samina: nola atera ziren emakume denak baserriatik negarrez eta marruz. Kofradiako etxetik entzun zituen Inaziok erriorearen beste aldeko etxekeen oihuak.



Arruti eta Arostegi, `Valle de los Caídos´-en hilobiratuak

Ebroko batailako irudiak. 1936ko gerrako gogorrena, krudelena eta odoltsuena izan zen. Oriok orduan 2.000 biztanle zituen eta bataila hartan gutxienez 9 oriotar hil ziren, 18 urteko gazteak haietako batzuk.

Valle de los Caídos izendatuko zuten monumentua 1940an hasi ziren eraikitzen. Lan haietan milaka preso erabili zituzten. Inauguratu 1959an egin zuten. Obra-
ren proiektua Pedro Muguruza eta Diego Méndezena izan zen. Monumentuaren helburua zen Francoren eta hark bultzatutako gerraren oroimena denboran irau-
naraztea, frankismoaren ikur nagusi bihurtzea.

Hango monasterioan 19 artxibo daude, han hilobiratuta dauden erdien datuekin. Beste erdien nortasuna ez da ezaguna. Ia segurua da han dauden hezurak Brunete, Grado, Gandesa, Tarragona, Badajoz edo Terueleko hobi komunetatik jaso eta eraman zituztela, gerra zibila bukatu zenean hasi eta 1983 arte.

‘Valle de los Caídos’ en lurperatuta daudenen artean bada oriotarrik. Han dago Aldape baserriko Jose Mari Arruti Lertxundi. Eta han dagoela uste dute bere familiakoek Juanito Arostegi Camino ere.

Juanito Arostegi Camino Maria Maestraren bost seme-alabetako gazteena zen eta etxe-ko mutil bakarra. Eskuineko argazkian ikus daiteke bere hiru arrebarekin batera; Asuncion, Bernardina eta Joaquina. Arreba bat falta da, Josefa, monja Argentinara joan zena. Jose Mari Ebroko batailan hil zen, Tarragonan, 18 urterekin. Gorpua ez zuten etxera ekarri.

Aldapeko Jose Mari Arruti Lleidako Ogern herrian zegoen, fronteko lehen lerroan. Bazeramaten denbora pixka bat inguru hartan, borrokan. Eraso batean, granada batek harra-patu egin zuen, arroka batean jo eta errebotatuta, eta bertan hil zuen. Juan bere anaiak ondo gogoan du, bere 91 urteekin, egun haietan gertatutakoa.

Granada hark beste hiru gizon ere hil zituen, hirurak bizkaitarrak; baina ez zien kalterik eragin Jose Marirekin batera fronte hartan borrokan ari ziren beste hiru oriotarrei: ‘Zekorra’ neko Joakin eta Jose Loidi anaiak eta Luxiano Arregi. Bizirik geratutako herrikide haiek hartu zuten Jose Mari lurperatzeko ardura. Juanek dioenez, nahiko modu duinean lurperatu zuten, Jose Mari hilda erori zen lekutik gertu. Handik hilabetera, gorpua Oriora etxeratzeko baimena eskuratu eta ekarri egin zuten, eta herriko kanposantuan egon zen 1959ko martxo-ara arte.

Martxoaren 24an, Espainiako Gobernuaren dekretua tarteko zela, eta Jose Mariren gurasoei galdera egin ondoren, gazte haren gorpua ‘Valle de los Caídos’ era eraman zuten eta bertan hilobiratu, monumentua inauguratu eta egun gutxitara. Geroztik, han dago, beste 237 gipuzkoarrekin batera.

Juan anaiak behin egin zion bisita Jose Mariren hilobiari, orain dela 40 urte inguru, “Madrilera joan nintzen bi lagunekin nekazaritza inguruko feria batera eta, han ginela eta bazekitenez gure anaia han zela, bertara joateko aukera eskaini ziguten eta joan egin ginen. Hantxe dago Jose Mari, 630 zenbakia duen kolunbario indibidualean. Hala ere, Orioko kanposantuan ere oraindik gurutze bat dago zutik, Jose Mari lurperatuta egon zen lekuan”.

Donato Intxausperen testigantzak beste datu bat erantsi dio Jose Mari Arrutiren heriotza ekarri zuen gerra-kapituluari: “Jose Mari bonbak jo eta hil zuenean, Joakin Zekorraren gainean erori zen, eta haren besoetan hil”.

Juanito Arostegi Camino ere ‘El Valle de los Caídos’ en dagoela-koan da bere familia. Horixe uste du haren iloba Maria Sagrario Miralles Arostegik. Halaxe esan zitzaion-eta familiari. Juanito Ebroko batailan hil zen, gerrako lehen lerroan, 1938ko irailaren 13an.



Goiko argazkian, Juanito Arostegi Camino, Maria Maistraren seme-alabetako gazteena eta etxe-ko mutil bakarra, bere hiru arrebarekin. Beste arreba bat zeukan, moja joana.

Erdiko argazkian, Aldapeko arrutitarrak. Argazkian bakarra falta da, seme zaharrena, Jose Mari, Ebroko batailan hil zena.

Beheko argazkian, El Valle de los Caídos. Bertan hilobiratuta daude Juanito eta Jose Mari.

Jose Arruabarrena, 18 urterekin gerrak hil zuen gaztea. Hark frontetik etxera bidalitako gutuna eta bera hil ondoren etxera helarazi zuten diploma.



he recibido nada hasta la fecha.
 Lo que te digo que a muerto
 Juanito Arostegui, cosa que no sepan
 como no me dicen nada.
 Bueno yo de aqui solo he
 podido sacar que tenemos mucha fruta
 de que lo pasamos bien.
 Sin mas que decirte por que
 estamos bien todo es de Orio y
 dar recuerdos a Martin Dique
 y que reciban un fuerte abrazo
 de su hijo que no te olvida.
 Jose Arruabarrena

Jose Arruabarrenaren eskutitza gerra-frontetik

Juanito Arostegiren heriotzaren berri ematen du Jose Arruabarrena Zubiriak bere amari bidalitako gutun batek. Juanito eta Jose, biak ere, Ebroko gerra-frontean ziren. 1938ko irailaren 25ean datatutako Arruabarrenaren eskutitzak hauxe zioen hitzez hitz:

“¡Arriba España! En Campaña a 25-9-38, III Año Triunfal.

Querida madre, salud y tranquilidad le deseo, yo bien a Dios Gracias: Les escribo para que sepan que me encuentro bien y decirles que ya he recibido el paquete que me mandaron que contiene lo siguiente: tres paquetes chocolate, dos cuarterones de tabaco, papel de fumar, tres cajas de cerillas y escapularios, así que Vd. sabrá si es lo que me mandó. Quisiera que me dirían donde han ido mis primos. Yo he recibido una carta de Vd. y me dicen que me mandaban dinero y una cadena, pues yo no he recibido nada hasta la fecha. Lo que les digo que a muerto Juanito Arostegui, creo que no sepan como no me dicen nada. Bueno, yo de aquí solo les puedo decir que tenemos mucha fruta, así que lo pasamos bien. Sin mas que decirle porque estamos bien todos los de Orio dar recuerdos a Martin Dique y Vd. reciban un fuerte abrazo de su hijo que no les olvida. Jose Arruabarrena.”

Jose Arruabarrena bera ere Ebroko gerra-fronte hartan hil zen handik lau hilabetera, 1939ko urtarrilaren 22an. Inazio Arruabarrena Jose zenaren anaiak dioenez, Ebroko batailan lehen lerroan ibili zen Ortzaiakako Batista Oliden Tolosa ere.

Etxetik frontera abiatu aurretik, Josek Inazio hiru urteko anai txikiari agindu zion gerra bukatutakoan jostailuzko kamioia ekarriko ziola. Horrelaxe gogoratzen dute ordukoa etxean, Inazioren alaba Mirarik esaten duenez. Mirarik berak utzia da Joserren eskutitza.

Gerra bukatutakoan, Jose Arruabarrena zenaren oroit-agiri bat jaso zuten bere etxe-koek. Paper onean egindako eta kolorez ondo jantzitako agiriak hauxe zioen:

“Luchando por Dios y por España dio la vida en aras de su fe y su patriotismo el día 22 de enero de 1939 el heroico soldado del glorioso batallón de montaña Flandes nº 5 Jose Arruabarrena Zubiria. El Señor le habrá concedido el gozo eterno con que premia a sus mártires.”

Antonio Iturain Arozena zena ere Ebroko frontean ibili zen, baina ez lehen lerroan, horniketari (intendencia) baizik, mandoen gainean soldaduei lehen lerrora jatekoak-eta eramaten. Antoniok gerratik etxera idatzitako gutunetatik bat idatzi zuen euskaraz. Aiako baserri-tar bat zeukan ondoan, erdaraz ez zekiena eta gauean negarrez egoten zena, etxe-minez. Aiarrak esandako hitzak paperean nolabait zirriborraz idatzi zuen gutuna.



Migel Olasagasti `Marrota´ren gerra-ibilerak

Gerrara eraman eta bizirik atera ziren gehienak, hura bukatu zenean, herrira bueltatu ziren. Baina bizirik itzulitako denak ez ziren osorik etxeratu: Julian Idiakezek, adibidez, hanka galdu zuen gerran. Gerora, herriko Kutxan lan egin zuen gizonak hanka bakarrarekin egin behar izan zion aurre bizitzari gerra haren ondoren.

Nikolas Zendoiak elkarrizketa egin zion Migel Olasagasti `Marrota´ri, honek 91 urte zituela, eta DVn argitara eman, 2007ko ekainaren 7an. Migel 2011ko otsailean hil zen, 94 urte zituela. Olasagastiren hitzek ederki azaltzen dute gerrako ibileraren gogortasuna:

«Izango dira hirurogeita hamaika urte, baina lehengo urtean balitz bezala gogoratzen naiz. Hemeretzi urtetik hogeira egongo nintzen. Espainia osoa gerran zen, Orio atzeko mendia nafarrek hartu zuten gauetik goizera, eta herrian urduritasun handia sortu zen. Jendea herritik atera behar zela-eta, ilunabar batean Orion zortzi bat bapore jendez kargatu ziren. Nire lagunak ere bazihoazela ikusi eta neu ere baporera saltatu nintzen. Gizon batek aterarazi egin ninduen baporetik, pistola eskuan zuela: “Hire adinekoak ez dizkitek behintzat gerrara eramango, eta alde egin ezak etxera!”. Goiko Kale aldera ezkutatu pixka bat eta, gizon hura urrutiratu zenean, berriz baporera saltatu eta han ezkutatu nintzen jende artean.

Baionara joan ginen, sei bapore bakarrik iritsi ziren. Baionan ginela, jakiak urritu ziren. Oribarzarreko Rubio agertu zen han eta esan zigun berak baserri batzuetan ezaupidea bazuela, eta sei mutilentzako lekua bazuela. Horrela sakabanatu ginen. Gu sei mutil, behintzat, kamioi zahar batera igo ginen. Eta baserriz baserri, salto batek hemen eta salto besteak han. Ni ere saltatu nintzen etxe atari batean.

Ondo hartu ninduten. Bospasei behi bazeuden etxean. Nagusia kontrabandista zen, gauez lan egiten zuen. Baserriko lanak, nik, mantenu truke. Urtebete pasatu nuen baserrian. Etxetik abisuka neuzkan beti, etortzeko; ia kasurik egin gabe alde egin bainuen. Etorri eta berehala kinto deitu ninduten, Loiolako koartelera. Handik, Iruñera, `Infanteria America´. Gero, Teruelera, merkantzia zahar batean. Bazen tiroa eta sua bazterretan! Fronte gogorak genituen han. Beldurra zegoen. Edozein unetan, edozein erortzen zen hankaz gora. Baina ezin atzera egin. Gero, hankako behatz handia izorratu nuen, gaiztotu eta pasmatu. Madril aldera eraman ninduten, Talavera de la Reinako ospitalera. Hanka gaiztotzen eta Sevillako Virgen de la Macarena ospitalera, eta handik Cadizeko Algecirasera: beste hamabi egun. Hantxe hasi hanka hobetzen. Hogeita lau egunerako, etxera. Pozik etorri nintzen.

Herrian esan zidaten gidatzeko karneta ateratzeko, Donostian bazela aukera. Kasu egin nien. Hamar egunean karneta atera eta zerbait banintzelakoan joan nintzen berriro Madrilgo batailoira. Han hiru hilabete pasa, eta Lleidara, nire Fiat 18arekin. Bolantea eskubian zuen. Borjas Blancasera. Monte Montserrat pasa eta Bartzelona aldera. Katalanek esaten ziguten: “Ez zarete pasako; Napoleon ere hor



Migel Olasagasti, Marrota baserriko semea.

*Migel Olasagasti 'Marrota' arraun-
nean bandera irabazi ondorengo
ospakizunetan, banderez jantzita-
ko udaletxearen aurrean.*



geratu zen bere garaian". Pasa, aire pasa ginen, gure tiro, bonba eta tankeekin. Bartzelonako portuan, 42 itsasontzi txikituta geratu ziren. Penagarria, benetan! Bartzelona hartuta, italiarrek egundoko enbusteriak egin zizkieten Francori. Uste dut 25 abioneta zirela. Aieratu eta oraintxe egiten zuten 'Viva Franco' ilaran jarrita, oraintxe 'Arriba España'... Aho zabalik egon ginen gora begira italiar artetsu haiei. Asko lagundu zioten Francori. Abisiniatik zuzenean etorri ziren, Afrikan egundoko txikizioak eginda, Mussoliniren agindupean, gero amerikanoak sartu zirenean Duce-a urkatu eta arrastaka erabili bazuten ere.

Francok egundoko desfilea ere antolatu zuen Bartzelonan. Egun osoa pasa genuen desfilatzen gure automobilekin. Ordurako, egunean duro bat banuen soldata, Fiat hemezortziarekin egiten nituen lanengatik, berez eguneko erreala izan arren soldata. Lana galanki eginarazten zidaten, automobil zahar harekin. Artean Madril hartzeko zegoen. Ni Toledora bidali ninduten. Han atake gogorrak jo ziren. Eta eraso haien ondoren, zapi zuriak altxatzen hasi zirela-eta, gerraren amaiera izan zitekeelako zurrumurruak zabaldu ziren. Egun gutxiren barruan, elkarri tiroka jardundakoak elkar besarkatzen ikusi genituen. Gure autoekin, Albacetera.

Bidean dena txikitua, kiskalita zegoen, negargarria. Costa Bravan, Arenys de Mar-en, Luis Trekurekin topo egin nuen; hura bere arrantzale-jantziarekin. Azkar ezagutu nuen nik. Berak ere berehala, ni. Hala galdetu zidan: "Hi Marrotakoa izango haiz, eta fidatu al ninteketik hirekin?". Besarkatu ginen. Andrea eta mutikoa galduta zebilen. Haien bila zebilen. "Atzo tiroak izan hituan hemen, eta ez zekiat nora sakabatuak izango diren. Hilda dauden ere ez zekiat". Pentsa nola zegoen hura ere...

Gerra bukatuta, italiarrek eraman nahi ninduten beraiekin. Hala ere, Espainiako ejertzitoarekin, Afrikako Ceutara, nire automobilekin. Moroak eta automobila Afrikan lagata, Iruñera. Berriz, Loiolako koartelera. Txoferra nintzenez, han ere jarri zidaten automobila. Hilabete pasa nuen, koartelerako gauzak ekartzen, lizentziatu arte. Babarruna ekartzen nuen Zamoratik eta ardo gorria Nafarroatik. Gero, lizentziatuta etxera, Oriora, ezer pasa ez balitz bezala. Orioko portua ikusi nuenean, gogoratu nintzen baporerara salto eginda nola joan nintzen eta, geroztik, hiru urteren buruan, gerrak zer nolako arrastoak utzi zizkidan. Beti gogoratuko naiz, hil arte».

Migel bezala, gerra frontean ibili zen Patxi Errasti Esnaola agiñarra ere; gerora Oriora ezkondu eta herrian ardogle ezaguna izan zena. Patxi Ebroko batailan izan zen, Teruelen, tanke bat gidatzen. Tankeko kapitaina, han zutik zela, kopetan emandako tiro batek hil zuen. Patxiren anaia Ramon ere gerran hil zen, Toledoko Vargas herrian, "falleció por explosión de un polvorín, en acción de guerra". Kasu honetan harrigarriena heriotzaren data da: 1939ko apirilaren 2an hil baitzen, gerra bukatutzat eman zuten egunaren biharamunean.

Jose Luis Fernandez, gerrako sukaldaria

Migel Olasagasti bezala ibili zen Jose Luis Fernandez Urkia ere gerra hartan, batetik bestera. Jose Luis Berastegiko gazte batekin egokitu zen gerran, konpainia berean. Jose Azpiroz zen gazte hura eta gerra bukatu eta handik urte askotara (1989an) liburu bat idatzi zuen: *‘Gogoz kontrako pausoak’*. Liburuan gogora ekarri zituen gerrako pasadizoak. Haren bidez dakigu nondik nora ibili zen Jose Luis gazte oriotarra ere: Burgos, Covanera, Cilleruelo de Bricia, Escalada, Santander, Leon, Tafalla, Teruel, Huesca, Sort, Piedras de Aolo, Katalunia, Madril... Jose Azpirozek liburuan dioenez, suerte handia izan zuen, gerran ibili bazen ere: ondoan beste euskaldun batzuk egokitu zitzaizkion eta haiekin ibili zen: hiru erreizildar, bi zumaiar, bi oiartuar eta oriotar bat, Jose Luis Fernandez Urkia. Jose Luis sukaldari bikaina omen zen, eta hark jarritako otorduek arintzen omen zizkieten gerrako penak.

Anbrosio Uranga, itsasoan betiko

Pasai San Pedron jaio eta Orion bizi zen **Anbrosio Uranga Irigoien** *‘Balears’* gerra-ontzira destinatu zuten, matxinatuen bandoan. Barku hartan egin zuen gerra, *‘marinero-fogonero’* moduan, harik eta 1938ko martxoaren 6an, barkua torpedo batek jo eta hondora bota zuen arte. Eraso hartan hil zen Anbrosio, 31 urte zituela. Haren gorpua itsas azpian geratu zen betiko. Errepublikaren aldeko Lepanto ontzi destruktoreak jo zuen Balears. Ingelesen armadako bi destruktore naufragoei laguntza ematera joan ziren: HMS Boreas eta HMS Kempenfelt. 435 erreskatatu zituzten. Salbamendu-operazioan Errepublikaren aldeko hegazkin batzuek bonbardatu egin zituzten ontzi ingelesak, eta Boreas ize-nekoan hildako bat eta lau zauritu eragin zituzten.

Murtziako kostaldean gertatu zen eraso, Cabo de Palosen hain zuzen. Hondoratzearen ondorioz, 765 gizon jo zituzten hildako edo desagertutakozat. Haien artean zegoen Anbrosio arrantzale oriotarra. Haien artean zeuden, baita ere, José Ortiz-Echagüe argazkilaria bi seme nagusiak ere. Echagüe da XX. mendeko 20 eta 30eko hamarkadetan Orion Linori, Otegiri eta beste arrantzale batzuei egindako argazki famatuen egilea. Garai hartan, Donostian pasatzen zuen udako oporraldia; bere bi semeak hil zituen eraso itsasoan gertatu zenez, geroztik itsasaldetik urrundu eta oporretan Nafarroara joaten hasi zen familiarekin, Orreaga aldera.

Ondarroan bi monumentu altxatu zituzten Balears-en hildakoen omenez, bata kanposantuan eta bestea kaian. Gizon haietako 50 inguru ondarroatarrek baitziren.



Gerra bukatu eta 25 urtera, irabazleen bandoko gerrako beteranoei egindako omenaldia.

Balears gerra-ontzia, torpedo batek jota itsasoan hondoratu zen momentuan.





Goian, Virgen de Iciar gerra-ontzia, Pasaian.

Behean, ontziko lau oriotarrak: Anduko Domingo Lertxundi, Itzaizko Francisco San Sebastian, Muniotako Juan Jose Arruti eta Kallabarroko Jose Gozategi.



1936ko azaroaren 7an Orioko Udalak honako erabakia hartu zuen: "El Sr. Alcalde de San Sebastián pide ayuda para sufragar los gastos de 150 hombres reclutados entre los Marineros de la Costa Guipuzcoana para unirse a la nueva tripulación del Barco Baleares que va entrar al servicio del Glorioso Movimiento Nacional de España; estudiado el asunto por unanimidad acordó conceder la subvención de 160 pts., cantidad calculada para el equipo de un hombre."

Hiru urte geroago, 1939ko ekainaren 6ko aktan jasotzen denez, Orioko Udalak eskerrak eman zizkien Anbrosio Uranga zenaren seme Nicasio Algeciraseko eskola nabalean hartu zezaten lagundu zutenei.

Andu, Itzaiz, Muniota eta Kallabarroko mutilak, 'Virgen de Iciar' gerra-ontzian

1936ko udan, Pasaiaiko portuan 'Constructora Guipuzcoana' enpresa arrantzarako bi itsasontzi ari zen eraikitzen: 'Ondo Joan' eta 'Ondo Etorri' izenekok, Adolfo Berrotaran armadorearenak. Gerra hasita, irailean Mola generalaren tropek Pasaia hartu zutenean, 'Virgen de Iciar' eta 'Alcázar de Toledo' guda-ontzi izatera pasatu ziren. Berehala hornitu eta osatu zituzten artilleriako pieza eta marinelekin, gerran hasteko. Urrirako prest zeuden gerrako misioei ekiteko.

'Virgen de Iciar' guda-ontzira destinatu zituzten eta barku hartan egin zuten gerra, Orioko lau baserritako mutilak: Anduko Domingo Lertxundi, Itzaizko Francisco San Sebastian, Muniotako Juan Jose Arruti eta Kallabarroko Jose Gozategi Aizpurua.

Itsasontzi hura izan zen, beste batzuekin batera, 1936ko urriaren 15ean Errepublikaren Itsas Armadako 'Galerna' ontzia atxilo hartu zuena, Baionatik Bilbo aldera zihoala. Ontzi hartan zen gerora torturatu eta fusilatuko zuten Jose Ariztimuño Aitzol apaiz abertzalea.

Serapio Gametxo, Eusko Itsas Gudarostean

Espainiako Errepublikako gobernuarekin adostuta, Eusko Jaurlaritzak, 1936ko urrian Autonomia Estatutua lortu eta gero, Itsas Armada propioa sortu zuen, Espainiako gobernu errepublikanoaren iparreko flotatik independentea eta berezko buruzagitzaz zuzena.

‘Euzkadiko Gudontzidia’ Jaurlaritzaren Defentsa Sailak sortu zuen, Errepublikaren Armadari itsas trafikoa eta arrantza-lanak babesten laguntzeko eta euskal portuen sarrera-irteerak urpeko minetatik libre izateko. Itsas armada osatzeko, gerraontzi bihurtu zituzten berrogeita hamar bat arrantza-ontzi, Bilbon babestuta eta itsasora atera ezinik zeudenak, gehienak Pasaiatik hara joanak. Ontzi haietako batzuk armatu egin ziren (bou armatuak) eta beste batzuk urpeko minak harrapatzeko aparailuz hornitu (minaketariak). Ontzi guztiak grisez margotu zituzten eta brankan ikurrina eta txopan bandera errepublikarra jarri zitzairen. Portugaleten izan zuten basea.

Tripulazioak merkantzetan edo arrantzan ibilitako marinela boluntarioez osatu ziren: gehienak, STVkoak edo EAJkoak. Denetara, 917 gizonezko eta 3 emakume izan ziren Euzkadiko Gudontzidian (62, zerbitzuan hil ziren): haietako gehienak (%87) euskal herri-tarrak ziren, baina kanpotik etorriak ere bai, galiziar dezente tartean.

Euzkadiko Gudontzidiko ontziek zenbait borrokaldi izan zituzten gerraontzi etsaien aurka. Garrantzitsuena, 1937ko martxoaren 5ean. Nazionalen ‘Canarias’ gurutze-ontziak, Matxitxako parean, Baionatik Bilbora zihoan konboi bat atzeman zuen. ‘Galdames’ merkatal-ontzia ‘Gipuzkoa’, ‘Bizkaya’, ‘Naba’ eta ‘Donostia’ren babesean zihoan. Borrokaldiaren ondorioz, ‘Galdames’ ontzia mendean hartu zuen Canariasek. ‘Naba’ ontzikoen hondoratzea eta heriotza epikoa gertatu zen.

Bilbo erori zenean, 1937ko ekainean, euskal ontziak Santanderrera eraman zituzten, eta han minaketariak lanean jarraitu zuten. Ontzi batzuk, tripulazio eta guzti, Errepublikako Itsas Armadaren esku gelditu ziren abuztuan, eta handik Asturiasera bidali zituzten. Asturias ebakuatu zenean, 1937ko irailean, amaitu zen Euzkadiko Gudontzidiaren langintza. Ontzi eta marinela gehienek Frantziara alde egitea lortu zuten. Hara iritsitakoan erdiak, gutxi gorabehera, bertan gelditu ziren gerra amaitu arte; beste erdiak Errepublikaren menpeko lurraldeetara itzuli ziren, gerran jarraitzeko.

Itsas Armada hartan ere izan zen borrokatutako oriotarrik: Serapio Gametxo Azpeitia, STV sindikatuan (‘Solidaridad de Trabajadores Vascos’; gerora, ELA-STV izango zena) afiliatua. Bermeoko jatorria zuen familia batekoa zen Serapio. Ondarroa D-14 ontzi minaketarian (dragaminas) ibili zen 1937ko apiriletik azarora, labezain.

1943ko abuztuaren 24ko data duen dokumentu batean Gametxori egindako epaiketa baten berri dator. Auzi hartan, Gametxorekin batera, beste sei herritar ere epaitu zituzten. Honela zioen dokumentuak:



Serapio Gametxo.

Gametxoren itsas gudari kartilla, azala eta barrukoa.



GOBIERNO DE EUZKADI	
DEFENSA	
JEFATURA DE MARINA DE GUERRA	
	Natural de Orio Vecino de Portugalete -UM OÍAS de MARO n°20 -2º Partido e Agrupación 3. T. V. Buque "ONDAROA" -"D-14"-
Buques en que prestó sus servicios: Paqueteros	
Cargo que ocupa	Pagadero habilitado
Libreta de inscripción marítima: Nulo	Inso
Fecha de embarque: 20/4/37	Fecha de desembarque
OBSERVACIONES:	
D. SERAPIO GAMETXO AZPEITIA	



Bou Gipuzkoa gerra-ontziko kubiartan itsasoko gudariak ikurrina altxatzen, 1937an.

San Juan 2 ontzia, gerra ondoreneko urte batean, arraun-ospakizun batean.



“Se ha instruido este procedimiento contra Serapio Gamecho Azpeitia, como consecuencia de una denuncia en la que se acusaba a los encartados de haber celebrado una comida en el mes de mayo de 1942, en el establecimiento Nicolasa de Pasajes de San Juan y en el curso de la cual se había tirado al criadero de langostas el retrato del Jefe del Estado. Formulada la denuncia a título de rumor en el curso de lo actuado no ha podido comprobarse debidamente la realidad de los hechos perseguidos; sin que, dada la ausencia de testigos presenciales, pueda aportar nuevos datos, acuerdo el sobreseimiento provisional de las presentes actuaciones.”

San Juan baporea, Pasaian konfiskatuta

Rafael Manterola Iruretagoienak gogoan du bere aitari hainbat aldiz entzundako istorioa: Espainiako gerra lehertu zenean, Orioko San Juan N° 2 baporea militarizatu egin zuten, Gipuzkoako beste zenbait bezala (Hondarribiko San Francisco, Getariako Madre Dolorosa eta Mutrikuko bat tartean). Bi urte egin zituen Pasaia-ko portuan, itsasoa zaintzeko lanetan; eta bertan, Julian eta Xanti Manterola anaiak: patroiz, lehenengoa; makinista, bigarrena. Bertan zela, 1936ko abenduaren 3an, Xanti bosgarren aldiz aita izan zen. Haurraren bataiora etortzeko, baimena eskatu behar izan omen zuten.

San Juan Pasaian konfiskaturik zen bitartean, Orion arrantzaleek lanean segitu zuten. Garai haietan `masiya´ ekartzen zuten kofradiara eta handik baporeen soto-etara banatu. Masia legatzaren arrabekin egindako ore bat zen, itsasora botata arraina erakartzeko erabiltzen zena. Hala, herriko zenbaitek beretzat hartu nahi izan zuten San Juani zegokion partea, baina San

Antonioko armadoreetako batek, Jose Manuel Sarasua *Luxarbak*, eragotzi omen zien, bestela ere nahiko desgrazia bazutela argudiatuz.

Pasaiako erbesteratzearen aurretik, bestelako lanik ere egin zuen San Juan baporeak: iheslari asturiar errepublikazale bat Donibane Lohitzunera eraman zuen gerratik ihesi. Honek egindako mesedea ordaintzeko zuen diru dena eman nahi izan zien ontzikoei, baina hauek ezetz esan, gordetzeko, beharko zuela eta. Rafaelek dioenez, iheslariak dirua baporera bota eta alde egin zuen.

Antonio Ibargoien Iribar, etxean hila, granada batek lehertuta

Gerra bukatu ondoren ere, urte askoan, istripu hilgarri asko gertatu zen gerrako frontea egon zen lekuetan, erdi lurperatuta geratutako bonben ondorioz. Gehienetan haurrak izan ziren istripuen biktimak, herri inguruan jolasean zebiltzan umeak. Horrelakoak gertatu ziren Igantzín, San Adrianen, Irunen, Monteagudon, Dicastillon, Oreretan, Urbanan...

Orion ere izan zen antzeko kasu bat, baina Oriokoak aparteko berezitasuna izan zuen: istripua etxean gertatu zen. Clemente Ibargoienek, gerran soldadu zebilela, permiso batean esku-bonba bat ekarri zuen etxera, oroigarri moduan: granada bat. Dirudienez, bonba etxeko armairu baten gainean zeukan gordeta. Haren anaia gazteago bat, Antonio, 15 urteko gaztetxo, jolasean zebilen San Nikolas karkarako haien etxean, Pikoeta izenekoan. Armairuan bonba topatu eta, hura esku artean zerabilela, lehertu egin zitzaion. Istripuan izandako zaurien ondorioz bertan hil zen. 1939ko urtarrilaren 15ean gertatu zen istripua, gerra bukatu gabea zela.



Goiko argazkian, Ibargoientarren familia. Amaren besoetan dagoen haur txikia da Antonio, 15 urte zituela esku-bonba bat lehertuta, hilko zen mutikoa.




Ezkerrean, istripua gertatu zen etxea, San Nikolas karkarako Pikoetaenea.



Herritik kanpora behartutakoak

Traineruaren atzean ageri diren baporetan joan ziren ihesi Oriotik Donibane Lohitzunera oriotar asko eta asko. Batzuk, betiko.



Oriotar asko itsasoz Donibane Lohitzunera

Tropa nazionalak sartu aurretik, jende askok alde egin zuen Oriotik, haietako askok itsasoz. Bapore batzuk Oriotik Donibane Lohitzunera joan ziren, jendez beteta. Haien artean zegoen herriko alkatea, Juan Erzilla jauna, eta harekin batera beste oriotar asko: Luis Genova *Trekuren* familia osoa, Oribazarreko makazagatar lau anaiak, Lertxundi Oñederra bost anaiak, Inazio Arruabarrena, Joxe Esnal *Basarri*, Joakin Arostegi, Manuel Salsamendi *Ferru*, Juan Jose Iturain, Teodoro Mitxelena, Inazio Manterola, Jose Antonio Arrillaga, Jose Benito Lertxundi Oñederra, Jose Benito Lertxundi Gurrutxaga... Getariatik ere arrantza-ontzi asko joan ziren ihesi Iparraldera, eta haietan Zarauzko jende asko.

Jorge Oteiza, berriz, gerrak Hego Amerikan harrapatu zuen. Ez dakigu gerrari usaina hartu zion, baina gerra hasi baino bi urte lehenago, 1934an, alde egin zuen herritik eta han ibili zen 1948 arte, Europa jo zuten bi gerretatik urruti.

Oribazarreko Makazaga anaiak

Makazagatarrena kasu bitxia da. Oribazarreko baserrian zazpi senide ziren, lau mutil eta hiru neska. Gerra hasi zenean, lau mutilak joan egin ziren Oriotik: Gregorio, Modesto, Andres eta Jose. Barkuz joan ziren, herria utzi zuten gainerako oriotar gehienak bezala. Etxean geldituz gero, sartutako tropek gerrara eramango zituzten, eta ez zeuden horretarako prest.

Oriotik ihesi, Donibane Lohitzunera iritsi eta handik aste batzuetara Senperera jo zuten. Frantziako Gobernuak ez zituen bakean utzi, eta handik Frantziako Tours hirira deserriratu zituzten. Han igaro zuten gerra aldia. Gerra bukatuta, Gregorio, maiorazkoa, Oriora bueltatu zen. Gainerako hiru anaiak ez ziren jaioterrira itzuli, han geratu ziren betiko. 1946an-edo, bigarren mundu gerra bukatuta, eta ordurako haien soldaduskarako adina pasatuta, modua egin zuten tarteka bisitan herrira etortzeko. Baina Modesto, Andres eta Jose Makazaga Frantziako Estatuan geratu ziren eta han egokitu zuten bizimodu berria. Han ezkondu eta familia izan zuten.

Gregorio Makazagari, berriz, Oriora etorritakoan, haien ihesaldiaren ordainetan-edo, Oribazarreko baserriko lurrak kendu zizkioten 1941ean, han falangisten kanpamentua jartzeko, Txurruka izendatu zutena.

Gerra hasi zenean Euskal Herriko Iparraldera joan zirenetatik, Makazaga anaiak bezala, beste zenbait oriotar ere betiko geratu ziren hartu zituen herrian. Haietako bat izan zen Marrota baserriko Jesus Atorrasagasti, Biriatun geratu zena. Beste bat Juan Jose Iturain izan zen. 1936an Orioko alkate izandako gizonari zigorra jarri zioten, nahiz bera bertan egon ez gerra ondoren Iruñean egin zioten epaiketan: 10 urteko erbesteratze-agindua. Iturain betiko geratu zen Donibane Lohitzunen; 1936an etxea eta herria galdu zituen betiko: Juan Joseren jaiotetxea urte hartan erre zen, suak hartuta, 1936ko martxoaren 10ean, Antonenea okindegiko etxea. Ez zuen sekula ikusi haren errautsen gainean eraikiko zuten etxe berria, ez eta Orioko herria ere.



Arraunean Aiarentzat bandera irabazi zuten Oribarzarreko lau mutiletatik hiru ere Iparraldera joan ziren: Pedro Aizpurua eta Gregorio eta Modesto Makazaga anaiak.

Oribarzarreko makazagatar anaiak Iparraldera joan ziren bezala, herriko beste gizon bat Oribarzarre joan zen ihesi, hango Torretxo baserrira. Gerora herriko alkate izango zen Anjel Iturriren aita egon zen ezkutatuta Torretxon, ukuiluan eduki zuten, belar artean gordeta. Hara eramaten zioten jatekoa, handik ez baitzen atera ere egiten, aste batzuk pasatu eta egoera lasaitu zela erabaki zuten arte. Hala aditu izan zien kontatzen askotan Torretxoko Martzelinok bere gurasoei.



Juan Erzilla herriko alkatea ere atzerrira

Erzillatarrak, aita-semeak joan ziren: Juan eta Jose Anjel. Aita tolosarra zen jaiotzez. Oriora etorrita, erriorearen beste aldean bizi zen, zubi ondoko etxean, Ixkiña taberna izan zen haren aldamenekoan. Juan Erzilla López Orioko alkatea izan zen 1936ko hilabete batzuetan. Joan aurretik, Aiako alkatearekin hitz egin zuen, Gabino Alustizarekin. Adiskide zuen. Esan zion joateko beraiekin, ihes egiteko, ez geratzeko Aian, bere bila etorriko zirela. Behin eta berriz esan omen zion, baina ez zuen konbentzitu. Aiakoak ezetz, berak ez zuela ezer txarrik egin eta ez zuela ezeren beldurrik. Alustizak ez zuen inola ere pentsatzen gero gertatuko zirenak gerta zitezkeenik, eta bertan geratu zen, Aian.

Oriotik Donibane Lohitzunera ihesean joandakoek Lapurdiko portu hartan eman zituzten beren erbesteko lehen egunak. Oriotarretako asko arrantzaleak izanik, hango arrantzaileen elkartasuna jaso omen zuten: egunero kajakada bat sardina ekartzen zieten oriotarrei.

Oriotar batzuek, aste batzuk Lohitzunen pasatuta, 1936ko irail aldean, gonbita jaso zuten 'chateau' batera joateko, upategi batera alegia, mahatsaren bilketa-lanetan laguntzera. Upeltegia azpeitiar batena zen, Zendoia abizena zuen batena, 'Chateau La Grange'.

Oriotar bat baino gehiago joan ziren Bordele inguruko mahasti haietara, mahatsa biltzeko lanetan aritzera. Domingo Arruabarrenak eta Jose Esnal Basarrik, lan horietarako ohitura handirik ez, eta nagusiarengana joan omen ziren esatera haiek arotz onak zirela, zura lan-



Falangisten Txurruka kanpamentua Oribarzarren.



Chateau La Grange.



Eserita daudenetan ezkerrekoa da Juan Erzilla, 1936an Orioko alkate izandakoa.



Gabino Alustiza, Aiako alkatea 1936an eta haren hilarria Hernaniko kanposantuan.

tzen ondo zekitela eta emateko bestelako lanen bat. Halaxe, upategi batean jarri zituzten lanean. Upeltegia ez zen Bordeletik eta kostaldetik urruti izango, angula iristen omen zen eta bertaraino. Lan haiek bukatuta, Donibane Lohitzune aldera itzuli ziren eta handik, aste batzuk pasatuta, Oriotik albiste onak iritsi ziren, itzuli zitezkeela lasai, ez zitzairela-eta ezer gertatuko. Gehienek familia zuten Orion, Erzillak berak ere bai. Beste batzuekin batera, alkateak ere bueltatzea erabaki zuen.

Alkate haren biloba Juan Antonio Erzillak dioenez, haren emazte Margarita Etxeberria ahalegindu zen senarrarengana bisitan joaten Lapurdira, baina ez zuen lortu orduan horretarako beharrezkoa zen *salvo-conductoa*. Ez zioten eman.

Aiako alkatea Hernanin fusilatua: Gabino Alustiza

Aiako alkatea fusilatu egin zuten frankistek 1936an. Orion bezala, urte hartako irailaren 20an sartu ziren Francoren tropak Aian. Gabino Alustiza Etxeberria zen orduan herriko alkatea, EAJkoa. Seguran jaioa zen eta Aiako Palazioan ziharduen lanean, hango kontuen administratzaile. Preso eraman zuten Ondarretako kartzelara. Bost astera, fusilatu egin zuten Hernaniko kanposantuan, urriaren 27an. Alustizak bere errugabetasunean zeukan konfiantzak galdu zuen.

Hernanin jende asko fusilatu zuten 1936ko gerraren hasierako hilabete haietan. Honelaxe kontatzen du `Los fusilamientos de Hernani de 1936` liburuak ordukoa: *“1958ko ekainaren 17an Hernaniko Guardia Zibilarren Komandantziak ohar baten bidez adierazi zion Gipuzkoako Gobernu Zibilarri Hernaniko kanposantuko bi hobitan 197 pertsonaren gorpuk zeudela lurperatuta, eta denak Francoren tropek hildakoak zirela; haietako zazpi apaizak ziren: Martin Lekuona, Gerbasio Albisu, Jose Aristimuno (Aitzol), Jose Adarraga eta Zelestino Onaindia, eta bi, zibilak: Jose Maria Elizalde eta Gabino Alustiza”*.

Seguran 1888ko urriaren 25ean jaiotako Gabino ezkontuta zegoen Luisa Telleriarekin, hura ere Segurakoa. Hamar seme-alaba izan zituzten. Bat txikitán hilda, alarguna bederatzirekin geratu zen Aiako Palazioan, senarra hil ziotenean. Etxean baratza bazeukaten eta justu-justu baina aurrera egin zuten. Bederatzi haurren amak honelaxe kontatzen du oraindik ere orduan pasa zuten gosea eta estualdia adierazteko: *“sardina zahar bat hiruren artean partitu behar izaten genuen”*. Txarrena, hala ere, ez zen gosea izan: ezeren kulparik gabe fusilatu zuten gizonaren bi seme gerrara eraman zituzten, beren aita hil zutenen armadara.

Gabino Alustiza alkatea buru zuela, Aiako Udalak irailaren 6an egin zuen azken udalbatzaren aktak honela dio: *“El señor presidente dio cuenta del fallecimiento de D. Leandro Urretavizcaya Ormazabal rector que, por espacio de 4 años, desempeñó con tan singular*


acuerdo tal cargo en la iglesia de San Esteban de Aya". Don Leandro bihotzekoak jota hil zen herriko kanpo aldean pasean zebilela.

Francoren tropak Aian sartu ondoren osatu zen udal berriak ez zuen inoiz aipamen txikiarik ere egin udal aktetan Gabino Alustizari buruz. Bestelako erabakiak bai hartu zituzten: esate baterako, 1936ko irailaren 27an, erreketek sartu eta astebetara, udal berriak egin zuen bigarren batzarrean honako erabakiak hartu zituen: batzorde berriak osatzea, herritik alde egindako pertsona guztiak zerrendatzea, udaletxearen aurreko paretan Jesusen Bihotzaren irudia jartzea, eta herriko eskoletan eta gainerako erakunde ofizial guztietan gurutzeak. Lehenengo batzarrean, irailaren 25ekoan, Alustiza ordezkatu zuen alkatea izendatu zuten: Manuel Iruretagoiena, Izarreta baserriko jauna; eta 9 zinegotzi. "*Persona autorizada por la Junta de Guerra de Guipuzcoa para la constitución del Ayuntamiento de esta Universidad*" zioen aktak alkate berriaz.

Epaia berri eman zitzaion Gabinoren alargunari. Haren arabera, delitu bakarra izan zuen abertzale izatea eta alkate-lana behar bezala egitea. Delitu horiek frogatuz eta larritzat jotzen zituen epaiak. Aringarri moduan agertzen zen auzipetuak emaztea eta 9 seme-alaba zituela, 24 eta 6 urte bitartekoak; eta bakarrak zeukala jornal fijoak (10 pezetakoa), beste batek noizbehinkakoa (7 pezeta) eta alaba batek hilean 50 pezetakoa; eta 115,25 pezetako libreta bat zegoela auzipetuaren izenean.

Latzena, hala ere, zen dokumentuak zioela nazionalak Aiako herria 'liberatu' zutenean, Gabino atxilotu eta Ondarretako kartzelara eramane eta geroztik ez zutela haren inolako berririk, eta familiak uste zuela hilda zegoela. Lehenengo, fusilatuta hil, eta handik bost urtera non zegoen ez zekitela esan eta kalte-ordain moduan dirua ordaintzera zigortu zuten.

2011ko urriaren 29an, Alustizaren hilketaren 75 urteurrenean, Aiako Udalak omenaldi hunkigarria eskani zion udaletxean, Gabinoren alabak eta gainerako ahaideak bertan zirela.



Hernanin fusilatuta eta lau urte eta erdira frankismoak epaitu eta zigortu egin zuen Gabino Alustiza, Iruñeko auzitegi batean.

Vitorio Azkue bizirik, Bilboko kartzela-barkuko sarraskitik

*Kartzela moduan erabili zuten
Cabo Quilates ontzia.*



A Itzibar Haundiya esaten zioten, Oiartzun bere jaioterriko auzoaren izenagatik-
edo. Vitorio Azkue zuen izena eta Aiako Santiotik gora dagoen Portusagasti
baserrian bizi izan zen, hara ezkondu. Baserriko lanak eginda, sarritan joan
ohi zen Amilibia tabernara, kamio aldamenean zegoen hartara. Gizon hitzuna
zen eta pixka bat bixitzen zenean, gerra garaiko istorioak ekartzen
zituen gogora. Tabernako Juan Luis Amilibiak askotan entzun zion
gerra garaiko Bilboko pasadizo hura eta honela kontatzen du berak:

*“Oiartzuarra izanik, Azkuek ondo ezagutzen zuen Irun aldeko
mugako eremua. Gerra hasi berritan, Vitorio Azkue ihesean zihoa-
zen eskuindarrak hartu eta Gipuzkoatik Iparraldera pasatzen lagun-
tzen zien. Harrapatu egin zuten, atxilotu, eta errepublikarrek Bilbon
kartzela moduan zeukaten barku batean sartu zuten preso.*

*Hango egoera penagarria omen zen, leku gutxi eta zikinkeria alde
guztietan; zorriak eta arkakusoak harrapatzen ematen zuten denbora,
botila batean sartzen hasi ziren, eta osorik bete omen zuten”.*

Errepublikaren gobernuak Bilbon bi itsasontzi egokitu zituen kartzela moduan,
1936ko uztailaren 18an militarrek abiatutako matxinadan haien alde agertutako
eskuindarrak atxilotu eta haietan preso edukitzeko: ‘Altuna Mendi’ eta ‘Cabo
Quilates’ izenekoak. 1936ko irailaren 25ean, hilketa handi bat izan zen kartzela-
barku haietan. Egun hartako goizean abiazio nazionalak bonbardatu egin zuen Bilbo.
Jendeak beldur eta amorrazio handia zeukan. Arratsean, milizianoek, mendeku bila,
barkuetara joan, sartu eta tiroka sekulako sarraskia eragin zuten. Egun hartan 65 hil-
dako izan ziren.

*Modesto Fernandez eta Rosario
Loiola, senar-emazteak, 1946an.*




Modesto Fernandez Korta Ingalaterrara

O riotik ihesean atera zirenetako batzuk Euskal Herriko iparraldera joan ziren
baporea hartuta. Beste asko, pixkanaka, Bizkaia aldera abiatu ziren: Eibar,
Gernika, Bilbo... Durangoko eta Gernikako bonbardaketen ondoren, iheslari
gehienak Bilbon elkartu ziren, baina han ere ia egunerokoak ziren bonbardake-
tak eta, egoeraren larriaren larriaz, Eusko Jaurlaritzak erabaki zail bat hartu zuen: haurrak
atzerrira bidaltzea. Harreman diplomatikoen fruitu, Frantzia, Errusia eta Ingalaterra prest
agertu ziren Euskal Herriko umeak hartzeko. 1937ko maiatzaren 21ean *Habana* itsasontzi
erraldoia abiatu zen Santurtziko portutik Ingalaterrako Southampton aldera. Barku hartan ia

4.000 haur joan ziren, ia 4.000 istorio desberdin. Istorio haietako bat Modesto Fernandez Korta zarautzarrarena da. Modestok 12 urte zituela, ia 8 hilabete Ingalaterran pasatu behar izan zituen atzerrirata, 1938ko urtarrilaren 7an Euskal Herrira itzuli ziren arte. Modesto hura bizi da gaur egun ere (2014), Granadako Almuñecar herrian.

Modestoren aita, Justo Fernandez Barrutia, oriotarra zen, Orion jaioa. Justoren aita Galiziatik etorria zen gurasoekin, zortzi urte zituela. Galiziar haiek trenbidean lan egitera etorriak ziren XIX. mendearen bukaera aldean. Justoren aitak horretan eman zuen bere bizitza, eta Orioko tren-geltokian lanean ari zela jaio zen Justo, gerora bizitzera Zarautzera joan zena.



Señorita Rita maistra

Gerra hasi zen urtean, 1936an, Señorita Rita Orioko maistra zen (Rita Gómez Mateo berezko izenez, 1912an Donostian jaioa), baina matxinatuen tropak herrian sartzerako, ihesi joana zen, herriko beste asko bezala, Bizkaia aldera.

1937ko maiatzaren 21ean, Gernikako bonbardaketaren ondoren, Habana barkuan abiatu zen Santurtziko portutik Ingalaterra aldera. Itsasontzi hark 80 pasaiarientzako lekua bazuen ere, bertan 3.840 haur joan ziren, 80 maisu-maistra, 120 laguntzaile, 15 apaiz eta bi mediku.

Haien artean zihoan señorita Rita, Orioko maistra. Itsasontzia Southamptonera iritsi zen maiatzaren 23an. Rita Gómez Southanmptoneko kolonia batean ibili zen haur euskaldunekin lanean.


Hori baino lehenago, 1936ko abenduaren 5ean `Junta local asesora-informativa de Orio´ izeneko batzordeak dokumentu bat bidali zion `Comisión depuradora del Magisterio (informes sobre la conducta de los maestros, 1936-1937)` izenekoari; ondoko irudian ikus daitekeen bezala.

Bigarren mundu gerra hasi zenerako, haur gehienak itzuliak ziren Euskal Herrira, baina Señorita Rita ez zen sekula bueltatu. Ingalaterran gelditu zen. 1942an mutil ingeles batekin ezkondu, mundu-gerra bukatu zenean Londresen jarri ziren bizitzen. Haien seme bat, Gerald Hoare, gaur egun Erresuma Batuko 1937ko haur euskaldunen elkarteko bazkidetza-idazkaria da (Basque Children of '37 Association UK). Berak dioe-



Goian, Habana ontzia.

Rita Gomez Orioko maistrari buruzko informea.





Señorita Rita, Orioko maistra, Ingalaterran, Southamptonen, gerratik hara ihes egindako haur eta maistrek.

Juana Mari Atorrasagasti, Toki Alai jatetxeko neskatxa, urte gutxi lehenago irekitako eskolaren atarian, orain kultur etxea dagoen horretan.



nez, saiatu zen amaren ahotik ateratzen zer gertatu zen gerraren urteetan. Ez omen zuen askorik lortu. Ez da harrigarria. Gehienek ez zuten gogoratu nahi.

Erbesteratutako maistra haiek hutsune handia utzi zuten Euskal Herriko eskoletan. Haiek betetzera beste maisu-maistra batzuk etorri ziren. Oriora, adibidez, Eugenio Arbilla, Jose Campos, Victoria Gaztelu Urrutia eta Sabina Galar. Arbilla, gerran ibili zen, nazionalekin, Ondarroa aldean. Badirudi oso gauza gogorretan parte-hartze zuzena izan zuela eta, gero, urtetan, haien damua erakutsi ziela Orion hainbat herri-tarri, gerran egindakoen zama eraman behar izan zuela bizitza osoan. Maisu izan zutenek oroitzapen ona dute Arbillarena, maisu bezala. Jose Campos ormaiztegiarra, berriz, Orion hasi berritan, zigortuta Zamorako herri batera destinatu zuten urte batzuetarako, nazionalista batekin ezkondu zelako, Inazia Illarramendirekin.

Sabina Galar, `Señorita Sabina´

Gipuzkoa, de ayuntamientos republicanos a franquistas 1936-1937´ liburuan, Gipuzkoan lanpostua galdu zuten maisu-maistren zerrenda luze bat agertzen da, guztira 146 izenekin. Zerrenda horretan Rita Gomezekin batera Orion maisu zegoen beste bat ere agertzen da: Roman Ruiz. Haien lekura etorritakoen artean, bazen bat bereziki nabarmendu zena euskarari eta euskal abertzaletasun kutsua zeukan edozeri zion gorrotoagatik, Sabina Galar.

Iruñea ondoko Taxoarren sortutako Señorita Sabina maistrak arrastoa utzi zuen Orion. Oraindik gogoratzen dira harekin ibilitako emakume batzuk, orduan neskatila zirenak: *“euskeraz hitz-erdi bat aditzen bazigun segituan hasten zitzaigun errietan, rojos-separatistas esanez”*. Harekin ikasi zuten Orioko neskek *“Cara al sol con la camisa nueva”* abesten. Horrekin batera, *“Arriba España, España una, España grande, España libre”* oihukatzen zuten denek batera. Goizean, eskolan sartutakoan, eta arratsaldean, kalera atera aurretik, kantatu egin behar izaten baitzuten. Kantatzearekin batera, goizean, ikasle batek Espainiako bandera zabaltzen zuen leihotik, eta arratsaldean jaso. Batzuetan, ikasleen talde osoa behean jartzen zen, plazan, formazioan, Espainiako banderari agur egiteko.

Migel Mujika herriko bikarioak hurrei doktrina euskaraz ematen ziela-eta, maistra, behin, kontu hartzera joan zitzaion apaizari. Mujikak, ika-mikan jardun ondoren, honela bukatu zuen egun hartakoa: *“eskolan zuk aginduko duzu, baina elizan nik”*. Maistrak ez zuen etsi, eta gotzaindegira joan eta gertatutakoaren parte eman zuen.

Harekin ikasle izandako batzuek esaten dute gainerakoan maistra ona zela, gauza asko erakusten zuela: esku-lanak, antzerkia... horrelakoetan artista hutsa zela. *“Maistra berritsu”*, moduan gogoratzen dute emakume hura ezagutu zutenek: horrela deitzen zitzaion herrian.

Señorita Sabinaren karta

EEBBetako Renoko Basque Archive Collection Record izeneko artxibotik ateratako dokumentuen artean bada bat Señorita Sabinak Zarauzko komandante militarri bidalia, 1939ko azaroaren 5ean sinatutako eskaera-karta bat da:

“Sr. D. José María Huarte:

Muy apreciable D. José María: El año pasado al llegar el invierno pedí al Sr. Echániz (alcalde) el aparato cinematográfico que usaba el Sr. Sacristán en el Bazoqui, y que luego pensaba (no sería el mismo) utilizarlo en el nuevo centro que se abrió, en el salón Parroquial (que no continuará) contestándome que era muy pequeño y malo, y que mejor sería decir a V. por si podía prestarme uno de los hermosos aparatos que V. tenía.

Con el fin de hablarle personalmente hice dos viajes: esa, sin poder conseguirlo, y al llegar de nuevo el mal tiempo, me he decidido hacerlo por escrito.

El objeto no es otro (aparte de las sesiones instructivas que podemos tener en la escuela) recrear a los niños, sobre todo a las niñas un poco, los días festivos y así evitar que haya centros dudosos por el pueblo, donde se envenenan y pierden aplicación y cariño a sus maestras.

Por mi parte no soy partidaria ni de centros ni de cines, pero las circunstancias obligan a salir de su casa.

Pidiéndole mil perdones se despide su paisana que le saluda con cariño”.



Señorita Sabina, bere ikasleekin, Goiko Kalerako eskaileretan, gerra ondoren, erdian Jesusen Bihotzaren irudia eta Espainiako bandera dituztela.

Tolosako `Junta Carlista de guerra´ren zirkularra

Azken batean, Señorita Sabinak bestek agindutakoa bete besterik ez zuen egin. Matxinatutako faxistak Orion sartu aurretik ere, abuztuaren 31n Tolosako `Junta Carlista de Guerra´k Gipuzkoako Udalei bidalitako zirkular batean honako aginduak eman zitzaizkien alkateei eta maisu-maistrei, zetorrenaren aurrekari moduan. Ondoko dokumentua Aiako alkateari bidalita, hango udaletxera iritsi zen; Orioko udal artxiboan ez dugu topatu horrelakorik:

La finalidad principal del movimiento iniciado por el Ejército y las fuerzas más sanas de la nación consiste en sustituir totalmente el espíritu que inspira el organismo del estado. Ésta va a ser modificado fundamentalmente, de la raíz a la cúspide, animándolo con los principios que constituyen el genio de España.

Palanca esencial para esta obra de transformación del espíritu español es la enseñanza, que por consiguiente, ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católica y netamente españolista, sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase.

Las autoridades respectivas de este movimiento dedicarán especialísima atención a la enseñanza, conscientes de la decisiva importancia que ella tiene para la formación del

espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente. Nadie piense en claudicaciones ni en desidia sobre esta cuestión. Los maestros instructores han de incorporarse resueltamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente. Una persistente y rigurosa inspección se establece sobre los centros de enseñanza y ella aquilatará hasta qué punto se cumplen estas instrucciones y el grado de celo y buena voluntad de cada maestro pone en esta labor nacional.

Espero que Vd. sabrá darse cuenta de toda la importancia que esta Junta atribuye a la presente circular y que pondrá especialísimo empeño en que su contenido tenga puntual cumplimiento en ese pueblo.

Junta Carlista de guerrako militarrak.



1. Se constituirá en cada pueblo Consejo local de 1º enseñanza sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se dará entrada en la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad.

2. El día 15 de Septiembre se celebrará con la mayor solemnidad posible en las escuelas públicas la inauguración del curso escolar con la asistencia de la Junta local de instrucción, procurando con la ceremonia hacer ver los alumnos que una nueva era empieza en España inspirada en los principios de la Religión Católica y en los de un nacionalismo españolista fervoroso.

3. La bandera española ondeará obligatoriamente en la fachada principal de todas las escuelas y centros de enseñanza tanto públicos como privados. El Crucifijo presidirá todos los locales destinados a las clases y habrá grandes mapas murales de España. Se procurará también que en dichos locales se prodiguen cuadros, estampas, etc. con motivos religiosos y de episodios de la Historia de España.

4. La enseñanza tanto en las escuelas públicas como en las privadas ha de ser eminentemente católica y españolista. Será obligatoria la instrucción del catecismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España. Los trabajos escolares empezarán y terminarán rezando colectivamente un Padrenuestro bajo la dirección del maestro. Este instruirá también de la Historia Sagrada y de la Historia de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos - y en especial de los guipuzcoanos y más concretamente de los hijos ilustres de cada pueblo- a la formación y las gloriosas gestas de la nación española, así como los beneficios que las provincias vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.

5. Será obligatoria la asistencia colectiva de los niños de las escuelas con sus maestros, a la Misa mayor de los domingos en la Parroquia de cada pueblo.

6. A los niños que sólo sepan vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñará además con especial empeño castellano. A los niños que puedan entender la enseñanza en castellano se les dará en aquella lengua.

7. Se designará a Don Manuel Jimenez Cachón, Inspector de enseñanza de la zona ocupada con carácter provisional y con la misión de velar porque se cumplan puntualmente estas instrucciones, tanto en los centros escolares públicos como en los de iniciativa privada.

Al comunicarle estas instrucciones me permito manifestarle que don Manuel Jiménez Cachón le visitará para poner en ejecución de mutuo acuerdo estas decisiones.

Karlistek Aiako udaletxera bidalitako zirkularrak azaltzen zuen nolakoa behar zuen izan orduko eskolak, argazkikoa bezalakoa.



«Borraremos vuestros nombres que serán malditos por generaciones de generaciones. Desterraremos al maestro que, en los mapas, marcaba con una raya verde ese artificio de Euzkadi. Desterraremos al sacerdote que se negaba a celebrar las fiestas tradicionales del Pilar y de Santiago. Desterraremos al boticario que dentro de la botica tenía un poco de conspiración contra España; cuando no fusilaremos a todos aquellos que los principales responsables de esta locura y de esta mancha de la más negra ingratitud que cubre el mapa de la tierra vascongada».

Ramón Sierra Bustamante
Gobernador civil de Gipuzkoa

Maria Maestraren Goiko Kaleko eskola

Maria Kamino Arregi 1883an jaio zen eta maistra izan zen bere bizitza osoan, 1962ko otsailaren 23an, 79 urte zituela, hil zen arte. Lanbidea goituzen bihurtu zitzaion Mariari: Maria Maestra. Ez da harritzekoa, hamalau urte zituela hasi zuen bere karrera luzea, 1897ko apirilaren 27an, eta 65 urte eman zituen lanbidean, hil zen arte. Biloba batek ordezkatu zuen Maria Maestra, Maria Sagrario Miralles Arostegik, amona hil eta 15 egunera, 1962ko martxoaren 15ean.

Gerra garaian bi hilabetez itxi behar izan zen eskola, agintariek hala aginduta, eskolan euskaraz erakusten zelako. Maria Maestra ez zen baina debeku haren aurrean kikildu eta ez zen geldirik geratu, Donostian bazituen jauntxo batzuk ezagunak eta haien bidez lortu zuen debekua kendu eta berriro eskola zabaltzea.

Maria Kamino Arregi Fausto Arostegi Mitxelenarekin ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituzten: Bernardina, Joakina, Josefa, Asun, Juan eta Tiburtzio. Semeekin ez zuen suerte handirik izan Maria Maestrak: Tiburtzio txikia zela hil zitzaion, urte zahar egun batez; eta Juanito, berriz, Espainiako gerran, Eboko bataila odoltsuan, 18 urte zituela. 1938ko irailaren 13an hil zen, ez zuten sekula seguru jakin zehazki non, ezta inon lurperatu ote zuten ere. Gerora zurrumurrua iritsi zitzaizen haren gorpuzkia Francok aginduta eraikitako El Valle de los Caidos famatuan ehortzi ote zuten.

Maria Maestraren biloba Mari Koro, Señorita Sabinarekin

Gerra garaian eta gerra ondoren, 1960ko hamarkadan ikastola zabaldu zen arte, Maria Maestraren eskola izan zen euskaraz erakusten zuen bakarra. Egoera xelebrea zen ordukoa, maisu-maistrek ez zekiten euskaraz hitzik ere eta ikasleek ez zekiten erdaraz, `sí eta no´ besterik ez. Orioko beste eskoletako irakasle batzuek ez zuten oso gogoko Maria Maestraren lana. Haren biloba Mari Koro Mirallesek, Bernardinaren bigarren alabak, ederki ordaindu zuen hori. Señorita Sabina zuen maistra. Ikasle izan zituenean oraindik ere oso ondo gogoratzen dituzte haren esaldiak: “¡vascos, rojos separatistas, a ver, a ver, decidme el nombre de un santo vasco, decidme si es que hay alguno!” Mari Koro, bere inozotasunean, ez zen isilik geratu, ordurako berak bazekien Azpeitian jaio eta Jesusen Lagundia sortu zuen euskaldunaren berri, eta xalo-xalo erantzun zion Señorita Sabinari: “San Inazio”, geroztik sekula ahaztu ez zitzaion zaplaztekoa jaso zuen euskal santuen gainean erakutsitako jakinduriagatik.

Goian, Maria Maestra eta Maria Sagrario, beren haurrekin, Goiko Kaleko eskolaren atarian.

Behean, 1947an, Orioko herriak egin zion omenaldia.



Daniel Esnal, enpresari eta bake-epaile

Gerra lehertu zenean herriko bake-epailea zen Daniel Esnal. Erregimen politiko berriak kargua kendu zion 1937ko urtarrilaren 28an, haien aldeko ez izateagatik. Daniel Esnal Getarian jaioa zen eta Krexentxia Zulaika oriotarrarekin ezkondua. Orioko plaza ondoko etxe batean bizi ziren eta hamar seme-alaba izan zituzten. Haietako lau moja izan ziren. Daniekek eskabetsu bat zeukan, eta denda txiki bat.



Bake-epaile kargua kentzeaz gain, erregimen berriak zenbait ordainketa egitera behartu zuen Daniel. Familiak oraindik ere gordeta dauzka Epifanio Etxeberria Orioko komandante militarrek ordainarazi zizkien diruen ordain-agiriak:

- 1936ko azaroaren 2an, 1.000 pezeta, Falange Españolaren alde; eta beste horrenbeste, “para la suscripción Nacional”.
- Datarik gabeko agiri batean, ordaintzeko agindua ageri da, 6.000 pezeta ordaintzeko (5.000, Daniekek, eta 1.000, andreak).
- 1939ko urriaren 6an, 20 pezetako ordain-agiria, “con destino a la suscripción popular que está abierta en esta Alcaldía con motivo del XIX Centenario de la venida de la Virgen del Pilar”, alkate Antonio Etxanizek sinatua.
- Izan omen zen beste ordainketa bat ere, 30.000 pezeta ingurukoa.

Egoera politiko berriak eta Epifanio Etxeberriaren txantajeek behartuta, 1941ean, gerra bukatu eta bi urtera, Daniel Esnal eta haren familia osoa Donostiara joan ziren.

1943an Daniel Esnalek arraina bidali zuen Genovara. Hori erakusten duten hiru faktura ditu gordeta Jose Manuel semeak. Hiruren arteko diruak milioi erdi bat pezeta batzen zuen. Ez zuten inoiz ezer kobratu. Orduan, Pedro Ruiz Valero zen inportazio/esportazioen arduraduna. Haren errua izan omen zen dena. Ministro de Asuntos Exteriores Carceller jaunak ere izan omen zuen zerikusia.

1939ko azaroaren 11ko data duen dokumentu batean agertzen da Orioko fabriketako zenbait langile zigortuta zeudela asteko egun bateko soldata kausaren alde ematera, mugimendu nazionalarentzat.



Daniel Esnali kargugabetzearen berri ematen zion agiria, eta dirua ordainaraztekoa, hau Epifanio Etxeberriak sinatua.

Gerra bukatu ondoren, Francoren erregimen politikoaren kontrako kultur erresistentzia bat sortu zen, euskal kultura babesteko, euskaratik eta euskaraz. Borroka horretan aritu zen Karmele Esnal oriotarra. Argazkian, beste andereño batzuekin eta Txillardegirekin.



Karmele Esnal andereñoa

Karmele Esnal Zulaika, Daniel Esnalen alaba, Orion jaio zen 1933an. Txikitan Maria Maestraren eskolan ibili zen. Gerra bukatu berritan, Karmelek zazpi urte zituela, Donostia aldera jo zuten eta han bizimodu berri bati ekin. Donostian egin zuen batxilerra, San Bartolome ikastetxean. Gero, irakasle izateko ikasi zuen: hiru urtez Gasteizen eta azken urtean Ategorrietan. 1950eko hamarkadan, frankismo gorrian, orduko legearen kontra, agintarien ezkutuan, gehienek jokoaren bestela, Donostiako haurrei euskaraz erakusten hasi zen, galarazitako eta ezkutuko ikastolan. Elbira Zipitriarekin ekin zion lanari, isilpeko ikastoletan; eta andereño-lanetan jarraitu zuen erretiroa hartu arte. Maria Maestraren bidea segitu zuen.

Karmele Esnalek aurre egin zien gerraren garaileei, hizkuntza ere kendu nahi ziotenei, egin zezakeen modurik eraginkorrean: hitz galarazia erabiliz, hura erakutsiz, hari bide emanaz, hazia ereinez: 1955ean jarri zuen martxan bere lehen ikastola, Donostiako Pedro Egaña kalean. Zazpi ume hartu zituen hasieran, baina eskaria handia zenez, Artzain Onaren plazako etxe batera pasatu zen eskolak ematera. Zazpi urtez jardun zuen etxe hartan eskolak ematen, eta irakasle berriei ere hezkuntzan sartzen lagundu zien.

1965ean, Santo Tomas Lizeoan hasi zen, irakasle. Lehendabizi umeei eta gero batxilergoko ikasleei ematen zizkien eskolak. Urteak pasa ahala, zuzendari izatera ere iritsi zen. Erretiroa eskola hartan hartu zuen 1997an, Santo Tomas Lizeoan. 1965ean lehenengo euskarazko udalekuetan ere izan zen, Arabako Barrian.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1967ko abuztuaren 15ean; eta 1998ko apirilaren 24an, ohorezko euskaltzain.

2012ko maiatzeko azken egunean, bezperan hildako Karmeleri agur esan zioten Donostian. Ekaineko lehen egunean, lur eman zioten Orion.

Orioko apaizak

Migel Mujika Olano hondarribiarra eta Jose Mendizabal mutrikuarra ziren Orioko apaizak, 1936an. Mujika zen bikarioa. Gerra hasi zenean, atxilotu eta hilabetez preso eduki zuten Gasteizko apaizgaitegian. Gero libre utzi zuten. Gerra garaian beste apaiz bat bidali zuten Oriora, Bergaratik izan zen, hango Iñigo Oregi. Zigortu egin zuten euskal abertzalea zelako, Bergaratik herri txiki batera, Oriora.

Aiako apaiza ere, Julian Legarra Saizar, kartzelan eduki zuten bolada batean. Apaiz horien berri liburu batean dator: Santiago Martinez Sanchezen `Monseñor Antoniutti y el clero nacionalista vasco (julio-octubre de 1937)`. Liburua Vatikanoko paperak arakatu moldatu zuen egileak. Bertan irakur daitekeenez, nazionalak 14 apaiz fusilatu zituzten Gipuzkoan 1936an. Haiek sartu aurretik, gorriek ere beste apaiz batzuk hil zituzten, besteak beste Miguel Maria Aiestaran Uranga Hondarribiko koadjutorea.

Orion hildako apaizik ere izan zen. Amagoia Gurrutxagaren `Zarauzko postalak 36ko gerra` liburuaren arabera, Jose Maria Alzibar anarkistek hil zuten, Itziarren atxilotu ondoren, eta haren gorpua Orion agertu zen. Martínez Sánchezen liburuan agertzen denez, Itziarko koadjutore zen Jose Maria Alzibar Gorostola apaiza eta 1936ko abuztuaren 10ean hil zuten ezkerreko milizianoek. Joakin Arostegik bere biografia-liburuan dioenez, Alzibarrez gain bigarren apaiz bat ere agertu zen Orion erailda, baina ez du haren izenik ematen.

Apaiz izateko ikasten ari ziren bi gazte oriotar ere gerran hil ziren, Ebroko batailan (Teruelen), 1938ko udaberrian: Jose Lorenzo Arruabarrena Arruti eta Asentxio Rekondo Torregarai, biak 21 urteko gazteak.

Gerra egoera hartan, zenbait apaizek gorriak ikusi zituzten. Adibidez, 1884an Aian jaio eta Elgetako koadjutore zen apaiza, Manuel Orbegozo Beloki, Ingalaterrara joan zen ihesean. Joakin Arostegik berak ere ihes egin behar izan zuen herritik. Arostegiren kasua eta Fabian Loidirena, bi apaiz oriotar haiena, zehatz-mehatz adierazita dago ondoko ataletan, bai bataren bai bestearen bizitza azalduta dagoelako liburu banatan: Joakin Arostegik berak idatzitako bere biografia-liburuan eta Alex Aisak plazaratutako Loidirenean.


Juan Zaraguetak, Donostian bizi zen apaiz oriotarrak, 1939ko abuztuaren 17an (gerra bukatu berritan), gutun bat idatzi zion Zarauzko Narros jauregian kuartel nagusia zuen Jose Huarte komandante militarri, preso zeukaten Zumaiako gizon baten alde egin zezan:

“Mi querido amigo: El vecino de Zumaya por quien le escribo y le hablé se llama José León Goicoechea, se halla en prisión atenuada, encomendado a la Guardia Civil de esa.

Sin prejuzgar los motivos de su situación – que el propio juez y Burgos han hecho más llevadera – puedo decir a Vd. que es un excelente muchacho, sin más preocupación que la de trabajar para sostener honradamente a si y a los suyos. Supongo que no dará motivo de queja, y si la hubiere infundada, me permito señalarle a la rectitud de Vd”.

1936ko urrian, militarrek debekatu egin zuten Gipuzkoa osoko elizetan euskaraz otoitz eta prediku egitea. Orion Migel Mujikak meza nagusiko sermoia euskara hutsez egiten zuela-eta, haren parte bat erdaraz egitera behartu zuten.

1956ko urrian Orion egin zuten
`Adoración Nocturna`ren irudia.



Joakin Arostegi apaiza Iparraldera



Joakin Arostegik askatasunik gabeko egoera politikoak izan zituen ia bere bizitza osoan. Hala dio *‘Oroitzapenak’* bere biografia-liburuan. *“Hamasei urte bitartean, Primo de Riveraren diktadura jasan genuen. Diktadura horren eragina eta ondorenak Oriora ere heldu ziren. Alkate erdalduna ezarri ziguten goitik, herriarekin ezertxo ere kontatu gabe. Bost urteko errepublikaren ondoren, gerra eta Francoren diktadura luzea. Goitik ezarritako alkatea orduan ere”*.

Arostegik Gasteizko seminarioan ikasi zuen. *“Han apaizgai gehienak abertzale sutsuak ginen”*. Gerra hasi zen urtean, 1936an, soldadu egon zen Loiolan, sei hilabetez, analfabe-toei irakurtzen erakusten.

“Gerra hasi aurretik, harro ikusten genituen anarkistak, gizon eta emakume, beren pistolekin, soldadu jantzian. Bitartean, Mola jenerala buru zutela, erreketek eta karlistak aurrera zetozen, eskapularioa eta gurutzea jantzita, ‘Viva Cristo Rey, muerte a los rojo-separatistas’, oihuka. Giro nahasi hartan, askotxo aurkitu ginen zer bide aukeratu asmatu ezinik, noraezean. Fortunato Agirre Lizarrako alkatearen hilketa, beste askoren artean, erabakigarria izan zen Eusko Alderdi Jeltzalea Errepublikaren aldera lerratzeko. Gerra hasita osatutako Eusko Jaurlaritzak bi eginkizun hartu zituen bere gain: herrietan ordenari eustea eta gudarostea sortzea”.

Gerra atarian

“Gero eta bertago genituen Nafarroatik zetozen militarrek, erreketek eta karlistak. Oraindik Orion nengoela bi agindu eman zizkiguten: guda tokira edo Igeldo mendiko bidera. Beldur ziren, nonbait, Donostian sartu baino lehenago moztuko ote zuten Bilborako bidea. Mendizorrotzeraino egindako bidea Orioko herriraino bukatu beharra zegoen. Bi sailetan bananduta zetozen nafar erasotzaileak: Irun aldetik eta Lasarte aldetik. Ehizarako eskopeta-rekin batzuk, pala eta aitzurrez besteak, hona eta hara, ikusi nituen matxinoei eutsi nahian”.

Joakin Arostegi, beste apaiz batzuekin eta zenbait herritarrekin, Orioko zubian.



Joakin Arostegik gordeleku ona aurkitu zuen Donostiako etxe batean, Tolosako beste bi apaizekin batera. Baina larri ziren Donostian, CNTko anarkistak apaizen atzetik zebiltzan-eta. Laurgaingo erretore Pello Zubeldiaren etxera jotzea erabaki zuten. Abiatu aurretik, Aitzolen bisita izan zuten. Hark argitu zizkien begiak: *“Militarrek Errepublika desegin nahi dute. Nafarroatik datozen erreketek, militarrekin bat eginda, hemengo abertzaletasuna ezereztu nahi dute, gorrotoz. ‘Rojo-separatistas’ deitzen digute. Gure herrietan sartu bezain laster, abertzaleak dira zigortuenak, ezeren epaiketarik gabe hil eta bide ertzean uzten dituzte, baita apaizak ere”*.

Laurgainen ezkutatuta

“Laurgainen bakardade osoan ginen, ezeren berririk gabe. Garai hartan Orion ere telefono bat besterik ez zegoen herri osoan. Irratiak, jakinekoak, bi bakarrik. Autoak, bost edo sei. Bat, arostegitarren etxekoa, taxi moduan erabiltzen zutena. Egunkariak, mutu.

Bideetan anarkista armatuak ziren nagusi. Berriak gero eta kezkarriagoak ziren. Militarrak irailaren 13an Donostiaren jabe egin ziren”. Arratsalde hartan Felipe Arostegi, Joakinen anaia, joan zitzairen Laurgainera: “Orioko herria erdi hustuta dago. Itsasontzi guztiek Donibane Lohitzunera alde egin dute, gizonezkoz beteta. Jose eta Joxemari Arostegi ere (haien anaiak) bapore batean joan dira. Herri osoa dardarka dago”.

Handik bi egunera dinamitari su eman eta lehertu zituzten bi zubiak. Ahal zuten guztiei Aginaga aldera jotzeko gomendatu zitzairen. Laurgainen zeuden apaizek galduak zituzten Oriotik abiatutako itsasontziak eta ez zuten karlisten atzaparretan erori nahi. Irailaren azkena baino lehenago, faxistak Deba ibairaino iritsi aurretik, Mutriku aldera jo zuten. Gaueko hamabietarako kaian egon behar zuten. Guardiari esan beharreko hitzak: *“Euskadi libre”*.

Arratsalde hartan Oriora jaitsi zen Joakin, bere amona agurtu zuen. Ez zuen gehiago ikusiko. Oriotik Mutrikura eta handik Donibane Lohitzunera joan ziren.

“Goizean iritsi zen ontzia Donibaneko kaira. Kaian jende mordoxka zen, gure herrietatik ihes egindakoa, gure berrien bila”. Han ziren bere anaiak ere. Ziburuko etxe batean hartua zuten ostatu, urrutiko senide batzuen etxean. Haien bidez, lortu zituzten han ibiltzeko behar ziren paperak.

Apaizak Azkainen jarri ziren, pasiotarren komentuan. Urte batzuetako bakea aurkitu zuten han”.

Oriora itzultzeko aukera

“Orioko herria militarren mende zegoen. Haien mezu bat iritsi zitzaigun: `itsasontzien jabeok lasai itzuli, ez zaizue ezer txarrik gertatuko`. Itsasontziak han utzita, Oriora itzuli ziren”. Joakinen bi anaiak ez. Nahiago izan zuten Donibanen jarraitu.

Haien anai zaharrenak, Felipek, semea izan zuen eta erabaki zuen Iparraldean ziren anaiei erakustea. Bi lagunekin bateltxo batean zihoala, Hondarribitik Hendaiara, atxilotu egin zuten. Espiatzat hartu, haurra kendu eta amari eraman zioten. Bera Ondarretako kartzelara. Hilabete pasatu zuen han.

Aste batzuetara, Orioko itsasontzi batean senide bat joan zitzairen Donibanera, aitaren mezu batekin: *“itzuli lasai etxera, ez duzue gerrara joan beharrik izango”*. Berriro zalan-tza sortu zitzairen. Haiek pozik ziren Ziburun.



Erbestean, Frantziako Landetan, 1937ko uztailaren 5ean: Jose Esnal, Joakin Arostegi, Domingo Arruabarrena eta oiartzuar bat.

Joakin Arostegi, Laurgaingo eliza-
ren aurrean, ondoan Patxi
Danbolin duela.



Hiru anaiak Lohitzuneko portuan elkartu ziren. Erabakia ez zen erraza. Bitartean, hegoaldeko jendez betetzen ari zen kaia. Anaiak eztabaidan ari ziren. Kaian zain zegoen patroia. *‘Geldi hadi hemen ikasketak bukatu arte’, esan zidaten bi anaiek. ‘Gu biok joango gaituk’.*

Joxemari Ziburura joan zen etxekoei agur egitera. Joxek ez zuen barrenik izan horretarako eta burumakur itsasontzian sartu zen. Lehorreko jendea haserre oihuka hasi zen: *“faxistak”*. Zarata gero eta bortitzagoa. Jendarme bat agertu zen bakea jartzera. Patroiak abian jarri zuen itsasontzia. Momentu hartan agertu zen arnastuka Joxemari Ziburutik. Berandu. Betiko, hil arteraino, Ipar Euskal Herrian gelditu zen. Joakinek Azkaineko Errotaberri komentuan segitu zuen.

Zer zela eta nahi zuen Arostegi aitak gerra amaitu baino lehen bere semeak Oriora itzultzea? Arerioa herrira sartu aurretik puskatuta utzi zuten zubia, lehenbailehen konpondu beharra zeukaten herriaz jabetu zirenek. Horretarako, arostegitarren taileraz baliatu nahi zuten. Buru egiten zuen kapitainak hitza eman zion aitari: zure semeak ez dira frontera joango, mekaniko-lanetan erabiliko ditugu. Jose, gazteena, itzuli zen eta emandako hitza bete zuen kapitainak: abiazioko lanetan jarri zuten Madrilan. Etxean geratu zen Felipe anaia zaharrenak Lasarteko militar lantegi batean jardun zuen. Kapitainak horrela bete zuen bere hitza.

Mitxelenaen kasua

Bitartean, Orion, herriko maistraren salaketaren ondorioz, Migel Mujika erretorea Gasteizko seminarioan zegoen espetxeraturik. Hutsune hori Rufino Aldabalde Treku apaiz aiar gazteak bete zuen, Javier Lauzirika gotzainak jarrita. Herriko banda aurrean zutela, falangista eta karlista batzuk, igandeko mezetara igo ohi ziren, elizan *‘por Dios, por la Patria y el Rey’* eta falangearen himnoa jotzera eta abestera.

Gerratea hasi zenean militar bat gordea izan zuten Rufino Aldabaldereen baserrian, Aiako Olaetxean. Mesede horrek ematen zion itzalaz baliaturik, Rufino apaizak eragin zuen Donibane Lohitzuneko portuan zeuden arrantzaleak Oriora itzultzea: *“Zatozte etxera, erantzukizuna nire gain hartzen dut, ez zaiuzue ezertxo ere gertatuko”*, agindu zien itsasontzien jabeei. Hala egin zuten, baita Getarian hilko zuten Teodoro Mitxelenak ere. Joakinen iritziz, Rufino ez zen behar bezain zuhurra izan, Mitxelena ez baitzen lehenengoa izan, ordurako bat baino gehiago hilak zituzten eskuindarrek. Rufinok bere esku ez zegoen segurtasunerantzukizuna hartu zuen bere gain.

Iparraldetik Hegoaldera

Azkainetik joanda, bolada bat Miarritzen pasatu zuen Joakin Arostegik beste bi apaiz tolosarrekin batera. Baina gerratik ihesi joandakoek beste gerra batekin egin zuten topo: bigarren mundu gerrarekin.

Aukeratu beharra zegoen, Franco edo Hitler. Hurrengo egunean erabat sakabanatu zen hirukotea. Hendaiaiko mugara iritsi zirenean, guardia egiten bi soldadu aleman zeuden; mugaz bestaldean, bi guardia zibil. Bi apaizek bazeukaten Espainian sartzeko agiria. Joakinek bazuen Espainian sartzeko agiria, baina *“Nire pasaporteak ikusitakoan, guardiak: ‘por lo que te va a servir’”*.

“Ni Oriora itzuli nintzen. Herriko lehenengo alkateak ez zidan pasaporteak lortzeko behar nuen portaera oneko agiririk bidali. Nazionalista nintzela, ‘El Dia’ irakurtzen nuela... Lino Solaberrieta alkateari zor nion pasaporteak. Horri esker igaro nuen muga, ezerean eragozpenik gabe. Orion egun batzuk igarota, Irungo komandantearen aginduz, karabineroen kuartela joan nintzen, Iraola Enea, dike gainean jasotakoa. Komandanteak irakurri du Irundik nekarren agiria, paper ontzira bota du eta eraso dit: ‘es usted de la familia de los Arostegis del taller? Usted, cura, es el único bandido de la familia. Mire señor cura, yo soy de Extremadura. Me ha tocado ser testigo de cosas espantosas. Lo ocurrido allí no tiene nombre’. Eta isildu gabe jarraitu zuen gertakizunik beltzenak kontatzen. Nik nire artean ‘hau Luis Treku baino gorriago duk’”.

Gerra bukatuta, Elizak eta estatuak hitzarmen berri bat egin zuten. Hura indarrean jarrita, Arostegiri erbestera joatea egokitu zitzaion. Gotzainak apaiz gazteari esan zion aukeratzeko nora joan. Arostegik ez zuen zalantzarik izan: Nafarroara. Baina hara ezin zen, hara ez beste edonora. Santander aukeratu zuen, eta Islasesera destinatu zuten.

Arraunlarien banderen bedeinkazioa

Patrikan Burgosko militarrek bidalitako agiria zuela (*‘considerado indiferente al glorioso movimiento nacional’*), egiten zituen joan-etorriak Oriora. Estropadetan joaten saiatzen zen. Apaizaren onbeharrez eta ezertan kalterik edo zigorrik izan ez zezan, Lino alkateak eginkizun bat eman zion: Domingo Mitxelena arraunlari eta patroiak irabazitako bandera guztien bedeinkazioa Arostegiren gain utzi zuen. Bedeinkazio-eguna herriko festarik ederrenetako bat izan ohi zen. Donostiako handizkiak, gobernadorea eta abar ere bertaratzen ziren. Eta ospakizuna erdaraz egin behar izaten zen, jakina.

Joakinek lotsatuta bere buruari galdetzen zion: *“zer dela eta egin behar dut erdera hutsean, Donostiako jauntxo horiek Orioko euskaldunak baino handiagoak ote dituk?”* Pentsatu eta egin. Bi hizkuntzetan egin zuen hitzaldia.

Mezaren ondoren, udaletxean gobernadoreak galdera estuak egin zizkion. Ondoren, bazkaria zuten. Arostegi ez zuten gonbidatu eta Inaxio Sarasuak, harriturik, aldamenean zeukan Lino alkateari: *“Non da Joakin?”* eta alkateak, *“Ixo, Inaxio, kartzelan sartu ez dutenean pozik!”*

2010eko urriaren 9an hil zen Joakin Arostegi apaiza.



1953an, banderen bedeinkazioko ospakizunetan, ikurrina eta Espainiako bandera elkarren ondoan. Ematen du ikurrina eraldatuta dagoela, gainetik zerbait erantsia duela.

Fabian Loidi apaiz abertzalea

Fabian Loidi, Kukuarri egunean, hango gurutzearen ondoan, Orioko zenbait mendigoizalerekin.



Fabian Loidi Peña Añorgan sortu zen 1909ko abenduaren 22an. Gurasoak oriotarrak zituen: Bixente eta Kontxa. Aita Añorgako porlan-fabrikako enkargatua zen eta horregatik joan ziren hara bizitzera. Hiru senide ziren: Erramun, Maria eta Fabian.

Aita oso gazte hil zen, 33 urterekin. Ama bigarren aldiz ezkondu, bi seme-alaba izan zituen: Bene eta Mercedes. Ez zen zorte handiko ezkontza izan. Bigarren senarra ere segituan hil zen; Mercedes alaba, 14 urte zituela; eta Bene, berriz, gerran hil zuten frankistek, Elgetako frontean.

Fabianek 5 urte zituela hil zen haren aita. Urte zailak ziren haiek, estualdi eta diru-premia handikoak, eta Fabianek haurtzaroa Orion igaro zuen, Erzilla familiaren etxean. Gazte zelarik joan zen apaiz ikasketak egitera, Saturrarango apaizgaitegira lehenbizi eta Gasteizkora gero. Meza berria Añorgan eman zuen eta bertan Aitzol adiskidea izan zuen hizlari. Behin apaiztuta, lehen apaiz-lana Arabako Maeztun izan zuen, Martin Lekuona apaiza ordezkatzera joan zen 1935eko ekainean. 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpeak han harrapatu zuen Fabian. Loidi euskal abertzalea zen, ideologiaz eta sentimenduz. Norbaitek salatuta preso hartu zuten frankistek. Gasteiztik Lizarrara zihoran trenean sartu zuten, baina lehenbiziko tunelaren iluntasunean ihes egin zuen. Mendiz mendi Lizarrara heldu eta koinatuaren etxean ezkutatu zen. Martin Lekuonak baino zorte hobea izan zuen, Erreterian apaiz zegoela atxilotu, egun batzuetan Ondarretako kartzelan preso izan eta azaro hasieran fusilatu egin baitzuten, besteak beste, Jose Ariztimuño Aitzol apaizarekin eta Aiako alkate Gabino Alustizarekin batera.

Donostiara itzuli eta handik gutxira soldadu regularrekin Tetuanera eraman zuten. Hango batailoi bateko kapilau izendatu zuten. Toledoko Alcazarra hartu eta Madrilgo martxan parte hartu zuen Mohammed Ben Mizzian koronelaren aginduetara. Bertako soldadu guztiak marokoarrak eta islamiarrak izaki, bitxia izan zen egokitu zitzaion lana: kapilau kristau baten eginkizunak betetzea, soldadu mairuen artean.

Gerra bukatuta, Karrantzako bi auzo-parrokien ardura eman zion Lauzirika gotzain frankistak, zigor gisa. Han, Berroeta maisuaren etxean bizi izan zen 1945ean Igeldoko parrokiara bidali zuten arte. Berrogei urte egin zituen Igeldon, bertako bikario, 1985eko apirilaren 8an hil zen arte, 76 urte zituela.

Igeldon estraperloan aritzea ere tokatu zitzaion. Gerra ondorengo urteak gogorrak izan ziren eta Igeldon ere baziren behar handia zutenak. Fabianek antolatuta, 14 bat urteko gaz-

tetxoak joaten ziren Igeldoko Borda baserriko astoa hartuta Oriora erzillatarren etxera. Han olio eta irinarekin astoa kargatuta, haurrak Igeldora bide batetik itzultzen ziren bitartean, Fabian beste batetik abiatzen zen, guardia zibilek susmo txarrik ez hartzeko.

Urrutiago ere joan zen estraperloan. Aginagako gizon batekin kontrabandoan ibili zuen, Tortosara angula eta itsaskiak eramanez olio eta arrosa ekartzeko. Haren esanetan, guardia zibilaren beldur zirenez, kamioiaren atzealdean altzariak jarri zituzten, Fabian etxe-trasladoa egiten arituko balitz bezala. Tortosan, apaizak batere gustuko ez zituen Lester batailoiko kide izandako errepublikar batekin egon ziren. Ez zuen denbora asko behar izan Fabian apaizari buruzko iritzia aldatzeko “Hemen zu bezalako apaiza bageneuka, ni ere joango nintzateke mezetara”.

Loidi, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren hiletan

Fabian Loidi abertzale sutsua izan zen. Harreman estua izan zuen gainera Eusko Alderdi Jeltzaleko agintariekin eta hori agerian geratu zen 1960ko martxoaren 28an, Donibane Lohitzunen, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren hileta elizkizunean. Parte-hartze zuzena izan zuen elizkizunean eta bertsoak eskaini zizkion Agirreri:

Aberri maitagarria
negarrez dago erria;
il zaigu Lendakaria.
Bidasoaren alde banatan
beso ta oiñez josia,
eusker ailtzen asia,
odola beltzez nasia...
Zertarako da bizia...?

Fabian Loidiren pentsaerak eta ideologiak arazo bat baino gehiago ekarri zizkion. Arazoak arazo, Fabian ez zen kikildu eta prest azaldu zen abertzaleak laguntzeko eta abertzaletasuna sustatzeko. Igeldon Fabianek ez zuen frankismoaren aurrean etsi nahi eta haren aurkako mugimenduak oso gertutik jarraitu zituen. Legez kanpoko argitalpenak edukitzeaz gain, haiek argitaratzen eta banatzen lagundu zuen. 1950eko hamarkadan erresistentziak banatzen zituen ‘Eutsi’ izeneko esku-orriak jasotzen zituen apaiz etxean. Esku-orriak ez ezik, debekatutako liburuek ere izan zuten lekua Loidiren etxean.

Juan Jose Usabiaga apaiz beasaindarrak Juan de Iturralde ezizena erabiliz 1956an argi-



*1960ko martxoaren 28an,
Donibane Lohitzunen, Jose
Antonio Agirrereren hiletan.
Hildakoaren ondoan, Jesus Mari
Leizaola, hurrengo lehendakaria.*

*Argazkiko apaizen artean dago
Fabian Loidi ere.*

Fabian Loidi, apaiz oriotarra.



taratutako `El Catolicismo y la cruzada de Franco´ liburuaren ale asko Igeldoko apaiz-etxean gorde ziren, apaizen artean banatzeko. Iparraldean argitaratutako liburu hori debekatuta zegoen Hegoaldean, egileak, besteak beste, frankistek gerran egindako sarraskien berri ematen zuelako zehaztasun osoz, eta elizaren kontrako kritika zorrotzak egiten zituelako, frankismoarekin bat egin zuelako.

Liburuak banatzeaz gain, propaganda argitaratzeko tokia ere izan zen apaiz-etxea. Eusko Alderdi Jeltzaleak kopiak egiteko erositako makina bat Fabian Loidiren etxera eraman zuten `Trabajador de Euzkadi´ izeneko argitalpenaren kopiak egiteko. Haren bidez, 1964ko maiatzean eta urrian manifestazioak egiteko deia egiten zen. Eusko Alderdi Jeltzaleko Andres Plazaolak, Luis Goyak, Jose Mari Unanuek eta Rikardo Arregik osatzen zuten beste artean propaganda banatzeko sarea. Horiek guztiak erruduntzat hartu zituen garaiko Bake Egoerarako Auzitegiak, TOP ezagunak, legez kontrako elkartzeko eta propaganda egiteagatik. Fabianek argudiatu zuen ez zekiela etxean zuen makina propagandarako erabiltzen zenik eta auzitegiak errugabetzat jo zuen. Guardia zibilak 1965eko maiatzean egindako

informeak ordea, Fabianek parte-hartze zuzena izan zuela azaltzen du:

“...y que precisamente fue imprimida en su domicilio, a pesar de su rotunda negativa a confesar su participación en estos hechos, de las manifestaciones aportadas por los detenidos ha quedado demostrado que este sacerdote sabía por los contactos que ha mantenido con los citados miembros de la organización las actividades a que se dedicaban, así como el origen y fines con que se hizo cargo de la máquina multicopista que le fué ocupada en su domicilio”.

‘Orioko umezurtza’, hala deitzen baitzioten Fabiani, hil eta bost hilabetera, 1985eko urriaren 26an, omenaldia egin zioten Fabiani. Igeldoko elizaren kanpo aldean haren omenez jarritako

oroitarria bistaratu zuten. Oroimeneko ekitaldian, Jesus Maria Leizaola lehendakari ohia eta Donostiako orduko alkate Ramon Labaien egon ziren. Honelaxe hitz egin zuen Labaienek Loidiri buruz: “Fabian Loidi eta bera bezalako zenbait eusko apaizi esker ez da hil euskara gure artean eta hori aitortu egin beharko diegu noizbait”, haren gizatasuna ere aipatu zuen: “gauzak bere tokian eta bere denboran esateko zuen adoreaengatik”.

Gabriel Loidi, bi kartzelaldi

Gabriel Loidi eusko gudariekin ibili zen gerran. Hura amaitutakoan, bi aldiz sartu zuten kartzelan. Lehenengo, gerra bukatu berritan urte batzuk pasatu zituen Burgosko presondegian. Bigarrenengoan, herriko batek salatuta. Haren seme Juan Josek ondo gogoan du: “ni mutil koskorra nintzela, arrantzan nengoen aitarekin, Orioko putzu ixkinan, pantxoak harrapatzen. Manuel aguazila bila etorri zitzaion aita-

ri, laguna zuen, eta biak batera joan ziren. Handik pixka batera, mutiko bat etorri eta etxera joateko esan zidan. Aita despeditzeko zen, kartzelara baitzihoan berriz. Orioko Udalean horrela erabaki zuten”.

Gabriel Loidi, aita, trena hartu eta kartzelara joan zen, bere kabuz, bakarrik, eskoltarik gabe, Asturiasera, etxean andrea eta 3 seme-alaba utzita. Asturiaseko Trubiako kanoi fabrikan egon zen, *‘batallon de trabajadores’* batean.

Gabriel Asturiaseko kartzelako egonalditik bueltatuta, egun batean Orioko zubian zihoala, ezagun batek esan zion: *“ba al dakik zein hil den, hi salatu hinduena”*. Hurrengo egunean izan zen haren hileta, Gabriel bertan izan zen. Barkatu egin zion. Oraindik ondo oroitzen da Juan Jose Loidi, aitarekin arrantzan zegoen mutil koskor hura, orain aitonduta baldin badago ere.

Gogoratzen hasita, aita Gabrielelek kontatutako gerrako bestelako kontu batzuk ere arrapaladan etortzen zaizkio Juan Joseri. *“Gure aita-eta, gerran zebiltzala, Bermeon, komentu batean atsedean hartzen zeudela, CNTkoak etorri ziren. Gabriel, beste gudari batzuekin batera, hango mojak defenditzen ibili zen. Gudari haiek bi gerra egin zituzten nolabait, Francoren kontra, alde batetik, eta bere bandoko muturrekoenen kontra, bestetik, elizak erretzen, apaizgaiak izutzen eta apaizak hiltzen ibili zirenen kontrakoa. Orion CNTkoak Don Jose apaizaren bila ibili ziren, gordeta izan zuten etxeko ganbaran”*.

Gabrielek, bi kartzelaldiak eginda ere, bizitza luzea izan zuen, bizirik zen Franco diktadorea 1975ean hil zenean, eta ohorea izan zuen, 1977ko urtarrilean, gerra garaiko Orioko Udalaren ikurrina, herritarrekin kalejiran, berriro udaletxera eramateko, gerran bera bezala gudari ibilitako Jose Mari Solaberrietaekin batera. Egun hartan, udaletxeko balkoitik, zerbait esan behar eta, *“gora Jaungoikoa eta Lege Zaharrak!”* oihukatu zuen. Herritarren alde, kaletik, txaloak eta txistuak biak jaso zituen.

Gerra bukatu zenean izango zen, Juan Jose, 9 urteko mutil koskorra, herriko bandaren atzetik zihoan, herriko gainerako haurrekin batera, kalez kale. Gerra bukatu izana ospatuko zuten, noski. Haietako batzuek, berriz, irabazi zutenek, gerra irabazi izana, seguru asko. Juan Joseri bera baino mutil zaharrago bat hurbildu zitzaion eta, zakar, hauxe aurpegiratu zion: *“hik zer egiten dek hemen, hire aitak gerra galdu egin dik eta?”*

Juan Josek ikusi ditu bigarren mundu-gerraren garaian Orion naziak, SSkoak, fotoak egiten. Mutil koskorrak haien atzetik ibiltzen ziren, soldadu alemanei *‘un cigarette’* eskatzen. Gogoan ditu alemanak *‘Central’* en eserita, han kanpoko silloietan.



Trubiako altzairu-fabrika.



El sistema obligaba a aquellos que se hubiesen posicionado del lado del bando perdedor y que no tuviesen penas muy graves a “redimir” sus pecados trabajando. El lugar donde lavarían su pasado rojo sería los llamados batallones de trabajadores penados o, lo que es lo mismo, realizarían trabajos forzados.

Este itinerario purificador se empezó a diseñar en 1937, cuando Franco reconoció “el derecho al trabajo” de los presos rojos, una manera sutil de convertirlos en mano de obra prácticamente gratuita. Tras la guerra se perfeccionó el sistema y se envió a los Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores a todos los jóvenes en edad de prestar el servicio militar que hubiesen resultado clasificados como “desafectos” al régimen. No deja de ser curioso que el delito del que los militares sublevados acusaron a muchos de los que de esta manera fueron convertidos en esclavos fue de “rebelión” o “auxilio a la rebelión”.

Pau Rubio.
Esclavitud bajo el franquismo

Gabriel Loidi, Aiako Segurola baserriaren aurrean.

Lehenagoko gauzak ere baditu gogoan. Gerrarekin lotuak nekez ahazten dira. 1936ko irailean Orioko zubia bota aurretik, soldadu matxinatuak bazetozela eta, Aiako *Leolaberri* baserrira joan ziren loiditarren etxeko batzuk. Hango osaba Martin bertsolaria zen. Baserrian zeudela, egun batean, Juan Jose jostatzen zebilen zelaian, Praxku lehengusuarekin. Pagoeta aldetik tiroka ari ziren gorriak; behe aldetik goraka zihoazen erreketek ere bai. Bi mutikoez zelaian segitzen zuten, jolas batean, tiroak jolasaren parte balira bezala. Osaba Martin ziztu bizian etorri eta biak zarpatik heldu eta arrastaka eraman zituen, “*baina ez al dakizue non zaudeten edo zer? Tiroka ari dituk eta!*” Gerra bukatuta, Oriora itzultzeko, zubia botata zegoenez, batelean pasa ziren Aiako aldetik Orio aldera.

Inazio Sarasua, Berlineko Joko Olinpikoetarako bidean

Inazio Sarasua Bartzelonan zegoen 1936ko uztailearen 18an, gerra hasi zen egunean. Katalunian Errepublikaren aldeko indarrak nagusitu ziren gobernu legitimoaren kontra oldartutako militarren kontrako lehen borroketan. Gipuzkoan eta Bizkaian bezala, Katalunia osoan ere, estatu-kolpeak porrot egin zuen.

Sarasua Joko Olinpikoetara joateko prestatzen zegoen Bartzelonan. Olinpiadak Berlinean jokatu ziren hurrengo hilabetean, abuztuan. Inazio arraunean lehiatzekoa zen, skiff izeneko arraunlari bakarreko ontzian. Bartzelonako portuan egindako probetan aurre hartu zien bera-rekin batera zeuden gainontzeko arraunlariei; gainera, Espainiako marka ere hautsi egin zuen.

Baina militarren estatu-kolpeak eta hark ekarri zuen gerrak zapuztu egin zuen erabat Orioko gaztearen ilusioa. Espainiak ez zuen parte hartu olinpiada hartan. Oriotar gazteak, Bartzelonan aste batzuk pasatu eta gero, herrirako bidea hartu zuen. Frantzia aldetik etorri zen. Ez zuen erraza izan, baina onik itzuli zen etxera.

Inazio Sarasua Berlineko Joko Olinpikoetan parte hartzekoa zen 1936ko abuztuan; uztailean hasi tako gerrak zapuztu zion aukera hura.



Orioko Udalak, 1936ko uztailaren 14an, Donostiako Ur Kirolak arraun-taldeak egindako diru-laguntza bat aztertu zuen eguneko gai-zerrendan. Inazio Sarasuak Joko Olinpikoetan parte hartu ahal izateko diru-laguntza eskatzen zuten; garai hartan arraun-klub haren bidez hasi baitzen Sarasua arraun olinpikoaren bidean. Diru-laguntzaren gaia gerra hasi aurreko azken udalbatzan tratatu zuten: *“Enterado del escrito de la Sociedad Deportiva Ur-Kirolak de San Sebastián solicitando una subvención para costear los gastos que ocasione la representación del remero oriotarra Ignacio Sarasua en las Olimpiadas de Berlin, acordó dejarlo sobre la mesa para su estudio”*.

Inaziok, arraun olinpikoan murgildu aurretik, estropada asko irabazi zituen batean bi arraunean, eta lehia haietako batzuetan bandera ere bai, 1930eko hamarkadan, gerra hasi aurreko azken urteotan. Logikoa denez, bandera haietako batzuk ikurrinak ziren. Sarasuak, Bartzelonatik etxera itzulita, egin zuen aurrenetako gauza izan zen ikurrina haiek zaku batean bildu eta lurpean sartu, etxeko baratzean. Ikurrina haiek gaur egun bizirik daude haren seme-alaben etxeetan. Gerra bukatu eta urte batzuk pasatu zirenean, frankismoko urteetan ikurrinak Orioko udaletxean egon ziren, marra txuri eta berdeen gainean txuri koloreko beste batzuk erantsita.

Sarasuak, behin gerra bukatuta, arraunean segitu zuen. 1948an berriro joan zen Bartzelonara, Espainiako txapelketa jokatzeko asmotan, bere seme Patxi mutil koskorrarekin. Txapelketa haren arduradun federatiboek ez zioten parte hartzen utzi. Haien esanetan, Inazio arraunlari profesionala zen. Agintariek edozer egin zezaketen. Protestarako ere ez zen aukerarik orduan. Isil-isilik bueltatu ziren etxera.

Manuel Salsamendi, Ferru, Frantziara

Manuel Salsamendi Ferru eta Maria Bengoetxea senar-emazteak Capbretoneko kanposantuan daude hilobiratuta, elkarren aldamenean, Oriotik ihesi joan zirenean hartu zituen herriko lur hartan. Ferru 1971ko azaroaren 9an hil zen.

Dena 1936an hasi zen, gerrarekin batera. Militar kolpistak Orion sartu aurretik, Ferruk ospa egin behar izan zuen. Baporean joan ziren Donibane Lohitzunera. Han jende asko zen Oriotik alde egindakoa.

Ferruk atzean andrea eta lau seme-alaba utzi zituen. Zaharrenak bederatzi urte zituen eta gazteenak bi besterik ez. Ferruk orduan uste zuen aste batzuetan edo, asko jota, hilabete



Erramon Lino, Inazio Sarasua eta Inazio Manterola 'Txokolate', atzean 1934an irabazitako bandera errepublikarra dutela. Frankismoak iraun zuen denboran, beheko kolore morea ezkutatu ta eduki zuten bandera.



Manuel Salsamendi 'Ferru' eta Maria Bengoetxea senar-emazteak, beren lau seme-alabekin: Anjel, Ramonita, Eleuteria eta Martin.

gutxira dena konpondu eta etxera bueltatuko zela. Ez zekien bizitza osorako abentura abiatu zuela bidaia hartan.

Donibane Lohitzunen kanpamentu bat jarri zuten Hegoaldetik joandakok hartzeko. Han aste batzuk pasatu eta gero, haietako batzuk herrira bueltatu ziren. Ferruk ordurako erabakia zuen bertan segitzea. Esana zioten etortzen bazen garbitu egingo zutela. Manuelen alaba Eleuterik adierazi zigun zein zen bere aitaren delitua: “Nazionalista zen, bere herria maite zuen. Gizon jakintsua zen eta herriko umeei erakusten jarduten zen, irakurtzen eta idazten erakusten zien. Garai hartan apaizek bakarrik estudiatzen zuten eta Ferruk alde horretatik suerte handia izan zuen: hamar urte zituela, jesuitek eraman egin zuten Loiolara. Ordurako konturatuta zeuden oso mutil bizkorra zela. Loiolan urtebete estudiatuta, Suitzako hiri batera eraman zuten, Friburgora, Suitza eta Frantzia arteko mugatik oso gertu dagoen herri batera. Han ia hamar urte eman zituen, apaizgai, estudiatzen. Latina eta greziez gain, frantsesez ere ondo ikasi zuen eta pixka bat alemanez ere bai”.

Baina hogeitun urte zituela, hura dena alde batera uztea erabaki zuen. Herrira bueltatu zen, arrantzan egitera, itsasoa behar zuen. Horretan ibili zen gerra etorri arte, arrantzan; eta, lehorrean zen garaian, herriko gaztetxoei erakusten. Eskola haiek emateko, batzokiko gela bat erabili izan zuen ihesi joan zen arte. Batzokiko agintariek esan zioten hobe zuela joatea, Irunen eta Donostian nazionalistak fusilatzen ari zirela eta, badaezpada, joateko Oriotik matxinatuak sartu aurretik.

Ferruk ez zuen uste gerra hura luzatuko zenik, are eta gutxiago matxinatu haiek gerra irabaziko zutenik, baina 1936ko irail hasieran abiatutako bidaia luzatzen ari zen denboran. Hilabete batzuk pasatuta, Landetako arrantzaleak etorri zitzaizkion bila Donibanera; jakin zuten hara joandakoen artean bazirela arrantzaleak sardinaren arrantzan trebeak zirenak eta hori eskatzera etorri zitzaizkien: sardinaren arrantzan erakusteko. Ferruk ez zuen zalantza handirik izan eta Donibaneko kanpamentutik Capbreton aldera joan zen. Ez zegoen urruti, arrantza-portua zuen eta sos batzuk eskuratzeko aukera ematen zion. Ez zitzaion asko kostatu, berehala hasi zen hango bapore batean, arrantzale.

Familia, bitartean, Orion zen. Amak ahal zuena egiten zuen, lau ume txikiei jaten eman behar eta gajoak nahikoa lan bazuen familia aurrera ateratzen. Gorriak pasatu zituen. Gerora, ordukoaz gogoratzen zen bakoitzean negarrez hasten zen. Eskerrak Oriok itsasoa eta lurra biak zituen, jaten emateko. Arrantzaleak lehorreratzen zirenean, moilara joaten zen, sardina edo antxoa batzuk zituela etxeratzen zen beti. Gainera, bazituen familian base-rritarrak eta haiengandik ere beti izaten zen zerbait: babarrunak, artoa, sagarrak... Haiei esker atera ziren aurrera.

Ia hiru urte iraun zuen gerra bukatu zenean, Ferruk han segitzea erabaki zuen. Abisu bat bidali zioten Oriotik: ez bueltatzeko, bestela garbitu egingo zutela. Eta gerra bukatu zen egun beretik hasi zen plana prestatzen familia hara eramateko, han bizimodu berria haste-

ko. Ferruren emazte Mariak sukaldean gizonaren erretratu bat eduki zuen jarria, senarra ihes joan zenetik, txikiak aita ez ahazteko.

1942. urtea zen, gerra bukatu zela hiru urte paseak ziren, baina beste gerra bat ere hasia zen, bigarren mundu-gerra, Ferru bete-bete harrapatu zuena. Gerratik ihesi joan eta beste batekin topo egin! Gizon hura ez zen geldirik egotekoa, ez zen behin ere izan. Frantzia, De Gaullek Ingalaterratik irratiz egindako deiari erantzunez, herriak sortua zuen alemanen kontrako erresistentzia, hango okupazioaren kontra borrokatzeko. Manuel haiekin hasi zen berehala. Mugalari ibili zen, erresistente frantsesak Bidasoaraino ekartzen. Ordurako ondo ezagutzen zituen hango bazterrak, inguruko baso, mendi eta errekek, eta laguntza ederra ematen zien Afrikara bidean ihesi abiatzen zirenei.

Bidasoa ibaian iheslariak alde batetik bestera pasatzen laguntzen zion nafar batek ekarri zuen karta Oriora, soinean zekarren txaketa zahar-zahar baten adabaki batean ezkutatuta. Emazteak poz ederra hartu zuen. Gutunean esaten zien noiz, nora eta nola joan behar zuten.

Oriotik inori ezer esan gabe abiatu ziren, amak poltsa txiki bat besterik ez zeramala. Uztaileko egun ederra zen. Haurrei esan zien bisita egin behar ziotela Irunen osaba bati. Egia, zaharrenak bakarrik zekien, Antoniok, hamasei urte zituen orduan. Trenez joan ziren Pasaiaraino. Hango etxe batean ordu batzuk pasatuta, iluntzean, automobil zahar batek eram zituen Hondarribiraino. Han gizon bat zuten itxoiten, eta erreka txoko ezkutu batean txalupa bat. Angularen kontrabandoan zebilen gizona zen. Inguruan inor ez zela aseguratu zenean, esan zien txalupan sartzeko. Ilunpetan, arraunean hasi zen. Irungo zubipera iritsi zirenean, halako batean, zubi gainean soldaduak ikusi zituzten, Gestapoko soldadu alemanak. Ikaratuta edo, txalupariak salto egin zuen uretara, iheslariak han utzita. Anai zaharrena eseri zen haren tostan, berak heldu zien arraunei, eta poliki-poliki, txalupa ezkutatu egin zuen kanabera batzuen aterpean. Soldaduak ez ziren konturatu. Aurrera segitu zuten eta handik gutxira, lehorretik seinale bat sumatu zuten, argitxo bat. Hari jarraituz, moila txiki batera ailegatu ziren. Han, aitaren lagun bat zuten zain.


Bi egunetara, Capbretonera ailegatu ziren, aitaren herrira. Etxeko txikiak, bizi den artean, ez du ahaztuko hara iritsi ziren momentu hura. Aita portuan zen, lehorreratu berria, arrainak saretik askatzen. Ikusi zituenean, harri bihurtuta bezala geratu zen, mugitu ezinik. Korrika joan ziren denak harengana. Besarkada batean elkartu ziren seiok, negar batean. Txikiak zortzi urte zituen. Gogoan du aitaren hanka bati heltzen ziola, estu-estu.

Frantziako herri hartan bizimodu berri bat hasi zen oriotarrentzat. Aitak arrantzan segitu zuen lanean, familiak frantsesez ikasi behar izan zuen. Etxean euskeraz hitz egiten segitu zuten beti. Zoritxarrez, ez zeukaten Oriora joaterik. Kostata, baina ohitu ziren hango bizimodura. Seme-alaben artean, gustuen Ramonita zegoen, aspaldiko partez lasai joatea zeukan eskolara,



Ferru (erdian), Orioko hondarribiraino, bi lagunekin.

Montserrateko arroka izugarriak
eta hara igotzen den tren.



inork ez zuen mehatxatuko, ez jipoituko. Ez zeukan ahaztuta gerra bukatu zenean Oriora etorritako maistra berriak, Señorita Sabinak, nola ia egunero jotzen zuen. Aita non zen jakin nahi zuen, “¿a donde se ha escapado vuestro padre?”, baina irakaslea jakin gabe geratu zen. Neskatala harentzat liberazio izugarria izan zen eskola aldatzea.

Europako gerra bukatu zenean, egun batean bisita izan zuten etxean, bi gazte agertu zitzaizkien, paraxutista frantsesak ziren, Bidasoako muga pasatzeko Ferruren laguntza jaso zutenak. Gerrako merituengatik maila-igoerarekin saritu zituzten bi militarrek. Beren esker ona adierazi nahi zioten Manueli, dirua eskaini zioten, edo bere gerra-merituengatik domina bat. Ferruk ez zuen asko pentsatu behar izan. Erantzun zien eskertzen ziela gogoratu izana, baina zerbait hartzekotan Frantziako nazionalitatea nahi zuela. Militar haiek lortu egin zuten beren zorra kitatzea, Manueli berak eskatutakoa ematea. Frantses nazionalitatea lortu zuen familiako guztientzat.

Ferruk ondo pentsatua zuen, ordurako, gauzak nola etorriko ziren, etorkizuna ondo aurreikusita, bai baitzekien pasaporterik gabe nekez bueltatzerik izango zuela jaioterrira. Lehenengo aldian bera bakarrik etorri zen Oriora. Pasaporte frantsesa eskuan zuela, muga, guardia zibilek goitik behera begiratu zioten abizen euskaldunak zituen gazteari, baina, Ferruk esaten zuenez, gustura egingo ziotena egin ezinik geratu ziren. Pasatzen laga behar izan zioten. Joan zenetik hamaika urtera, Orion zen berriz. Hantxe ikusi zuen atzerrira eraman zuen barkua moilan lotuta. Eta etxeokak eta aspaldiko lagunak.

Genovatarrak Kataluniara

Rafaela Genova 1927an jaio zen Orion. Aita Luis Genova zuen, Luis Treku; ama, Faustina Arrizabalaga. Haien etxean bost seme-alaba izan zituzten: Inaxi (1920), Florentino (1922), Rafaela (1927), Martxiel (1931) eta Mari Carmen (1937). Lau zaharrenak Orion jaio ziren, baina gazteena Katalunian, eta horrexegatik deitzen diote katalana.

Genovatarrek ere, beste hainbat oriotarren moduan, itsasoz ihes egin zuten Lapurdira, matxinatuen tropak Orion sartu baino aste batzuk lehenago. Bapora haietako batean zihoan 9 urteko Rafaelita, familiaren Talai Mendi baporean. Familia osoa zihoan bertan: aita, ama eta lau seme-alabak. 76 urte geroago ondo gogoratzen du oraindik Rafaelak: “el arca de Noe’ deitu genion egun hartan baporeari, denetik zeramalako, animaliak ere bai, Sakillanean zegoen ikuilutik atera eta baporean sartu genituen txerria eta oilo guztiak”.

Donibane Lohitzunen lehorreratu ziren. Animalietatik bat bakarra ere ez zen ailegatu, olatu batek eraman zituen kubiartetatik denak arrastan.

“San Juan de Luzen soto batean egon ginen; han egiten genuen lo, sare batzuen gainean. Ez dakit nik zenbat denbora eman genuen han, egun askorik ez, eta Bartzelonara nola joan ginen ere ez dut gogoan. Trenez joango ginen, noski”.

Orduan, artean, Bartzelona Errepublikaren aldekoen eskuetan zegoen. Huraxe zen zona libre nagusia eta, artean, bonbardaketarik-eta ez zen, horiek gero izan ziren. Luis Trekuren familiak ez zuen etsi Lohitzuneko soto hartan, Bartzelona aldera jo zuten.

“Lehendabizi hotel batean egon ginen. Diru pixka bat bagenuen-eta. Han zortzi egun pasatu genituen. Gero, errefuxiatu moduan, komentu batera eramán gintuzten, Sarriara. Han ondo egon ginen, jaten-eta ondo ematen ziguten”. Baina han ere ez ziren luze geratu. “Gero, handik balneario batera eramán gintuzten, ‘Gran balneario de la Puda de Montserrat’, letra handiekin zegoen jarrita, oraindik gogoratzen naiz. Gero, haurra jaio zenean, umeak etxeetan hartu gintuzten, ni 9 egunean egon nintzen”.

“Han ere ondo egon ginen, hemendik joandako emakumeak lanean ere hasi ziren, bat sukaldean, bestea garbiketean..., arropa ere ekarri ziguten eta, ondo! Eskola bat ere jarri ziguten, baina denbora gutxian ibili ginen gu han, gero, hurrena eskolan berriz Orion ibili nintzen ni Joxe Camposekin. Denetara, Pudan urte eta erdi edo eman genuen. 1938an, bonbardaketak-eta hasi zirenean, abiatu egin behar izan genuen handik ere ihesi, Frantzia aldera. Trenak-eta jarri zituzten, baina gu ez ginen sartu, amak beldurra zuen, trenak gainezka zihoazen, jendez goraino beteta: ‘bai, sartu bai, zazpiekin sartuko naiz trenean, baina handik zenbatekin aterako naiz?’ Eta emakume hark asmatu egin zuen, hartu behar zuten trena bonbardatu egin zuten, eta jende asko hil zen”.

Kostaldeko bidetik abiatu ziren, oinez, Girona aldera. Bidaia gogorra izan zuten hura. Lo, ahal zuten lekuan egiten zuten. Negua zen, hotz egiten zuen, baina hotza ez zen txarrena, beldurrez zihoazen, noizbehinka zeruan pasatzen ziren abioi haien beldurrez, bonbardaketek eragiten zuten izua gorputzaren barruan sartuta.

“Gironara ailegatu ginen, halako batean. Han bonbardaketa gogorrak izan genituen. Gero, handik oinez abiatu ginen berriz. Gu bide erdian gindozazen, eta esan ziguten bidea oso arriskutsua zela, eta joateko mendi aldera. Horrelaxe egin genuen. Lotarako, masia batean hartu gintuzten. Animaliak-eta ziren han. Afaltzen eman ziguten. Artzain bat topatu genuen. Zer da eta Lekeitiokoa zen gizon hura! ‘Geratu zaitzete hemen nik bihar arkume bat hil eta emango dizuet! Nik badaukat lagun bat ezkondua Orion.’ Zein izango eta Miren Bordaren aita! Abizena zuen Fresnedo. Hura ere utzi genuen eta gora, mendira. Han goian, elurra. 1938ko bukaera zen. Mendiburu eskultorea ere gurekin egon zen”.

Frantziarako bidean galdu egin ziren, aita alde batetik, seme Florentino bestetik eta ama gainerako lau seme-alabekin bestetik. Ez ziren elkarrekin egon, baina bazekiten denak bizi-rik zirela. Izan zuten elkarren berri. Oso modu bitxian: Oriora idazten zuten, non eta nola zeuden esanez eta besteenaz galdetuz. Oriotik jasotzen zuten familiako beste kideen berri.

Florentino Grenoblen egon zen, hango ospitale batek hartuta. Florentino herrena zen txikitatik, gaitz baten ondorioz, eta ihesaldian gerrako zauritu moduan hartu zuten eta

Luis Treku, bere bost seme-alabekin: Inaxi, Florentino, Rafaela, Martxiel eta Mari Carmen.



Grenoblera eraman. Han bi aldiz operatu zuen mediku aleman batek, hanketako arazoa sendatzeko, ez zuen lortu baina. Ama-alabak Kosta Urdineko inguruan egon ziren, Nizatik ez urruti, errefuxiatuentzako kanpaleku batean, Chateau de Villapin-en, hura zaintzen Senegaleko soldaduak zeudela (orduan Senegal Frantziako kolonia zen). Gerra bukatu arte egon ziren han. Gero, 1939ko uda inguruan, Oriora itzuli ziren trenez. Ez ziren denak batera etorri. Amak-eta bazekiten Florentino gaztea Grenoble zela. Egun batean, ama hura, Zarauzko asmotan zela, tren-geltokira joan zen. Han zegoela, trena ailegatu Donostia aldetik eta trenetik zein jaitsiko eta bere semea, Florentino! Aspaldiko partez, besarkatu eta elkarrekin etxera joan ziren.

Luis Trekuren odisea Frantzian



Luis Treku.

1 939ko otsailean erori zen Katalunia faxisten eskuetan. Egun haietan bonbardaketa latzak sufritu zituzten Kataluniako hainbat hiri eta herritan. Otsailaren 5ean, Girona bonbardatu ondoren, erabaki zuen Frantziako gobernuburu Édouard Daladierrek iheslarietara muga zabaltzea. Espainiako Errepublikaren armadako soldaduak eta haren aldeko herritarrak arrapaladan iritsi ziren Frantziara. Milioi erdi iheslari.

Espainiako historiako diasporarik handiena izan zen hura, munduan sekula izandako handienetakoa. Frantziako gobernuak eskatuta, Valière izeneko txostenak diaspora haren gaineko datuak eman zituen: 1939ko martxoaren 9an, Espainiako mugatik sartutako 440.000 errefuxiatu zeuden Frantzian; haietako 170.000 emakumeak, haurrak eta zaharrak ziren; 220.000, soldadu eta miliziarrik; 40.000, elbarrituak; eta 10.000, zaurituak.

Esan bezala, genovatarrik banandu egin ziren ihesaldian. Aita, Luis Treku, Kataluniatik Frantziarako muga gaingitu zuenean, atxilotu eta *Argelès sur Mer*-eko kanpamentura eraman zuten. Mugatik 35 bat kilometrora dagoen Argelès-eko hondartzan pilatu zituzten lehenengoak, ehun mila inguru. Han ez zegoen ezer prestatuta horrenbeste jende hartzeko. Mediterraneoko hondartza hartako errefuxiatu-eremua infernu bilakatu zen han pilatu zen jende guztiarentzat.

Eremua txarrantxaz itxi zuten. Preso eduki zituzten haren barruan. Errefuxiatuak zaintzen Frantziako kolonietako tropak jarri zituzten, Marokoko eta Senegaleko soldadu afrikarrak, eta jendarme batzuk. Egoera kaotikoa bihurtu zen: ez zegoen barrakarrik, ez komunik, ez sukaldarik, ez ur gezarik, ez erizaintzarrik, ez argindarrik... Gaitzak sortzen eta zabaltzen hasi ziren (tifusa, disenteria, sarna...). Gaixoak eta zaurituak inguruko ospitaletara eramaten hasi ziren; baina, berehala, gainezkatu egin zituzten guztiak eta, handik gertu, beste bi kanpamentu jarri zituzten, *Saint-Cyprien* eta *Barcarès*-en.

Kanpamentu haietako bizi-baldintzak izugarriak izan ziren. Errefuxiatuek inprobisatu egin zituzten barrakoiak, komunak eta sukaldeak. Gurutze Gorriak eta beste erakunde

batzuek bideratu zuten laguntza ez zen nahikoa, hornikuntza eskasa zen, eta denetik falta zuten. Jende asko hil zen eremu hartan, goseak, hezetasunak, hotzak eta gaitzek eraginda.

1939ko martxoan, Robert Capa argazkilariak bisita egin zuen Argelès-era. Orduan 80.000tik gora errepublikar zeuden kanpamentuan. Harenak dira orduko infernu hartatik gordetzen diren argazkiak. Hitzez ere egin zuen ikusi zuenaren azalpena: "...infernu bat hondar gainean: gizonek nekez bizirauten dute, kanpin-denda eta lastozko txabolek babes eskasa ematen diete hondarraren eta haizearen erasoaren kontra; ura hondarrean egindako zuloetatik ateratzen dute, itsasokoarekin nahasian...".

Kanpamentua jarri zutenetik sei hilabetera bigarren mundu-gerra hasi zen. Hurrengo urtean, 1949ko ekainean, Hitlerren III. Reich-ak Frantzia inbaditu zuen. Orduan utzi zuten Argelès-eko erre-fuxiatuek kanpamentu hura. Batzuk inguru hartan geratu ziren bizitzen. Beste batzuk nazien kontra borrokatzera abiatu ziren; haietako asko atxilotu eta berriro ere kontzentrazio-eremuetara eraman zituzten (Manthausen-era 7.500 eraman zituzten). Eta beste batzuek etxera itzultzea erabaki zuten, Francok ordurako agindua zuen odol-deliturik ez zutenei barkatu egingo ziela bizia.



Luis Trekkuk etxeratzea erabaki zuen. Oriora itzuli zen. Etxekoak bera baino lehenago etorriak ziren. Etxean zela, berriro itsasoan hasi behar, arrantzan, jango bazuten. Baina horretarako baimena behar zuen eta Donostiako Komandantziara joan zen. Joakin Arostegi apaizak *'Oroitzapenak'* bere biografia-liburuan honela kontatzen du han gertatutakoa: "*¿En política usted que es? komandanteak, eta toda la vida republicano*´ eta militarrek: *de todos los que han venido por aquí, ninguno ha dicho la verdad. Usted es el único. Así que vaya tranquilo a su casa*´. Eta Luis, lasai-lasai, Oriora”.



Gerora, genovatarrek izandako baporetako batek Montserrat izena hartu zuen, gerran han ibili zirelako eta senideetako bat bertan sortu zelako.

Luis Trekkuk urtero ospatzen zuen Errepublikaren eguna, apirilaren 14an. Ondo bazkaldu ondoren, txistua jotzen pasatzen zuen arratsaldea, kantu errepublikanoen errepassoa egin ez.

Hil aurretik, hala agindu zuen: harentzat zinta bat egiteko bandera republikanoaren hiru koloreekin. Eta halaxe lurperatu zuten Orioko kanposantuan, 1981eko urriaren 30ean hil zenean, zinta eta koroa gorri-hori-more banarekin, 88 urte zituela.

Errefuxiatu errepublikarrak Argelès-eko kontzentrazio-eremuan, Frantzia, Kataluniako mugatik gertu, Mediterraneoan.

Lertxundi Genova familia, Argentinara

Gerra hasieran herritik alde egindako gehienak itzuli egin ziren, joan eta denbora gutxira; beste batzuk, gerra bukatu ondoren. Itzuli ez zirenetatik urrutien joan zirenek Argentinara jo zuten. Hara joan eta bertan geratu ziren. Joxe Benito Lertxundi Oñederra eta Serafina Genova Treku senar-emazteen familia izan zen. Lau seme-alabarekin joan ziren Amerika aldera: Arantxa, Igon, Juanita eta Itziarrekin, zaharrenak 18 bat urte zituela. Beste hiru ez ziren joan. Bi alaba Atlantikoaren alde honetan geratu ziren: Guadalupe, Valentzian, eta Angeles, Parisen. Seme zaharrena, berriz, Florentino, Orion, eta soldaduskarako garaia eta deia etorri zitzaizkionean, orduantxe joan zen.



Jose Benito Lertxundi, alaba Arantxaren seme batekin, Buenos Aireseko portuan, herrimenez, sorterrira ekarriko zuen itsasontziaren zain.

Joxe Benitoren beste anaiak ere joan egin ziren. Etxe hartan bederatzi senide ziren: bost mutil eta lau neska. Gizonezkoak denak joan ziren: Joxe Benito, Inazio, Anjel, Jeronimo eta Remigio; neskak, berriz, Asuncion, Dominga eta Simona herrian geratu ziren. Beste bat (Modesta) hila zen gerra aurretik. Anjel eta Inaziok aste batzuk besterik ez zituzten pasatu

Iparraldean eta etxera itzuli ziren. Jeronimo eta Remigio han geratu ziren gerra bukatu arte. Joxe Benitok ez zuen itzultzerik izan.

Joxe Benito Lertxundi Errepublikaren defentsarako komisariako buru izan zen, Ulpiano Peña eta Agustin Rekondorekin batera. Ez da harritzekoa gerra hasi zenean, familia hartu eta herritik ihes egin izana. Zarauzko Defentsa Batzordeko zazpi kideetatik bost fusilatu egin zituzten eta bat garrotean akabatu, epaiketa sumarisimoa eginda; Santiago Beristain da hiltzetik libratu zen bakarra.

Joxe Benito Lertxundi Oñederra harrapatu izan balute hilko zutela ez dago batere zalantzarik. Horren froga argia Orioko beste Lertxundi bati gertatu zitzaionak ematen du: Joxe Benito Lertxundi Gurruxaga ere Iparraldera joana zen ihesian 36ko irailaren hasieran. Baina han aste batzuk igaro eta gero, herritik deia jaso zuen etortzeko lasai, dena pasatuta zela eta ez zegoela arriskurik. Lertxundik, animatuta, etxerako bidea hartu zuen. Irungo mugan guardia zibilek dokumentazioa eskatu zioten eta, paperak begiratuta, atxilotu. Ziegan ordu batzuk pasatu zituen, harik eta beste agintari bat etorri zen arte. Hark agindua eman zuen: “*a fusilarlo*”. Paretaren kontra jarri zuten, hiltzeko. Ziegan zegoela susmo bat etorri zitzaion burura, eta susmo hura oihukatzeraz ausartu zen, alegia Joxe Benito Lertxundi Oñederrarekin nahasten ari zirela, bera ez zela hura, nahiz eta izena eta lehen abizena ber-

dinak izan. Nahasketa argituta, askatu egin zuten eta etxera etortzeko modua egin zuen. Istorio hau Martin Peronak kontatuta da, Gregori Ibargoienean ahizpa Doloresen semeak. Gregori Joxe Benitoren koinata zen, haren anai Inazio Lertxundi Oñederraren emaztea.

Lertxundi Oñederraren familiakoek gerrako urteak Frantzian igaro zituzten. Hemengo gerraren ondoren, bigarren mundu-gerra hasi zen eta Frantzian segitu zuten. Herrira itzultzen ausartzen ez, eta herrimina nolabait asetzeko, urte pare batean edo, Donostiako estropadetara etortzeko modua behintzat egin zuten familiako kide batzuek. Barkuz Donostiaraino etorri, barkutik bertatik estropada ikusi, herriko lagun batzuk agurtu eta atzera Frantziara itzuli ziren lertxunditarrak.

Hitlerrek abiatutako gerrak laster bukatzeko itxurarik batere ez zuela igarrita, 1942an edo, Frantzia utzi eta Argentinara eramango zituen itsasontzia hartu zuten.

Familia hark herrian utzitako ondasunak konfiskatu egin zituen Orioko Udalak eta, gero, etxeko altzariak eta dendako produktuak enkantean jarri. Gai haietako batzuk haren iloba Remigiok eskuratu eta jaso zituen etxean, osabaren objektu batzuk gordetzeko.

Hara joan eta urte askotara, familia hartako seme bat, Igon, ordurako han Argentinan aktore zela, Oriora etorri zen bere taldeko beste bi artistarekin batera, Galiziako jatorria zutenak. Haien mimo-ikuskizunaren emanaldi batzuk egin zituzten, bai Donostian baita Orioko Cine Leundan ere, bere herritarren aurrean. *'Mimos de Argentina'* zuen izena taldeak. Joxe Benito Lertxundik urte asko egin zituen Argentinan. Baina ez zuen bertan etsi nahi eta ez zuen egin. Emaztea, Serafina Genova, 1951ko apirilaren 15ean hil zen Argentinan, 56 urte zituela. Joxe Benito, berriz, jaioterrira itzuli zen hil aurretik. Orion hil nahi zuen, eta horrela gertatu zen. 1973ko apirilaren 22an hil zen bere jaioterrian, 82 urte zituela, eta bertako kanposantuan dago lurperatuta, emaztearekin batera, haren errautsak ere ekarri egin baitzituzten Oriora. Lertxundik, hil aurretik, iloba Remigioren eskutik eskuratu zituen Argentinara joandakoan Udalak subastatutako bere lan-tresnetako batzuk.

Serafina Genova Luis Genova Trekuren arreba zen. Luis Trekuk jakin zuenean Lertxundi Genovatarrek Argentinara joatekoak zirela, berari ere harako gogoia piztu zitzaion, Oriora etortzea baino seguruagoa zelakoan. Izena eman ere egin zuen barku hura hartzeko. Haren andreak, Faustinak, kendu zuen familiaren izena zerrendatik. Bigarren aldi batez ere izena ematera joan zen Luis Treku; baina familia hartan andrearen zuhurtzia nagusitu zen eta, Argentina ahaztuta, etxera itzuli ziren

Igon Lertxundi Genova, Jose Benitoren semea, gerragatik Argentinan jaiotako oriotarra, bisitan izan zen Orion 1960 inguruan, bere antzerki-konpainiako bi lagunekin. Argazkian, Orioko familiako kideekin, Zentellastar kastakoekin: Bikamiyotan eta mahaiaren bueltan.





Gerra bukaera

Arosteigineko gerra aurreko tailerra. Han egin zuten zubi berria izango zenaren egitura metaliko guztia.



Gorriek dinamitaz botatako zubia berreraikitze-lanetan.

Soldadu errepublikarrak eta Orioko neskak

1936ko irailean errepublikaren aldeko soldaduek erretiran dinamitaz lehertutako zubiaren tokian, hilabete batzuetara, behin-behinean, egurrezko bat eraiki zuten. Gerora, haren ordeaz berria jasotzeko, frankistek preso hartutako soldaduak ekarri zituzten Oriora. Hala, Arosteigi tailerrean altzairuz moldatutako egitura metaliko sendo bat jarri zuten, aurretik zeuden harrizko matxoiengainean. Arosteigirenean, gerrarako behar zituzten bonbak (lehergai-luak) egiten ere jarri zituzten lanean.

Batallón de especialistas´ deitzen zitzaaien preso haiei. Haien berreraiki zuten zubia. Urtebetetik gora pasatu zuten Orion lanean eta *Arin* y *Embil* fabrika eta Mutiozabal ontziolaren artean dagoen etxeko sotoan egon ziren bizitzen.

Soto hari buruz dakiguna Udalak hartutako erabakiengatik dakigu. Adibidez, 1938ko irailaren 7ko bileraren aktak dioenez: *“El presidente da cuenta de que el motivo para haber convocado sesión extraordinaria y urgente era dar cuenta a la Corporación que habiendo tenido conocimiento por la autoridad militar de que se proveyese de los lavabos retretes cocina en los locales inspeccionados y obras de luz eran necesarios por la llegada para el arreglo del puente de una Brigada de trabajadores, escolta y mandos militares y siendo inexcusable el servicio a la patria para dicho objeto habrán de originar gastos y que si bien las raciones de pan a cargo de este ayuntamiento han de ser legadas por Intendencia Militar ha que la comisión de obras (?) sobre el terreno y se ocupe en un plazo de 3 días y quede en disposición del servicio acordando por unanimidad el cumplimiento y el abono de cuantos gastos se produjeran según las instrucciones recibidas”*.

1938ko irailaren 13koak ondokoa dakar: *“Siendo necesaria la instalación de una garita en los locales destinados a la brigada de trabajadores para el arreglo de cuanto procedía por mas económica instalar una caseta que hoy el Ayuntamiento dispone alquilar durante el tiempo que esto fuera necesario”*.

Zubia eraikitzeaz gain, beste hainbat lan ere egin behar izan zituzten garaiko aktetan jasoa gelditu denez. 1938 urriaren 11koak honako hau zioen: *“Se dio cuenta de los trabajos que están efectuando la Brigada de Trabajadores Especialistas en colocar el adoquinado en la entrada de la Casa Consistorial así como el arreglo de la carretera de la playa interesando de la corporación si una vez terminados estos trabajos podría comenzarse algún otro que fuera mas necesario, una podría ser arreglar la subida de la iglesia, dado*

su mal estado en los días de mucha lluvia, una vez terminados estos trabajos estarían libres los de la Brigada y podrían comenzar otros trabajos". Eta 1938ko urriaren 28koak honakoa: *"Se acuerda que se vayan arreglando las obras mas urgentes y necesarias por las Brigadas de Trabajadores especialistas"*.

1937ko irailaren 15eko Udaltzak zubi eraiki berriari izena jartzea erabaki zuen: *"Fue acordado poner el nombre de Brigadas de Navarra al Puente de esta localidad"*. Hala egin zuten inguruko beste herri askotan ere: Nafarroatik etorritako tropak sartu ziren kaleei Nafarroaren izena eman zitzaienten.

Gerra bukatuta, 1939ko abuztuaren 5ean Udalak plaka batzuk erostea erabaki zuen, zubiaren izena agerian geratzeko: *"Se acuerda la adquisición de unas placas para colocar en el puente que indique 'Brigadas de Navarra' previo acuerdo para su colocación con el jefe de la fuerza"*.

1939ko irailaren 1eko udaltzak erriaren gaineko zubi egin berria inauguratzeko antolatutako jaia onartu zuen. Honela dio aktak: *"Habiendo sido comunicado al señor alcalde por el señor alférez jefe de la unidad de especialistas 148 la inauguración del puente reconstruido por los mismos, que tendrá lugar el día 3 de septiembre de 1939, domingo, comenzando con una misa de campaña que será a las 11 de la mañana el ayuntamiento acuerda para dar mayor solemnidad al acto ofrecer a todos los que se acerquen organizar un banquete para todas las autoridades que concurran al acto, invitar al Excelentísimo Gobernador Civil de Guipuzcoa, para que acuda a dichos actos así como al jefe provincial del movimiento"*.

Soldadu baten kantua

Soldadu presoak jai eta egun edukitzen zituzten lanean. Igande arratsaldea bakarrik izaten zuten libre, paseatzeko. Orio eta inguruko herrietako neska gazteak, erdi errukituta erdi erakarrita, soldadu presoengana arrimatzen hasi ziren, zigarroak ematera eta... Mutilek, esker onez, lanerako zerabilten kobreakin egindako eraztunak erregalatzen zizkieten neskei. Izan zen mutila gurasoen etxera eramandakorik ere; baita, diotenez, ezkondu eta mutilarekin bizitzera herritik Burgos aldera joandakorik ere. Harreman haien berri ematen da soldadu haietakoren batek sortutako kantuan; soldaduek herriko neskei kantatzen zieten kantuan.

Kanta `Rocio, ay mi Rocio...' doinuan kantatzen zuten. Ia osorik jasota dago, hitz bakarren bat falta da, osatzeko: Zubia eraikitzen bukatu zutenean, herriak, agurtzeko, bazkaria eman zien moilan zubia eraikitzen ibilitako gizoni.

Kantu xalo hura oraindik ere gogoan dute garai hura bizi izan zuten Teresa Solaberrietak eta Divina Lanberrik. Teresaren izeba Felipa Urdangarin zenak oso-osorik kantatzen zien eskabetxeran, gazte zela kalean jende aurrean gora eta behera barregarri ibiltzera zigortutako emakumeak. Lanera behartuta zeuden preso errepublikarrek sortutako kantua, zigortutako herriko neska gazte baten gogoan iltzatuta geratu zen, betiko.

Desde Campo Miranda ya nos destinaron
A este batallón por especialidad...
(hemen hitz batzuk falta dira)
..... y ser trabajador.
Venimos a Orio y llegamos de noche
estaba lloviendo como es natural
porque en estos pueblos,
cosa muy frecuente
porque está muy cerca de San Sebastian.

Al día siguiente, ya vimos el pueblo
aunque pequeño no parece mal
tiene buenas chicas, todas tan bonitas
y caritativas, es lo principal.

Llegó el domingo siguiente
y las chicas pasean ya.
nos echaban tabaco
para nosotros fumar.
nosotros agradecidos
de las chicas de este pueblo.
les hicimos unos anillos
les hicimos unos anillos
para que tengan recuerdo
porque los especialistas
trabajamos con talento
nosotros, agradecidos.

Arreglamos puentes, también carreteras
apagamos fuegos cuando es ocasión
en el pueblo de Orio, los especialistas
dejarán recuerdos de este batallón.

Ya sabemos todos, estar bien tranquilos
que en la Nueva España hay que trabajar.
y nuestros derechos, trabajar con ansia
y todo lo perdido se adelantará.

Terminó la guerra, tuvimos desfile
misa de campaña, y gran comunión
luego un banquete, fue una cosa grande
que todos bailemos hasta el charlestón.

Nuestro alférez, un señor muy bueno
y los sargentos que también lo son
unos días antes de hacer el desfile
bien nos practicaron toda la instrucción.

Llegó el domingo siguiente...

Kantuaren hitzetan presoek zaintzaile eta zigortzaileen ideologiaren aldeko gorazarrea egiten da, nolabait ere: *“ya sabemos todos, estar bien tranquilos, que en la Nueva España hay que trabajar y nuestros derechos, trabajar con ansia y todo lo perdido se adelantará”*. Gainera, presoek kanturako zerabilten doinua (Rocío, ay mi Rocío) orduan Espainiako kantari folkloriko ezagun batek zerabilena zen, faxisten aldeko sutsu agertzen zen Imperio Argentina-rena.

Erabateko kontraesantzat interpretatu behar ote dugu kantua? Zubi berreraikiaren inauguraziorako, agintariek presoak kantua ezaugarri horiekin sortzera behartuko zituzten, seguru asko. Baina abestiaren hitzetan, era berean, herriko neskek ageri dira, eta neskek presoek ematen zieten tabakoa. Interpretatzen hasita: askatasunerako, modu sinbolikoan gutxienez, zituzten zirrikitu bakarretakoak neska haiek ziren, igande arratsaldean ikusten zituztenak, eta haien bidez, presoentzat beti hain estimatuak izan diren zigarroak, haien kea. Gerra garaiko presoek egoera paradoxikoa! Seguruenera, hainbat sentimendu ezkutatzeko dituzten kantuak bere baitan, eta baita presoek eta haiekin harremanetan ibilitako herritarrek isuritako malkoak. Gerrako kontuak eta kantua.

Udalak antolatutako ospakizunak gerra-garaian

Orioko Udalak hainbat ospakizun prestatu zituen gerra amaitu aurretik ere. Haietako batzuk goitik aginduta etorri zitzaizkion, beste batzuk herrian bertan sortu ziren.

*Errikoaren gaineko zubia berreraikitzen ibili ziren soldadu eta preso-
en agintari militarrek.*



1936ko urriaren 10ean, hauxe erabaki zuen Orioko Udalak: *“La comisión al efecto designada participó que estaban ya hechas las reparaciones de las Escuelas, que había hecho la adquisición de crucifijos para las mismas y dió cuenta del Programa de Festejos del próximo Día de la Raza, en que habrá solemne Misa Mayor en la Parroquia, a continuación bendición de la nueva Bandera para la Casa Consistorial y crucifijos y colocación en todas las Escuelas de los Crucifijos y Entronización de la efigie del Sagrado Corazón en el Salón Consistorial siendo aprobado el programa y acordando asistir el Ayuntamiento en Corporación a dichos actos”*.

Egun hartako bilkuraren aktak beste hau ere bazekarren: *“El Sr. Carmona pone en conocimiento de la Corporación que careciendo el Ayuntamiento de Bandera Nacional para que ondee en el asta y en el Balcón de la Casa Consistorial ha adquirido de la casa A. Aristizabal de San Sebastian una*

de 40,25 pesetas y de 60 pesetas la segunda cuyas facturas presentó y el Ayuntamiento aprobó la gestión practicada por el Sr. Carmona”.

1936ko azaroaren 7ko Udalbatzak zioenaren arabera, 1936ko irailerako, Francoren aldekoek uste zuten haien tropak berehala sartuko zirela Madrilén. Orduko aktak hauxe zioen: *“Se dió cuenta de una comunicación del Sr. Comandante Militar de esta Demarcación interesando la organización de festejos y manifestaciones populares a fin de que el vecindario se asocie al júbilo de toda España en la próxima entrada de nuestro Glorioso Ejército Nacional en la Capital de España así como del programa de Movilización y Festejos, que remite la Comandancia Militar de esta plaza, siendo unánimemente aprobado”*.

1937ko maiatzaren 22an Udalak erabaki zuen udal langileek txapela gorria eraman behar zutela jantzita Corpuseko prozesioan, hitzez hitz: *“Fue acordado que los empleados vistan la boina roja en la procesión del Corpus Christi, a la que acudirá la Corporación”*.

1937ko uztailaren 17an, gerra hasieraren lehenengo urteurrenaren bezperan hauxe erabaki zuen Udalak, ospakizun hartarako:

“El Sr. Presidente dio cuenta de las fiestas que con motivo de la conmemoración del 18 de Julio II año triunfal 1º aniversario del Glorioso Movimiento Salvador de España se celebrará en esta Villa acordando ir el Ayuntamiento en Corporación a los festejos y misa que se celebrará el día 18”.

Francoren tropak Orion sartu ziren egunetik urtebetera ere ospakizunetara deitu zuen Udalak. 1937ko irailaren 17an hauxe erabaki zuen Udalak: *“Voto de confianza al alcalde para organización y dirección de los festejos con motivo de las fiestas de liberación de esta villa en su aniversario primero. El alcalde da las gracias por el apoyo y trabajo que han prestado al Pueblo en general y a esta Alcaldía y con un Viva España de todos los asistentes se levanta la sesión”*.

Handik urtebetera, 1938ko irailaren 19an, erabaki hau hartu zuten: *“Sesión extraordinaria con motivo de que mañana, día 20 de septiembre, es el segundo aniversario de la liberación de la Villa por las Gloriosas Tropas Nacionales, confeccionamos el programa de festejos en conmemoración de este día, siendo aprobado el siguiente programa:*

- *A las siete de la mañana diana por los chistularis y cohetes.*
- *A las nueve misa con asistencia de las autoridades.*
- *A las doce carrera entre las organizaciones juveniles, con los siguientes premios: al 1º, 8 pesetas; al 2º, 6; al 3º, 4; al 4º, 3; y 5º y 6º, 2 pesetas, en la carrera de flechas, y en la de Pelayos, los premios de 5, 3, 2, 2, 1, 1 y seguidamente volviendo a jugar los tres primeros a las cuatro de la tarde en el juego llamado (locochas) recogida de maíz, con premios de 8, 5 y 3 pesetas”*.

Ordurako sortuak zituzten herrian mutil gaztetxoentzako bi elkarte, mutilak umetatik Falangearen ideologian bideratzeko sortuak: ‘Flechas’ y ‘Pelayos’.



Kartela zintzilik falangisten Oribarzarreko kanpamentuan.

Argazkia: Guregipuzkoa.net/ FotoCar/
Vicente Martín

Gerra bukatu, 1939ko apirilaren lean

Ia hiru urte iraun zuen gerrak, 1936ko uztailaren 18an hasi zenetik. Eta halako batean, 1939ko apirilaren lean, bukatutzat eman zuen Franco jeneralak. Orioko Udala aurreratu egin zen, eta Francok bukatutzat eman baino egun bat lehenago telegrama bat bidali zion, martxoaren 31n, Gobernazio Ministroari, gerra irabazteagatik zoriontzeko. Honela aipatzen zuen egun hartako udalbatzaren aktak: *“Telegrama enviado al Exmo Sr. Ministro de la Gobernación elevando la mas entusiasta felicitación con motivo maravillosa Victoria Ejército Nacional demostrado en entusiastas aclamaciones a nuestro invicto caudillo Generalísimo Franco”*.

Lau egunera, 1939ko apirilaren 4an telegrama hark erantzuna izan zuen. Gobernazio Ministroak beste bat bidali zion Orioko Udalari, erantzun moduan: *“Telegrama del Ministro de Gobernación agradeciendo el telegrama enviado por este ayuntamiento con motivo victoria de nuestras gloriosas tropas”*. Akta hartan ikus daiteke herritarrei ere emango zitzaie-lan haren berri: *“Telegrama del Sr. Gobernador dando cuenta que los días Jueves Santo y Viernes Santo será comunicado por medio de un bando para conocimiento del pueblo”*.

Gerra bukatu zenean, Antonio Etxaniz Etxaniz azpeitiarra zen Orioko alkatea eta *‘Falange Española Tradicionalista y de las JONS’* erakundeko burua; Jose Sobreira Lage guardia zibileko sarjentua, agintari militarra; eta Ignacio Peña Loidi, udal epailea. Horiexek ziren Orioko agintariak.

1939ko maiatzaren 30eko udalbatzaren aktak jasota dakartza Francok bidalitako bi testu: bata, gerra hasi zenean Melillatik gerraren hasiera aldarrikatuz; eta bestea, gerra bukatutzat eman zueneko, orduan egindako diskurtsoa, hitzez hitz: *“A continuación el Ayuntamiento acuerda quede inscrito en el libro de acuerdos del Ayuntamiento el mensaje del Caudillo que dirigió al tomar el mando del Ejército el 19 de julio de 1936 y el último parte Oficial de Guerra y que dice así:*



Francok Burgoseko bere koartele-tik egin zuen deialdia, gerrari modu ofizialean bukaera emanez.

Festa, gerra bukaeragatik

Gerraren amaiera modu ofizialean ospatu zuten estatu osoan, dekretuz. Batzuek pozik: irabazi zutenek irabazi zutelako, gerra sufritu zutenek bukatu zelako...; baina zer ospaturik ezer ez zutenak ere asko izango ziren gerraren bukaeran.

1939ko apirilaren 4an Udalak festa-programa antolatu zuen, herriak gerraren bukaera ospatzeko. Honela zioen orduko aktak:

“Se acuerda el siguiente programa de fiestas para los días 8, 9 y 10 de abril, con motivo de la terminación de la guerra.

Día 8, sábado santo, a las diez de la mañana y una vez que las campanas anuncien la fiesta de resurrección diana por todas las bandas de chistularis y acordeonistas y disparo de cohetes.

- *A la salida de la Misa Mayor manifestación popular.*
- *A las 11 ? carrera pedestre hasta 14 años premios 10, 9, 6, 4, 2 pesetas.*
- *A las 4 rotura de huchas (2) premios 5 pesetas cada una.*
- *A las 5 Regata de bateles, premios 50, 35, 20 pesetas.*
- *Terminadas estas bailables por todas las bandas hasta las diez horas en que se acudirá a oír los himnos nacionales y siguiendo con bailables una vez terminado oír a los himnos.*

- *Día 9, a la mañana diana por las bandas de chistularis y acordeonistas y disparo de cohetes.*
- *Terminada la Misa Mayor bailables por todas las bandas.*
- *A la tarde bailables hasta la hora de oír los himnos (11) y terminados estos seguirán los bailables hasta la madrugada.*
- *Día 10, diana por las bandas de chistularis y acordeonistas con disparo de cohetes.*
- *A las cuatro de la tarde bailables hasta la hora de oír los himnos continuando aquellos hasta la madrugada.*

También acuerda el Ayuntamiento la asistencia en Corporación a San Sebastián el domingo día 9 a los actos conmemorativos por terminación de la guerra e invitar a las demás autoridades de la localidad y fuerzas vivas para su asistencia.

Se acuerda asistir a todos los actos religiosos que se han de celebrar los días Jueves Santo y Viernes Santo”.

Gerra bukatu zenetik artean hiru hilabete ez zirela, 1939ko ekainaren 23an, Orioko Udalak hondartzarako araudi berria erabaki zuen. Hemeretzi artikulua zituen; haietako batzuek ondo adierazten dute garai hartan nagusitu zen errepresioa eta itxikeria. Bainatzeko ordutegi zehatza ezartzen zuen, eta arauak ez betetzeagatik isunaren mehatxua egiten.



1942an Santanderren irabazitako estropadaren ospakizunak. Nabarmena da gerra bukatu berri-tako giroa: militarrek eta jendea agur faxista egiten.



Donostiako Kontxan, 1940an, garaiko bainujantziekin.

Argazkia: Guregipuzkoa.net/ Foto Car/ Agustina Zugasti, Vda. de Ricardo Martín

Gerra aurretik Oriok Donostian irabazitako azken bandera da 1934koa, Espainiako Errepublikaren koloreak dituena.

Gerra bukatu ondoreneko lehena da 1939koa, Franco, Franco, Franco dioena.



Bainurako nola jantzi ere ondo zehazten zuen; hitzez hitz: *“Queda prohibido el empleo de trajes que no se ajusten a las normas generales siguientes. Para mujeres: traje de baño completo que cubra la espalda, pecho, costado y sobre falda hasta la rodilla. Para hombres: traje de baño corriente que cubra espalda, pecho, costado y pantalón amplio de deporte”*.

Eta harrigarriena: hondartza bainurako bakarrik zen, ezin zen eguzkia hartu, ez etzanda egon: *“No se permitirá en modo alguno tomar baños de sol en toda la extensión de la playa, ni tumbarse en traje de baños”*.

Estropadetako banderen gorabeherak

Gerrak gizarte bizitzako alor guztietan eragin zuen, ondorio asko izan zituen, batzuk izugarriak, besteak agian anekdotikoak. Estropadetan ere eragin zuen, eta oriotarrek gerra aurretik zeramaten bolada onari ere bai, 1936, 1937 eta 1938an ez zen traineru-estropadarik jokatu.

Urte haietan traineruak hondartzatik gertu izan zituzten gordeta, San Juan ermita azpian dagoen txabolan (orain kanpinaren barruan dagoena). Ez zuten inolako kalterik izan. Baina 1939an, gerra bukatu berritan, agintari berriek presa handia zuten ospakizunetarako, eta gerra bukaeratik bederatzi egunera, apirilaren 10ean, estropada antolatu zuten Donostian. Getaria, Donostia eta Orioko traineruak bertaratu ziren lehiara. Oriotarrek hondartzako txabolan gordeta izandako traineruetako bat uretaratu, estropada jokatu eta gerra ondoreneko lehenengo bandera eskuratu zuten. Bandera txikia eta berezia zen: gerra aurreko-en morea galdua, bandera berria erregimen politiko berriak ezarritakoa zen: gorria, horia eta gorria; eta honako inskripzioa zuen: *‘Franco, Franco, Franco, año de la victoria 1939’*.

Estropada irabazi eta egun batzuetara, 1939ko apirilaren 21ean Udalak honako erabakia hartu zuen, garaipena ospatzeko: *“Se acuerda ser bendecida la bandera ganada en San Sebastián por los bravos remeros de esta localidad el día 23 del actual domingo en la misa mayor e invitando después a las autoridades y remeros a asistir a dichos actos y el lunch que el ayuntamiento ofrece en homenaje a los invencibles remeros en el salón de la Casa Consistorial después de la Misa Mayor”*.

Bandera berria gordetzen hasi zirenean, etorriko zitzaion zalantza Udalari zer egin gerra aurretik (1933 eta 1934an) irabazitako bi bandera errepublikarrekin. Bandera haiek, jakina, ezin zituzten inoren bistan jarri, zeuden zeudenean; baina banderak erretzen hasteko ere herri banderazalegia zen Orio. Honako erabakia hartu zuen udalbatzak 1939ko apirilaren 25ean: *“El Ayuntamiento acuerda que siendo necesario el arreglo de algunas banderas de las ganadas por los remeros de esta localidad, asimismo se haga el cambio de la tela de otras dos que tienen*

color morado y que hay que colorear de encarnado. Abrir una suscripción popular para cubrir los gastos de dichos arreglos”.

Beste horrenbeste egin zuten, gerra aurreko urteetan arraunlariek irabazitako ikurrinekin ere: Inazio Sarasuak, buruz buruko batel estropadetan (bitan), eta Santi Ataunek bateletan patroi (behin) irabazitakoekin; txuri, berde eta gorrien gainetik, zinta txuriak erantsi zituzten, euskal ikurrina mozorrotzeko.

Jose Mari Solaberrieta gudari presoa Madriletik Euskal Herrira

Jose Mari Solaberrieta *Linok* eusko gudariekin egin zuen gerra. Gerra laburra izan zen haiena. 1936ko urrian, Eusko Jaurilaritza eratu berria Eusko Gudarostea antolatzen hasi zen Azpeitiko Loiolan; eta 1937ko abuztuaren 24an sinatu zuten armada haren buruek Santoñako Paktua armada italiarrarekin. Handik aurrera, eusko gudariak preso hartu zituzten, batean eta bestean. Jose Mari Solaberrieta Santanderren hartu zuten atxilo eta preso zeukaten Madrilen, Valdemoroko kartzelan.

Gerra bukatu zen urtean, 1939an, jokatu zuten Erramon Solaberrieta *Lino* eta Inazio Manterola *Txokolatek* beren arraunlari-ibilbideko azken estropada. Erramonentzat berezia izan zen estropada hura, neurri batean dramatikoa ere bai. Apirilaren 10ean, gerra bukatu berritan eta garaileek antolatuta, estropada bat jokatu zen Donostian. Bilbo aldeko militarrek ere traineru-lehia antolatu nahi zuten, gerra-garaipena ospatzeko. Militar antolatzaileek gonbidapena zabaldu zuten arraunlari-herrietara, besteak beste, Oriora, Udalaren bidez. Orion baina, gerra bukatu berritan, ez zegoen umorerik eta gogorik koadrila osatu, entrenatzen hasi eta Bilboko estropadara joateko. Ezetz esan zuten. Baina, orduan, Erramon *Linok* ideia bat izan zuen, Madrilen preso zegoen bere anaia Jose Mari gogoan.

Erramon Bilbora joan zen, Marinako komandante eta estropada haren antolatzailearekin hitz egitera, eta tratua proposatu zion: berak koadrila osatuko zuen Orion, Bilbon arraun egitera joateko. Beste inork nahi ezean, bera joango zen patroi traineruan. Horren trukean, komandanteak lortu behar zuen Erramonen anaia Jose Mari Madriletik Euskal Herriko kartzela batera ekartzea. Militarrak onartu egin zuen tratua. Huraxe izan zen Erramonek bere bizitza osoan patroi jokatu zuen estropada bakarra. Ekainean Bilbotik bi sari ekarri zituen: estropadan irabazitako bandera, eta bere anaia hemengo kartzela batera ekarriko zutelako agindua. Militarrak agindutakoa bete egin zen handik aste gutxitara: Jose Mari Zornotzako kartzelara ekarri zuten. Jokaldia borobil-borobila atera zitzaion Erramon *Linori*.

Jose Mari Solaberrieta Zornotzako kartzelan egon zen garaian, bere herriko eta bere adineko gazte bat izan zuen zaindari, Antonio Martikorena. Biak bando desberdinekoak izanda ere, herritik ezagun zirenak han lagun egin ziren. Zaintzaile zegoen Antoniok jatekoak pasatzen zizkion preso zegoen Jose Mariri.

Jose Mari Solaberrieta Lino.



Conde Ciano eta Franco Oriotik barrena

Orioko Udalak 1939ko ekainaren 27an erabaki zuen udal zinegotzi eta gainerakoek ere behar bezala uniformizatuta jantzi behar zutela, delegatu falangistak horrela proposatuta: *“En el capítulo de ruegos y preguntas fue leído escrito que envía el Delegado Local de FET de las J.O.N.S. de Orio sobre el uniforme de los componentes del ayuntamiento en todos los actos oficiales y funciones anejas a sus cargos debiendo ir con el uniforme de boina engalanada y camisa azul”*.


1939ko uztailearen 12an pertsonaje ilustre baten bisita izan zuten orduko oriotarrek, Conde Ciano, Italiako Duce Benito Mussoliniren koinatuarena. Ez zen herrian geratu,

pasatu besterik ez zen egin; Zarautza zihoan, hango Narros jauregira, Serrano Suñer Espainiako Gobernazio ministroarekin batera. Zarautzen ospakizun bat egin zuten, gogora ekartzeko Isabel II.a erreginak palazio hartan aitortu zuela, 1865ean, Italia estatu sortu berriaren estatus berria. Orioko Udalak ere bisitariari erakutsi nahi izan zion *‘herria haiekin zegoela’* eta, horretarako, kamio inguru dena banderaz eta ikur faxistez jantzi zuten. Honako hauxe zioen uztailearen 15eko bilkuraren aktak: *“En el capítulo de ruegos y preguntas el Sr. Alcalde da las gracias a toda la Corporación por la ayuda prestada personalmente por los trabajos efectuados en la instalación de banderas y estandartes varios con motivo del paso por esta localidad de Excelentísimo Sr. Conde Ciano, Ministro de Asuntos Exteriores de la Gran Italia Amiga. Tarea por todos los señores concejales que componen el ayuntamiento y empleados del mismo manifestando los señores*

Larrañaga y Lino que agradecían la delicadeza del señor alcalde”.

Conde Ciano 1939ko uztailean bezala, handik urte gutxitara, Franco ere pasatu zen Oriotik automobilean, behin baino gehiagotan. Uztaileko azken egunean, 31n, San Inazio egunean, Azpeitiko Loiolatik Donostiarako bueltan pasatzen zen Oriotik. Italiarrarekin prestakizun handiak antolatu bazituen Udalak, Francorenean handiagoak prestatuko zituen noski.

Herriko musika-bandako kidea zen 1944an Remigio Lertxundi, orduan 14 urteko gazte-txoa. Bandako zuzendari Felipe Arostegik esan zien bandako kideei Udalaren agindua jaso zuela San Inazio egunean zubi aldameneari jarri eta Francoren pasaeran Espainiako himnoa jotzeko. Era berean, esan zien egoera ez zela txantxetako eta nahitaez joan beharra zegoela. San Inazio egunean han izan zen Remigio. Haren gogoan dago jende asko izan zela egun hartan Orion, errepidearen ertzean, Francori bibaka eta txaloka. Bandak Espainiako himnoa jo zion Francori. Remigiok dioenez, berak jotako notarik ez zuen entzun bakarria ere Francok. Ezinezkoa zen, ez zuen-eta jo. Lehenengo eta azken aldiz joan zen gazte hura errepidera Francoren komitiba agurtzera.



Francisco Franco eta Italiatik Mussolinik bidalita bisitan etorritako Conde Ciano, Donostian.

Argazkia: Guregipuzkoa.net. Fondo Marín. Pascual Marín



Erretzabal baserriko kontuak

Patxi Etxeberria bertsolaria *Erretzabal* moduan ezagutzen dugu Orio aldean. Jaiotetxeak ematen dio Patxiri ezizena, *Erretzabal* baserriak. ‘Patxi Etxebarriaren biografia’ liburua plazaratu zuen Xabier Lasak 2010ean. Handik hartua eta egokitu da gerrari buruzko pasarte hau:

“Inaxio anai zaharrena gerrara eraman zuten; Michelinen gaztetatik hasia zen eta bera zen etxera sos batzuk ekartzeko kapaz zen bakarra. Lehen pobreak baginen, aberasteko xix-tima ederra izan zen hori!

1921eko kintakoak hartu eta Burgosera eraman zituzten, 18 urte bete eta hurrengo egu-nean. Instrukzio laburra eginarazi eta lubakietara bidali zituzten. Haren arrastorik ez genuela egon ginen bolada luze batean. Hiru urte beteta azaldu zen mutila etxean. Teruelen-eta, makina bat gorpuren gainean ibilarazi zutela esaten zigun. Egonaldi murri-tza egin eta berriro soldaduskara eraman zuten, eta denera sei-zazpi urte egin zituen.

Gerra ni sei urte betetzeko nengoela sortu zen. Umea nintzen baina gauza asko gogoan dauzkatz; kalean baserrian baino gauza gehiago jakiten dira, baina nik ikusiak edo guraso-ei entzunak dira.

Aurreneko egunetan, bazkal aurretik izango zen, San Martin ermitatik ibai aldera bada mendixka bat Garmendi deitzen zaiona. Bada, handik ekialdera, mila bat metrora gure baserria dago. Han gorrien ejertzittoa zegoen kokatua, tropa frankistak kostaldera zeraman ibilera gerarazteko jarrita. Handik tira zituzten bonbetatik bat gure etxetik oso gertu pasa zen; ez dut esango bi metrora, baina bost baino gertuago baietz egingo nuke. Hura zen irrintzia eraman zuena! Hogei bat metrora zegoen gereziondoaren adar koskorrak moztuaz joan zen eta handik berrehun metrora mendi muino batean hantxe sartu zen, zulo ederra eginez. Eskapada latza izan genuen; ondo atera ginen, eta oraindik hementxe gabiltza kontatzeko moduan.

Gure bizilagun Juan Joxe Mujikak, gizon bakeoso eta inorekin ezertarako ere sartzen ez zenak, trantze larria pasa zuen egun haietan. Bi anaiek eskopeta bana zuten hamaseiko katudunak, garai hartarako nahiko onak. Juan Joxe honi zer bururatuko eta, eskopetarekin bueltatxo bat ematea. Baita ikusi ere norbaitek, laster batean Garmendin zeuden hiru soldadu errepublikanok han eraman zuten bere eskopeta eta guzti. Ahaztu ziren eskopetak hartzeko gogoak, baina zoria izan eta agintarietakoren bat laguna tokatu! Haretzek salbatu zuen gizona. Hala, behintzat, etorri zen etxera eta denok pozik.

Gizon hura han suertatu zitzaiolako, gainerantzean ez zen etxera gehiago etorriko. Eta horrela beste asko, huskeriarekin baina parean suertatzen zenak hantxe zeukan amaiera eta kito.

Bestela, enfrentamendu militarrek eta ez ditut hola gogoan. Hori bai, fusilatuak eta izan ziren, Orio gainean uste dut. Herritarren arteko elkarbizitza gaiztotu egin zuen gerrak. Bizilagunen arteko inbidia eta gorrotoa bideratu zituen”.



Patxi Etxeberria, soldadu, Burgosko koartel militarrean, 1951n.



**Gerra
ondorenekoak**

Frantziako Pirinioetan dagoen Gurs herriko kontzentrazio-eremua.



Eremu horren kanpo aldean jarritako kartela, han egondako 800 euskal errefuxiatuak gogoan.

Frantziako Gurs-eko kontzentrazio-eremuan 8 oriotar preso

1 939ko apirilaren 1ean Francok gerra bukatutzat eman aurreko azken hilabeteak abentura izugarria izan ziren Katalunia aldean zebiltzan miliziano eta gudariantzat. Errepublikaren aldeko tropek Ebroko bataila galdu ondoren, soldaduak eta herritarrak ihesaldi kaotiko batean murgildu ziren, batzuk Pirinioetan barrena besteak kostaldetik. Frantziara berrehun mila inguru iritsi ziren, haien artean milaka euskaldun, tartean oriotar batzuk. Frantziara joandako iheslarien artean, Manuel Azaña (Espainiako Errepublikako presidentea), Lluís Companys (Kataluniako Generalitateko presidentea) eta Jose Antonio Agirre (Eusko Jaurlaritzako lehendakaria) iritsi ziren, 1939ko otsailaren 6an.

Frantziako gobernuak ez zuen erantzun egoerak eskatzen zuen moduan. Lehenengo, traba handiak jarri zituzten iheslari askori. Gero, Mediterraneo aldeko hondartza batzuetan pilatu zituzten denak, iheslari-erri barrakoi batzuk jasoarazi eta bertan jarri zituzten bizitzen, oso bizi-baldintza eskasetan. Kontzentrazio-eremu haietan: Argèles, Saint Cyprien, Barcarès... jende asko hil zen, hotzak, goseak eta gaitzek jota.

Euskaldunak hantxe egon ziren gainerako iheslari guztiekin batera; baina, hilabete batzuk pasatuta, Frantziako gobernuak beste kontzentrazio-eremu bat eraiki zuen, propio errefuxiatu euskaldunentzat. Euskal Herritik gertu kokatu zuen: Bearnoko lurretan, Zuberoatik lau kilometrorra, Pirinioen ondoan, Gurs izeneko herri txikitik urre. Euskaldunek, hasieran, gustura hartu zuten Gursera joateko agindua: *“Aberrirantz hurbilduko gara”*.

Gurseko eremua 1939ko apirilean zabaldu zuten. Bertan lau mila inguru euskaldun pilatu ziren. Hango berri zehatza ematen du Josu Chuecaren *‘Gurs, el campo vasco’* liburuak. Chuecak berak hala dio: *“Dachau, Mauthausen, Auschwitz... son nombres que resuenan en la memoria de la infamia humana. La historia, la literatura, la filmografía y documentalística nos recuerdan esos trágicos espacios de concentración y exterminio ideados por los nazis. Uno de esos eslabones se situó en la bearnesa Gurs, fronterizo con Zuberoa. Ese lugar fue el escenario del confinamiento de miles de vascos, definitivamente derrotados en el invierno de 1939”*.

Liburuan zerrenda luze bat agertzen da, han egondako euskaldunak jasotzen dituenak. Haien artean sei oriotar agertzen dira: Julio Baorza Uldargi (CNT), Luis Genova Treku (Izquierda Republicana), Ignazio Iñarra Orbegozo (JSU), Antonio Larrañaga Sancho (UGT), Jose Manuel Murgiondo Arana (STV), Jose Maria San Sebastian Eizagirre (UGT) eta Roke Uranga Garate (PSOE/UGT). Angel Lekuona Beitia izeneko bat ere agertzen da zerrendan, Angel Lekuona Erreka oriotarra izan litekeena, bigarren abizeneko okerra, gorabehera.

1939ko udan Frantziako administrazioa saiatu zen eremu hura husten. Horretarako, Francoren gobernuaren presioa zuten alde batetik, Lekerika enbaxadore espainiarrak gauzatzen zuena eta, bestetik, Jean Ybarnegaray diputatu eskuindarraren euskal nazionalisten

kontrako lana. Euskaldunak konbentzitu nahi izan zituzten muga pasatu eta etxera itzultzeko. Askok hala egin zuten; beste batzuk Ameriketarako bidea hartu zuten, edo Frantziako beste toki batzuetara jo zuten.

Oriotarrei dagokienez, badakigu **Inazio Iñarrak** eta **Luis Genovak** muga pasatu zutela. Iñarrak zenbait presondegi ezagutu zituen Espainian, askatasuna lortu aurretik; Miranda de Ebron, Madrilen eta Ceutan ere eduki zuten preso. Inazioaren arreba Mariak gogoan du Orion estaziora joan zirela trenean preso zeramaten anaiari arropa eramatera, trenak Orion egingo zuen geldialdian. Genova etxera etorri zen, Oriora. Luis Genova eta **Roke Uranga**, zahartutakoan ere adiskide ziren. Roke bisitan joaten zen noiznahi Luisen etxera. Horrelaxe gogoratzen du Luisen biloba Rosa Mari Agirrek. Beharbada, Gursen adiskidetuko ziren.

Antonio Larrañagaren kasua oso bitxia da: zortzi urte igaro ziren soldaduskara joateko etxetik atera zenetik berriro etxeratu zen arte. 1934an soldadu joan zen, Errepublikaren garaian; 1936an gerra hasi zenean soldadu zegoen kuartelean eta, jakina, gerrako frontera joatea egokitu zitzaion. Familiarrek ez dakite zehazki nondik nora ibili zen, baina haren biloba Oskar Larrañagak badaki bere aitona Ebroko bataila odoltsuan ibili zela eta, han zela, besoetan hil zitzaiola han zuen lagunik onenetako bat. Ebroko bataila galduta, Kataluniako defentsan ibili zen eta, 1939ko udaberriaren hasieran, Frantzia aldera pasatu zen beste milaka soldadu eta herritarrekin batera. Gurseko eremuan eduki zuten, 1939ko udan alemanak Frantzian sartu eta hango euskaldunak handik atera zituzten arte. Haietako asko mugaren hegoaldean jarri zituzten. Larrañaga atxilotu eta Cadizera eraman zuten. Han, presoak lanera behartzen zituzten batean eta bestean. Antonio 1942 arte eduki zuten han. Orduan askatu eta etxeratu zen. Haren andregaiak, Silvestra Sarriak, itxoin egin zion; 1934an aldentutako bi gazteak 1942an elkartu ziren berriz. Hurrengo urtean jaio zen haien seme Fernando.

Jose Maria San Sebastian, berriz, Frantzian geratu zen betiko, Alemaniatik gertu dagoen Couchou hirian jarri zen bizitzen emaztearekin. Orioko Goiko Kanean jaioa zen haien alaba zaharrenaz gain, beste bi neska jaio ziren Frantziako hiri hartan. Ia 30 urte pasatu eta gero, lortu zuen uda garaian Oriora bisitan etortzea.

Jose Manuel Murgiondo arrantzalea zen, Pasaiako arrantzontzi batean zebilen. Gerra hasi zenean itsasoan ziren, lehorreratuta, Murgiondo Donibane Lohitzunera joan zen, ordurako hara joana zen andrearen bila. Biak elkartuta, handik Bartzelona aldera jo zuten, han jaio zitzairen alaba zaharrena. Bartzelonatik ihesi, Frantziako muga zeharkatu eta Gurseko eremura eraman zuten Jose Manuel. Gerra bukatuta, handik atera eta, muga zeharkatuta, atxilotu eta Zaragozako Longares herrira eraman zuten; han, hainbat urtez errepideak egiteko lanetan erabili zuten, zigor-batailo batean, 1940ko urriaren 28an askatu zuten arte. Zigorretik libratuta, itsasoan ibili zen berriro, Ternua aldean. Horraino aitortu digu Donostian bizi den haren alaba Maria Pilarrek.

Angel Lekuona Errekaz dakiguna da Gernikan zela 1937ko apirilaren 26an, abioi alemanek herri forala bonbardatu zutenean. Saseta batailoian ibili zen Angel gerran, gudari. Bonbardaketaren egunean, gudariak jendea etxetik atera eta mendira eramaten ibili ziren, herritarrak arriskutik ateratzen. Emakume bat tematu egin zen bere etxean, beldurrak jota,

Inazio Iñarra Orbeago



Jose Manuel Murgiondo Arana





Anjel Lekuona Erreka

Oriok itsasoa eta baratzak biak dauzka, herrian bertan, eta horri esker herriko familiek izan zuten ahora zer eramana gerra ostean ere, beste herri askotan ez bezala.



bera ez zihoala inora etxetik; bertan geratu zen bere bi umeekin. Angel, beste batzuekin mendira joanda, gero etxe hartara itzuli zen, familia hura handik ateratzen berriro saiatzera. Etxe hartara iritsi zenean, ikusi zuena ez zitzaion ahaztu bizi izan zen denbora guztian: ez zegoen etxerik, bonbek botatako harri eta egur pila handi bat besterik ez, haien azpian familia hura zeukana, zapalduta. Horrelaxe gogoratzen ditu egun hartakoak Angelen seme Juan Anjel Lekuonak, txikitan aitari askotan entzunda. Lekuona atxilo hartu eta Bilbo eta Logroñoako kartzeletan eduki zuten preso hiru urtez. Logroñoakoan zela, beste bandoko soldadu baten bisita izan zuen kartzelan, Domingo Lertxundi `Andu`rena, beste bandokoa bai baina bere jaioterriko ezaguna ere bazen oriotarrarena.

Gurseko eremua ez zuten itxi, nahiz eta 1939ko udan euskaldun gehienak handik atera. Handik gutxira, alemanen inbasioa gertatu zen, Frantzia sektore handi batek alemanen alde egin zuen eta Vichyko gobernu kolaborazionista eratu zuten. Handik aurrera, Gurseko eremua judutarrak-eta atxilotzeko baliatu zuten. Gero, 1942. urtean handik alemanek jendea milaka eta milaka akabatzeke eraikitako eremuetara eramaten hasi ziren: Dachau, Auschwitz...

Gerra ondoko gosea

Gerrako urteak ez ziren onak izan herritarrentzat, baina gerra ondorenekoak ez ziren askoz hobeak izan, gosea izan zuten leku guztietan. Gerra 1939an bukatu eta hilabete gutxitara hasi zen bigarren mundu gerra. Espainiak ez zuen gerra hartan parte zuzenik izan, baina eragina izan zuen, izan zuenez. Europa ia osoa gerra anker izugarrian murgilduta, Espainiako ekonomiak ez zuen erraz izan bere onera bueltatzea. Leku askotan gose handia pasatu zuten herritarrek. Orio ez zen izango noski goserik handiena pasatutako herria, baina premia galanta pasatutakoak ere batzuk izan ziren, herriko familia behartsuenen artean.

Antxon Agirre Sorondoren `Orio oro hori` liburutik hartutako pasarte da honako hau:

“Garai hartako lekukoek esan digutenez, gerrak iraun zuen bitartean izan zuten zer jan, ez zen apenas eskasiarik izan, baina gatazka bukatu zenean hasi zen errazionamendua. Horretarako, familia bakoitzak kartila bat zuen, eta bertan zehazten zen zer erostea zeukaten eta zenbat (ogia, azukrea, txitxirioak, patatak...). Denda bakoitzari kartila kopuru jakin bat ezartzen zitzaion; horrela, bezeroen beharrak asetzeko justu hornitzen zituzten dendak.

Orion ez zen benetako goserik pasa, herria txikia zelako eta baratzez inguratuta zegoelako eta itsasotik ere beti zerbait ekartzen zutelako. Baina jaki batzuen falta handia izan zen: besteak beste, ez zegoen ogirik, oliorik, azukrerik... Merkatu beltza bazen produktu horiek eskuratzeko (estraperlo ospe-tsua), eta oriotarrak batzuetan Zarautza joaten ziren gai horiek eskuratzera, han baitzeuden jenero horien saltzaileak, nahiz eta ikaragarri garesti saldu.

Estutasunak pixkanaka-pixkanaka gutxitzen hasi ziren 1945ean II. Mundu Gerra bukatu zenean”.

Patxi Etxeberria Erretzabalek ere testigantza ederra ematen du gerra ondoreneko urteetan batzuek ezagutu zuten gosearena:

“Gosea ezagutuko ez genuen ba! Horrenbesteko ume, aitona, amona... Mahaikada galanta jartzen ginen bazkaltzeko garaian...

Ni krisi garaian jaio nintzen. Krisia bete-betean zegoela, 36ko gerra hura altxa zen gainetik. Opari ederra lehenago lur jota baldin bageunden burua altxatzeko. Hemezortzi urtetik gorako gazteak eraman zituzten. Ez zuten begiratzen non zer familia zegoen premiatuta. Baserrian gaizki eta kalean gaizkiago, etxe bakoitzean familia galanta mantentzeko eta ogirik ez, ez oliorik, ez azukrerik... Babarrun pixka bat baldin bazen, herriko etxera entregatzeko obligazioa zenuen. Kontuz-kontuz txerri koxkor bat hazi eta hiltzen bazenuen, gaitzerdi! Dena zen horrelaxe, etxean ereindako gauza ere jateko eskubiderik ez edukitzea, bada bizitzeko miseria! Ondo ezagutu genuen arrazionamendu garaia: `zuk horrenbeste entregatu behar duzu udaletxean´. Ez zutenek ahal zen tokitik ahal zena erosi behar izaten zuten, gero entregatzeko.

Patata, garia edo artoa zutenak errazago manejatzen ziren. Baina garia edo artoa baze-neukan ere, errotak denak prezintatu egin zituzten. Horrelaxe sortu zen kontrabando klase hori. Donostiatik atera eta Aian gora abiatzen ziren esnezaleekin joaten nintzen; ezagutzen gintuzten eta kamioian eramaten gintuzten goizeko 05:00etan, gu kamiora aterata. Zaku koxkor bat hartua-edo, harekin joaten ginen. `Etorri zaitetz hurrengo egunean´ esaten ziguten errotagileek, Errekondokoak edo Illarramendi baino beheago zegoenak. Ni askotan ibili nintzen horrela, 9 urteko mukitsua izaki, eta ni bezala ugari. Harrapatu ezker, kome-riak guardia zibilekin... Baina gosea dagoenean ez dago errespetatuko den legerik”.

Herritarren kontrako epaiaketak Iruñean

Gerra bukatu eta handik gutxira herritarren kontrako epaiaketak abiatu zituzten agintari berriek, frankistek. Errepublikaren garaian, eta gerra hasi eta nazionalak sartu ziren arteko denboran, herritarrek izandako ardura edo ustezko jokae-rra politikoagatik abiatu zituzten epaiaketak, milaka herritarren kontra.

‘Tribunal Regional de responsabilidades políticas de Navarra’ zuen izena epaiaketen ardura hartu zuen erakundeak. Tribunal hark hainbat oriotar epaitu zituen Iruñean 1940. eta 1941. urteetan. Ondoko epaile hauek agertzen dira sententzien sinatzaile: Eladio Carnicero Herrero, Leocadio Tamara Garcia, Joaquin Otxoa de Olza Arrieta eta Felipe Zalba Modet. Sententzien agiriak, gaur egun, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian daude.



Gerra ondoreneko ohiko irudia: jendea ilaran jarrita, zain, jateko zerbait eskuratzeko.



“Cartilla de racionamiento” bat.

Illarramendi Manterola anai-arrebak. Goitik behera: Ignacia, Jose Mari eta Maria.



Artxibo horretatik ateratako dokumentuen arabera, ondoko oriotar hauen kontrako epai-ketak izan ziren:

- Maria, Ignacia eta Jose Maria Illarramendi Manterola
- Eugenio Lasa Etxebarrena eta Jesusa Aiestaran Aiestaran
- Agustin Rekondo Irazu
- Joakin Aldabe Juanikotena
- Juan Jose Iturain Peña
- Enrique Enbil Gorriti
- Modesto Ezkurdia Aiestaran eta Jaime Enbil Gorriti
- Martin Oliden Lertxundi
- Valentin Ikazeta Lertxundi eta Jose Esnal Errasti
- Cristino Arin Enbil eta Maria Salsamendi Errasti
- Juan Erzilla Lopez eta Ignacio Manterola Lizaso
- Narciso Aierdi Beobide eta Domingo Arruabarrena Arruabarrena
- Ulpiano Peña Sedano
- Marcelino Manzisidor Solaberrieta eta Gregorio Zaldua Albizu
- Miguel Salsamendi Illarramendi eta Segunda Ezkurdia Aiestaran
- Jose Perez Lopez eta Ramon Loidi Zendoia

Sententzien arabera errugabetzat jo zituzten honako hauek: Maria, Ignacia eta Jose Maria Illarramendi, Valentin Ikazeta, Cristino Arin eta Maria Salsamendi. Gainerako guztiek nolabaiteko zigorra jaso zuten. Ia denen kasuan, delitua zen elkarte politiko baten kide izatea; gehienen kasuan EAJko edo Batzokiko bazkide izatea, beste batzuk STVkoak (Solidaridad de Trabajadores Vascos), UGT edo CEDAkoak. Edo, besterik gabe, 1936ko irailean Euskal Herriko Iparraldera ihesian joan izana. Batzuen kasuan, Orioko Udalean ardura politiko edo laborala izatea ere bai: alkate, zinegotzi edo sekretario izatea. Horiek ziren delituak. Zigorrak, berriz, ia denen kasuan isunak izan ziren, 50 eta 10.000 pezeta artekoak: “*Condenamos como responsable político a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de x pesetas*”. Juan Jose Iturainek, isunaz gain, bestelako zigorra ere jaso zuen: 10 urteko erbesteratze-agindua.

Gerraren zirkunstantziei buruzko informazio interesgarria ematen dutenez, sententzia haietako pasarte batzuk azalduko ditugu:

Maria, Ignacia y Jose Maria Illarramendi Manterola. “*Afiliados al Partido Nacionalista Vasco. Jose Maria hizo guardias desarmado y firmó algún vale. Evacuado Orio por los rojos el 16 de septiembre, fue protegido el pueblo por Jose Maria y Alberto Illarramendi Manterola en unión de otros dos compañeros, hasta el 20. Durante los cuatro días Ignacia y Maria aprovisionaron a los defensores de los víveres necesarios para la continuación de la defensa, que se realizaba con fusiles y munición abandonados por los rojos en su huida. Posteriormente las hermanas han confeccionado ropas para el Ejército obteniendo la medalla de Damas al servicio de España. Absolución*”.

Eugenio Lasa Echevarrena (farmacéutico) y Jesusa Ayestaran Ayestaran. “*Eugenio Lasa, afiliado a una entidad fundada por los nacionalistas vascos. Jesusa, a la organiza-*

SENTENCIA *nr 1904*

En la Ciudad de Pamplona a diez y nueve de Julio de mil novecientos cuarenta y uno.-

Señores: Vistor por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas el expediente número 1.841, seguido contra JUAN JOSE ITURAIN PEÑA, mayor de edad, casado, carnicero y vecino de Orio; siendo Ponente el Magistrado Don Leocadio Támara García.-

RESULTANDO: Que el inculcado JUAN JOSE ITURAIN PEÑA, de ideología izquierdista y de mala conducta y antecedentes político-sociales, al iniciarse el Glorioso Movimiento Nacional desempeñaba el cargo de Concejales del Ayuntamiento de Orio, actuando como tal durante el dominio rojo-separatista acordando con otros Concejales conceder 2.000 pesetas de subvención al Comité de Abastos del Frente Popular; actuó con armas como miliciano con categoría de dirigente, interviniendo en el asalto del Hotel María Cristina de San Sebastián y denunció a personas de derechas de Orio; a la proximidad de las Tropas Nacionales huyó al interior de zona roja y después a Francia donde se halla en la actualidad sin haber justificado las causas que le impidan el regreso a España. Hechos probados y graves.-


RESULTANDO: Que es casado y tiene dos hijos mayores de edad y que sus bienes consisten en dos créditos hipotecarios que ascienden a 35.000 pesetas aproximadamente.-

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculcado JUAN JOSE ITURAIN PEÑA, como responsable político a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de DIEZ MIL PESETAS. Asimismo le imponemos la sanción de extrañamiento por tiempo de DIEZ AÑOS. Notifíquese esta sentencia por medio de Edictos en los Boletines del Estado y la Provincia de Guipúzcoa y una vez firme, cumplase lo dispuesto en la Ley para su ejecución.-

Así por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.-

Eladio Carnicero
Joaquín Ochoa de Olza

Leocadio Támara García



Juan Jose eta Juanito Iturain aita-
semeak, gerra hasi aurreko pilota
partidu baten ostean.

Gerra hasita, Juan Jose aitak ospa
egin behar izan zuen Iparraldera.
Epaiketan hamar urteko atzerrial-
diarekin zigortu zuten. Donibane
Lohitzunen geratu zen bere denbo-
ra guztirako.

ción Emakumes de carácter nacionalista vasco. Durante el dominio rojo-separatista en Orio, Jesusa Ayestaran colaboró haciendo camisas para las milicias vascas denominados gudaris. Próxima la liberación de la localidad por las tropas nacionales se refugiaron en un caserío hasta la llegada de las mismas y ofreciéndose a las Autoridades incondicionalmente. Donaron 5.000 pesetas para la suscripción nacional y el marido se encuentra suscrita a la Ficha Azul. Multa de 500 pesetas a Lasa, y de 1.000 pesetas a Ayestaran”.

Agustin Recondo Irazu. “Afiliado al PNV, siendo persona destacada de dicha organización política. Colaboró activamente con la subversión formando parte del comité local y firmó numerosos vales de Abastos y requisa. A la proximidad de las tropas nacionales huyó al interior de la zona roja, y posteriormente a Francia sin que haya regresado en la actualidad y sin justificar su prolongada ausencia. Un hijo del inculcado murió en el frente al servicio de la causa Nacional. Hechos probados y graves. Multa de 750 pesetas”.

Joaquin Aldave Juanicotena, comerciante. “Afiliado al Batzoki. Durante el dominio rojo-separatista nada consta en contra del inculcado. Liberada la localidad por las tropas nacionales fue destituido por el Ayuntamiento por el cargo que desempeñaba como

Administrador Municipal por sus antecedentes nacionalistas. Es de buena conducta y en la actualidad pertenece a F.E.T. y de las J.O.N.S. desempeñando el cargo de Secretario de la Delegación Sindical Local. Hechos probados y leves.

Posee tienda de ultramarinos, y goza en su empleo en el Pósito de Pescadores de Orio de un sueldo anual de 1.800 pesetas. Multa de 300 pesetas”.

Enrique Embil Gorriti, ebanista. *“Afiliado al Batzoki, a la cual pertenecía de antiguo pues fue uno de sus fundadores. Durante la dominación rojo-separatista nada consta en su contra, huyendo a Francia el día 12 de septiembre regresando al poco tiempo, 5 días después de la liberación de Orio. Durante su residencia en el extranjero prestó eminentes servicios a la causa Nacional influyendo con sus exhortaciones en el ánimo de los patronos de los vapores de pesca refugiados en San Juan de Luz para que regresasen a territorio Nacional, obteniendo pleno éxito sus gestiones pues regresaron once vapores. Posteriormente ha colaborado con la causa nacional prestando servicios de guardias y dando un partido benéfico de pelota en favor de los frentes, donando 2.000 pts. a la suscripción nacional. No pertenece a F.E.T. de las J.O.N.S. Hechos probados y leves.*

El inculcado es casado y tiene tres hijos de 7, 9 y 11 años y sus bienes y los de su esposa alcanzan la suma de 140.000 pesetas. Multa: 1.500 pesetas”.

Modesto Ezcurdia Ayestaran y Jaime Embil Gorriti. *“Ezcurdia, afiliado al PNV. Jaime prestó servicios de vigilancia sin armas en el Ayuntamiento. No existiendo ningún otro cargo contra los inculcados. Jaime Embil pertenece a F.E.T. de las J.O.N.S. Hechos probados y leves. Multa: 100 pesetas a cada uno”.*

Martin Oleden Lerchundi, ebanista. *“El inculcado se hallaba el 18 de julio de 1936 afiliado a la U.G.T. y a la Solidaridad de Obreros Vascos. Durante la subversión rojo-separatista fue vocal del Comité de Abastos. Huye a Francia el 13 de septiembre de 1936 donde permanece hasta octubre de 1939. Hechos probados y graves. Gana jornal de 12 pesetas diarias. Multa: 100 pesetas”.*

Valentin Icaceta Lerchundi y Jose Esnal Errasti. *“Icaceta no consta se hallase afiliado a ningún partido político no obstante su simpatía por el nacionalismo vasco. Huyó a Francia en septiembre de 1936 pero regresó a Orio doce días después. Hechos probados.*

Jose Esnal en Consejo de Guerra de El Ferrol del Caudillo del día 7 de febrero de 1941, fue condenado por delito de adhesión a la rebelión a la pena de seis años y un día de prisión menor. Hechos probados y menos graves. Absolución a Icaceta y multa de 200 pesetas a Jose Esnal”.

Cristino Arin Embil y Maria Salsamendi Errasti. *“De ideología nacionalista vasca, en 18 de julio de 1936 no consta se hallasen afiliados a ningún partido político, ni que durante el dominio rojo-separatista hubieran actuado contra el Glorioso Movimiento Nacional. Hechos probados. Absolución”.*

Juan Ercilla Lopez y Ignacio Manterola Lizaso, industrial y pescador. *“Juan Ercilla de buena conducta y antecedentes en 18 de julio de 1936, se hallaba afiliado al PNV y desem-*



Enrike Enbil



Cristino Arin

peñó el cargo de Alcalde desde la proclamación de la República en 1931, en representación de la citada organización política. Se unió a la subversión de los Ayuntamientos vascos presentando la dimisión de su cargo el 7 de septiembre de 1934, siendo repuesto en el mismo por el Frente Popular después de las elecciones de febrero de 1936, ejerciendo el cargo hasta el día 5 de mayo de 1936, en que cesó por enfermedad. Durante el dominio rojo-separatista no se le conoció intervención alguna y huyó a Francia ante el avance de las tropas nacionales. El inculpado falleció en Orio el día 24 de agosto de 1938. Hechos probados y graves. Casado, cinco hijos, el mayor de 24 años.

Ignacio Manterola desempeñaba el cargo de Concejal del Ayuntamiento de Orio y colaboró con las autoridades facciosas al continuar en su puesto oponiéndose de esta forma al alzamiento y huyendo finalmente a Francia el día 13 de septiembre de 1936, si bien regresó a Orio antes de los dos meses de su salida de España. Hechos probados y menos graves. Viudo con 5 hijos de 3-5-8-10 y 12 años, careciendo de bienes de fortuna y no teniendo otros ingresos que los de su trabajo como pescador. Multa: 5.000 pesetas a Ercilla y 100 a Manterola”.

Narciso Ayerdi Beobide y Domingo Arruabarrena Arruabarrena, labrador y ebanista. “Narciso Ayerdi. De ideología nacionalista vasca se hallaba afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos durante el dominio rojo-separatista colaboró con la subversión haciendo guardias sin armas al servicio del Frente Popular. Huyó a Francia pero regresó a los trece días. Fue detenido por las autoridades militares y a los 8 días puesto en libertad y donó a la suscripción nacional 1.000 pesetas. Hechos probados y leves.

Domingo Arruabarrena. Se hallaba afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos durante el dominio rojo-separatista perteneció al Comité de Abastos. Huyó a Francia donde permaneció desde el día 13 de septiembre de 1936 hasta el 5 de octubre de 1939. Hechos probados y graves. Multa: 300 pesetas a Narciso y 500 a Domingo”.

Ulpiano Peña Sedano, calderero. “El inculpado en Consejo de Guerra celebrado el día 17 de julio de 1938, fue condenado por delito de auxilio a la rebelión a la pena de doce años y un día de reclusión. Hechos probados y graves.

Casado y con tres hijos de 17, 15 y 13 años, carece de bienes ganando jornal eventual. Multa: 50 pesetas”.

Jose Perez Lopez, 23 años, casado, insolvente. “Delito de auxilio a la rebelión militar, el Consejo permanente de Guerra nº 2 de la plaza de Bilbao dictó sentencia con fecha 23 de febrero de 1939, condenando al inculpado como autor de un delito consumado de auxilio a la rebelión militar, a la pena de 16 años de reclusión, reservando al Estado la acción correspondiente para el resarcimiento del perjuicio. Hechos probados y graves. Multa: 500 pesetas”.

Ramon Loidi Cendoya, 61 años, casado y propietario. “Fundador y organizador en Orio del partido la C.E.D.A. desempeñaba el cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Orio al iniciarse el Movimiento Nacional que continuó con carácter accidental hasta la liberación de la localidad. Durante su actuación como alcalde autorizó un libramiento de 2.000 pts con



Ignacio Manterola 'Txokolate'



Domingo Arruabarrena



Marcelino Manzidor



Gregorio Zaldua

destino al Comité de Abastos, proponiendo y llevando al efecto la incautación del depósito de gasolina de la C.A.M.P.S.A. Su conducta religiosa y moral es buena. Esa casado y tiene tres hijos, dos de ellos de 23 y 21 años han prestado en el frente servicios a la Causa Nacional siendo uno herido en Bilbao. Hechos probados y menos graves. Multa: 8.000 pesetas”.

Marcelino Mancisidor Solaverrieta y Gregorio Zaldua Albizu, pescadores. *“Marcelino en 18 de julio de 1936 se hallaba afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos. Durante el dominio rojo-separatista colaboró con la subversión haciendo guardia armado de escopeta y el 13 de septiembre huyó a Francia regresando ocho días después, afiliándose en el Requeté auxiliar. Hechos probados y menos graves. Casado, dos hijos de tres años y 4 meses. Carece de bienes de fortuna, ganando jornal de 7,50 pesetas.*

Gregorio Zaldua, cuya afiliación política en 18 de julio de 1936 no consta, durante el dominio rojo-separatista se constituyó en propagandista de las noticias propaladas por las emisoras rojas y que el inculcado recogía con su aparato de radio comunicándolas a los elementos rojos que reunía en su casa. Huyó a Francia el 12 de septiembre de 1936, volviendo quince días después. Hechos probados y menos graves. Casado, tiene seis hijos de 22, 19, 17, 15, 14 y 12 años de edad, bienes valorados en 8.000 pesetas importando ingresos anuales. Multa: 50 pesetas a Marcelino y 200 pesetas a Gregorio”.

Miguel Salsamendi Illarramendi y Segunda Ezcurdia Ayestaran. *“Salsamendi, de buena conducta y antecedentes en 18 de julio de 1936 se hallaba afiliado al Batzoki de la localidad. Durante la subversión nada existe en su contra y huido a Francia regresó a los diez días ingresando en F.E.T. y de las J.O.N.S. e incorporándose en el Regimiento de Artillería Pesada de San Sebastián haciendo la campaña de liberación donde fue premiado con la medalla de Campaña y una Cruz Roja del Mérito Militar. Hechos probados y leves.*

Segunda Ezcurdia, en 18 de julio de 1936 se hallaba afiliada a la organización femenina del PNV. Falleció en 21 de enero de 1941. Hechos probados y leves. Multa: 50 pesetas cada uno”.

Causa General, gorrien ustezko gehiegikeriak zigortzeko

Gerra bukatu berritan Francok egin zuen aurreneko gauzetako bat izan zen prozesu bat zabaltzea Errepublikaren agintariak eta haien aldekoek (frankisten hizkeran `rojos-separatistas`) eskuindarren kontra ustez egindako delituak ikertu eta zigortzeko. Ikerketa hori herriz herri gauzatu zuten, herritarrak galdekatuz. `Causa General` izendatu zuten. Ezkertiarren, errepublika zaleen eta nazionalisten delituak eta gehiegikeriak ikertu eta zigortu zituzten. Causa General izeneko dekretuak 1940ko api-

rilaren 26ko data du, eta hura aurrera eramateko, Espainiako Justizia Ministroa izan zuen buru, Eduardo Aunos.

Jose Maria Carmona herriko mutil gazte falangistaren hilketa ere aztertu zuten Causa General haren barruan, baita Jose Maria Altzibar Gorostola Itziarko bikarioaren hilketa ere. Era berean, nazionalak sartu aurretik Orioko zenbait herritarri egindako atxiloketa eta galdeketak ere ikertu zituzten; gutxienez, hauenak: Jesus Carmona, Jose Intxauspe, Jose Maria Oramendi, Ramon Perez-Agote, Joaquin Perez, Jose Agote, Jesus Apellaniz, Negron (armadako komandantea), Lorenzo Alkorta, Agustin Ibañez eta Avelino Galdama Uriarte.

Jose Maria Carmonaren hilketa

Causa General horren barruan 1945eko azaroaren 28an Donostiako fiskalak Orioko Bake Epaileari igorritako gutun batek honako hau dio:



Ondarretako kartzela, Igeldo mendia-
diaren magalean. Argazkian, ezke-
rraldeko eraikina. Han sartu zuten
preso Jose Maria Carmona eta
handik atera eta fusilatu zuten
1936ko irailaren 6an.

CAUSA GENERAL DE ALAVA, GUIPUZCOA Y VIZCAYA

*En méritos de la Causa General de Guipuzcoa que por Delegación del Excmo. Sr. Fiscal del Tribunal Supremo me hallo instruyendo; he acordado dirigir a V. la presente a fin de que se reciba declaración a los familiares mas próximos de **Don Jose Maria Carmona Lima**, de 24 años de edad, estudiante, asesinado en la Prisión Provincial de Ondarreta en el mes de Agosto de 1936 por elementos del Frente Popular; siendo detenido en esa Villa de la cual era vecino, acerca de la forma en que fue detenido, personas que la efectuaron y personas sospechosas de participación en el crimen y paradero de las mismas.*

Que se aporte certificación de la inscripción de defunción de dicho Carmona Lima.

Abenduaren 12an Orioko sekretarioak erantzun egin zion, abenduaren 4an bake-epaile Ignacio Peña Loidik sinatutako hitz batzuk erantsita, baina gauza aipagarririk esan gabe.



Orioko kanposantua. Hantxe dago hilobiratuta Jose Maria Carmona. Irudian, erdiko panteoia da carmonatarrena.

Jose Maria Altzibar apaizaren hilketa

Eduardo Aia Goñi, abokatu fiskal eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko `Causa General`-eko sekretarioak 1943ko ekainaren 2an sinatutako agiriak, besteak beste, honako hau zioen apaizaren hilketaz:

“Certifico y doy fe: Relación de personas residentes en el término municipal de Deva que durante la dominación roja fueron muertas violentamente o desaparecieron y se cree fueron asesinadas: José María Alcibar Gorostola. Años de edad: 34. Profesión: sacerdote. Filiación política y cargos públicos que había desempeñado: carlista. Fecha de su muerte o desaparición: septiembre de 1936. Su cadáver fue encontrado en Orio, muerto por arma de fuego. Se ignora la participación en el crimen de personas sospechosas”.

Kasu honek agiri asko sortu zituen, hilketaren berri zehatza osatzen zuten bitartean. Azkenean, honela gelditu zen informazioa, Oriotik Ignacio Peña Loidi errolda zibileko arduradunak sinatutako agiriaren arabera: 1936ko abuztuaren 12ko arratsaldeko lauretan inskribatu zuten apaizaren heriotza, Daniel Esnal udal epailea eta Santiago Azurza sekretarioaren aurrean. Altzibar apaiza Orioko Botaleku aldean hil zuten tirokatuta, abuztuaren 11n, arratsaldeko seiak eta erdiak aldean, 46 urte zituela. Jose Peña eta Julian Arruabarrena lekuko moduan agertzen dira agirian. Haren gorpua Mutrikuko kanposantuan hilobiratu zuten.



Frankismo garaiko epaiketa politiko bat. PSUCeko Joan Comorerarena.

Eusebio Aldaz Garro “Xubai”k 11 urte zituen orduan eta Saikolan bizi zen. Eusebiok dioenez, berak ikusi egin zuen apaizaren hilketa: “kamioneta ireki batean etorri ziren, Botalekun geratu ziren, soldaduek apaiz bat jaitsi zuten handik, marruak aditu nituen; gero, tarrrrrrraaaaa entzun nuen, tiroak. Apaiza behean zen, alaunean, eta soldaduek goitik egin zioten tiro. Gero, kamionetan igo eta Donostia aldera segitu zuten, kantari; Itzaokoak jaitsi ziren apaizaren bila. Gero jakin nuen Itziarko apaiza zela”.

Zenbait herritarren atxiloketa eta galdeketa

Gerra hasi eta lehenengo egunetan, 1936ko uztailean, Orioko zenbait herritar atxilotuta egon ziren, altxamenduaren aldeko zirelako susmopean. Causa General horretan galdekatu egin zituzten herritar horiek, nolako tratua izan zuten jakiteko eta atxiloketa eta ustezko tratu txarren errudunak zigortzeko. Honela dio Causa General-eko fiskal instruktoreak,

1945eko azaroaren 29an sinatuta, Hernaniko epaile komarkalari igorritako gutunak:

“... he acordado dirigir a V. la presente al objeto de que se reciba declaración a los vecinos de Orio que luego se dirán, acerca de la fecha en que fueron detenidos y por quien, motivos y circunstancias que concurrieran y si fueron objeto de malos tratos de obra y palabra, y, en su caso, en que consistieron los mismos, y, si saben el actual paradero de los individuos en cuestión. Las personas a que me refiero, son: Jesus Carmona, Jose Inchauspe, Jose Maria Aramendi, Ramon Perez-Agote, Joaquin Perez, Jose Agote, Jesus Apellaniz, Sr. Negron (Comandante del Ejército), Lorenzo Alcorta, Agustin Ibañez y Avelino Galdama Uriarte”.

Banan-banan galdekatu zituzten. Haiek esandakoak agiri banatan ageri dira, beraiek sinatu eta Udaleko sekretarioak ziurtatuta. Ondoko hauxe da, laburtuta eta euskaratuta, agiriok diotena:

Lorenzo Alkorta Azpirozek, abenduaren 29an adierazitakoa jasotzen zuen agirian honako datuak ageri dira: 42 urte, ezkongabea, arrantzalea, Hoa kalean bizi dena. Gerra hasi eta 20 bat egunera ezezagun batzuek atxilotu eta udaletxera eraman zuten, eta handik Donostiara (ez zekien zer etxetara); han 15 bat minutuz eduki zuten eta ondoren askatu, ez zioten tratatu txarrik eman.

Jose Intxauspe Genovaren agiriak honela dio: 38 urte, ezkondua, delineatzailea, San Nicolas kalean bizi dena. Bi aldiz atxilotu zuten, gerra hasi eta 15 egunera eta, berriz, handik 8 egunera, ustez Donostiakoak ziren atxilotu zutenak, berarentzat ezezagunak. Orioko udaletxera eraman zuten eta 8 bat orduz izan zuten bertan; handik ihes egitea lortu zuen bigarren atxilotetan; aurretik mehatxatu egin zuten.

Ramon Perez Agoteren agiriak, honela: ezkongabea eta medikua. Ezezagun batzuek atxilotu eta kamioi batean sartu nahi zuten norabait eramateko, baina buru egiten zuenak aurre egin zien eta udaletxera eraman zuten. Han 24 bat orduz eduki zuten. Ondoren, zaintzaileak jarri zizkieten bere lana egiten zuen bitartean. Ez zuen inolako tratatu txarrik nozitu, baina gauza batzuk ostu zizkieten etxetik, 3.000 pezeta inguru balioko zutenak.

Jose Mari Aramendi Arruti: 44 urte, ezkondua, industrial. `Movimiento Nacional´a hasi eta hiruzpalau egunera Eusebio Zubillagak atxilotu zuen, hura bezala armatuta zihoazen bi karabinerorekin batera. CEDA partiduko militante izateagatik atxilotu zuten, eta 1936ko hauteskundeetan bere ideologiaren aurkariei aurre egiteagatik. Atxilotuta udaletxera eraman zuten, hango eskaileretan gora zihoala norbaitek eraso egin eta zenbait hortz puskatu zizkion. Erasoaren egilea Barjacoba delako bat zen, gaur egun hila dena. Udaletxean lau bat orduz eduki zuten. Hiru aldiz arakatu zioten etxea, eta dirua eta bitxiak kendu, 9.000 pezeta inguru balioko zutenak. Ez zekien zein ziren lapurretaren egileak.

1946ko urtarrilaren 5ean sinatutako beste agiri batean eransten zen Jesus Carmona hila zela; Joaquin Perez Valladolidera joana; Jose Agote, Donostiara; Jesus Apellaniz Zarautzen bizi zela; Negron ez zekitela non zegoen, eta ez zekitela nor ziren Valino Galdama Uriarte eta Agustin Ibañez.

Jose Intxauspe Genova



Orioko zubiaren leherketa

1945eko abenduaren 3ko beste agiri batean Orioko zubiaren leherketaren inguruko ikerketaren berri ematen da. Leherketak eragindako kalteak baloratzeko bi peritu izendatu zituzten, Lasartekoak biak: Francisco Arruti Ergoien obra-kontratista eta Ignacio Altuna Barandiaran igeltseroa. Abenduaren 26an, agiri bidez, honakoa adierazi zuten bi peritoek: *“los daños causados en el puente de esta villa sobre el río Oria, que fue destruido por los elementos del Frente Popular durante el tiempo de dominación roja en la misma, en la cantidad de sesenta y cinco mil pesetas”*.

División Azuleko mutilak bazkaltzen, Errusia aldera abiatu aurreko agurrean, Donostiako ospitale militarrean.

Guregipuzkoa.net/Fondo FotoCar/Vicente Martín



‘División Azul’-ean Errusiara

Bigarren mundu gerran Espainiak ez zuen parte hartu modu ofizialean, baina alemanek Errusiari eraso egin eta lurralde zabal hura okupatzen hasi zirenean, Espainiako dibisio oso baten laguntza izan zuten. Dibisio hura osatzeko, boluntarioak eskatu zituen Francok. Era horretan, Espainiak neutraltasunari eusten zion; baina, era berean, alemanen ‘Legion Condorrek’ Gernika bonbardatzen emandako laguntzaren zorra kitatzen zuen.

‘División Azul’ izenarekin bataiatu zuten, haien artean zihoazen falangisten alkandora urdinarengatik. Boluntario haiek komunismoaren kontrako gerrara joan ziren, Wehrmacht armada alemanaren barruan. 1941 eta 1943 bitartean ibili ziren boluntario haiek Errusiako frontean, Mosku hartzeko helburuarekin.

Hitlerrek 1941eko ekainaren 24an onartu zuen Francok egin zion laguntza-eskaintza. Erreklutak biltzeko deialdia itxi egin zuten 18.000 gizoneko dibisioa osatu zutenean. Soldadu haien artean hiru oriotar zeuden: Luis Barjacoba, Anjel Barjacoba Amaxa eta Elias Molinero. Hirurak bizirik bueltatu ziren etxera.

Agustin Muñoz Grandes jenerala izendatu zuten soldadu haiek bere agintepean hartu eta Errusia aldera bideratzeko.

1941eko abuztuaren 20an, Hitlerri atxikimendua adierazi ondoren, trenez, Poloniako Suwalkira eraman zituzten. Handik oinez abiatu ziren; lehenengo, Smolensk-era, eta gero, Leningradora. Han sekulako porrota jaso zuten soldadu errusiarren kontra, bai errusiarren defentsagatik bai hotzagatik. 1943ko urriaren 10ean División Azul hartako soldaduak erretiratzeko agindua eman zuten.

Estraperloa, Fiscalia eta herriko istorioak

Udaletxeko sarreran zegoen hornigaien biltegia, “*almacén de abastecimientos*”. Sartu eta ezker aldean ziega, kalabozoa, eta haren parean, eskuinaldean, biltegia. Han banatzen ziren orduko aguazilaren emazte Juanita Elorriagak dendariei gero dendan salduko zutena.

Haragirik ez zen ia batere izaten garai hartan. Herrian harategi bakarra zen, salsamenditarrena, udaletxearen parean, Aritzaga kalean. Baserriren batean ganadua hiltzen zutenean, berehala jakiten zuten herritarrek haren berri. Harategian okela salgai zegoen egunetan sekulako ilarak osatzen ziren kanpoaldean, goizean oso goizetik, haragi puska bat eskuratzeko. Hori zela eta, oso sistema bitxia asmatu zuten. Harategia goizeko zortzietan zabaltzen zen, ba galarazi egin zuten goizeko zazpiak baino lehenago harategiaren aurrean inor egotea. Bi muga ezarri zituzten alde banatan: Aritzaga kalean, bata, eta Kolon Txikiren parean, bestea. Bi muga artean ezin zen inor egon zazpiak arte. Arazoa neurri batean bakarrik konpondu zuten: jendea bi muga haien inguruan pilotzen hasi zen goizeko bostetatik aurrera. Horretaz ondo gogoratzeko da orduan 11-12 urte zituen Remigio Lertxundi ‘*Centellas*’. Haren ama Gregorik agintzen zion ilaran jartzeko; gero, Remigio eskolara joateko, txanda hartzen zion amak.

Kartilaren bidez eskura zitekeena ez zen nahikoa izaten bizitzeko, eta familia bakoitzak ahal zuen moduan osatu behar izaten zuen etxean jango zena. Estraperloa sortu zen, jateko gaien kontrabandoa, inguruko baserrietatik, arrantzaleek itsasotik zekartenetik...

Ogi txuria egitea ere galarazita zeukaten herriko okindegietan. Orduan bi zeuden: Antonenea (ituraindarrena) eta Leundanea. Galbahetik pasatu gabeko irinarekin egin behar izaten zuten ogia, irin beltzarekin, alferrik ezer ez galtzeko. Harekin ogi zuririk ezin zen egin, ogi beltza esaten zioten ordukoari, oraingo integrala baino ilunagoa. Ogi hura ez omen zen jateko modukoa.

Estraperloa irinarena egiten zen batez ere. Nafarroatik ekartzen zuten galirin zuria. Okinak ezkutuan ibiltzen ziren ogi zuria egiten, eta ezkutuan izaten zuten egun ondoren ere, badaezpada ere. Tarteka, Fiscalia-koak etortzen ziren herrira. Goizeko zazpietako trenean etorri ohi ziren. Baina haiek estaziotik iristerako, jakiten zuten okindegian egun hartan Fiscalia-koak etorriak zirela. Horretarako, abisu-sistema berezia zuten antolatua, tren-gel-tokitik bertatik hasten zena, eta herriko zenbait etxetan segida zuena.

Remigio Lertxundi, hamabi urteko gaztetxoa, tren horretan etortzen zen egun batzuetan. Bezperan ikastera joan eta familiar batzuen etxean lo eginda, goizeko 06:10eko trena hartzen zuen, Oriora 07:00etan iristen zena. Oraindik gogoan du nola egun batean bera zeka-

Ontzi horretan eramaten zituzten Txurrukako kanpamentura bibereak. Ogiz betetako otarrak ikusten dira ontzi barrenean. Hangoek behintzat ez zuten goserik izango.



rren trenean bi gizon ondo trajeatu etorri ziren, nola berak aurrea hartu zien herrirako bidean, nola bere ama Gregoriri haien berri eman eta nola ama Anton Enea okindegiko Isidro Iturainengana joan zen abisua ematera. Horrelakoetan, otarretan zeukaten ogi zuri egin berria hartu eta okindegi gaineko etxe bateko leihotik, Goiko Kaleko baratza batetik barrena (Migel Aizperrorena) pasatuta, Gregori Ibargoienen etxeko ganbarara iristen zen ogi hura.

Antonio Iturain Arozenak kontatuta dakigu nola behin, Fiscalia-ko inspektore batek lortu zuen okindegiraino iristea, inork abisua pasa baino lehen. Fiscalia-koa ezkutuan egon zen ate ondoan eta, herritar batek atea jo eta hari ireki ziotenean, harekin batera sartu zen, barrukoei ogia inora ateratzeko aukerarik eman gabe. Hantxe zegoen ogi guztia, otarretan. Ogiak banan-banan kontatu ondoren, inspektorea, Antonio panadero orduan gaztearekin batera, lehen solairuko biltegira igo zen, han zeuden irin-zakuak kontatzera. Hara igo aurretik Antoniok esana zion langileetako bati, Aranguren baserriko Juan Gurrutxagari, beheko ogiak denak labeko sutara botatzeko. Azken ogiak sutara botatzen ari zela jaitsi ziren biltegitik. “*¿Pero, pero, qué hace Usted?*”. Baina, ordurako, ez zegoen han ogi zuririk, ez zegoen delituaren frogarik.

Jose Joakin Lertxundi, Jose Mari Esoain, Jose Luis Aduriz eta Anton Garate, Orioko Udalak 1941ean, gerra bukatu eta bi urtera, egin zien omenaldian.

1941eko omenaldia herriko karlista zaharrei



XIX. mende bukaerako azken gerra karlistan, Juan Antonio Makazaga apaizaz gain, beste lau oriotarrek gutxienez parte hartu zuten: Jose Joakin Lertxundi, Jose Mari Esoain, Jose Luis Aduriz eta Anton Garatek. Lau gizon haiei omenaldia egin zitzaien 1941ean, 1936ko gerra bukatutakoan. Orioko Udalak egin zien, azken gerra karlistan borrokatu zirelako. Kontuan izan behar da 1936ko gerran karlistek Francoren alde borrokatu zutela eta, beraz, nolabait ere, irabazle izan zirela. Omenaldiko egun hartan, txapel gorri bana eman zitzaien lau oriotarrei, eta ohorezko teniente izendatu.

Dirudienez, Lertxundi Santa Kruz apaizarekin batera ibili zen. Hark asko estimatzen omen zuen eta, gerra bukatuta, Frantziako erbestera ere gonbidatu zuen; baina honek erantzun berak familia Orion zuela eta ez zihoala inora. Jose Mari Esoain, Kirrimarro, kalean ibiltzen zen txapela gorria jantzita. Garatek, berriz, igandero jantzen zuen, etxean; hil bezperan ere txapela jantzi eta kantari aritu zen, harro-harro.

Falangisten kanpamentua Oribazarren

Gerra ondoreneko lehenengo urteetan, uda garaian, falangistek Orioko San Juan ermitapean gaztetxoentzako kutsu militarreko kanpamentu bat jarri zuten, instrukzioa-eta erakusteko. Geroxeago, 1942an, Falangeak kanpamentu bat inauguratu zuen Oribazarreko hondartzan, 'Campamento de las o.j.e.' (*organización de jóvenes españoles*), mutil koskorrek han kutsu militarreko kanpaldiak egiteko. Eta hantxe eduki zuten, frankismoa bukatu zen arte. Oribazarreko kanpamentu hartara, batez ere Araba eta Nafarroako mutil gaztetxoak ekartzen zituzten, beren ideologian heztera.

Kanpamentu haiek 'Falanges Juveniles de Franco' erakundearen baitan sortu eta hedatu ziren, gero 'Frente de Juventudes' izatera pasatu zena. Gazteen erakundea antolatzeko eredu ideologikoa, Falangearen sortzaile Jose Antonio Primo de Riveraren ideologiaz gain, Alemaniako garai hartako erakunde bat izan zen: 'Hitlerjugend' izenekoa, nazien ideiak hango gazteei zabaltzeaz arduratzen zena.

Orioko kanpamentuaren inauguraziorako, sekulako ekitaldia antolatu zuten falangistek. Egun hartan jende asko etorri zen Orio aldera. Agintari militarrek, Orioko orduko alkate Lino Solaberrietaekin batera, uretako motor-ontzietan joan ziren herritik Oribazarreko hondartzaraino. Han kanpatuta zeuden mutilek parada militarra egin zuten. Ordurako ondo apaindu zuten kanpamentua, haien sinbolo guztiekin: gurutzea, falangisten 'el yugo y las flechas'...

Uda partean egiten zuten hango kanpaldia eta han instrukzio militarra egiten zuten. Negu aldean hutsik egoten zen. Orduko mutil koskorrek haraino joaten ziren igandeetan futboleko ibiltzera; han, herrian ez bezala, futbol zelai txiki bat baitzeukaten.

Txurrukako kanpamentuan, horrela izendatu baitzuten kanpamentua, 1944an ospakizun handia egin zuten. Monumentu bat eraiki zuten festarako, gerran eroritakoen ohorez: 'Monumento a los caídos'. Gipuzkoako Gobernadore Zibil Luis Rodríguez de Miguel eta beste agintari asko ere etorri ziren egun hartan Oriora. Herritik Oribazarrerainoko bidea San Luis txalupa motordu-nean egin zuten, Orioko alkate Lino Solaberrieta haiekin zela.

Urte batean istripu latza gertatu zen kanpamentu hartan: mareak eraman egin zituen igerian zebiltzan mutik koskor batzuk. Haien hileta-ospakizuna handikiro ospatu zuten agintariek Orioko plazan.



Falangistek kanpamentu militarra jarri zuten mutil gazteentzat Oribazarreko hondartzan 1942an. Aurretik beste bat erabili zuten, uda garaian, San Juan ermitapeko zelaian.



Xuai gaineko kanpamentu militarra

Xuai gaineko kanpamentu militarreko soldaduak Orioko plazan 'jura de bandera' eta meza ospatzen.



Franco Aiako herriko plazan, 1945eko irailaren 20an; Orioko gaineko kanpamentu militarrean izan ondoren.



Gerra bukatu berritan Donostiako kuartelak ez ziren nahikoak mobilizatuta zeuden soldadu guztiak hartzeko. Arrazoi horrengatik, zenbait leku estrategikotan behin-behineko kanpamentuak eraiki zituzten, eta haietara zenbait batailoi biderratu zituzten. 1944an 13 kanpamentu militar zeuden Gipuzkoan, gehienak egurrez eraikitako barrakoiak ziren. Horieta bat Xuai gainean kokatu zuten, Txindurrieta Behekoa baseritik gertu, Oriotik Zarautzerako bidean, behin Orioko gaina hartu eta beherantz abiatu orduko, ezker aldean. Han 122 eta 123 infanteriako batailoiak jarri zituzten. Kanpamentuak 13.000 metro karratuko hedadura zuen eta bertan 23 eraikin egon ziren.

Tiro-praktikak egitera Oribarzarreko hondartzara joaten ziren soldaduak. Han, mendiaren kontra aritzen ziren tiroka. Igandeetan Orioko mutil koskorak hondartza hartara joaten ziren paseoan Don Sotero apaizarekin eta soldaduek han utzitako bala-zorroak biltzen ibiltzen ziren.

Urtean behin, 'jura de bandera' ekitaldia egiten zuten Zarauzko Munoan hango soldadu guztiek. Urte batean, zerbaitengatik Zarautzen ezin zela-eta, Orioko plazan egin zuten.

Kanpamentu hartan egondako soldaduak igandean Orioko eta Zarautz aldera jaisten ziren, soldadu-jantzian, herriko tabernetara eta paseatzera. Paseo haietatik sortu ziren zenbait harreman eta soldadu haietako batzuk Orion geratu eta familia sortu zuten.

Francoren erregimena egonkortu eta haren iraunkortasuna arriskutik kanpo ikusi zutenean, mobilizatutako tropen kopurua gutxitu egin zuten agintari militarrek. Gainera, 1950eko hamarkadaren erdialdean Irungo Bentas aldean kuartel berria eraiki zuten eta hara eramanez ordu arte kanpamentuotan sakabanatuta egondako soldaduak. Horrek ekarri zuen kanpamentuen bukaera. Kanpamentua kendu zutenean, harrobi bat egin zuten eremu hartan, pabiloi industrialak, porlan enpresa bat eta zerrategi bat.

Francoren bisita kanpamentura

Franco 1945eko irailaren 20an bisitan izan zen Aian. Bisita haren berri ematen du Karkara aldizkariaren 98. zenbakiko erreportajeak, 'Franco gure artean'. Honela dio hango pasarte batek: "Orioko gainean zeuden soldaduak maniobra militarrek egitekotan ziren Eztenaga baserri inguruan eta Franco, Donostian zegoenez, maniobra horiek ikustera etorri zen eta, bide batez, Aia

bisitatu eta soldadu horiekin batera bazkaltzera. Berak esan zuen tiro batzuk jotzera etorri zela”.

Hurrengo eguneko La Voz de Españako titularrek ziotenez: “El Generalísimo asistió a un ejercicio táctico de la División 162. Oró en la iglesia de Aya, rodeado del fervor de los soldados y el pueblo”. Goizean abiatu zen Franco Aieteko jauregitik Orio gaineko kanpamentura. Legazpi 123 batailoiko soldaduak bidean zituen zain, ohorezko desfilea egiteko. Iritsi zenean, sekulako harrera egin zioten militarrek, Espainiako himnoa kantatuz. Handik Aia aldera abiatu zen Franco, maniobrak ikustera. Soldaduek Eztenaga ingurutik Villabonara doan bidera pasa behar zuten, etsaiak han baleude bezala. Agerri Buru inguruan tribuna moduko bat jarri zuten, Francok maniobrak handik ikusteko. Haiek bukatuta, jeneralak Aiara jo zuen. Bere ohorez jarritako arkupe erramuz apaindutik egin zuen sarrera. Handik plazan sartu zen, berarekin zetozen militarrekin. “El vecindario dispensó al Caudillo un entusiástico recibimiento, aplaudiéndole y vitoreándole sin cesar”. Plazan zain zituen Aiako agintariak, eta jendearen artean polizia sekretu asko, eta eskolako haurrak Espainiako banderak eskuan zituztela, mojek aurretik emanda. Ondoren, Franco elizan sartu zen paliopean, han ‘Salvea’ eta Espainiako himnoa kantatu eta atera ziren plazara.

Kanpamentuan geratutako tankea

Kanpamentua egon zen eremuan, barrakoiak lurra-ekin berdindu eta kanpamentuaren ia arrastorik batere geratu ez zenean, tanke batek iraun zuen han zenbait urtez. Dirudienez, han egondako soldaduek eraikitako itxurazko tankea zen. Inguru hartako etxe bateko hurrek tanke hura izan zuten jostailu hartzaroan, haren gainean jolasten ziren.

Behin, hango mutilak tanketik gertu zerbait metalikoa topatu zuen lurrean, erdi lurperatuta. Mailu batekin gailu hura jo eta jo ari zen umea, harik eta zaratak aita erakarri zuen arte. Burdinazko jostailu hura bonba bat zen, lehergailu bat, gerra garaitik han, erdi ezkutuan, geratutako bonba, artean lehertu gabea. Ez zen ezer txarrik gertatu. Aitak guardia zibilei deitu eta haiek eraman zuten bonba handik.

Xuai gaineko kanpamentuaren planoak. Handik ehundaka soldadu pasatu ziren, Orion eta Zarautzen arrastoa utzi zutenak.



Remigio Lertxundiren zigorra

Remigio Lertxundi eta Santi Loidi txistulariak, Orioko plazan.



1 960ko abuztuan Remigio Lertxundiren Oa kaleko etxera gizon bat ate joka joan zen. harekin hitz egin nahi zuela, eta “¿conoce Usted a Joseba Gereka?” eta gazteak, zetorkionari susmoa hartuta, “es difícil conocer las personas”, eta “sí, sí, ya veremos, soy policía, lléveme a su despacho”. Etxe hartan ez zen despatxurik eta berak egurra lantzeko zeukan gelara eraman zuen. Etxe guztia erakutsi zion, baina prestatzen ari ziren antzerki baterako paperak bakarrik topatu zituen. Haiek hartuta joan zen etxetik.

Paperengatik ez zuen beldurrik. Joseba Gereka zarauztarra zen, EAJkoa, EGiko gazteekin ibiltzen zena. Gereka Iparraldera joan eta handik partiduaren panfleto batzuekin itzultzen zen, Gipuzkoako kostaldeko herrietan banatzeko. Remigio inoiz egona zen bileraren batean Zarautzen. Paskin haietakoren bat etxera eraman ere egin zuen. Haren ama Gregori Akañak gustura irakurtzen zituen, baina irakurri ahala erre edo ezkutatu egiten zituen, zuhurtzia handiz, ez aurkitzeko moduan. Panfleto haietakorik ez zuen topatu bat ere poliziak.

Handik egun batzuetara bat ez, bi gizon etorri zitzaizkion etxera. Dikeko etxe zahar batean zegoen guardia zibilen kuartelera eraman zuten. Han zela, arrebak bertaratu ziren, anaiaren galdezka. Herriko alkatea ere bai, orduan Anjel Iturri zegoen alkate, lasai egoteko esanez, bera saiatuko zela gaztea handik onik ateratzen. Ilundu eta gero galdeketa bat egin zioten. Orduan jakin zuen: Joseba Gereka harrapatu zuten Donostiako Amarako tren-geltokian, Hendaiatik bueltan zetorrela, gabardinapean pakete batean EAJren paper klandestinoak zekartzala. Paper haiekin batera, gabardinaren patrika batean zerrenda bat harrapatu zioten. Huraxe izan zen txarrena. Zerrenda hartan, besteak beste, Remigioren izena zetorren.

Orioko kuarteletik atera eta furgoneta batean sartu zuten. Barruan beste gazte batzuk ere bazeuden, Zarauzko bileretako ezagunak. Donostiara eraman zituzten, Antiguako guardia zibilen kuartelera. Banan-banan galdekatu zituzten. Bi ez beste guztiak Martutenera eraman zituzten. Beste biak, berriz, askatu, gaueko hamarrak eta erdi zirela: Remigio eta getariar bat, Azkue. Ordu hartan kalera aterata, autobusik ez zuten eta oinez abiatu ziren. Irubidetik Txanka bitartean ez zen auto bat bakarra ere pasa. Txanka parean, automobil bat zetorrela sumatu zuten. Gauerdi ingurua zen. Auto ofizial bat zen, inspektore batzuen edo, ezin zutela inor hartu eta oinez segitu beharko zutela. Orioraino oinez ailegatu ziren. Han, Remigiok bizikleta utzi zion getariarri. Argia ere bazuen bizikletak eta lagunak ez zuen arazorik izan etxerateko.

Etxera iritsi eta egun gutxitara, dei bat jaso zuen Zarautzik, hango adineko abertzale batena. Hauxe esan zion: “Remigio, ez diat esango zein naizen, baina kontuz ibili hadi, erne, zuek ez zaituztete libre utzi, zuen atzetik ibiliko dituk, nondik nora eta zertan zabilzaten zaintzen, horregatik eta horretarako esan dizuete libre zaudetela. Kontuz!”.

Zarauztarrak arrazoi zuen. Handik egun batzuetara, karta bat jaso zuen Remigiok etxean. Oraindik ere gogoan du gutun hark zioena: “sin excusas ni pretextos, tenga la voluntad de presentarse en la oficina de Loyola, en tal día”. Ezin zen bestela izan, kartak agintzen

zuen egunean tren hartu zuen Donostia aldera. Tren hartan zihoan Azkue, Getariako bere laguna ere. Loiolako kuartelera joan, han tramite batzuk egin eta handik Martutenera eram zituzten, esku-burdinekin lotuta. Han topatu zituzten Antiguako guardia zibilen kuarteletik eramandako gainerako gazteak.

Remigiok bi hilabete eta erdi egin zituen kartzelan. Denbora tarte hartan, hogeitau egunez inkomunikaturik eduki zuten. Urriaren 26an askatu eta azaroaren 26an ezkondu egin zen, kartzelatik atera eta hilabetera.

Udaletzeko ikurrina, ezkutura

1 977ko urtarrilaren 19an, ikurrina legalizatu zuten egunean, Juan Erzilla zenaren suhi Iñaki Lasak atera egin zuen 1936ko uztailaren 18tik ezkutatuta egon zen ikurrina, gerra aurreko Orioko Udaleko ikurrina. Egun hartan, ikurrina hura berriro eram zen Orioko udaletxera. Ikurrina eramateko masta Inazio Sarasuari eskatu zion. Ikurrina udaletxera eramateko ohorea, gerran ibilitako hiru gudariri eman zien, Jose Mari Solaberrieta, Gabriel Loidi eta Jose Migel Leundari. Hainbat herritarrekin batera, kalejiran joan ziren erzillatarren etxetik, txistularien bandaren doinuak alaituta.

Udaletzeko balkoian zabaldu zuten. Horretarako, Lasak orduko alkate Jesus Mari Aiestaranen baimena eskuratua zuen. Baina ikurrina ez zen bakarrik egon, guardia zibilak, gertatuko zenaren jakitun, aurreratu egin ziren eta Espainiako bandera hori-gorria jarria zuten balkoi hartan.

Ikurrina hura, lehenengo, Manuel Peña aguazilaren etxean egon zen ezkutatuta; nazionalen tropak 1936ko irailean herrian sartu aurretik, Juanita Elorriaga haren emazteak udaletxetik hartu eta etxera eram baitzuen. Gerra bukatu zenean, Juan Erzillaren emazte Margarita Etxeberriari eram zion etxera, berak gorde zezan, poltsa baten barruan ederki gordeta. Horrela egin zuten, eta han egon zen gordeta 40 urtez. Etxe hartako umeek ere ez zuten jakin ikurrina haren berri.

Juan Antonio Erzilla Aresok esanda dakigu ikurrina hura Orioko hiru emakumek egin zela: Jesusa Aiestaran, Jesusa Mitxelena (tiroz hil zuten Teodoro Mitxelenaren arreba) eta Margarita Etxeberriak. Juan Antonio Erzillaren bertsioaren arabera, ikurrina egin zuten Niceto Alcalá Zamora Espainiako II. Errepublikako presidentek 1932an Zarautza egin zuen bisitan Oriotik pasatzen zenerako, udaletxean ez baitzegoen ikurrinarik presidentearen harrera-ekitaldirako.

1977ko urtarrilaren 19an, 40 urtez ezkutuan egondako gerra aurreko ikurrina Erzillanetik atera eta udaletxera ekarri zutenekoa.



«Inexcusablemente los castigos serán ejemplares, por la seriedad con que se impondrán y la rapidez con la que se llevarán a cabo, sin titubeos ni vacilaciones».

Francisco Franco Bahamonde

Jefe de Estado



Francisco Franco, Aiako elizako sarrean, paliopean, herriko alkatearekin hizketan.

Francó, Orioko Ohorezko Alkate 2008 arte

Erregimen frankistak, irauteko, Franco caudilloa jarri zuen egitura haren ardatz, eta hura edonon eta edonoz presente egoteko moduak bilatu zituen. Euskal Herriko herri askotan frankismoak eratutako udal berriek seme kuttun izendatu zuten Francisco Franco. Esate baterako, Gernikako Udalak, alemanen abioiek bonbardatu eta txikitutako herrikoak horixe egin zuen, 1946ko martxoan: seme kuttun izendatu; gainera, hogei urtera, 1966an, herriko urrezko domina eman zioten. Antzera jokatu zuten Arabako eta Nafarroako Diputazioek ere. 1963an, Francoren biloba Donostiako haurren danborradako ohorezko jeneral izendatu zuten...

Orion ere Franco ohorezko alkatea izan da modu ofizialean 1949ko abuztuaren 13an horrela izendatu zutenetik 2008ko azaroaren 27ra arte. Egun hartan Orioko Udalak mozio bat onartu zuen aho batez, izendapen hura ezerezean uzteko. 2008ko mozioak honela zioen hitzez hitz:

Orioko Udalak, 1949. urteko abuztuaren 13ko udalbatzarrean, Francisco Francoren aldeko aldarrikapena egin zuen, gure herriak hari omen zion 'miresmena eta maitasuna' adieraziz eta 'Espainiako Caudilloa Udalerriko Ohorezko Alkate' izendatuz. Orain dela aste batzuk 33 urte bete ziren diktadorea hil zenetik, baina izendapen horrek oraindik indarrean segitzen du.

Orio 1936ko irailean okupatu zuten errepublikaren eta demokraziaren kontra altxatutako tropa militarrek. Okupazioaren ondoko egunetan herriko zenbait jendeak zigor umiliagarriak jasan zituen; urriaren 24an herritar bat asasinatu zuten Xuai gaínean, Teodoro Mitxelena Zumeta. Francoren tropek izugarrikeriak egiten segitu zuten; horien artean larrienak, Euskal Herrian, Durangoko eta Gernikako bonbardaketak, izugarritzko biktima kopurua eragin zutenak. Bidegabekeriaren zerrenda horretan sartzekoak dira, bestalde, gerra bukatu ondoren ere egindako erailketak, kartzelatzeak, eta gure kulturak eta bereziki euskarak sufritu zuten jazarpena.

Aipatutako arrazoi horiengatik guztiengatik, eta eskubide zibil, politiko eta sozialak babesteagatik erail edo espetxeratu zituzten oriotar guztien oroimena berreskuratzeko, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Alkate izendapena kendu behar zaiola uste dugu. Eta, abenduaren 26ko 5/2007 legean oinarrituz, non gerra zibilean eta diktadurapean bortxa edo pertsekuzioa jasan zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen diren eta neurriak hartzeko eskatzen den, honako hau proposatzen diogu Orioko Udalbatzarrari:

LEHENENGO: *Francisco Francori Ohorezko Alkate izendapena kentzea, 1949ko abuztuaren 13ko akordioa baliorik gabe utziz.*

BIGARREN: *Errekonozimendua adieraztea Orion gerra zibilean eta Francoren diktadurapean erailak edo zapalduak izan ziren herritar guztiei.*

Orion, 2008ko azaroaren 27an.

1936ko gerraren kronologia

1931/04/14: Espainiako II. Errepublikaren aldarrikapena.

1936/03/07: Juan Jose Iturainek alkate kargua utzi.

1936/03/09: Juan Erzilla alkate izendatua, udalbatzaren bozketa bidez.

1936/06/02: Udalbatzaren aktan Ramon Loidi agertzen da alkate.

1936/07/18: Matxinoen altxamendua.

1936/07/24: Ez-ohiko udalbatza, herriko gasolina-hornigailua Frente Popularrarentzat konfiskatzeko.

1936/08/11: Jose Maria Altzibar Itziarko apaiza anarkistek eraila Botalekun.

1936/09/06: Jose Maria Carmona fusilatua Ondarretako kartzelan.

1936/09/12: Donostiatik iheslariz betetako trena Zarautzen.

1936/09/13: Donostia nazionalen esku.

1936/09/15: Mendizorrotz nazionalen esku.

1936/09/16: Errepublikaren aldeko tropek Orio utzi. Andatza mendia nazionalen esku.

1936/09/18-20: Orioko bi zubien leherketak.

1936/09/18: Pagoeta eta Usurbil nazionalen esku.

1936/09/20: Aia, Orio eta Zarautz nazionalen esku.

1936/09/24: Udal berriaren osaketa Orioko buru militar Epifanio Etxeberriak egindako deiari erantzunez. Nemesio Ondoizabal herriko alkate izendatua.

1936/09/29 Hiru neska zigortu ilea moztuta kalean gora eta behera ibiltzera jende aurrean.

1936/10/01: Francisco Cazón Arin y Embil-eko langilea eraila Aizarnazabalaren.

1936/10/2: Orioko erreketearen osaketa.

1936/10/05: Bilboko Burdin Hesia eraikitzeko lanen hasiera.

1936/10/08: Jose Antonio Agirrek Eusko Jaurlaritzaren lehendakari karguaren zina.

1936/10/9-10: Fusilamenduak Xuain.

Urrian Gregorio Zaldua fusilatuko zuten; zuloa egiten ari zela, haren emazte Josepa Tolosa bertara joan eta senarrari bizia salbatu.

1936/10/10: Udalak Espainiako bandera erosi.

1936/10/24: Teodoro Mitxelena Getarian fusilatua.

1936/10/27: Gabino Alustiza Aiako alkatea Hernanin fusilatua.

1936/11/10: Alkate berria herrian: Jesus Carmona. Santiago Azurza herriko idazkaria kargutik kendua.

1936/11/30: Estatuko udal langile guztiak kargugabetuak behin behinean.

1936/12/02: Udaletxeko bi langile behin betiko kaleratuak: Joakin Aldabe (administratzailea) eta Eugenio Lasa (botikaria).

1936/12/07: Zenbait fusilamendu Xuain.

1937/01/18: Ignacio Barjacoba, udaletxeko administratzaile berria, kargugabetua.

1937/01/28: Daniel Esnal udaleko bake-epailea kargutik kendua.

1937/03/04: Constancio Quintana udaleko idazkari izendatua behin behinean eta deialdia haren postua betetzeko.

1937/03/05: Matxitxakoko itsas gudua.

1937/03/23: Herriko kaleen izenak aldatuak.

1937/04/26: Gernikako bonbardaketa.

1937/04/10: Udaltzako Josefa Antonia Esnali eliza garbitzeagatik ordaintzen ziona bertan behera uzteko erabakia.

1937/05/12: Habana itsasontzia Santurtziko portutik abiatu zen 4.000 inguru haur euskaldunekin.

1937/06/18: Arin y Embil lantegiko ondasunen inkautazioa.

1937/06/19: Bilbo nazionalen esku.

1937/08/21: Santoñako hitzarmena.

1937/09/24: Tolosar bat eraila Zudugarain.

1938/05/22: Iruñeko San Kristobal gotorlekuko ihesaldia.

1939/01/15: Antonio Ibargoien gaztea etxean bertan hila istripuz granada bat eskuartean lehertuta.

1939/01/26: Bartzelona nazionalen esku.

1939/03/28: Madril nazionalen esku.

***1939/04/01: Gerraren amaiera aldarrikatu Francok.**

1939/09/03: Oria errio gaineko zubi berriaren inaugurazio ekitaldia.

1939/11/16: Zenbait oriotarren ondasunak konfiskatu eta enkantean eskainiak.

1939/04/04: Udalak festa egunak antolatzeko erabakia gerraren amaiera ospatzeko (apirilaren 8, 9 eta 10erako).

1939/04/25: Errepublika garaian irabazitako banderei beheko kolore morea kendu eta gorria jarrita eraldatzeko erabakia Udalak.

1940 eta 1941ean zehar: Epaiketak Iruñean Orioko 27 herritarren kontra.

* Letra beltzean agertzen direnak gerrari buruzko datu orokorrak dira, gainerakoak, Oriokoak.

Gerrak kolpatu zituenak:

FRONTEAN HILAK				
HERRITARRAK	JATORRIA	EZAUGARRIAK	NON HIL	EGUNA
Agote Santamaria, Jacinto	Bermeo/Orio	gudaria	Otxandio	04/04/37
Aldaz Etxezarreta, Jose	Orio	nazionalen bandokoa	Tarragona (Ebroko bataila)	10/08/38
Arostegi Camino, Juanito	Orio	nazionalen bandokoa	Batea (Ebroko bataila)	13/09/38
Arozena Merikaetxeberría, J. M.	Zarautz/Orio	nazionalen bandokoa	frontean	14/02/39
Arruabarrena Arruti, Jose	Orio	nazionalen bandokoa	Silverio, Teruel (Ebroko bataila)	17/05/38
Arruabarrena Zubiria, Jose	Orio	nazionalen bandokoa	Valls (Ebroko bataila)	22/01/39
Arruti Lertxundi, Jose Mari	Orio	nazionalen bandokoa	Ogern, Lleida (Ebroko bataila)	01/04/39
Barjacobá Martínez, Ignacio	Zierbana/Orio	nazionalen bandokoa	Huesca (Ebroko bataila)	15/12/38
Del Puerto Tolosa, Bonifacio	Orio	gudaria	Donostia, ospitala	04/09/36
Dorronsoro Irastorza, J. Manuel	Orio	gudaria	Areces (Asturias)	23/02/37
Eizagirre Peña, Jose Maria	Orio	nazionalen bandokoa	Bot, Tarragona (Ebroko bataila)	02/09/38
Lizaso Eizmendi, Alejandro	Orio/Erreñteria	gudaria	Otxandio	05/04/37
Martinez Amelburu, Prudencio	Orio	gudaria	Erreñteria	06/09/36
Oliden Zaldua, Ramon	Orio	nazionalen bandokoa	Puebla de Mazulca,(Ebron)	29/07/38
Rekondo Torregarai, Asensio	Orio	nazionalen bandokoa	Teruel (Ebroko bataila)	24/04/38
Rodríguez Canton, Candido	Bilbo	milizianoa	Aia	20/09/36
Sagarna Orbegozo, Domingo	Orio	nazionalen bandokoa	Melillako ospitala	14/01/38
Sánchez de Luna Barenas, Antonio	Bilbo	milizianoa	Aia	20/09/36
Santamaria Arruti, Jose	Orio	nazionalen bandokoa	Alcañiz, Teruel (Ebroko bataila)	28/03/38
Uranga Garate, Juan	Orio	gudaria	Legutio	04/12/36
Uranga Irigoien, Ambrosio	P. San Pedro/Orio	nazionalen bandokoa	Cabo de Palos (<i>Baleares</i>)	06/03/38

ERAILAK/FUSILATUAK				
HERRITARRAK	JATORRIA	EZAUGARRIAK	NON HIL	EGUNA
Aginaga Otegi, Juan Bautista	Usurbil	EAJko kidea	Xuai gaina	10/10/36
Agirre Gallastegi, Julian	Aia	Olaskoaga Azpiko mutila	Meagas gaina	10/10/36
Aierbe Aierbe, Felipe	Ataun/Orio	mikeletea Orion	Bilboko kartzela	19/03/38
Aizpurua Alkorta, Francisco	Usurbil	EAJko kidea	Xuai gaina	10/10/36
Alustiza Etxeberria, Gabino	Segura/Aia	Aiako alkatea	Hernaniko kanposantua	27/10/36
Altzibar Gorostola, Jose Maria	Mutriku	Itziarko apaiza	Botaleku	10/08/36
Carmona Pérez-Agote, Jose Mari	Orio	eskuindarra	Ondarretako kartzela	06/09/36
Cazón Pelaez, Francisco	Málaga	Arin y Embil-eko langilea	Aizarnazabal	01/10/36
Erbout, Roger	Armenax le Val, Frantzia	notarioa	Xuai gaina	07/12/36
Martínez, Simon	Orio	kanpotarra	Xuai gaina	07/12/36
Mitxelena Zumeta, Teodoro	Orio	STVko kidea	Getariako kanposantua	24/10/36
Ponga Martínez, Elicio	Leon, Tolosan bizi zen	ezkerreko milizianoa	Xuai gaina	24/09/37
Saizar Arteaga, Valeriano	Billabona	EAJkoa	Xuai gaina	09/10/36
Yaguez Beristain, Cosme	Usurbil	EAJko kidea	Xuai gaina	10/10/36
ISTRIPUZ HILAK				
HERRITARRAK	JATORRIA	EZAUGARRIAK	NON HIL	EGUNA
Ibargoien Iribar, Antonio	Orio	granada bat lehertuta	Orio, etxean bertan	15/01/39
ERBESTERATUAK				
HERRITARRAK	JATORRIA	EZAUGARRIAK	NORA	
Arostegi, Joakin	Orio	apaiza	Lapurdi, Frantzia eta Cantabria	
Arostegi, Joxemari	Orio	enpresaria	Lapurdi	
Arruabarrena, Domingo	Orio		Frantzia	
Atorrasagasti, Jesus	Orio	Marrota baserrikoa	Biriatu	
Bengoetxea, Maria, seme-alabekin	Orio	etxeoandrea	Capbreton	
Erzilla, Juan	Orio	Orioko alkate izana	Frantzia	
Esnal, Jose	Orio	enpresaria	Frantzia	
Fernandez Korta, Modesto	Zarautz, aita oriotarra	haurra	Ingalaterra	
Genova, Luis eta familia	Orio	arrantzalea.	Lapurdi, Cataluña eta Frantzia	
Gómez Mateo, Rita	Donostia	Orioko maistra	Ingalaterra	
Iturain Peña, Juan Jose	Orio	Orioko alkate izana	Donibane Lohitzune	
Lertxundi Oñederra eta familia	Orio	Errepublikaren komisario buru	Frantzia eta Argentina	
Pampliega Lonbide, Begoña	Orio		Donibane Garazi	
Makazaga, Gregorio, Modesto, Andres eta Jose	Orio	Oribarzar baserrikoak	Frantzia	
Recondo Torregarai, Carmelo	Orio	EAJko kidea	Le Havreko portutik Flandre untzian	
Salsamendi, Manuel (Ferru)	Orio	EAJko kidea	Lapurdi, Capbreton	

LANETIK KANPORATUAK			
HERRITARRAK	JATORRIA	KARGUA	EGUNA
Aldabe Juanikotena, Joakin	Orio	herriko administratzailea	02/12/36
Azkue Zabala-Antxieta, Luis	Orio, Tolosan bizi zen	Tolosako medikua	
Azurza, Santiago	Orio	herriko idazkaria	10/11/36
Bandres Azkue, Ramon	Orio, Tolosan bizi zen	Tolosako udaleko idazkaria	
Barjacobá Martínez, Ignacio	Orio	herriko behin behineko administratzailea	18/01/37
Esnal, Daniel	Orio	herriko udaleko bake-epailea	28/01/37
Esnal, Josefa Antonia	Orio	elizako garbitzailea, soldata kendu egin zioten	10/04/37
Lasa Etxebarrena, Eugenio	Orio	botikaria	02/12/36
ERREPRESALIATUAK/ZIGORTUAK			
HERRITARRAK	JATORRIA	ZIGORRA	
Agote, Jose	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua	
Aierdi Barandiaran, Jose	Orio	preso, Medina de Rio Secon	
Aierdi Behobide, Narciso	Ataun	herriko ziegan espetxeratua, zigor ekonomikoa, Iruñean epaitua 1940an	
Aldabe Juanikotena, Joakin	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Alkorta, Lorenzo	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua	
Apellaniz, Jesus	Gasteiz, Orion bizi zen	gerra hasi berrikan atxilotua	
Aramendi Arruti, Jose Mari	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua, erasotua eta ondasunak lapurtua	
Arkauz Lopez de Bikuña, Agustin	Orio	frontean zauritua, sendatuta kartzelara	
Arostegi, Felipe	Orio	hilabete, Ondarretako kartzelan	
Arruabarrena, Dolores	Orio	ilea moztuta ibilarazi zuten kalean	
Arruabarrena Arruabarrena, Domingo	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Ayestaran Ayestaran, Jesusa	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Azkue Arruti, Eugenio	Orio	hainbat kartzelatan egon zen preso	
Azkue Zabala-Antxieta, Luis	Orio, Tolosan bizi zen	preso Tolosa eta Ondarretako kartzelatan	
Azkue, Vitorio	Oiartzun, Portusagasti baserrian bizi	1936/09/25ean Bilbon barku batean preso zegoela, hiltzen saiatu ziren	
Baorza Uldargi, Julio	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan	
Carmona, Jesus	Valladolid, Orion bizi zen	gerra hasi berrikan atxilotua	
Del Villar Cordon, Elias	Orio, Tolosan bizi zen	hainbat kartzelatan egon zen preso	
Enbil Gorriti, Enrique	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Enbil Gorriti, Jaime	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Erzilla Lopez, Juan	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Esnal Errasti, Jose	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Ezkurdia Aiestaran, Modesto	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Ezkurdia Aiestaran, Segunda	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an	
Galdama, Avelino	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua	
Ibáñez, Agustin	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua	
Intxauspe Genova, Jose	Orio	gerra hasi berrikan atxilotua	
Iñarra Orbegozo, Ignacio	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan	

Larrañaga Sancho, Antonio	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan
Lasa Etxebarrena, Eugenio	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Lekuona Erreka, Anjel	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan
Lertxundi Ibargoien, Remigio	Orio	gerra ondoren preso
Lizaso Eizmendi, Felipe	Orio, Errenterian bizi zen	Epaitu eta hiltzera zigortua. Konmutatua. 30 urteko kartela-zigorra
Loidi Peña, Fabian	Añorga guraso oriotarrak	Tetuanera bidalia gerra garaian, Karrantzara gerra ondoren
Loidi Zendoia, Ramon	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Loidi, Gabriel	Orio	Bi aldiz espetxeratua: Burgos eta Asturiasen
Lopetegi, Manolo	Orio	Igeldon jipoitua
Manterola Lizaso, Ignacio	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Manterola, Rosario	Orio	hilabete Ondarretako kartzelan
Manzisor Solaberrieta, Marcelino	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Murgiondo Arana, Jose Manuel	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan
Oliden Lertxundi, Martin	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Peña Sedano, Ulpiano	Manzanedo, Burgos	Pontevedran esptxeratua, Baionara erbesteratua
Perez Agote, Ramon	Orio	Gerra hasi berrikan atxilotu eta dirua ostu zioten
Perez Lopez, Jose	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Pérez, Joakin	Orio	Gerra hasi berrikan atxilotua
Rekondo Irazu, Agustin	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Salsamendi Illarramendi, Miguel	Orio	Iruñean epaitu eta zigortua 1940an
Salsamendi, Mercedes	Orio	ilea moztuta ibilarazi zuten kalean
San Sebastian Eizagirre, Jose Maria	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan
Solaberrieta, Jose Mari	Orio	Zornotza eta Valdemoron espetxeratua
Uranga Garate, Roke	Orio	Gurseko kontzentrazio-eremuan
Urdangarin Goikoetxea, Felipa <i>Ataun</i>	Ataun	ilea moztuta ibilarazi zuten kalean
Zaldua Albizu, Gregorio	Orio	Hiltzera eramana. Iruñean epaitu eta zigortua
Zunzunegi Begiristain, Bernabe	Orio, Tolosan bizi zen	10 urte, hainbat kartzelatan

ONDASUNAK KONFISKATUTAKOAK

HERRITARRAK

Agote Urtezabel, Javier

Arbillaga Leturiondo, Josefa

Victor Embil Olaizola

Enrique Embil Gorriti

Jaime Embil Gorriti

German Arin y Embil

Cristino Arin Embil

Burgaña, Luis

Esnal, Daniel

Ibarguren Gómez, Florencio

Lertxundi Oñederra, Jose Benito

Loidi Iturzaeta, Florentino

Molinero Villarreal, Juan

Rekondo Irazu, Jose Agustin

Dokumentuak

- Gerra Zibila-Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. `Incautaciones en Orio´.
- Centro Documental de la Memoria Histórica, Salamanca. Comisión Provincial de Incautación de Bienes de Guipúzcoa. `Relación de administradores, bienes a administrar y nombres de los expedientados de Guipúzcoa. Año 1938´.
- Imanol Murua Uriak Renoko Unibertsitateko Euskal Gaien artxibotik bidalitako dokumentuak. `Basque Archive Collection Record. Uharte Jauregui Archive´.
- `Tribunal regional de responsabilidades políticas de Navarra´ izeneko erakundearen sententzien dokumentuak, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian daudenak.
- Jose Manuel Esnal Zulaikak utzitakoak.
- Matxitxako Elkarteko Presidente Juan Pardok bidalitako dokumentua, Serapio Gametxo Azpeitiari buruzkoa.
- Orioko Udalbatzen aktak.
- Orioko udal artxibategitik ateratako dokumentuak: Kinta-deialdiak...
- Azken urteotako Orioko Udaleko mozioak: 2010eko urriaren 26koa, Euskadiko memoriaren egunari lotua; 2008ko azaroaren 27koa, Francisco Francori Orioko ohorezko alkate izendapena kentzekoa.
- Donostiako Artxibo Historiko Diozesanoko agiritegia.
- Orioko elizaren artxiboa.
- Orioko EAJren batzokiko artxiboa.
- Aiako Udalaren artxiboa.
- Gerra garaiko prentsa: 1936ko irailaren 21eko Unidad egunkaria (Diario de combate nacional-sindicalista).
- Noticias de Gipuzkoa (2011). Jose Manuel Cifuentes. Valle de los Caidos.
- Martxiel Urkizuk utzia, Teodoro Mitxelenaren lur emateari buruzkoa.
- Aranzadi elkartearen txostena Jose Mari Dorronsorori buruzkoa, Eneko Dorronsoro Portularrumek utzia.

Lekukoak

Aierbe Arza, Jesusa
Azkue Aldaz, Luis
Agirre Genova, Rosa Mari
Agirre Genova, Faustina
Agirre Genova, Maribel
Agirresarobe Lopetegi, Jon *Torrotxo*
Agote Iñarra, Iñaki
Aldaz Etxezarreta, Juanita
Aldaz Garro, Eusebio
Altuna Etxeberria, Iñigo
Alustiza Aierdi, Anjel
Amilibia Indo, Juan Luis
Arin Embil, Jose Luis
Arrillaga Enbil, Iñaki
Arrillaga, Jose Manuel
Arrizabalaga Bengoetxea, Florentino
Arruabarrena Zubiria, Inazio
Arruti Lertxundi, Juanito
Atorrasagasti Manterola, Juana Mari
Azpiroz Aldaz, Ana Mari
Azpiroz Aldaz, Julian
Brit Aierbe, Joakin
Cotado Iturain, Maria Elena
Campos Illarramendi, Antonio
Dorronsorro Portularrume, Eneko
Eizagirre Peña, Kontxi
Elustondo Iruretagoiena, David
Erauskin, Xabier
Errasti Atorrasagasti, Jose Antonio
Erzilla Areso, Juan Antonio
Esnal Errasti, Enrike
Esnal Zulaika, Jose Manuel
Etxabe Zulaika, Xabier
Etxeberria Iñarra, Jose
Etxeberria Zubiria, Patxi
Fernandez Loiola, Jon
Garate Tolosa, Casilda
Genova Arrizabalaga, Rafaela
Genova Sarasua, Josune
Genova Uzkudun, Inazio
Goikoetxea Izagirre, Jakes
Gonzalez de Txabarri Alustiza, Jose Mari
Gurrutxaga Uranga, Amagoia

Huitzi Belamendia, Xabier

Iñarra Orbegozo, Maria
Intxauspe Etxabe, Donato
Irastorza Zabala, Luis *Itxaspe*
Iturain Arozena, Antonio
Iturain Arozena, Inazio
Lanberri Elizondo, Divina
Lertxundi Esnal, Anjel
Lertxundi Esoain, Benito
Lertxundi Ibargoien, Remigio *Centellas*
Lertxundi Ibargoien, Ester *Akaña*
Lertxundi Ibargoien, Joakin *Akaña*
Lertxundi Lizarralde, Igon
Lertxundi Lizarralde, Iñaki
Loidi Iruretagoiena, Juan Jose
Makazaga Loidi, Jose Migel
Manterola Agirrezabalaga, Imanol
Manterola Albizu, Unai
Manterola Azpiroz, Xanti
Manterola Iruretagoiena, Rafael
Miralles Arostegi, Maria Sagrario
Mitzelena Azkue, Antonio
Mitzelena Azkue, Mari Carmen
Murgiondo Aierbe, Joana
Murgiondo Aierbe, Martin
Murgiondo Olazabal, Maria Pilar
Olasagasti Arruti, Jose Mari
Oliden Gonzalez de Txabarri, Patxi *Danbolin*
Ostolaza Arkauz, Noemi
Pardo San Gil, Juan
Perona Lertxundi, Martin
Salsamendi Bengoetxea, Eleuteria
Salsamendi Uranga, Jose Ramon
San Sebastian Matxain, Luis Mari
Sarasua Arruti, Inazio
Segurola Alkorta, Luis
Solaberrieta Urdangarin, Teresa
Solaberrieta Zubizarreta, Anjel
Urkizu Arrizabalaga, Martxiel
Zaldua Albisu, Eugenio

*Zuei esker idatzi ahal izan da liburu hau,
zuen istorioen bidez osatutako historia da. Eskerrik asko.*

Bibliografia

- *Gipuzkoa, de ayuntamientos republicanos a franquistas 1936-1937*. ARANZADI.
- *Gerra zibila Gipuzkoan*, 1936. IÑAKI EGAÑA.
- *El otoño de 1936 en Guipuzcoa, los fusilamientos de Hernani*. MIKEL AIZPURI.
- *Zarauzko postalak, 36ko gerra*. AMAGOIA GURRUTXAGA URANGA.
- *Zarauzko folklorea*. XABIER ALBERDI eta XABIER ETXABE.
- *Usurbilgo memoria errepresiboa 1973-2002*. NOAUA.
- *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945*. MIKEL ERRAZKIN AGIRREZABALA.
- *Abertzaleak Zumaian: ibilbide luze baten arrastoan*. MIREN BARANDIARAN CONTRERAS.
- *Un gudari navarro en los frentes de Euzkadi-Asturias-Cataluña*. JOSE ESTORNES LASA.
- *Los campamentos militares en 1951*. JUAN ANTONIO SÁEZ GARCIA.
- *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. EDITORIAL AUÑAMENDI.
- *Historia de la llegada de los niños vascos a Inglaterra*. **NORENA???**
- *Fabian Loidi Peña (1908-1985)*. ALEX AISA
- *Oroitzapenak*, JOAKIN AROSTEGIREN AUTOBIOGRAFIA.
- *Patxi Etxeberria, 50 urtez plazagizon, hizketan bezala bertsoan*. XABIER LASA.
- *Gerra andoaindarren begietatik*. XABIER LASA.
- *La guerra civil en Guipuzcoa*. PEDRO BARRUSO.
- *Orioko Historia argazkitan*. IÑAKI ITURAIN.
- *Gogoz kontrako pausoak*. JOSE AZPIROZ. Auspoa liburutegia.
- *Jesus Apellaniz*. JOSE ANTONIO GARCÍA DÍEZ. Caja Vital Kutxa. 1994
- *Prietas las filas. Las Falanges Juveniles de Franco*. JOSÉ IGNACIO CRUZ.
- *Los crímenes de Franco en Euskal Herria (1936-1940)*. IÑAKI EGAÑA. Txalaparta
- *GURS El campo vasco*. JOSU CHUECA. Txalaparta.

- *1936ko gerrako oroitzapenak tolosaldean eta leitzaldean.* MIKEL ERRAZKIN AGIRREZABALA.
- *El abrazo de los muertos.* JOSE DE ARTECHE.
- *Un vasco en la postguerra (1939-1971).* JOSE DE ARTECHE.
- *Cárceles y campos de concentración en Bizkaia (1937-1940).* ASCENSIÓN BADIOLA.
- Karkara Orio eta Aiako herri-aldizkaria.
- Donostiako Koldo Mitxelena kulturguneko hemeroteka.
- *Nuevo trabajo de Euskal Memoria.*

Argazkiak

- Orioko zenbait herritarrek utziak.
- Juana Mari Atorrasagastiren bilduma.
- Orioko Udalaren artxibokoak,
- Aiako Udalaren artxibokoak.
- Virgen de Iciar guda-ontziarenak Juan Pardok.
- Amagoia Gurrutxagaren `Zarauzko postalak´ blogekoak.
- Jose Luis Gorospe Leturiarenak (1936an lehertutako zubienak), haren seme Luis Gorospe Rodríguez del Castillok bidaliak.
- Zarauzko Fotomuseum.
- Kutxaren Fototeka.
- Guregipuzkoa.net